KIRMEN URIBE

ELKARREKIN ESNATZEKO ORDUA

Kirmen Uribe

ELKARREKIN ESNATZEKO ORDUA

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2016 Kirmen Uribe
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2016ko azaroa
Edizio hau: 2016ko azaroa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Istorioa banekien. Egiarik ez, ordea.

CARLOS FUENTES

Karmele Urrestiren lehen oroitzapena

1

Kontakizun zenbait idazlearen gogoan bizi litezke urte askoan, paperera ekarri baino lehen; gehienak oroimenaren ilunpeetan galtzen dira, sekula hezurmamitu gabe, baina gutxi batzuek eutsi egiten diote denboraren joanari. Horietako bat da orain datorren hau.

Urresti familiari buruzkoak entzunak nituen etxean. Zer esanik ez, Ikerne Letamendi Urrestirenak, gure amaren adinekoa baita; txikitatik izan dira lagunak eta Ikerne oporraldian Ondarroara etortzen zenetan elkarrekin irteten ziren kalera. Amak kontatzen zidan, liburuak erosteko etxean dirurik ez zegoenez,

Ikerneren aitona-amonen bizilekura joaten zela liburuak irakurtzera, Antsosolora. Gure ama ordua baino lehen agertzen zen, eta halatan, Ikerneren aitona-amonek liburutegian zain egoteko eskatzen zioten, bilobak bazkaltzen amaitu artean. Gure amak ordu erditxo hura baliatzen zuen irakur zaletasuna asetzeko.

Behinola, unibertsitate ikasketak egiten ari nintzela, gure etxera bisitan etorri zen Ikerne, bere ama Karmele Urrestirekin batera. Urteetan sartuta egon arren, emakume dotorea eta buru argia begitandu zitzaidan Karmele. Bere bizitzako kontuez aritu zitzaidan, alabak hala eskatuta, bazekien-eta ni literaturzalea izanik istorioak maite nituela; baina aitor dut, iraganari baino etorkizunari arreta gehiago jartzen zaion adin horretan, Karmele Urrestik aipatutako data eta izen amaigabeen artean zorabiatu egin nintzela. Eta orain damu dut emakume heldu hark sasoian zegoenean esandakoak zentzunez idatzi ez izana, eta galdekizun uztea burura jaiotzen zaizkidan itaun guztiak.

Nolanahi dela, Karmelerekin izandako hitzordu hura ez zait sekula atzendu; alderantziz, urteen poderioz hazten joan da neure barnean, ohartu bainaiz hark bizitakoak, orduan gertatu zenak, testuinguru hark, neurri batean, neure bizitzako istorioa osatzen

laguntzen didala, ulertzen nor naizen eta zergatik. Ez gara izaki isolatuak, gure garaiaren eta kulturaren eta hezkuntzaren oinordekoak baizik. Orobat, iraganarenak.

Beste kontu bat ere bada liburu hau idaztera adoretu ninduena. Nire emazteak 80ko hamarraldiko argazki bat erakutsi zidan: nesken futbol talde bateko kideak ziren hondartzan, bederatzi-hamar urterekin, irribarretsu, txikitan hondartzan jolasten baikinen futbolean, marea behera zenean; eta tartean zegoen bera ere, hantxe, baloia eskuan. Nesken futbol taldearen atzean kaiko muturraren harrizko horma ikusten zen, itzelezkoa, pintadez betea. Neure buruari galdetu nion, umeok nola izaten ahal ginen zoriontsuak halako tentsio politikoa zegoen herrialde batean.

Duda-muda eta atzera-aurreren ostean, 2010ean ekin nion azkenik Karmele Urresti eta bere belaunaldia ardatz izango zituen eleberriaren lanketari; ondo gogoan dut, Bostondik Providencerako tren bidaia batean hartu nuela erabakia, akaso norbera kanpoan dagoenean ikusten direlako gauzak argien. Eta egia da, bien bitartean beste nobela bat idatzi eta argitaratu dudan arren, ordutik hona ibili naizela Karmeleren bizitzaz eta garaiaz ikerketak egiten.

Thomas Mannek zioen, benetako gertaera bat idazteko premiazkoa dela hura jazo zenetik urte batzuk igarota izatea; edo, bestela, garai historiko berri batean sartuta egon behar duela gizarteak. Nahiz eta, agian, ez bata ez bestea suertatu ez diren, luze gabe helduko diot kontakizunari.

Familia baten bizitza da hau, herri oso batena ere izan litekeena.

2

1953ko martxoa edo apirila izango zen, Karmele Urresti azkeneko aldiz joan zela Mesedeetako Misiolarien Berrizko ikastetxera. Berantiar zetorren udalehena, ohikoa denez gurean, eta ia berrogei egunez euria egin ostean ateri argitu zuen egunak. Eguzkiaren berotasun erkinak goizeko lainoa saretu zuelarik larreen berdetasun dirdaitsua gailendu zen bazterretan.

Oinez egin zuen Karmele Urrestik tren geltokitik komenturako bidea, eta errepidean gora zihoala Oiz mendiaren azpian zabaltzen zen paisaia malkartsua ederra iruditu zitzaion une batez. Muino bizkarretan gandu multzoak desegiten ari ziren pixkanaka, sabel

biluzia estaltzen duen izara muturraren fintasun berarekin. Bere burua engainatu nahian pentsatu zuen, beharbada ez zela tokirik okerrena alabarentzat.

Alaba, Ikerne Letamendi, mendi buelta egitera joana zen gainontzeko ikaskideekin. Gaztetxoak irrikaz zeuden egurats zabalera ateratzeko, negu luzean eskola barrualdean jolastu behar izan zuten-eta. Goizean, erreka gaineko zubitxoa zeharkatu ondoren, aldapan gora arrapaladan egin zuten neskatoek, haien zaintzaz arduratzen zen lekaimeari aurrea harturik.

Bigarren lekaime baten irudi zuri-beltzak gora egin zuen bidezidorrean. “Visitacion!”, hots egiten zuen. Ikernek bazekien berari deika ari zitzaiola, baina ez zion jaramonik egin, olgetan jarraitu zuen ezer entzun izan ez balu bezala. “Nire izena ez da Visitacion, Ikerne baino”, murmurikatu zuen haserre, “Ikerne, euskaraz”.

Lekaimeak sorbaldatik heldu eta esan zion: “Visitacion, ama etorri da zu ikustera”. Hitzok entzun orduko, neskak korrika jaitsi zuen muinoa, ahal zuen bezain laster. Zabuka, betaurrekoak ere erori zitzaizkion zelaira. Eta lurrean, kristalen artetik belar lipitsek arto hostoak ziruditen.

Gabonetako oporretatik amarekin egon gabe! Hura ikusteko zirrara biziak galarazi zion bere buruari galdetzea zergatik joango ote zitzaion ikastetxera bisitan astegun buruzurian, ez ote zuen gertakari txarren batek bertara eraman. Ikerne jakinminez zegoen. Jantziak aldatu eta bisita gelara joan zen jauzi batean. Ez zuen lipar bat bera ere galdu nahi. Hantxe zegoen ama, dotore, goitik behera beltzez. Soinean zeraman jantziak areagotu egiten zuen haren begien iluna.

Karmelek aitona-amonen berri eman zion lehenik neskatoari, eta hain maite zuen izeba Anitarena. Ostean, bekokian aske zuen ile xerlo horia bere lekuan jarri eta esan zion:

– Ikerne, denboratxo batean ez dugu elkar ikusiko.

– Aste Santuko oporrak arte, badakit.

– Ez, gehiago. Hemen ez dut lanik aurkitzen eta Venezuelara noa.

– Venezuelara goaz? –esan zuen pozarren Ikernek–. Ze ondo!

Umea zela Venezuelan egona zen Ikerne; hiru urte besterik ez zituen handik itzuli zirenean eta, hala eta guztiz, Hego Amerikako herrialdeko oroitzapen bizi-biziak zituen: beroa, animalia eta landare bitxiak, aitarekin jolasten hondartzan. Txakur bat ere bazuten Ca-

racasko etxean, Txino deitzen zena. Behin, Txinok hozka egin zion Txomin neba txikiari eta...

Neskatilaren gomuta goxoetan ausiki baten eragina izan zuen amaren ahotsaren tonu serioak.

– Ez, Ikerne, ez didazu ulertu. Ni bakarrik noa. Zuek hemen geratuko zarete momentuz. Baina berehalaxe elkartuko gara familia osoa; zure neba Txomin eta Patxi, zu eta Iaurok. Bitartean, gutunak idatziko dizkiogu elkarri. Hemen utzi dizkizut lapitza, gutunazalak eta zigiluak.

Ikerne ernegatuta altxatu zen aulkitik.

– Lehenengo aita joan zen! Eta orain zu! Gorroto zaituztet!

Gogor egin zion amak:

– Txomin zintzo portatu da, zu baino txikiagoa izanda.

Negar zotinka hasi zen neskatoa.

– Utzidazu behintzat Santurtziko portura zu agurtzera joaten.

– Ezin da, Ikerne.

Amak malkoak lehortu zizkion harizko zapiarekin, eta poltsikoan sartu zion. Zapi haren lurrina usainduz hartuko zuen loak neskatilak gau hartan.

Karmele Urrestik *Marqués de Comillas* itsasontzia hartu zuen Venezuelara bidean. Bakarrik joan zen, seme-alaba nagusi biak barne-ikastetxeetan utzirik eta txikiena Ondarroan aitona-amonekin. Goiz alban, transatlantikoaren turrunak agurra jotzeaz batera Mesedeetako Misiolarien Berrizko komentuko ezkilek mezara deitu zuten. Jaunartzera sartu ziren ikasleak ilaran.

Ikerne azkena iritsi zen kaperara. Kapilaua sor eta lor geratu zen hura ikusi zuenean. Neskatoak betaurrekoen kristaletan bi zigilu itsatsita zituen, Franco diktadorearen bi aurpegi, arkatzez zirriborratuak eta buruz behera jarriak.

– Baina, Visitacion, ze atrebentzia da hori! Errespetua zor zaio buruzagi gorenari!

Komentuko Ama Nagusiak zakar heldu zion besotik.

– Ume madarikatua. Gogotik ordainduko duzu.

LEHEN ZATIA
1927-1943

Artisten gaua Ibaiganen

3

Antonio Gezalaren pintura bat erosi zuen Bilboko Udalak 2008an, Iuzaroan jabetza pribatuan egon ostean, Arte Ederretako Museoaren bildumarako. Mihisea, *Artisten gaua Ibaiganen* izenekoa, ez da oso handia, 90 x 95 zentimetroko neurria du, baina aurkeztu zuten egunetik piztu zidan arreta.

Deigarriena, lehen begiratu batean, koadroko atmosfera da, gau giroko eszena bat irudikatzen baitu: Bilboko jauregi batean ospatzen den festa 1927an. Berritzailea da margolana egin zen garairako; izan ere ordura arteko lanetan euskal margolariek nahiago zuten kanpoaldeko motiboak islatu, baina gizon-emakumeak erretratatuko bazituzten, egun argiz eta geldirik izango zen eskuarki.

Antonio Gezalaren olio-pinturan jauregi bateko hall zabalaren barnealdea ageri da, armiarma-lanparen argiek zoru distiratsuan islatu eta halako arrosa eta more tonuak barreiatzen dituzte gela osoan, itsa-

saldeko haitzetan marea behera denean azaltzen diren urmaelen kolore bera. Tokia gainezka dago, jende andana bildu da festara, baina ez dugu inor ezagutzen, bisaiak ezabatuta dituzte. Gizonezkoak frak jantzian daude eta emakumezkoak soineko laburrekin, gaueko hitzorduetako moduan, gehienak urdinez zein berdez eta bizkarra agerian, xal soil bat sorbaldetan. Haien guztien inguruan zerbitzariak dabiltza, erretiluekin kopak banatzen.

Koadroaren konposizioak piramide baten egitura du; alegia, ikusten ez den triangelu handi batek banatzen ditu koadroko elementu guztiak. Azpiko bi muturretan, ezkerraldean eta eskuinaldean, solasean ari dira bikoteak; eta goialdean, triangelua itxiz, hiru mastako belaontzi baten maketa dago sabaitik zintzilik. Bihotza, erdigunea, dantzan ari den bikote batek hartzen du eta, beraz, hara bideratuko da ikuslearen begirada. Gizonezkoak makila luze bat du eskuan, puntan koloretako lumak dituena, hegats gorri berde eta laruak. Muturrean borlatxo bat daukan kapela zuri luze bat darama buruan gizonak, lo egiteko erabiltzen ziren horietakoak iduri, eta kapela horrek berehalako kontrastea egiten du frak garestiarekin, dotoreziari txantxa eginez; ez horrek bakarrik baina, janzkiaren

gainetik tulezko gona arrosa bat baitu gerrian. Emakumezkoak, zeinari dantzaren eraginez soineko berdearen tirantea irristatu baitzaio sorbaldan behera, hegaldun kapela ñimiño bat du kopetaren alde batean. Gogotsu ari dira biak dantzan, gorputz adarrei agudo eragiten: emakumezkoa bernak gurutzatzen, eta gizonezkoa belaunak okertu eta izterrak zabaltzen, eskuan daukan makila bira eta bira mugitzen duen bitartean.

Benazki ematen du bastoiaren mugimenduak eta musikaren konpasek mugitu egiten dituztela koadroko elementuak: eskailerak, solairuetako eskudelak, hormetan eskegita dauden margolanak.

Itxura guztien arabera, 20ko hamarkadan entzute handia hartu zuen cake-walk izeneko dantzaz jostetan ari da bikotea. Estatu Batuetako hegoaldeko esklaboen dantza zen hura hastapenean; jopu afrikarrak traje dotorez janzten ziren, kapelu eta guzti, muturrean lumak zituzten makila luze bana eskuan. Gisa horretan janztea lurjabeei iseka egiteko modua zen; erdeinuz, aberatsen antzera janzten ziren baina oiloen modura egiten zuten oinez, horregatik lumen detaile hori. Esklaboen aburuz ugazaba zuriak pausaje traketsez ibiltzen ziren, eta dantzan ere halatsu, eta lurjabeen modu baldar haiek imitatzetik sortu omen zen cake-

walk delakoa. Denborarekin, beste askotan gertatu den bezala, jauntxoek bereganatu egin zuten dantza, eta modako bilakatu, aurrena Amerikako Estatu Batuetan, gero Parisen eta azkenik, kasurako, Bilbon.

Patioaren barrualdean lehen solairura igotzeko eskailerak ikusten dira, lerro diagonal bat eratuz mihisean. Eskaileren gainean, ezkerraldera, kolorez zamatuta dagoen lagun talde bat ageri da, horiek ere makila lumadunak eskuetan. Eta eskuineko aldean, eskailera azpian hain justu, musikariak daude, txairo, frakez jantzita; sei laguneko orkestra osatzen dute: banjoa, perkusioa, biolina, pianoa eta saxoa, eta pianoaren atzean, ia-ia ikusten ez dela, tronpeta.

Orduan ez nekien tronpeta-jole hori Txomin Letamendi Murua zela, nobela honetako bigarren protagonista.

4

Karmele Urrestik Parisen ezagutu zuen Txomin Letamendi, horren zalantzarik ez da, 1937ko abenduan. Karmelek hogeita bi urte zituen. Eta hogeita hamasei betetzear zegoen Txomin.

Lehen enkontruaren egun zehatzik ez baldin badakigu ere, Lipnitzki argazki estudioan ateratako erretratuan hantxe ageri dira, bata antzinako tronpetari gisa jantzita, bestea tradiziozko dantzari. Eresoinka izeneko erbesteratuen euskal enbaxada kulturaleko kideak ziren biak, eta erretratu hori atera zuten abenduaren 18, 19, 20 eta 23an Pleyel aretoan egin behar zituzten emanaldiak iragartzeko.

“Gerra galduko duzue, irabazi propaganda!”, horixe izan zen euskal gobernuari gomendatu ziona politikari batek (suitzarra ustez). Ziur aski, Jose Antonio Agirre presidenteak ia hasieratik barneratuta zuen ez zutela zeregin handirik Espainiako Gerra Zibilean. Iparraldeko frontea setiatuta eta isolatuta zegoen. Hegazkinik ezean, bolondresez osatutako ezohiko armada baten buru, noiz arte eutsi ahal izango zioten zen galdera oinarrizkoa. Nazioartetik zetorren beraien itxaropena: mendebaldeko demokraziek noizbait eten beharko zuten Francoren oldarra. Baina hori ez zen sekula gertatu. Frantziak eta Erresuma Batuak gatazkan parterik ez hartzea erabaki zuten laster, gertakizunak bere kabuz uztea, nahiz eta Alemaniak eta Italiak lotsagabe egin zuten Francoren altxamenduaren alde.

Gauzak horrela, ekainean Bilbo erori zenean mugaz bestaldera ihes egin zuten milaka lagunek. Dena ez zen hor bukatuko, ordea. Aurretik pentsatutako planei jarraiki, atzerritik lan egingo zuten, euskal kausa munduan zehar zabaltzen; munduaren aurrean salatuko zuten gertatzen ari zena, horretarako kirola eta kultura baliaturik. Sortu berria zen euskal futbol selekzioak Europan barrena partidak jokatuko zituen 1937an bertan eta, ondotik, Eresoinka taldearen bira etorriko zen, garaiko musikagile, dantzari, kantari eta margolari onenekin. Ehundik gora artista egitasmo berean. Eta haien artean, Karmele Urresti abesbatzan eta Txomin Letamendi tronpeta-jole.

Ikuskizunean euskal ohiturazko kantak eta dantzak tartekatzen zituzten musikari garaikideen konposizioekin. Tradizioa eta modernitatea elkarrekin. Errepertorioan Maurice Ravel ziburutarraren lanak interpretatzen zituzten noizean behin. Eta hain zuzen, Raveli zioten mirespenarengatik, abenduaren 30ean Eresoinka taldeko kide guztiak Ravelen gorpu-lorrari jarraiki joan ziren Levalloisko hilerrira. Nahiz eta musikariak anaiari argi utzi zion ez zuela ehorzketa arranditsurik nahi, jendetza bildu zen hilobiratzera. Ravel musikari maitea zen Parisen.

Segizioa desegin zelarik, Karmeleren ondora hurreratu zen Txomin, eta bi-biak Ravelen granitozko hobiari begira egon ziren hitz erdirik esan gabe. Gurasoekin batera ehortzi zuten Ravel. Karmeleri aita etorri zitzaion gogora, Larresoron erbesteratuta zegoena; ez zuen haren berririk aspaldian. Txomini otu zitzaion Ravelek ez zuela izan zorterik maitasunarekin, musika idazteak hartzen baitzion astirik gehiena. Otu zitzaion agian musikariak ez duela beste paturik bakardadea baino, izan ere gauza bera gertatzen zitzaion berari ere. Beldurra ematen zioten harreman luzeek.

– Nik ezagutu nuen Ravel –esan zion Txominek Karmeleri–. Buruz buru egon nintzen berarekin, zu eta biok gauden bezala.

– Baita zera ere! Liluratu egin nahi nauzu, ala?

Txomin ez zitzaion gezurrik esaten ari Karmeleri. Maurice Ravelekin batera aritua zen Bilbon, Elkarte Sinfonikoaren egoitzan, bederatzi urte lehenago. Ravelek berak zuzendu zuen Txomin kide zen Bilboko Orkestra Sinfonikoa: *Le tambeau de couperin*. *Alborada del gracioso*. *Tzigane*. *Melodías hebraicas*. *La Valse.* Baina hori dena oso lausoa egiten zitzaion orain Txomini, esan nahi baita, gerra hasi aurreko garaia. Nahiz eta denbora asko ere igaro ez zen, ematen zuen beste

mende bateko kontuak zirela. Eta beraz, gaia aldatu nahi izan zuen Txominek:

– Nire urtebetetze eguna da bihar...

– Ez da egia izango. Hori ere ez dizut sinesten.

5

Karmele Urrestiren familiak Ondarroan zuen jatorria. Aitona, Bittor Urresti, ontziola baten jabe zen. Urrestiren ontziola izango zen herriko lantegi handiena, hirurogei bat langilek baitzuten ogibidea bertatik eta, arrantzatik bizi ziren familiak kontuan izan gabe, herrian lanik gehien ematen zuen tokia hura zen. Balandroak, baporeak eta batelak egiten zituzten. Baita traineruak ere, kirol norgehiagoketan ibiltzen diren horietakoak, eta dirudienez horretan espezializatu ere egin ziren Kantauriko ontziolen artean, nahiz eta arraun kontu horiez dakitenek maltzurkeria pitin batekin esan ohi duten, Urrestiren traineruak itsaso zakarra zegoenean ibiltzeko zirela aproposak, baina ura bare zenean ez zegoela haiek mugitzerik.

Artibai ibaiaren ibarra estua da, mendi garaien artean egiten du bidea urak itsasoraino. Emariari dago-

kionez, alde handia dago marea gora edo behera bada. Horrek ez du oztopatu, dena den, haren erriberan ontziolak kokatu izana Erdi Arotik hona, orobat kabotaje handiko ontziena. Urresti familiako ontziola ibaiaren eskuinaldeko ertzean zegoen, meandro batean. Ezkerraldean portu zaharreko etxeak, ia zintzilik, eta eliza bizkarrean hartzen duen haitz eskerga.

Ontzioletako arotzak ez ziren letradunak izaten, aurrekoengandik ikasten zuten txantiloiak egiten, leban, inolako eskuaira eta kartaboirik gabe. Gero, txantiloiak ontziolako teilatuko habeetan eskegitzen zituzten, eta handik hartu, beharra zegoenean. Arotz bakoitzak bere tresna-kutxa zeukan, hantxe gordetzen zituen mailu, iltze eta gailu guztiak, ondo ordenatuta, hurrenkeran, txikitik handira, puntapaxetatik jesukristoren iltze handietara. Tresna-kutxa familiakoa izaten zen, hau da, aitonak aitari pasatzen zion eta hark semeari, horrela belaunaldiz belaunaldi.

Bi hilabetetan hogei metroko eslorako ontziaren kaskoa egiteko nor ziren, Erdi Arotik zetorren teknika bera erabiliz, hasieran gila jarri, gero branka eta popa jaso, ostean hezurdura osoa kareleraino eta azkenik estali. Bi begi jartzen zizkioten brankan –horixe zen Urresti ontziolaren sinadura– feniziarrengandik zeto-

rren sinesmen zaharrari eutsiz, nonbait txalupak etxerako bidea aurki zezaten. Ontzia egiten amaitzen zutenean, afaria egiten zuten elkarrekin langile guztiek.

Bittor Urrestik dirua egin zuen Lehen Mundu Gerrarako oholezko zamaontziak egiten. Bada garai horrekin lotutako pasarte eztabaidagarri bat: diotenez, Kantaurin inoiz egindako zurezko ontzirik handiena egin baitzen Urresti ontziolan, *Antzo-solo* izenekoa. Badirudi Bizkaiko diputatu nagusia Ondarroara hurreratzekoa zela ontzitzar haren botadurara, baina Bilbotik Ondarroara gurdibidea nekeza izanik, ez zen herrira garaiz iritsi. Ontzia hain handia zenez, marea gora zegoela egin behar zuten uretaratzea, hego haize puntua zegoela aprobetxaturik gainera, eta ez ziren bere zain egon. Agintaria heldu zenerako txalupa uretan zen, mastetan jarritako koloretako bandera eta guzti, eta elizako pretila mukuru bete zuten herritarrak beren zereginetara joanak ziren. Politikaria madarikatzen itzuli omen zen Bilbora, berriz ere bihurgune amaigabeetan barrena, Ondarroaz nazkatuta. Hitz eman zion bere buruari ez zela gehiago herri hartara bueltatuko.

Agintariontzako begirune justua, kostaldeko herritarren izaeraren ezaugarri bat da.

Ontzitzarraren halabeharrari buruz bi bertsio daude. Bekaizkorren esanetan, ez zen sekula gerrarako erabili, gerra amaitua baitzen ontzia bukatu orduko; eta Bilbon ikusi omen zuten behin, lotuta, Nerbioi ibaiko zaborrak bertan pilatzeko. Ontziolako azken langileak, aldiz, kontatu zidan hondoratu egin zutela Atlantikoan alemanen urpekoek.

6

Urrestiren aita Frantziskori “Malaletxe” esaten zioten herrian. Ez dago argi izen hura zetorkion egiatan umore txarrekoa zelako edo aldarte onegia zuelako gizonak, ironiaz jartzen baitira eskuarki horrelako izenak. Anaiarekin tratua egin zuen: anaiak ontzien kroskoak egingo zituen ontziolan eta Frantzisko arduratuko zen baporezko makinak egiteaz –makinaria baitzen ikasketez–, Antsosolo erreka zeritzon eremuan berenberegi atondu zuen lantegian. Ontziolaren gainean zegoen mendi hegi laiotza zen Antsosolo, eta handik igarotzen zen errekastoak ematen zion izena. Ontziolaren gaineko lur sail hura Mutrikura zihoan errepideaz beste aldera, mendiari atxikita. Arrantzontzi biren

jabe ere bazenez, txalupa bati *Antzo-solo* jarri zion izena eta besteari *Jontxu*.

Frantzisko, zeinak beti zeraman txapela buruan eta betaurreko biribil batzuk, eskuekin lan egitea laket zaion gizon horietakoa zen; trebea eskuen erabileran eta etxekoia. Kontu kontari ibiltzen zen seme-alabei, mapamundi bat lagun, Afrikan bizitako garaiaz, nola zama deskargatzen zuen ontzi handietatik arrisku gaitzak hartuta, krokodiloetatik ihesi.

Bi bider ezkondu zen Frantzisko. Lau seme-alaba izan zituen Dolores Iturriotzekin: Ana, Joseba, Josu eta Karmele. Tamalez, Dolores 1918ko gripeak gaixotu eta hil egin zen. Dolua gainditu eta gero, Doloresen ahizpa gazteari, Donostian maistra lanean zebilen Karmeni, ezkontzeko eskaria egin zion Frantziskok. Karmenek baiezkoa eman zion, nahiz eta ordurako mutil laguna hartua zuen Donostian eta berarekin batera paseatzen zen hiriko lorategietan; hura utzi eta sorterrira bueltatu zen, lehengo bizimodura, bere ahizparen lau seme-alaben zaintzaz arduratzera. Denborarekin Frantzisko maitatzea lortu zuen Karmenek, eta bi ume ere izan zituzten elkarrekin: Jon eta Gaizka. Ez zen bat ere bitxia emaztea hilez gero haren ahizparekin ez-

kontzea, hala abizenak ere berberak izaten zituzten neba-arrebek.

Bigarren emaztea hartu zuelarik, Frantziskori iruditu zitzaion senide asko zirela etxean eta bizileku handiagoa behar zutela. Moilan zuten etxea utzi eta eraikin bat altxatu zuen familiak txalupetarako baporeak eta aparailuak egiteko lantegia zuen toki berean, Antsosolo errekan. Bizilekuaren azpian tailerra zuen, eta hari atxikirik beste eraikin bat jaso zuen, Karmen emazteak eskolak eman zitzan bertan. Ikurrinaren itxurako forja egin zuen balkoirako, bere eskuekin, ezagun zedin euskarazko eskolak emango zirela. Baina Gerra Zibilak eten zituen asmo haiek, sekula ez zuen euskarazko eskolarik emango Karmenek.

Frantzisko abertzalea zen gaztetatik. Euskal nazionalismoaren sortzailea, Sabino Arana, aditu omen zuen hizketan Ondarroako Andra Mari parrokiaren aurreko plazatxoan, geroztik haren jarraitzaile sutsua izango zen. Sabino Aranak bere mitologia guztia mendialdeko iruditerian oinarritu arren, kostaldean izan zituen lehen zaleak, Bilbon eta ondoko portuetan. Badirudi Lekeition igarotzen zuela uda partea, eta uda horietako batean hurreratu zela Ondarroara bere “misioa” ezagutaraztera. Non eta hantxe harrapatu zuen

betiko Frantzisko. Denboraren poderioz, Karmen Ondarroako Emakume Abertzale Batzako burua izango zen, mitinetan ere hizlari.

Gurasoek horretarako ahalegina egin zutelako, seme-alabek denek egin zituzten ikasketak, Anitak izan ezik.

Joseba, apaizgaitegira joan zen estudiatzera, Urduñara lehenik eta ostean, Valladolidera.

Josuk, nahiz eta anaia zaharraren bidea jarraitu hasieran, nonbait apaiz kontu horiekin gogaitu eta Antsosolon geratu zen aitari tailerrean laguntzen.

Karmelek Valladoliden atera zuen erizain titulua, handik lasterrera Basurtuko ospitalean lanean hasteko. Orduan lekaimeak baino ez ziren egoten Basurtun eta gainontzeko kliniketan, eta ospitale hartan sartzen lehenengoetako erizaina izan zen Karmele.

Anitak, ordea, ez zuen estudiatu. Frantziskori galdetzen zioten, gainontzeko seme-alaba guztiak bideratu eta Ana zergatik utzi zuen albo batera. “Denda bat jarri behar zenion” esaten zioten herrian. “Denda bat Anari? Hain da bihotz onekoa, mostradorea bera ere opari emango luke!”. Pozik zeuden gurasoak Ana etxean laguntzen zegoelako.

7

Ramon Sota enpresariaren bizilekuan ospatu zen Antonio Gezalaren koadroan ageri den festa, Ibaigane jauregian, 1927ko otsailaren 26an; margolariak berak data jaso egin zuen koadroan, almanakatik askatutako orri bat margotu baitzuen egun horrekin.

Europako gizon aberatsenetakoa zen garai hartan Ramon Sota, bere irabaziak Espainiako estatuko aurrekontu osoa baino handiagoak ziren. Lord izendatu zuen Erresuma Batuko erregeak, Lehen Mundu Gerran britainiarren alde egindako mesede eta enkargu guztiengatik, bere txalupetatik mordoa britainiarren esku utzi baitzuen, alogeran jakina, eta haietatik dozena bat ere hondoratu egin zituzten alemanen itsaspeko ontziek.

Askotariko enpresa zen Sotarena, besteak beste, meategi, ontziola eta aseguru etxez osatua; baina Bilbo Amerikarekin eta Asiarekin lotzen zuten ontzien konpainia zen bihotza, Sota y Aznar izenez ezaguna.

Abian zegoen euskal pizkundearekin eta oro har kulturarekin zerikusia zuten egitasmo zenbait diruz lagundu zituen, esate baterako, *Hermes* aldizkaria, non

Nobel saridunek eta entzute handiko idazleek parte hartu zuten, hala nola, Ortega y Gassetek, Rabindranath Tagorek eta Ezra Poundek, Espainiako 27ko belaunaldiko poetekin eta garaiko punta-puntako euskal pintoreekin, pentsalariekin eta olerkariekin batera.

Ramon Sotak atsegin zuen ontziei euskarazko izenak jartzea, baina beste kontu batzuekin erabat lanpetuta zebilenez, betebehar hori bere lagun bati eman zion: Resurreccion Maria Azkue hizkuntzalariari, Euskaltzainburu izan zena akademia abian jarri zen egunetik heriotzara arte, Sotak berak sustatutako erakundea bestalde; eta Azkueri ez zitzaion besterik bururatu ontziei mendi izenak jartzea baino, ehunka barku izendatzea ez baitzen lan makala.

Sota jaunaren Ibaigane hiru solairuko jauregia zen, 1900. urtean diseinatua, *euskal* estiloari jarraiki; baserrietako garaiak eta Erdi Aroko dorretxeak ekartzen ditu gogora haren itxurak. Hamalau logela zituen, saloiak, billar-gela eta kapera, sakristia eta organoa. Jesus Guridi konpositoreak igandero jotzen zuen, eta baita bere pieza onenak asmatu ere, familiak gonbidatuta jauregian igarotzen zituen egonaldi luzeetan. Aurreko lorategia igaro ostean atarira iristen da harrizko eskailera batzuetatik; atea zeharkatu ahala bertan

dago hall zabala, eta parez pare zur noblez egindako eskailera nagusia gorantz.

Hamaika seme-alabaren aita izan zen Ramon Sota. Denetan menderakaitzena Manu zen, azken aurrekoa.

Plantaz liraina zen Manu Sota, janzkiz ibiltzen zen beti, irribarre kokina aurpegian. Salamancan estudiatu zuen lehenik, Cambridgen gero –han irakasle ere izan bolada batean–, eta Ingalaterratik bueltan Bilboko bizitza kulturalaren bultzatzaile nabarmenetakoa bihurtu zen. Aitaren aldean muturrekoa ideietan, independentista, Amerikako Estatu Batuetako Woodrow Wilson presidenteari telegrama bat idatzi zion lotsagabe Euskal Herriarentzat askatasuna eskatzen, Lehen Mundu gerraren ondoren Europan itxura hartu zuten estatu berriak aintzat hartuta eta, Wilsonek berak, haren hamalau puntu famatuetan, herrien autodeterminaziorako eskubidea jaso zuelako. Aitaren enpresan Manu Sotak zer lan egiten zuen ez dago argi, idazkari eta itzultzaile aritzen omen zen, baina nekerik hartu gabe.

Dela haren nagikeriaz ohartu zelako, dela hitz egiteko zuen dohainari erreparatu ziolako, aitak enpresako irudi publiko gisa erabili zuen semea, eta bete-be-

tean asmatu zuen, trebea baitzen horretan. Nor zen *Goizeko Izarra* aitaren laketontzia hartu eta Sevillako feriara Guadalquivir ibaian gora joateko; barkua erriberan ainguratu eta hantxe hartzen zituen Sevillara inguratutako handiki guztiak. Baina, batez ere, lagunarteko jaiak antolatzeko jaioa zen Manu Sota. Ezagunak ziren Bilbon, esate baterako, berak prestatzen zituen hoteleko mandatari lehiaketak; mandatariz mozorrotu eta maletak alde batetik bestera eramaten zituzten Manuk eta bere adiskideek, taxiak kalean geratzen eta bezeroen gutizia bitxienak lortzen ahalegintzen, arrosak, xanpaina edo itsaskiak. Beste batzuetan zirkua ere antzezten zuten, pailazoz, piztia hezitzailez, akrobataz edo lehoiz jantzita.

Antonio Gezalak pintatutako koadroko jaia ere Manu Sotak antolatu zuen, esker emateko festa bat hain zuzen. Antza denez, egun batzuk lehenago Bilboko artistekin batera omenaldi bat atondu zuen Carlton hotelean, hiriko hotel luxuzkoenean, Adolfo Guiard pintorearen heriotzaren hamargarren urteurrenaren karietara, eta hain ondo atera zen ekitaldia ezen bertan izandako guztiak gonbidatu baitzituen etxera, hurrengo larunbat gauez izango zen festara. Gezala margolaria ere gonbidatuen artean zegoen, eta une hura

jaso zuen *Artisten gaua Ibaiganen* mihisean. Ez zen elkarrekin lan egiten zuten estreinako aldia. Manuk idatzitako antzezlanen eszenografiaz Gezala arduratzen zen, eta Sota konpainiako ikurra ere berak diseinatuko zuen, seguru nago, Manuk hala eskatuta: ozeanoa gurutzatzen duen ontzi baten branka, ur azala labana baten zorroztasunaz ebakitzen.

Are gehiago, Gezalak erretratu berezi bat ere egin zion Manuren arrebari, Begoñari. Hogeita hiru urteko neska zen Begoña Sota, aita aberatsaren alaba gazteena; txapelarekin, gabardinarekin eta gona motzez jantzia, eskularruak eskuan dituela irudikatu zuen, baina hau ere mugimenduan, noiz eta Carlton hotelera sartzen ari den unean bertan (atzealdean badoaz taxia eta tranbia), nola eta ate birakarian barrena datorrenean. Margolariak barrutik begiratzen dio neskari, eta atearen birak emakumearen irudia zatikatu egiten du lehenik eta ostean kanporantz barreiatu, Marcel Duchampen koadro batean bezala, pertsona beraren gorputzaren alde desberdinak aldi berean jasoz eta unearen hauskortasuna adieraziz.

Irudia hauskorra da zeharo, badaki ikusleak Begoña lipar batzuetan desagertu egingo dela toki hartatik, atea zeharkatu eta hotel barrura sartuko dela; bada,

tenore iheskor hori da Gezalak betiko geldiarazi nahi izan zuena margolanean, hots, denboraren joana, nola den-dena istant batean desagertzen den, nola desegiten den ezagutu dugun mundua.

8

Txomin Letamendi musikari esker sartu zen Manu Sotaren lagunartean. Zer ikusi zuten bestela eskriman eta golfean ibiltzea laket zuen gazte hark eta letoigile baten semeak?

Musikak salbatu zuen Txomin. Ama bizi-alargun geratu zen haurrak txikiak zirenean –aitak ihes egin zien aztarnarik utzi gabe– eta amak okindegi bat zabaldu zuen Castaños auzunean. Berak bakarrik atera zuen familia aurrera. Musikak salbatu zuen Txomin, berresten dut. Gaztetan atera zuen plaza Bilboko Orkestra Sinfonikoan eta gauetan hiriko kafetegietan jotzen zuen. Halaber, Getxoko Club Nautikoan. Hantxe ezagutu zuten elkar Manu Sotak eta berak. Goizaldera arteko jaiak izaten ziren Nautikoan, nora biltzen baitziren Bilbo aldeko aberaskumeak, 20etako hamarkadan modan zegoen musika entzutera.

Txomin Letamendik –Ikerne alabak esan zidanez– Elola Band taldean jotzen zuen tronpeta *Conn Silver Trumpet, 1927 C.G. Conn Ltd.* markakoa zen. Entzuna nuen tresna New Yorkera egindako bidaia batean erosi zuela Txominek. Pentsatu nuen hasiera batean Sotaren barkuetako batean itsasoratuko zela Txomin, beharbada Manuk berak lagunduta, adiskide giroko halako bidaia ero batean. Alabaina, Amerikako Estatu Batuetako sarrera baimenetan ez da Manu Sotaren izenik azaltzen 1938 urtera arte, eta tronpeta 1927koa da, hamabi urte lehenagokoa, Gezalaren koadroaren eta Ibaiganeko jaiaren urte berekoa.

Bada, 1927ko otsailaren 26ko jai hartatik ez zen hilabetea igaro Txomin Letamendi New Yorken lehorreratu zela. Haren izena dator Estatu Batuetara sartzeko urte hartako bisa batean, honako beste hauekin batera:

Antolin Elola Albisu
Pablo Elola Albisu
Ubaldo Gimenez Castro
Julian Reina Gras
Domingo Letamendi Murua
Jacinto Lopez

Antonin Elola eta Pablo Elola izenekin batera Txominena agertzeak ohartarazi zidan, horiek guztiek osatzen zutela Elola Band izenez ezagutzen zen musika taldea. Koadroan eskailera azpian jotzen ari direnak, beraz, horiexek dira. Amerikako Estatu Batuetako migrazio agirien arabera, 1927ko martxoaren 27an New Yorken porturatu ziren Bilbotik martxoaren 3an abiatutako *Alfontso XIII* ontzian. Barkuko langileen zerrendan daude izen-abizenok, eta beraien eginbeharra ere agertzen da ingelesez jarrita: *musician.* Alegia, ozeanoa zeharkatzen zuen barku hartako musika taldea zen Elola Band, girotu egiten zituzten lehen mailakoen gau-jaiak. Trukean, doan egingo zuten New Yorkerako bidaia.

Entzuna nuen, era berean, egonaldi hartan Carnegie Hall aretoan izan zela Txomin, eta han lehiaketa batean parte hartu zuela, nonbait polka partiturak lehen begiratuan interpretatzen. Alta, Carnegie Hallera idatzi nuelarik informazio eske, Rob Hudson izeneko gizon atsegin batek ihardetsi zidan han ez zutela Letamendiren notiziarik eta gisa horretako norgehiagoken berri ere ez zuela idoro artxibategian, baina bai bazekiela, Conn konpainiak egiten zituela horrelako

lehiak eta litekeena zela Letamendik Conn tronpeta berri hori, erosi ordez, markak berak antolatutako txapelketa batean irabazi izana.

Txomin Letamendik aldean eramango zuen aurrerantzean Conn tronpeta hura, bizi osoan.

9

Helduarora iritsitakoan haurtzaroko paisaietara joanez gero, ohartzen gara ustez baino txikiagoa dela dena, garai batean itzel ikusten genuena metro gutxi batzuetara mugatzen dela orain. Gauza bera gertatzen da antzinako tokiekin. Egia esan, Karmele Urrestiren etxeko unibertsoa oso urria zen. Ontziola Artibai ibaiertzean, haren gainean Mutrikurako errepidea eta Bloemeneko arrain kontserba fabrika. Eta errepideaz bestaldean, Antsosolo etxea eta Karmenen eskoletarako eraikina. Dena pauso batzuetara.

Horixe zen Karmele Urrestiren mundu txikia. Gaztetan, Anita ahizparekin batera errepidean gora paseatzea zuen gustuko, Arrigorri zeritzon talaiaraino. Aitaren toki maiteena zen hura, bertatik ikusten zituen arrantza ontziak badiara sartzen. Arrigorriko bidearen

erdialdean, Txori-erreka parean, bazegoen pretilean egindako harrizko banku bat. Ez zegoen herriaren ikuspegi hoberik ilunabarrean. Urresti ontziola, ibaiko hiru zubiak eta eguzkia sartzen Oiz mendiaren magalean. Elizako ekialdeko horma parez pare dago eta harrizko irudiak ikusteko tokirik aproposena da. Erdiko arrosa-leihoaren gainean, hareharrizko baranda batean, hamabost irudi daude, nolabaiteko “apostolu zibilak”, errege-erreginak, nobleak, musikariak dira gehienak. Ez dute zerikusirik elizako gargola beldurgarriekin, Erdi Aroko bestiarioetako animalia fantastikoekin. Ilaran daude, dirudienez, itsasora doazen txalupei agur egiten. Hamaikagarrena, ia eskuin muturrean dagoena, inudea da, baxua, lodia eta bular handia. XV. mendeko irudigileek trufa egiteko jarri zuten bertan, inude jatuna, Brueghel Zaharraren koadroetan bezala, non baserritarrak era komikoan margotzen diren nobleziaren barregarri. Dena den, gauzak nola diren, herriko arrantzaleek inude hura zuten gogokoen, ez zitzaien barregarri iruditzen ederra baizik, eta hari eskatzen zioten arrantza, itxuraz konfiantza gehiago zuten berarengan, aberats edo erlijio gizonen irudietan baino.

– Badakizu zergatik dudan hain gustuko toki hau? –esan zion Anitak Karmeleri bankuan eserita zeudela–. Amak bularra hemen ematen zigulako.

– Eta nola dakizu zuk hori?

– Gogoratu egiten naiz.

– Bai zera! Nola gogoratuko zara!

Karmelek ez zuen sinesten gauza horietan. Zientzialari baten adimena zuen, eszeptikoa zen, aita bezala. Baina Anitaren kontuekin ezin uka zalantza puntu bat izaten zuenik. Hain ziren desberdinak ahizpa biak. Karmele lerdena zen, bere buruan segurtasun handikoa, zuhurra. Anita onbera zen, alaia; begi bat nagia zuen, eta horrek are maitagarriagoa egiten zuen.

Bankuko harrien artean sugandila bat agertu zen halako batean. Karmelek, bizi, harrapatu egin zuen, eta eskuetan zuela esan zion ahizpari:

– Zuk, hainbeste maite dituzunez ipuinak, ba ote dakizu zer gertatzen den sugandila kolkotik sartuz gero?

– Zer? –Anitak, ikara apur batekin.

– Bada... sabeletik txanponak ateratzen direla. Zatoz hona, aproba egingo dugu.

Anita bankutik altxatu eta korrika joan zen etxera bidean. Karmelek atzetik segitu zion barreka, sugandilaz ikaratzen.

10

Sugandila batek harrizko hormako zuloren batera sartzean egiten duen hotsaren antzekoa atera zuten norbaiten urratsek Karmele eta Txomin Ravelen hilobiari begira zeuden bitartean, pentsakor, bakoitza bere gomutatan. Manu Sota zen. Beso bana bikote gaztearen sorbalda gainetan pausatu eta esan zien:

– It is time to go. Parisera itzuli behar dugu.

Parisko irudiak

11

Bigarren Mundu Gerraren preludioa izan zen Espainiako Gerra Zibila, haren aurrekaria izan baitzen eta bazetorren gerra handirako saiakuntzak egiteko balio izan baitzuen. Gernikako bonbardaketak, esate baterako, lotura ugari ditu Bigarren Mundu Gerran erabateko protagonista izan ziren pertsonaiekin. Gernikako bonbardaketa, azken aldiko ikerketei kasu eginez gero, Varsoviako setioaren entsegua izan zen. *Carpet bombing* eta *Shuttle bombing* tekniken bitartez, eta hegazkinekin, lehenik eta behin biztanleria toki baten bildu eta ondoren hura bortizki bonbardatuz, Gernikaren gainera 31 eta 41 tona inguru bonba bota zituzten alemanek. Erabat kiskalita geratu zen hiria, eraikinen %1 bakarrik geratu zen onik.

Baina are larriagoa da, opari bat baino ez zela izan Gernikako bonbardaketa. Göringek Hitlerri egindako urtebetetze oparia. Hitlerrek apirilaren 20an beteko zituen urteak eta Göringek dena filmatua nahi zuen Hi-

tlerri bere berrogeita zazpigarren urtebetetzean erakusteko. Filmean argi eta garbi geratuko zen zeinen indartsua eta geldiezina zen Luftwaffearen indarra. Wolfram von Richthofenen arduran geratu zen bonbardaketaren antolakuntza eta grabazioa. Ekintza Condor legioak egingo zuen Hugo Sperrle jenerala buru zela. Halako oparia eta gero, Göringek ez zuen zalantzarik Hitlerrek Defentsa ministro izendatuko zuela, ez zuela lehiakiderik izango horretarako.

Göring ez zen suerteko izan ordea. Hilaren 15erako edo pentsatua zuten Gernikako bonbardaketa, baina baliabideak ez ziren garaiz iritsi eta atzeratu egin zen apirilaren 26ra arte. Azkenean, urtebetetze oparia astebeteko atzerapenarekin iritsi zen Berlinera. Hitlerrek gustura hartu zuen oparia, baina ez zion berandutzea barkatu. Göringen asmoak ez ziren bete, Fürherrak ez baitzuen Defentsa ministro izendatu.

Hitlerrek bazuen hautagai hobe bat: Hitler bera.

12

Nola bihurtu zen Bilboko Orkestrako musikari bat gudarien batailoi bateko buru? Txomin Letamendik ez

zuen heziketa militarrik, ezta gutxiago ere. Musikari profesionala zen, Bilboko gauetara zegoen ohitua, inprobisazio eta askatasun une haietara, baina ez kuarteletako diziplinara. Nolanahi dela, gerra hasi zenean gizon heldua zen, hogeita hamabost urte zituen, eta mendizalea zen gaztetatik. Ederki ezagutzen zituen Bilbo inguruko bazterrak eta nor zen Markinako frontera mendiz mendi joateko.

Militar buruak idazleak eta musikariak zituen armada berezi hartan, Letamendi kapitain gisa aritu zen *Azkatuta* konpainian eta, ondoren, komandante karguz *Ariztimuño* batailoian, ia seiehun lagun bere kargura. Batailoiak Jose Ariztimuño *Aitzol*en izena zuen, gerra hasieran fusilatuta hil zuten apaiz eta idazlearena. Metrailadore itzel batekin mugitzen ziren lubaki batetik bestera, eta jakin dut Arrasaten, Gasteizen, Otxandion eta Intxortan borrokatu zirela, besteak beste. Bilboko setioan, hiriko babes antiaereo eskasa ere beraien metrailadore horrekin moldatu behar izan zuten, Artxandako bizkarrean.

Umetan, Txomin, Castaños auzotik funikularrean igotzen zen Artxandara. Aisialdi tokirik atseginena zenez Bilbon, jendez betetzen zen igandeetan, dibertimendurako guneak zeuden, jatetxeak, paseatzeko

bidezidorrak. Han gainetik hiri osoa ikusten da, fabrikak, zubiak, Nerbioi ibaiaren zanbuluak, itsasoratzen den arte. Eta hantxe, Artxanda bertan izan zen gerrako erasoaldi ankerrenetako bat.

Garaiko testigantza idatzietatik atera dut, oso fidakorra zela Letamendi komandantea, ez zuela bururik makurtzen lubakian zegoenean eta, halaber, Bilbo erortzear zegoela, murru batera igota azken defentsa egitera mendian gora zihoazen gudariei agurra egin ziela bere Conn tronpetarekin. *Agur jaunak* jo zuen.

13

Gerrak nahasmena, isiltasuna eta iluntasuna dakartza berarekin. Xehetasunak ez dira zehatzak izaten, detaile ugari ezabatu egiten dira –galtzaileenak are gehiago–, eta beste anitz moldatu, hanpatu; horregatik gaitz da jakitea nola ihes egin zuen Bilbotik Txomin Letamendik.

Badirudi, Bilbon zer eginik ez zegoela jakinarazi ziotenean, ontziz joan zela Baionara. Baliteke, Sota familiaren *Goizeko Izarra* laketontzian irtetea Santurtziko kaitik, txalupa hark Bilbotik errefuxiatuak ateratze-

ko egin zuen azken ahaleginetako batean. Ehun eta hogeita hamaika heldu eta ehun eta hogeita hamaika haur zihoazen ontziaren azken bidaian. Horien artean, Antonio Gezala margolariaren alabak.

Era batera edo bestera ihes egin, bere izena berriz agertzen da Baionako portuan egin zioten osasun agiri batean. Txartel horren arabera, ekainaren 17an iritsi zen portura. Baina ez hori bakarrik, agiri horren atzealdean, arkatzez idatzita, gauza bitxi bat dator. Helbide bat:

Madamme Tejada,
266 Saint Honorée kalea,
Paris.

Tamalez, ez dut Tejadaren arrastorik topatu.

14

Txomin Letamendik berehala bideratu zuen bizimodua Parisen. Pako Zamakonarekin, bera bezala erbesteratua zegoen adiskidearekin batera, 26 Boulevard Saint-Denisko estudio batean hartu zuen bizilekua, eta

ogibidea ere laster lortu zuen tronpetari gisa. Francisco Canaro, Uruguain jaiotako argentinarrak bazuen tango orkestra entzutetsu bat eta hara aurkeztu zen probak egitera. Onartu egin zuten eta Ambassador hotelean eta Olympian jotzen zuen. Bizikletan mugitzen zen hiriko etorbideetan barrena.

Manu Sotak eta biek Bilbotik ihes egin ostean, Parisen elkar ikusi zuten estreinakoz. Manu itzuli berria zen euskal futbol selekzioak Europan zehar egindako biratik eta afaltzeko geratu ziren Manu eta biak futbolariekin, Anjel Zubietarekin eta enparauekin.

Sobietar Batasunean erositako liburu bitxi bat atera du Sotak mahai gainera. Eugene Gordonen *Pancakes and Caviar. The Food Industry in the USSR.*

– Manu, mokofina zara gero! –bota dio Txominek–. Kabiarrari buruzko liburu bat izan da Errusia osoan aurkitu duzun bakarra?

– Arrazoi duzu. Patrikak zulatuta ditut, baina klasea ez da sekula galtzen. Zer nahi duzu?, ingelesezko liburu gutxi zegoen han.

– Kontatu egizkidazu Moskuko gezur batzuk. Ez da egia izango egunkarietan agertu zena, hegazkin baten barruan hartu zenutela lurra?

– Halaxe da. Eta estadio osoa ukabila altxatuta zegoen gure zain. Hau beldurra!, jakin izan balute noren semea naizen zintzurra moztuko lidakete...

Txomin topa egitera altxatu da.

– Bilboko Athleticek izan duen presidenterik onenaren alde! Gora Manu Sota!

– Ez nazazu jendaurrean lotsarazi.

– Zergatik Athleticeko presidente onena?–galdetu du Zubietak.

– Nori otuko zitzaion bestela dirua aurreztearren entrenatzailerik gabe jokatzea!

– Nola liteke hori?

– Pentsatu baitzuen jokalariak gauza zirela entrenatzailerik gabe jokatzeko. Eta halaxe aritu ziren, libre, era asanblearioan.

– Tira, badakizue, beti izan dut arima anarkikoa –onartu zuen Manuk.

– Ai, gure Bakunin, a ze iraultza zurea!, bigarren mailara jaistear egon ginen!

– Txomin, jo ezazu zerbait. Hitz egiten zolia zara, baina goxoagoa tronpeta ahoan duzula.

Goiz albak L'Étoile plazan harrapatu zituen Txomin eta Manu. Paperak aldatuta, Txomin kantari eta Manu tronpetari alferrik putz egiten.

15

Manu Sota zen Eresoinka ikuskizunaren arduraduna, Agirre lehendakariak hala aginduta. Manuk berak urte batzuk geroago aitortu zuenez, “ez zegoen Agirreri ezetz esaterik”, hain zuen karisma berezia; eta lehenago euskal futbol selekzioaren Europako biraz arduratu zen bezala –eta lortutako arrakastaren ondorioz– bere gain hartu zituen enbaxada kulturala osatzeko eta garatzeko lanak.

Eresoinkaren antolakuntzan nabarmena da Manu Sotaren ukitua. Haren desira zen saioak ahalik eta itzal handiena izan zezala. Azken batean, ez zen soilik kalitatezko kultura emanaldi bat, hori ere bai, baina helburu behinena Franco burutzen ari zen eskubide urraketa munduaren aurrean azaltzea zen. Propaganda kulturala zabaltzea zen beraien eginbeharra. Medioetan ikusgarritasuna lortzeko Manuk bazuen inoiz huts egiten ez zuen metodoa: berak eskuz sinatutako gutunen bitartez bazkaltzera gonbidatzen zituen politikari, kazetari eta musika-kritikariak.

Halaxe egin zuen Parisen ere. Opera ondoko euskal jatetxe batean gonbidatuei egitasmoaren nondik norakoak azaldu zizkien eta aurrerapen labur bat eskaini. Detailerik txikiena ere zainduta zegoen. Juan Aranoa margolariaren pintura batek apaintzen zuen jangela, menua era artistiko eta irudimentsu batean aurkeztuta zetorren, Sotaren hitzaldia sendoa izan zen. Eta, nola ez, platerak: barazkiak, arraina, okela eta postreak. Chistera jatetxera gonbidatutakoek pentsatuko zuten, han dastatutakoak bezain onak baziren Eresoinkaren saioak, kontua ez zela batere txantxetakoa.

Montmartreko Sainte Genevieve elizan egindako entsegu nekagarrien ostean, estreinaldiko eguna iritsi zen. Sotak espero bezala, Eresoinkaren emanaldia arrakastatsua izan zen –nahiz afinazio arazoak egon, partaideen gutun batzuetan ageri denez–. Erreportaje zabalak eta kritika bikainak argitaratu zituzten Frantziako egunkari muntazkoenek. Harrera horren eraginez, 1938an Belgika, Holanda eta Londresko aretoetan izan zen Eresoinka, eta halaber, Parisen bertan berriz ere, era iraunkor batean, 1939ko udazkenean, Bigarren Mundu Gerraren hastapenarekin taldea desegin zen arte.

Ikuskizunaren burua Manu Sota zen eta arte zuzendaria Antonio Gezala margolaria, Sota eta Letamendi baino hamar urte pasa zaharragoa. Aita aberatsa zenez, Gezala ez zen margolaritzatik bizi, ez zuen koadroak pintatzea ogibide, eta horrek, zalantzarik gabe, askatasun handia eman zion sortzeko. Artista ez zegoen erosleen gustuen mende; libre izan ahal zen sormenari dagokionez, bere gurari, gustu eta intuizioei bide emateko. Hargatik izango da garai hartako pintore pertsonalena eta aurrerazaleena. Askotariko artista izan zen, margolanez gain, afixak, karikaturak, ex-librisak eta altzariak diseinatu zituen-eta.

Lehen emaztea hil arte koadro estatikoak margotzen zituen, baina hainbeste maite zuen emakume hura galtzeak barruak mugiarazi zizkion, eta senitartekoen erretratu domestikoak egiteari utzi eta kalera atera zen margotzera, mugimenduaren bila, bere bihotza ere halaxe mugitua baitzegoen. Ez zen joan, hala ere, mendialdera ohituraz jantzitako baserritarren bila edo itsasaldeko giro txiro eta ainubeak jasotzera, ustez behin galdutako purutasun haren xerka, aurreko margolari eta orobat belaunaldi kide zituen batzuk usu egiten zuten legez; Gezalak hiria hartu baitzuen gai nagusitzat, sasoi hartako gazteriaren iritzie-

kin bat eginez bestalde, zeintzuk uste baitzuten euskal kulturaren benetako pizkundea hirietatik etorriko zela.

Hiriko eszenak margotu zituen, egoera bizi eta mugimenduz beteak, dela emakume bat auto gorri batetik jaisten, dela zamaontzi bat moilan garabiaren alboan. *Areatzako tranbien talka* izeneko mihisean istripu bat irudikatu zuen hiriaren bihotzean 1922an; tranbien burdina okertuak, ardo upelak lokarrietatik aske, automobilak bihurgunea hartzen eta, halaber, tabernen iragarkiak, klaxonen zarata eta kaioak hegaz, ihesi. Paris Bilbora ekarria, koloreak, mugimendua, azantza.

Izan bada beste detaile bat, margotzeko bere era berezia bihurtu zuena: Gezala liluratuta geratu zen Sonia Delaunay margolari ukrainarrak 1919an Bilbon egin zuen bakarkako erakusketarekin. Bere bigarren bakarkako erakustaldia zen hura, hiru urte lehenago Stockholmen atondutakoa eta gero, nahiz eta kontu honekin nahasmen pixka bat baden, iturri batzuen arabera senarraren lanak ere bazeudelako Bilbon ikusgai. Eta tamalez, luzaroan, kritikarientzat Robert zen margolaria, eta Sonia “dekoratzailea”. Ez, ordea, Antonio Gezalarentzat.

16

Gezalak diseinatu zuen Eresoinkako ikurra, haritz hosto bat bi ezkurrekin, eta baita kaleko hormetan jartzeko kartel iragarlea ere. Baina ez hori bakarrik, berak asmatu zituen, Sotarekin batera, dekoratu ia gehienak. Ikusgarriena, agian, Pleyel aretoko agertokirako margotu zuen gramofono erraldoia izan zen. Eszenaren atzealdean zegoen gramofonoaren ahotik agertzen ziren dantzariak taulara, musika notak balira bezala, ikusleen harridurarako.

Eresoinkaren lanak eta jardunak jasoz, bi olio-pintura handi margotu zituen Gezalak Parisen. *Eresoinka 8.45* eta *Eresoinka 20.45* izena dute. Lehenak, estreinaldi eguneko goiza jasotzen du, goizeko bederatziak laurden gutxitan nola muntatzen ari diren agertokia. Bigarrenaren motiboa saioa bera da. Baina margolariak ez du hartzen ikuslearen ikuspegia; horren ordez, antzeztokiaren atzealdean gertatzen ari dena erakusten digu, normalean ikusgai ez dagoen hori. Margo bietan agertzen da Txomin Letamendi. Lehenengoan, muntaketa lanetan dabil goiz partean, alkandora go-

rriz eta praka urdinez, dekoratuko zati den panel handi bat mugitzen dihardu. Bestean, Manu Sota bera, Gabriel Olaizola abesbatzako zuzendaria, Enrique Jorda Gallastegi orkestra gidaria –denak frakez– eta Txomin Letamendi –oraindik alkandora gorriarekin– agertokiaren atzealdean daude azken xehetasunak lotzen. Jendaurrean irakurri behar duen testua errepasatzen ari da Sota, berak idazten baitzituen gidoiak, eta narratzaile lanak ere egiten zituen, ikuskizuneko ekitaldi batetik bestera dauden tarteetan azalpenak emanez. Atzealdean dantzariak ikusiko dituzu, taulara irteteko prest, jantzi zuriekin. Buruen artetik ikurrin bat erdikusten da.

Ezpatadantza deritzon guda dantza tradiziozkoan aterako zuten euskal bandera dantzariek. Manu Sotak kontatzen zuen gisara, garai batean, ez zen bandera bat haizatzen, dantzarien amek elkarrekin josten zuten oihala baino. Bakoitzak etxetik zapi zahar bat ekartzen zuen eta elkarri josiz koloretako bandera bat osatzen zuten dantzarako. Hartara, dantzari bakoitzak bere etxea ikusiko zuen banderan, izengabeko eta jatorri desberdinetako gizabanakoen ikurra, iraunkortasunik gabea, behin erabili eta gero desegiten zena.

17

Karmele Urresti eta Txomin Letamendi Londresera joan ziren Eresoinkarekin 1938ko ekainean. Hamabost eguneko bidaia laburra izan zen, hango Aldwych Theatre antzokian baitzuten emanaldia. Manu Sota Cambridgen egona zen estudiatzen eta Erresuma Batuko literatura eta bizimodua maite zituen; bigarren sorterrira itzultzea bezalakoa izan zen harentzat, gaztetu egin zuen Londresko ostera honek.

Cambridgen Pedro Salinas poetarekin egin zuen adiskidantza. 1925ean Pedro Salinasek bidalitako gutun batean esan zion, Cambridgen elkarrekin egiten zituzten paseoen falta botatzen zuela, nola Manuk poesiaz hitz egiten zion eta Pedrok ezagutzen ez zituen poetak aipatzen zizkion. Karta honelaxe bukatzen da: “Hemengo literatura giroaz ez natzaizu mintzatuko, biziki tristatzen bainau. Betiko pobrezia. Ingelesez zerbait berria eta ona argitaratu bada, esadazu”.

Manu Sotak Londres erakutsi zion Eresoinka taldeari. British Museum, Houses of Parliament eta Tamesis ibai ertzean dauden herrixka pintoreskoak. Parlamentu aurreko belardian biribilean eserita zeudela

atseden hartu zuten taldekideek. Manu kontu-kontari zebilen, zertxobait puztuta gaztetako tokietara itzuli zelako.

– Britainiarrek demokraziaren kontzientzia antzinakoa dute, baina geuk ere bai. Guretzat erregea gaitzerdi izan da beti. Gure eskubideak errespetatzen bazituen, hor konpon. Gurea beti izan da gizarte demokratikoa.

– Tira, baina –Karmele ez dago kopla askotarako– gizonezkoek bakarrik zeukaten bozka eskubidea.

– Ez. Etxe bakoitzak. Beheko su bakoitzak bozka bat zuen, sufragio fogerala zen.

– Etxeko gizonak agintzen zuen beraz.

– Ez derrigorrez. Ez zen esaten nork erabakitzen zuen bozka. Geografo zaharren arabera, erromatarrak iritsi zirenean hainbat jainko txiki ezarri nahi izan zituzten, toki bakoitzak zuen jainko txiki bat beraientzat. Guk, orduan, esan genuen jainko txikiak dagoeneko bagenituela: emakumeak.

– Eta erromatarrek onartu al ziguten proposamena?

– Ez dakit, beti moldatu izan gara. Nahiko mesfidatiak gara, ez da dudarik. Euskaldunak ez du uste zoriontasuna etengabeko aldaketan dagoenik, berritasu-

na besterik gabe asimilatzearekin. Onartzen dugu geuretzat ona dela uste dugun hori. Mendeetan halako oreka bat izan dugu asimilazioaren eta erresistentziaren artean, eta horrelaxe iraun ahal izan dugu ia mundua mundu denetik. Hori bai, kostatu egiten zaigu kanpokoa onartzea; baina behin geure egin dugunean, geu izaten gara defendatzaile sutsuenak. Kristautasuna ere berandu onartu genuen, eta harrezkero... geu gara sinestunenak.

– Zu ez zara ba horren fededuna! –Txominek ondo ezagutzen du Manu.

– Nik neure erara ulertzen dut fedea. Euskaldunak maite du hurkoa, baina indibidualista gogorra ere bada. Begira bestela nola dauden eraikita baserriak, bata bestetik ahalik eta aparteen...

– Hala ba, Manu, joan zaitez zeu ere apartexeago –esan dio Karmelek sorbaldan bultzadatxo bat emanda–, aspertu behar gaituzu-eta.

Charing Cross kaleko liburu-dendak gustuko zituen Manu Sotak. Txomin Letamendirekin batera ibili zen han goiz oso batez liburuak miatzen.

119. zenbakian dagoen Foyles liburu-dendan sartu dira eta *Poetry* aldizkariaren ale zaharrak zabaldu ahala begirada argitu zaio Manuri.

– Ai, ene lagun bohemioa, entzun ezazu Ezra Pounden poema hau. “Ganbara”, 1913ko apirilean argitaratu zuen *Poetry*-n. Nire gustukoenetakoa da. Bukaera zoragarria du, gizabanakoaren eta sexu askatasunaren aldarri egiten du.

Zatoz, gupida ditzagun gu baino zorionekoagoak direnak.

Zatoz, laguna, eta gogoan hartu

Aberatsek etxezainak dituztela adiskideen ordez,

Eta guk, etxezainik ez baina, lagunak ditugula.

Zatoz, gupida ditzagun ezkonduak eta ezkongabeak.

Egunsentia badator bere oin txikiekin,

Urrezko Pavlova baten gisa,
Eta ni nire desiratik gertu naiz.
Ez da ezer bizitzan hoberik
Ordu fresko eta garbi hau baino,
Elkarrekin esnatzeko ordua.

Manu ez dago seguru Txominek poema ulertu ote duen.

– Zein ederra den, esaten duenean astiro sartzen dela goiza, Pavlovaren urratsen fintasunarekin, titi-tapa, tipi-tapa. Ba al dakizu nor zen Pavlova?

– Ez ba.

– Dantzari errusiar bat. Dantza klasikoaren mundua aldarazi zuen Anna Pavlovak. Dantzariek sendoak izan behar zuten, indartsuak. Horixe zen legea. Pavlova, aitzitik, fina zen, delikatua, haren oinak ia ikusezinak ziren taula gainean. Horregatik dio Ezra Poundek Pavlovaren gisara sartzen dela goiza gelan, ia oharkabean.

– Miragarria.

19

Karmeleren eta Txominen arteko harremana Château de Belloy jauregian izandako egonaldian sendotu zen. Egia da elkarrekin hitz egiten zutela tarteka, baina Karmelek ez zion berehalaxe konfiantzarik emango Txomini. Bazekien haren gustukoa zela, musikariaren begiradan eta keinuetan nabari zen hori, baina ez zen guztiz fio ia hamabost urte helduagoa zen gizon hartaz. Hala eta guztiz, ez zuen lokarria erabat askatzen. Alderantziz, tenkatu ere egiten zion lantzean behin.

Château de Belloy euskal jatorria zuen merkatari aberats baten etxea zen, Paristik hogeita lau kilometrotara dagoen St. Germain-en-Laye herrian zegoena, eta euskal gobernuari musu-truk utzi ziona. Eresoinkakoak 1938ko uztailean iritsi ziren hara, eta hainbat hilabetez bizileku izan zuten etxea. Jauregi apaina zen, bikaina, hiru solairukoa. Lorategi handi bat zuen inguruan, eta lorategira marmolezko eskailera zabal batzuk ematen zuten, San Markosen bi lehoi hegadun zituztela alde banatan.

Artista gehienak hantxe bizi ziren, komuna batean bezala –tira, ez da hainbesterako, gizonezkoek alde

batean eta emakumezkoek bestean lo egiten zuten, eta zer gerta ere apaiz bat ibiltzen zen hor zehar–. Tabernatxo bat atondu zuten, jatetxea eta kapera. Korta txiki bat ere bazuten animaliekin. Lorategian egiten zituzten entseguak, zuhaitz erraldoi baten azpian. Egonaldia aurrera zihoan heinean, kideen arteko ezkontzak ere izan ziren.

Château de Belloykoa da Karmele eta Txomin elkarren ondoan agertzen diren lehen argazkia. Karmele trajez eta gorbataz jantzita dago, eta alboan du Txomin; badirudi zerbait kantatu behar dutela, eta musikaria tonua ematen ari zaio. Bi-biek altura ia bera dute. Karmele eder ageri da, begi handi txeratsuak, masail biribilak eta irribarrea ezpainetan. Ezinezkoa berarekin ez maitemintzea. Txomin ere galant, ile ilun sendo kizkurrarekin eta espresio jostalari batekin.

Askotan paseatzen zuten elkarrekin Belloyn, eta hasi ziren batek besteari norbere bizitzako pasarteak kontatzen, artega eta modu desordenatuan.

Karmelek kontatu zion, Francoren altxamenduak udako oporretan harrapatu zuela Ondarroan, eta ez zela bueltatu Basurtuko ospitalean zuen lanpostura. Laster, urriaren 4an, Ondarroan sartuko ziren matxinatuak eta frontea bertan finkatuko zen hilabete batzue-

tarako, Ondarroa eta Lekeitio arteko mendietan, herriko kaskotik arra bete bidera. Karmele ez zen handik mugitu. Nahiz eta Francoren aldekoak bazetozela jakin, herrian geratu zen.

– Nolatan ez zenuen ihes egin?

– Ez dakit, dudatan egon nintzen, baina gurasoekin geratzea erabaki nuen. Lan egiteko asko neukan herrian. Gerrako zaurituak zeudenez, inprobisatutako ospitale bat atondu genuen zinema batean eta bertara eramaten genituen alde batekoak zein bestekoak. Halako batean herrian zabaldu zen Santakrutz ermitatik bera zetozela soldaduak. Frankistak Ondarroan sartu bezain laster amenazu egin zuten niri begira. “Urrestirenak egin du”. Ez ziren berandutu. Aita atxilotu eta udaleko hiltegian sartu zuten.

– Txakur halakoak!

– Baina gertatu zen, obus batek ofizial italiar bat zauritu zuela eta zinemara eraman zutela hura ere. Nik sendatu nion besoa. “Horren ondo osatu nauzu, gazte; zer nahi duzu trukean?”, galdetu zidan. Eta nik, bi bider pentsatu gabe: “Aita askatzea”. Biharamunean libre zegoen.

– Asko maite duzu aita.

– Ikaragarri.

– Nik ez nuen nirea ia ezagutu ere egin.

Gau epela da Belloyko lorategian, ipurtargiak ikusten dira.

– Ni ere gerran aritutakoa naiz, *Ariztimuño* batailoian. Baina ez dizut balentriarik kontatuko. Lasaiuneak ere izaten ziren. Behin, gaurkoa bezalako gau batean, lubaki aurreko zelaian argitxo batzuk ikusten ziren, piztu eta itzali, eta alde batetik bestera higitzen ziren, su ñimiñoak balira bezala. Ametsetakoa iruditu zitzaidan une hura, gauez tiroek soilik egiten baitzuten argi ordura arte. Tiroen itxura zuten baina ez zuten zaratarik egiten. Eta ez zuten hiltzen. Nire alboan lubakian zegoen gazte batek, unibertsitate ikaslea bera, biologoa, galdetu zidan: “Ba al dakizu ipurtargiek zergatik egiten duten argia gauez?”.

– Gose direlako?

– Ez ba. Maitasunagatik pizten zaie ipurdia. Emeak geldirik egoten dira, ez baitute hegorik, eta arrak hara eta hona dabiltza. Ar bakoitzak sekuentzia batean egiten du argia eta emeak erantzun egiten dio. Sekuentzia berekoak baldin badira, elkartu egingo dira. Azken batean, notak dira, kantu bateko notak. Argiz egindako kantuak. Emeak arraren kantua onartzen baldin badu, maitatuko dira.

Txominek aurrez aurre jarri du Karmele.

– Zuk onartuko al zenuke nire kantua?

– Ikusiko dugu.

Logelen eraikineko eskailerara lagundu dio Txominek Karmeleri. Agurrean Karmelek musu eman dio masail eta ezpain ertzaren artean, eta eskailerak igotzen hasi da.

Karmele gorantz doala, Txominek ataritik galdetu dio:

– Ba al dakizu nor zen Pavlova?

– Bai, dantzari bat.

Eta Karmeleren soslaia galdu egin da eskailera muturrean.

20

Manu Sotak New Yorkera abiatu behar izan zuen. 1938ko abuztuaren 13a zen, larunbata. Agirre lehendakariaren agindu zehatzak zituen. Premiazkoa zen New Yorken Euskal Gobernuko ordezkaritza bat ezartzea. Anton Iralarekin eta Ramon Sota ilobarekin batera Estatu Batuetara joango zen *Île de France* itsasontzian. Ostatua hartuko zuten tokia: Hotel New Weston,

31 East 49 Street. Bilerak egin behar zituzten batzuekin eta besteekin. Propaganda eta harremanak. Egitekoen artean zeuden bisita hauek: Frank Murphy, Michigango gobernadorea; Harry Binsse, *The Commonweal* aldizkariko zuzendaria; P. Lafargue, *America* aldizkariko idazlea; Mundelain kardinala; Fiorello Laguardia, New Yorkeko alkatea... Bestalde: *New York Herald* eta *Times* eta *New York World Telegram* agerkarietan artikuluak argitaratzea lortu behar zuten kosta ahala kosta.

Txomin Letamendik lagundu zion Belloyko jauregitik St. Germain herriko tren geltokira. Airos joan ziren, zalgurdiz, Manu traje argi batekin eta pipa bat eskuan; Txomin, aldiz, alkandora zuriz.

– Bai goiz irten garela, Manu.

– Bi gauzek ateratzen naute nire onetik. Lehena, desordenatutako gela batean egoteak. Bigarrena, tren geltokira arima ahoan dudala iristeak.

– Ez da gozoa izaten hori, ez.

– Begira, Txomin. Bidaiaren garrantziaren araberakoa izan behar du itxaronaldiak. Trenaren bidaia ordu erdikoa bada, nahikoa da hamar minutu lehenago geltokian izanda; ordu betekoa bada ostera, hogei minutuz egon behar duzu zain...

– Hortaz, Estatu Batuetara zoazenez eta bidaia bost egunetakoa izanik, bezperatik egon beharko zenuke geltokian. Oso berandu goaz!

– Ez, topea ordubetekoa da. Ordutik gora itxaroteak asperdura dakar. Baina ordubete denbora tarte zentzuzkoa da. Jakin behar da itxaroten estutasunik gabe. Egunkariak eta liburuak erosi, edari gasdunak dituzten gurditxoen talka soinuak entzun, gose bazaude otarteko txiker bat jan... Geltokietan zain egoten jakitea ere artea da.

– Nik ezin dut horrelakorik egin, ezin dut jasan maleten eta bidaztien joan-etorria. Bost minutu aurretik egonda nahikoa dut. Gainera, artistok eguerdira arte egin behar dugu lo eta...

– Bai, noski, batez ere gauez lan eginez gero. Ba al dakizu zer esan didaten etxean New Yorkera noala esan dudanean?

– Zer?

– Jan egingo nautela han. Amerikara joandako hamaika euskaldun jan dituztela indigenek.

– Eta zer erantzun diezu?

– Gu hain gosetiak garela jakinik, lepoa egingo nukeela euskaldunok izan garela lehenak natiboak jaten.

– Ni Estatu Batuetan egona naiz. Eta ez nuen arazorik eduki. Ezetz asmatu zerk harritu ninduen gehien?

– Harlemgo musikak.

– Ez, jende apala dela. Gauza gutxirekin dira zoriontsuak. Hemen itxurakeria handia dago. New Yorkeko portura ailegatu nintzenean, zamaketari beltz batek lagundu zidan itsasontzitik jaisten. Musikaria nintzela bazekien baina bost axola, aberatsa banintz bezala tratatu ninduen. Eskutik heldu eta “take care, brother” esan zidan. Zaindu, anaia.

– Zaindu, bada, anaia Txomin –esan dio Manuk, iritsi dira-eta tren geltokira.

Besarkada estu batean lotu dira, berriz elkar ez ikusteko arriskuan baleude bezala.

21

New Yorkera abiatu zen egun hari buruz hauxe idatzi zuen Manu Sotak bere Underwood idazmakinan:

“1938ko abuztuaren 14an pakebote frantses batean nindoan New Yorkerako bidean. Estatu Batuetara sartzen nintzen lehen aldia errefuxiatu gisa izango

zen. Nire aurretik joandako milioika gizon-emakumeren tradizioari jarraitzen nion, mundu berrira doan erbesteko bidean.

“Gerra Zibilarekin aberaskumetik txiro izatera egin nuen jauzi. Barkuan, turista klasean paseatuz, oroitzen nintzen umetatik aitaren yatean egindako osterez. Txofer eta morroiz inguratuta bizitzetik, estutasunik batere gabe, nire galtzerdiak zula ez zitezen arduratzera igaro nintzen. Jaio nintzenez, Jainkoari esker, arima bohemio batekin, dirua galtzeak ez zidan loa kendu, baina barnean deserriratuen tristura neraman.

“Ez nuen orduan ezertarako ilusiorik. Nire iragana deseginda geratu zen Europan, hain zuzen, bizitza berriz bideratzea zaila izaten den adin batean. Hiltzea ez da derrigorrezkoa bizitzak apur daitezen”.

Sotatarren familiak dena galdu zuen gerran. Aitari ehunka barku konfiskatu zizkioten faxistek. Ez zen ezertaz konturatu, gerra hasi baino gutxi lehenago hil zen-eta. Hala ere, epaiketa egin zioten hil ostean. Ibaigane jauregia militarren esku geratu zen, eta tximinian zuten familiako armarriari lepoa moztu zioten sable batekin.

Faxistak dena kendu zaleak ziren. Arrasateko emakume batek kontatua da, bazutela haur-kotxe hori bat

ume jaioberriarentzat eta hori ere konfiskatu egin zietela. Geroztik, beraien umeari lapurtu zioten kotxe berarekin paseatzen omen zen erregimenaren aldeko bikote bat. Eta ikusi behar zituzten egunero-egunero aurretik pasatzen, kotxe horiarekin.

Maitasuna Belloyko Jauregian

22

Arrautza bat pirritan joan zen belar moztu berriaren gainean, halako moldez, non arrautza koskoaren muturrak gora eta behera egiten zuen, bira eta bira, orgatxo batetik askatu den gurpilaren kerak hartuta.

Karmele Urrestik eskuaz geratu zuen arrautzaren ibilbidea.

– Txomin!, zure errua izan da –esan zion amorraturik–. Isilik egon behar zenuen.

Lasterketa batean parte hartzen ari zen Karmele Château de Belloyko belardian. Koilara baten kirtena ahoan sartu, koilararen sabelean arrautza ipini eta eskuak bizkarrera lotuta egin behar zuen korrika, Eresoinkako beste emakume batzuekin lehian. Eta halako batean, aurreneko postuan lasterka zihoala, erori egin zitzaion arrautza; ez zen puskatu hargatik, arrautza egosia baitzen, Belloyn ez zeuden janaria alferrik gal-

tzeko moduan. Norgehiagoka ez irabaztearen hobena Txomini egotzi zion, zeina Karmele animatzen ari zen horma baten gainera igota, oihuka eta keinu nabarmenak egiten, eta horrek neskarengan eutsi ezineko barregura sorrarazi zuen.

1938ko abuztuaren 14a zen, Manu Sota Château de Belloytik New Yorkera joandako biharamuna. Amabirjina Egunaren bezperan jolas batzuk antolatu zituzten jauregi aurreko belazean, Eresoinkako kideen bihotz goibelduak zertxobait alaitzearren. Sokatira, erreleboak, zartagin jokoa, oskol jokoa eta antzekoak.

Zaila da pentsatzea gizatalde hark une zoriontsurik izan zezakeenik, nozitzen ari ziren egoera larria kontuan izanik. Gorabeheratsua izan bide zen haien aldartea, jakinik non eta nola zeuden senitartekoak, lagunak eta kideak: batzuen batzuk oraindik gerran borrokatzen Kataluniako lubakietan, beste batzuk kartzelatuak, erbestean makina bat.

Txominen anaia bera, Juan Letamendi, errefuxiatu esparru batean gatibu zeukaten Frantzian, eta Txomin eginahalak egiten zebilen anaia handik libratzeko. Haren argazki bat erakutsi zion Karmeleri.

– Antz handia duzue. Hasieran iruditu zait zu zeu zinela, militarrez jantzita.

Errepublikako Armadako kapitaina zen Juan, hegazkineriakoa. Frantziara egin behar izan zuen hegaz, eta zenbait ustekabekoren uztardura zela-eta Argelesko errefuxiatu esparruan zegoen beste militar errepublikazale batzuekin batera, ez atzera ez aurrera.

Karmele ere kezkatuta zebilen bere etxekoen egoerarengatik. 1937ko otsailean familia osoa Ondarroatik bota egin zuten agintari militar berriek. Oinez zeharkatu behar izan zuten frontea helduek eta umeek. Ondarroa Lekeitiorekin lotzen duen itsasertzeko errepidetik igaro zituzten bi bandoen arteko kontrolak eta bidez egin zituzten bi herrien artean dauden hamaika kilometroak.

Egozteen zergatia militar frankisten dekretu bat zen, zeinaren arabera ihesi joandako senitartekoen egoera azaltzeko eskatzen zieten herritarrei; ez hori bakarrik, bultzatzen baitzituzten ihesi joandako haiekin kontaktuan jartzera, erregutzeko lehenbailehen buelta zitezen, bestela beraiek ere herritik kanporatuak izango ziren mehatxupean. Zortzi eguneko epea ezarri zieten, senitartekoekin harremanetan jarri eta haiek itzultzeko; guztiz urria, gerra bat tarteko, ezinezkoa.

Keinadura bete egin zuten frankistek eta mandatua argitaratu eta zortzi egunetara familia ugari egotzi zuten herritik. Ondarroako kasuan, esan behar da, ordurako kasik biztanleen erdia zebilela herritik kanpo, milizietan engaiatuta edo frankistek herria hartu baino lehen ihes eginda; hainbeste jende, ezen herriko Franco zale batzuek kexatu ere egin zitzaizkien nagusiei, hain gogorrak ez izateko eskatuz, agindua betez gero hutsik geratuko baitzen herria, langilerik gabe. Ez zieten jaramonik egin.

Dekretu haren arabera, salatu beharreko iheslarien artean Karmeleren bi neba nagusiak zeuden, Joseba eta Josu, herria erortzear zegoela Iparraldera hanka egindakoak.

– Gure aitak bere txalupak eskaini zituen ihesaldirako. Eta urriaren 3an, gauez, *Jontxu* ontzian joan ziren bi nebak, herriko beste gizon askorekin batera. Gipuzkoan gertatuak ikusita, izuturik zeuden, fusilatu edo kartzelatuko ote zituzten.

– Adinekoak eta emakumeak baino ez zineten geratu orduan.

– Tira, kontua da handik gutxira gure aitak gutun bat idatzi ziela Josuri eta Josebari Iparraldera. Bilbo al-

dera bueltatzeko agintzen zien, Euskal Gudarostea bolondres faltan zegoela-eta.

– Ez da epeletakoa zuen aita...

– Malaletxeri ez zegoen ezetz esaterik. Joseba eta Josu itzuli egin ziren Hegoaldera. Bolondresek bi ontzitan egin zuten itzulera. Eta biotako bat atzeman egin zuen *Almirante Cervera* destruktoreak. Bertan zihoan Aitzol idazlea.

– Hil egin zuten gaixoa. Ez zioten barkatu elizgizona izan eta gorriekin egotea.

– Gure bi nebak, zorionez, beste ontzian zihoazen. Esaten dute beste barkuko patroia erosita zegoela.

– Ederretik libratu ziren...

– Frankistek begitan hartuta daukate gure aita. Gorroto handia dago herrian.

23

Karmele Urrestik lantzean-lantzean ibiltzen zuen Ondarroatik Lekeitioko itsasertzeko bidea. Bihurgunez beteriko errepidea da, badiote hirurehun bira baino gehiago egiten dituela hamaika kilometro eskas horietan. Bide ertzetik paseatzen joaten ziren Anita eta

biak, ia automobilik igarotzen ez zen urte haietan. Errepidetik bertan da itsasoa, uhinen aparra haitzetan lehertzen eta marinelak kaletan arrantzan.

Ahizpak Frantsesarena esaten dioten etxean geratzen ziren atseden hartzera, hurran dagoen iturritik ura edateko, bi bihurgune lehenago. Burdina asko duen ura da hangoa, hainbeste ezen iturriko harlauzak herdoilez margoturik dauden, eta goroldioz. Uda partean atsegina izaten da han zehar ibiltzea, iturrian egarria ase eta inguruetako mendietako eukalipto arbolen lurrina hartuz. Bihurgunez bihurgune, itsasoari begira, Artape, Santa Klara, On botau, Arlasta, Galtzuaran azpia, Zider izkina, Mendipe, Irabaltza, Atxazpi, Mantxa bide, Laba, Peruko zubia, Kurrilo harria, Arri luxia, Lur gorria, Mune erripe, Arrain bide, Murkulu, Arri ikara, Zarbatxa, Paulo Atxa, Arri luzia, Ondarra, Luperri lekua edo igeri lekua, Portu txiki, Ur Aundi, Ur gogorra, Portu handixe, Iko-atzea eta Ametselako haitzak igaro eta azkeneko bihurgunean Lekeitioko irla begiztatu arte, ia bi orduko ibilbidea da oinez.

Baina 1937ko otsailean, urrestitarrak herritik egotzi zituzten goiz hartan, hotz zegoen, iparraldetik eraso egiten zuen haizeak, eguraldia gozakaitza zen oso. Atxazpi aldean kokatua zegoen lubakien arteko

pasagunea, bi herrien arteko bide erdian; hain zuzen, errepidea bonbez zulatua izan zenez, hondarrezko zakuekin egindako murru handi bati kontra igaro zuten errefuxiatuek, jausteko zorian. Egoera txarra zeukan errepideak, haitzetara erori zen egun batzuk lehenago iheslariz beteta zihoan auto bat. Horrexegatik, menturaz, edo beste aukerarik ez zutelako, oinez egin zuten bidea gehienek, maletak eskuan, fardelak besoetan, edota kopetan, arrain saltzaileen sorkiaz baliatuz. Mantuko umeak bezala laurogeita hamasei urteko amona, denak ilaran.

Berrehun lagun inguru ziren guztira, Ondarroakoak ez ezik Gipuzkoako herrietatik kanporatu zituzten batzuk ere hantxe zihoazen... Artape, Santa Klara, On botau, Arlasta, Galtzuaran azpia, Zider izkina, Mendipe, Irabaltza, Atxazpi, Mantxa bide, Laba, Peruko zubia, Kurrilo harria, Arri luxia, Lur gorria, Mune erripe, Arrain bide, Murkulu, Arri ikara, Zarbatxa, Paulo Atxa, Arri luzia, Ondarra, Luperri lekua edo igeri lekua, Portu txiki, Ur Aundi, Ur gogorra, Portu handixe, Iko-atzea eta Ametselako haitzak igaro eta azkeneko bihurgunean Lekeitioko irla begiztatu arte.

– Eta Lekeitiotik, gero, Bilbo aldera joango zineten, ezta?

– Bai. Bilbora ailegatutakoan sakabanatu egin ginen. Gurasoek eta Anitak Portugaleten hartu zuten babesa, Kuban aberats egin zen ahaide baten etxean. Ezin izan zuten han luze eutsi eta Belgikara joan ziren. Jauntxo batzuen jauregian lortu zuen lana Anitak. Josebak gutunez aholkatu zion kontuz ibiltzeko han, izandunen eskailerak labainkorrak direla-eta.

– Zein batailoitan ari ziren Joseba eta Josu?

– *Rebelión de la Sal* izenekoan Joseba, gerra kapilau. Eta *Itsasalde* batailoian Josu.

– Hara!, Artxandan borrokatu ziren *Itsasalde*-koak. Nik ezagutu nituen batzuk...

– Josebak Bilbotik alde egitea lortu zuen, baina Josuk ez. Azken unera arte egon zen Josuren batailoia Bilbo defendatzen. Hiria erori zenean, ordu batzuetan gudariek ez zuten jakin zer egin. Halako nahasmen une bat izan zen. Frankistak sartzen zirenean errenditzeko agindua zuten. Hori egin zutenak Arriaga antzokian giltzapetu zituzten, kartzela bihurtu baitzuten teatroa.

– Bere burua entregatu zuen?

– Bilbon ez!, Ondarroara itzuli zen nola edo hala. Uste zuen, herrian ezagutzen zutenez, bihozberak izango zirela. Baina zamaontzi batean sartu zuten

preso. Eta gero handik Iruñeko Ezkabako presondegira eraman zuten eta hantxe dago geroztik.

– Eta zu nola iritsi zinen honaino?

– Erizain ibili nintzen Gudarostearekin, gudariak nora joan ni hara. Basurtuko ospitaleko garaitik ezagutzen nuen Jose Maria Bengoa doktorea eta haren esanetara jarri nintzen. Lehenik eta behin Limpiasen atondu genuen kanpaina ospitalea. Karrantzako bombardaketa gupidagabea berta-bertatik ezagutu nuen. Gero eta larriago geundenez, azkeneko momentuan gudari zauritu batzuekin batera Santanderren txalupan sarturik lortu nuen Lapurdira iristea. Hotela eta kasinoa izandako La Roseraien erietxe bat moldatu genuen handik lasterrera, Ilbarritzen, muga zeharkatzen zuten gudariak hantxe jagoteko, Gonzalo Aranguren doktorearen aginduetara.

– Jakin dut La Roseraien erizainen arteko abesbatza osatu zenutela.

– Bai, eta orduan agertu zen Paulin lehengusua nire bila, Eresoinka antolatzen ari zirela Saran eta jendea behar zutela kanturako. Eta orduz gerozkoa, badakizu.

Jose Antonio Agirrek 1936ko urriaren 7an egin zuen Lehendakari zina Gernikako arbolaren azpian. Errepublikako Gobernuak euskal autonomia estatutua onartu zuen, berandu, Bizkaia eta Gipuzkoa isolatuta eta setiatuta zeudelarik, gerra hasi eta hiru hilabetera.

Agirrek Errepublikaren aldeko ia alderdi guztiak bildu zituen Gobernurako: nazionalistak, errepublikanoak, sozialistak eta komunistak. 20ko hamarkada baikorraren ondoren, 30ekoan lan baldintzak okertu egin ziren eta langabeziak nabarmen egin zuen gora. Horregatik, eta alderdi aurrerakoiak zeudelako gobernu kideen artean, joera soziala izan zuen agintaldi hark.

Nahiz eta autonomia izan berez, praktikan, estatu independente baten gisara jokatu zuen Euskal Gobernuak: armada propioa, moneta, delegazioak atzerrian, berezko hezkuntza eta osasun sistemak, *Igarobidea* izeneko pasaportea... Hego Amerikako estatu batzuek legezkotzat onartu zutena.

“Gora Euskadi!”, oihukatu zuen Agirrek Gernikan zin egitean.

“Askatuta!!!”, erantzun zioten Jagi-Jagiko independentistek.

25

Bada interneten dabilen argazki bat, Lluis Companys presidente katalana eta Jose Antonio Agirre elkarrekin agertzen direna. Data zuzena du, 1938ko urriaren 16a; lekua, aitzitik, txarto dator. Argazkiaren azpian dio Bartzelonan elkartu zirela, baina argazkian haien atzean ageri den eraikinean arreta jartzen baduzu, argi dago Château de Belloyn daudela.

Ez ziren garai errazak Companys eta Agirrerentzat. Katalunia bakartu berri zuen kolpisten armadak. Eta Brigada Internazionaletako kideak ere gerra uzteko zorian aurkitu ziren egun gutxi lehenago, nazioarteko indarrek hala agindurik bueltatu egin behar izango baitzuten etxera.

Lehendakariak ez zuen aukera galdu nahi izan presidente katalana Château de Belloyra gonbidatu eta harrera egiteko, biak Parisen zeudela baliatuz. Agirre irrikaz zegoen Companysi euskal enbaxada kulturala erakusteko.

Egun horretako argazki ugari dago, Jesus Elosegi argazkilari tolosarraren bilduman. Irudietan ikusten da nola Eresoinkako kideek apainketa lanak egin zituzten: arkuak lorez jantzi, oihalak josi, balkoietan ikurrina eta senyera paratu.

Karmele argiztapena jartzen ari zen zuhaitz batetik bestera, Txomini galdegin zionean ea lagunduko zion kablean anpoilak jartzen.

Txomin igo da eskailerara, luzatu du eskua, baina ezin bonbilla ganoraz kiribildu.

– Makala zara gero!

Jaitsarazi du gizona, igo da Karmele zango arinekin eta berak lotu du argia.

– Pasadizo bat kontatuko dizut, Txomin. Gure aita Frantzisko Malaletxe exiliatu berri zenean, Miarritzeko Parma aireportura joan zen lan bila. Ondarroako lantegian baporeetako makinak egin eta konpontzen iaioa zenez, bururatu zitzaion moldatuko zela hegazkinen motorrak konpontzen ere. Eta han aurkeztu zuen bere burua. Lanetik itzuli zenean, Karmen jakin-minez zeukan etxean, postua eman ote zioten edo ez.

– Bai, noski.

– Entzun niri. Amak galdetu zion: “Nola joan da eguna?”. Eta aitak erantzun: “Ondo, emakumea”. “Zer

egin duzu ba?”. “Piezak doitu”. “Eta?”. “Doitzea ezin hobeto egin dut, baina leundu gabe utzi ditut piezak”. “Zoratu egin al zara?”. “Esan diet hori erraz egingo duela laguntzaileak”. Ama haserretu egin zen: “Ez zaituzte gehiago deituko!”.

– Eta ez zuten deitu...

– Bai zera!, ez zegoen inguruan mekaniko hoberik.

– Bere buruaz fio zen...

– Nork bere buruari balioa ematen jakin behar du.

– Zuk behintzat ezagun duzu.

26

Lluis Companys eta Carme Ballester zekartzan autoa Belloyko atarira iritsi zelarik, Jose Antonio Agirrek berak zabaldu zien kotxeko atea. Eskua estutu eta jauregira sartzera gonbidatu zituen. Galaz jantzita eta arku eta ezpatekin, dantzariek korridore bat egin zieten lorategira bideratzeko. Eresoinkaren ikuskizuneko zati batzuk taularatu zituzten haientzat, belardiko zuhaitz erraldoiaren azpian prestatutako antzeztokian.

Jauregi barrura sartu ziren ondoren, jangela dotorera. Txomin Letamendik tronpetarekin jo zituen pare

bat pieza. Jesus Elosegik argazkia atera zion Txomini *Agur Jaunak* interpretatzen, tronpeta gorantz zuela eta Agirreren figura atzean, klik.

Jose Antonio Agirrek hitzaldia egin zuen ondoren. Lehendakaria belaunaldi berri bateko politikaria zen, euskal nazionalismoaren hasierako integrismotik eta purismotik urrun, mundu ikuskera modernoagoa zuen: Europa zalea eta, muntazkoena beharbada, gaztea. Kargu publikoetan trebatua, katolikoa bai baina gizarte sentsibilitate handikoa zen, garaiak bizi zituen aldaketen semea. Jacques Maritain eta Teilhard de Chardin pentsalarien ideien eragina zuten Agirrek eta bere adiskideek, kutsu soziala zuen katolizismo batean sinesten zuten. Mintzaldian argi utzi zuen zeintzuk ziren lehentasunak: faxismoari aurre egitea eta denentzat ongizatea lortzea. “Partekatu behar duguna ongizatea da, eta ez miseria” esanez bukatu zuen. Txaloak. Klik, klik, klik.

Jose Antonio Agirrek jende guztiarekin egoteko ohitura zuen, hala goi mailako agintariekin nola ukuiluaz arduratzen zen laborariarekin, zahar eta gazte, denak agurtzen zituen; galdera labur batzuk egiten zizkien, bakoitzaren egoeraren berri jakin nahian. Ezagutzen zituen guztien izen-abizenak ikasten zituen,

eta denak beren izenez agurtu. Bozkarioa eta mirespena sortzen zuen jarraitzaileengan.

Batekin eta bestearekin mintzatu ostean, Txomin Letamendiren txanda heldu zenean berotasunez agurtu zuen musikaria.

– Interpretazio ezin hobea, Letamendi komandantea. Gudari ona zinen frontean, baina askoz hobea musikaria.

– Ahal dudana egiten dut, Lehendakari jauna.

– Tira, Txomin, utzi beste batentzat formalismo horiek, aspalditik ezagutzen dugu elkar.

Lehendakariak besotik oratu eta bazter batera eraman zuen tronpetaria.

– Kontatu egidazu, zelan zaude? Esan didate anaia preso dagoela Argelesko esparruan.

– Ez dago egokiera onean.

– Badakit. Ahaleginak egiten ari gara hura askatzeko.

– Eskertzen dizut.

– Aizu, Manu Sotak esan dit arrakasta duzula Parisen, Francisco Canaroren orkestrarekin.

– Zatoz gau batean andrearekin eta ohartuko zara zeure kabuz. Ausartuko al zinatekete tango bat dantzatzen?

– Gerriak ez dit laguntzen, Txomin. Ezta karguak ere. Kantari berria duzuela ere aipatu didate...

– Canaroren kantari titularra gaixotu egin zen. Nik esan nion Eresoinkan badela aingeruak bezala kantatzen duen gazte bat. Luis Mariano aurkeztu nion eta harrezkero Canarok ez du beste inor entzun nahi. Maiteminduta dago Luisen ahotsarekin.

– Bidea egingo du mutilak, gauzak gehiegi gaiztotzen ez badira.

– Kafetegian bolo-bolo dabil Hitlerrek gerra abiaraziko duela.

– Ez dabiltza guztiz oker. Zaindu zaitez, artista!

– Berdin, Lehendakari jauna.

Agirre zertxobait aldendu zen Txominen albotik, baina belarrira azken galdera bat egitera hurbildu zitzaion.

– Nor da ba ondotik dabilkizun planta oneko neskato hori? Ez zinen ba maiteminduko!

– Ni erabat. Baina bera ez dakit.

– Hitzez ez dizu aitortuko. Baina begiradak salatzen du.

Egunek aurrera egiten zuten Belloyn kezka eta asperduraren itzalpean. Txominek noizean behin bisita egiten zion Antonio Gezalari estudiora. Gustuko zuen margolariarekin egiten ari zenaz solastatzea. Gezalak bere margoak erakusten zizkion, eta bizitzaz eta arteaz jarduten zuten, honetaz eta hartaz.

Gezalaren estudioa gauzez mukuru zegoen: amaitu gabeko mihiseak, bozetoen biribilkiak, margoak, pintzelak, trasteak. Gustuko objektuak eta oroigarriak ere bazituen hormetan. Orri erdi batean makinaz idatzitako zerrenda bat zetorren, goian data eta tokia: 1915eko ekainak 17. Chacoli Tablas.

Letamendik eskuan hartu du papera eta hari begira geratu da.

– Zuloagaren omenez egin genuen afari bateko zerrenda da. Bertan geunden Zuloaga bera, Iturrino margolaria, Unamuno idazlea, Quintin de la Torre eskultorea, Jose Felix Lekerika politikaria.

– Hogeita gutxi urte zenituen...

– Hogeita sei egin berriak, sei egun lehenago. Zuloaga eta Unamuno ezagunak ziren, baina besteok gazteak ginen orduan. Kontuak nolakoak diren... Arte

Ederren Museorako iturri bat diseinatu zuen Quintinek, irudi biluzi batekin, eskuetan lira bat zuela. Eskultura hura tirokatu egin zuten faxistek. Eta beste irudi bat jarri omen dute orain, aurrekoaren berdina, baina jantzita. Bilboko alkate berria da Lekerika, erregimenekoa; garai batean lagunarte berekoak ginen eta orain bi muturrekoak.

Bozetoen artean *Artisten gaua Ibaiganen* koadroa egiteko zirriborro batzuk aurkitu ditu Txominek, urmargoz paperean pintatuak.

– Beti galdetzen diot neure buruari, zergatik margotu gintuzun aurpegirik gabe, Antonio.

– Ez nuelako inor ezagutzerik nahi. Benetan gertatu zen festa hura, baina niretzat garrantzitsuena koadroa bera da, koloreak, konposizioa. Ez nuen erretratu bat egin nahi. Zuek agertzea ez da berebizikoa. Benetakoan oinarritu bai baina azkenean beste errealitate bat sortzea da beti nire asmoa: jai hartatik zer geratu zen nire memorian, zein izan zen nire pertzepzioa, zer forma artistiko hartzen duen horrek guztiak... Niretzat hori da garrantzitsua, benetan gertatu zena baino nola jaso dudan nik une hura. Gertatutakoa ez, hautemandakoa baizik.

Baina Txomin Letamendiren gogoa urrundu egin da Gezalaren solasetik.

– Gaur azaroaren 22a da –esan dio.

– Bai, osteguna da egun osoan. Eta zer?

– Margotuko al zenidake aurpegia beltzez?

Artisten gaua Ibaiganen koadroaren bozetoak ikusita, Txomini ideia bat jaio zaio taldearen aldarte eroria altxatzeko.

“Jantzi alkandora zuriz eta zoazte Gezalaren estudiora”, besterik ez die esango txistulariei. Gezalak musuak pintatuko dizkie margo beltzarekin eta halaxe agertuko dira jantokira afalorduan. Txistulariek txistuak ez, danborrak bakarrik joko dituzte.

– Thanksgiving eguna ospatuko dugu! Esker emate eguna. Baina ez indioilarra janez, ez; Harlemgo beltzen moduan egingo dugu, musika jotzen eta dantzan.

Gau berezia izan zen, Txomin Letamendi eta beste musikariak aurpegia beltzez zamotuta, musika afroamerikarra jotzen. *The man I love, Heebie Jeebies, Sweet Georgia Brown, Big butter and egg man* eta *Whispering*:

Whispering while you cuddle near me.

Whispering so no one can hear me.
Each little whisper seems to cheer me.
Just whispering that I love you.

Kantuan eta dantzan, Karmeleri belarrira abestu zion Txominek:

Soilik xuxurlatzen maite zaitudala.

Jaia bukatu zenean eta lagun artea desegin, Gezalaren estudiora joan zen Txomin, aurpegia garbitzera eta arropez aldatzera. Karmelek lagundu zion bertara. Pintorea ez zebilen han, lotara joana zen bere gelara. Aurpegiko margoa garbitzen hasi zen Txomin, baldar samar.

– Ekarri hona zapia, makala! –esan zion Karmelek.

Musikari beltzari eskutik heldu, Gezalak deskantsatzeko erabiltzen zuen xeslonga zegoen aldera eraman eta altzariaren ertzean eserarazi zuen.

– Itxi begiak.

Ezari-ezarian garbitu zion zapiarekin aurpegiko margoa. Eta gero alkandora zuria askatzen hasi zitzaion oharkabean, paparra laztandu zion erizainaren eskuen zehaztasunarekin, Txominen izterretan eseri zen zangalatrau. Karmele besarkatzen ahalegindu zen

Txomin, baina neskak eskuekin bultzatu eta etzanarazi egin zuen leun.

– Astiro, makala...

Bien itzalak mugitu egiten ziren Gezalaren margo koloretsuen gainean, pintura bera osatzen elkarrekin.

28

Eskuan dakarren gutunari eragiten sartu da Gezalaren estudioan.

– Antonio, ezetz asmatu nork idatzi duen?

Margotzen ari zen koadroaren astoan pintzela utzi eta, irribarre konplizea eginez, esan dio:

– Eta, zer dio ba gure lagun amerikarrak?

– Zeharo harrituta dago Lekerika enbaxadore izendatu dutelako.

– Ez du harridura bakarrik izango...

– Haserre bizian dago. Bilboko alkate egin zutelako amorratuta bazegoen, pentsa orain Vichyko Gobernu garaian Francoren enbaxadore bihurtu denean! Karrera egiten ari da txori hau faxisten artean –Txominek Manu Sotaren karta eman dio Gezalari–. Tori, irakur ezazu zeuk.

“New Yorken, 1939ko martxoaren 23an.

“Txomin estimatua,

“Zure gutuna jaso dut zorion handiarekin; izan ere, nolabait neurekin batera zaude hemen, gutun bidez izan arren. Gutun-azala begiratu eta ikusi dudanean zenbat franko balio duen zigiluak, orduan ulertu dut gutunketa luxu bat dela zu bezalako errefuxiatu batentzat.

“Jakin-minez nago, Lekerika lotsagabea nola hartua izan ote den Frantzian. Ez da egon egunkari bakar bera esan duena aleman zale porrokatua dela eta antifrantsesa. Ezin dut ulertu Espainiarekin lotutako kontuekin Frantziak duen baldarkeria diplomatikoa. Itxura denez, oraindik ez da iritsi Europara zuhurtasun eta konbentzimendu nahikoa, pentsatzeko etsaiengandik babesteko modurik onena ez dela beraiek etxe barruan sartzea. Zuk eta biok badakigu Lekerika zer txori klase den, eta ohi duen legez bere pozoi karkaxa botako dio aldamenean hartzen duen lehenari.

“Nire aldetik, salbatzen nauen uste oso batera iritsi naiz, ez dagoela zorion handiagorik kontzientzia lasai izatea baino. Beste gerra bat balitz ere erabaki bera hartuko nuke zalantza izpirik gabe. Galdu dudan guztiak ez du ezer balio konparatuz espiritualki dudan

bakearekin. Eta inoiz baino indartsuago nago bidegabekeriaren aurka eta gure herriaren independentziaren alde egiteko.

“Lehendakariak Eresoinka indartu nahi duela jakiteak poztu egin nau. Zoragarria da hori. Mundu osoa txikotak solta nahian dabil eta berak, aldiz, karabelak banderatxoekin apaintzen dihardu. Horrek esan nahi du Iuzaroan biziko garela. Jose Antonio ez du desanimatzen ezta uholde nagusi biblikoak ere. Zortea da hain une zailetan bera bezalako gizon bat gidari izatea. Pozten naiz zure anaia Juan agertu delako. Bizirik egotea, hori da muntakoena, beste guztia konpon liteke.

“Zubieta Argentinako futbol talde batera joan da jokatzera. Hamabost mila peso ordaindu dizkiote sinatzearren soilik, gainera soldata eta hobariak.

“Agur, Txomin maitea, besarkada sendo bat”.

Gezalak gutuna irakurtzen bukatu duenean Txomini galdetu dio:

– Zenbat ote da hamabost mila peso?

Jostaketa suhar eta maitaketa ezti, haurdun geratu zen Karmele.

Canaro orkestrarekin entsegua zuen Txomin Letamendik Ambassador hotelean eta, hori aitzakiatzat hartuta, Parisera lagundu nahi izan zuen Karmelek. Treneko bidaian pentsakor eta arduratsu nabari zuen Txominek, baina hark ez zion zergatia kontatzen.

Canaro eta enparauekin Letamendi saioan zebilen bitartean, Karmelek Larresoroko herriko etxera hots egin zuen Ambassador hoteleko telefono kabinatik, Anita Urrestirengatik galdetuz.

– Pare bat hilabete badira hilerokorik ez dudala.

– Zaude lasai, etorriko zaizu.

– Ez dut uste. Haurdun nagoela uste dut.

– Zeozer pentsatu al duzu?

– Ez ditut gauzak argi...

– Ezkondu egingo zara?

– Txomin ni baino hamabost urte zaharragoa da, duela gutxi ezagutu dugu elkar... Ez dakit batera jarraituko dugun ere.

– Baina umea edukiko duzu, ez?

– Argi daukadan gauza bakarra da nik neuk hartuko dudala erabakia. Erizaina naiz, Anita, eta jakingo nuke nora jo haurra eduki nahi ez banu.

– Ez ezazu horrelakorik esan. Nahi duzu Josebarekin hitz egitea? Berak lagun zaitzake.

– Abadea da. Hark ez du haurdunaldia eten dezadan nahiko.

– Abadea baino lehen da zure neba.

Karmelek zalantza egin zuen, aldi berean hiru aukera pentsatu zituen erantzun baino lehen.

– Esaiozu ba.

– Bai, gaur bertan. Baina zuk kontatu egiozu Txomini.

30

Karmelek ez zuen nahi Belloyko jauregian inork jakin zezan haurdun zegoela. Garaiko moralak ez zituen onartzen ezkondu gabe izandako haurdunaldiak eta ez zuen okerreko erabakirik hartu nahi. Bakarrik egon nahi zuen. Argudiatu zuen gaixorik zela Joseba neba apaiza, Angelura joan beharra zeukala hura zaintzera, baina isil-gordean Parisko Antony egoitzan sartu

zen, ezkongabeak eta errekurtso gutxi zuten emakumeak erditzen ziren tokian. Gaur egun ere halakoxea da Antony, batez ere Afrikatik eta Hego Amerikatik datozenak hartzen dituzte han.

Txominek ez zuen ulertzen zergatik ezkutatu behar zuen egoitzan.

– Ez zaitez Antonyra joan, Karmele. Ezkondu egingo gara. Nik maite zaitut.

– Denbora behar dut pentsatzeko.

Orkestrako lanetatik libratzen zenean Txominek bisita egiten zion Antonyn. Lorategian paseatzen ziren, luze hitz egiten zuten, eta barre ere bai sarritan.

– Kantari gisa etorri nintzen hona eta begira ze itxura dudan orain –esaten zion Txomini, sabela biribilean laztanduz.

– Tira, tripatsuak dira kantari ezagunenak...

Astiro eta nekoso igaro ziren ilargiak eta asteak, harik eta 1939ko uztailaren 13an Ikerne Letamendi Urresti jaio zen arte.

Ezin izan zuten, ordea, haurra egoitzatik berehala jaso. Adopzioan uztea ere aholkatu zioten Antonyn, baina Karmelek ez zuen umea galdu nahi. Dena den, errefuxiatua eta ezkongabea zenez, paperak egin behar zituen hura berreskuratu nahi bazuen. Eta ho-

rregatik, artean eriondo, Larresorora joan behar izan zuen gurasoengana, paperak egiteko laguntza eske. Joseba anaia arduratuko zen horretaz, Angeluko bikarioa izaki eta alkatearen ezaguna.

Ume barik, urduri dabil Karmele. Anita ahalegintzen da entretenitzen.

– Nik zure aurretik ezagutu nuen Txomin.

– Haren antzeko bat, esan nahiko duzu.

– Bilbon ikusi nuen tronpeta jotzen, gerran.

– Zu Bilbon? Baita zera ere.

– Gudari galant bat, ile kizkurra, tronpeta batekin, murru batera igota... Eta keinu egin zidan begiarekin.

– Zuri keinu Txominek? Ixo, Anita; ez iezadazu barre eginarazi, puntuak askatuko dizkidazu-eta.

31

Urte asko geroago, Karmelek bere alaba Ikerneri kontatuko zion sekula ez zuela ahaztuko Txominek eta Josebak umea Paristik ekarri zuten unea.

Anita dendatik zetorren, marmelada potoak aldean. “Ekarri digute umea!” esan zion ahizpari, umea

besoetan hartuta zuela. Anitari lurrera erori zitzaizkion potoak, eta negarrez hasi ziren biak.

32

Larresoron ume politari begira zegoen familia osoa. Gaizkak, Karmeleren neba gazteenak, jelosiaz edo, estreinakoz Ikerne txikia ikusi orduko aipatu zuen:

– Hau ume hau pikatuta dago, garauak ditu.

Ez dago argi Antonyko egonaldian ardiren batek eztena sartu zion edo astanafarreria zuen. Frantzisko aitonak kontatua zien, bera haurra zenean, herrian astanafarreria zuten haurrei kantatxo bat abesten zitzaiela pikortak kentzeko. Eta atzamar buruak garau batetik bestera igaroz, Gaizka kantari hasi zen:

Kirkilak bat eta kirkilak bi
Kirkilak hamabi.
Hamabitik hamaikara,
Hamaikatik hamarrera,
Hamarretik bederatzira,
Bederatzitik zortzira,

Zortzitik zazpira,
Zazpitik seira,
Seitik bostera,
Bostetik laura,
Lautik hirura,
Hirutik bira,
Bitik batera,
Batetik bapez.
Kirkilik bapez!

Ondoren esan zuen:

– Ez zaizkio kendu, ezta? Ba emaiozue botika!

Larresoron bertan bataiatu zuten. Manu Sota izan zen Ikerneren aita besoetakoa. Iritsi berria zen New Yorketik. “Gurende” izena ipini nahi izan zion bataiontziaren aurrean. Baina Karmelek, nola ba!, ez zion utzi.

Handik gutxira, uztailaren azkenean ezkondu ziren Belloyko jauregian Karmele Urresti eta Txomin Letamendi, San Inazio egunez, Karmeleren urtebetetze egunean berean, hogeita lau zituela. Tolesak zeuzkan soineko zuri bat jantzi zuen, artean haurdunaldiko sabeltxoa disimulatzearren. Joseba neba izan zen abadea eta Jose Antonio Agirrek egin zituen notaritza

lanak, hark sinatu zituen-eta eztei agiriak. Manu Sotak ez zuen ospakizunean egoterik izan, baina Anton Iralak gutun batean idatzi zizkion xehetasun laburrok:

“1939ko abuztuaren 3an.

“Jauregian izan nintzen Inazio Deunaren egunean, firin-faran, Txomin jatorraren ezkontzan. Dena oso eder, ezteiek ez zuten emoziorik batere falta izan. Andregaiaren anaia batek ezkondu zituen. Txominentzat garrantzi bereziko ospakizuna zen arren, ezin izan zien muzin egin adiskideen eskariei, eta behin baino gehiagotan jo zuen tronpeta. Baina, hori bai, Gudarien ereserkia interpretatu zuenean, denon alaitasuna negarzotin bilakatu zen. Nolabait esatearren, ez zuen ezerk huts egin”.

33

Manu Sota New Yorketik Miarritzera itzulia zen, 1939ko uztailaren 22an, ama gaixorik baitzeukan. *Etcheferdia* izeneko txalet bat zuten sotatarrek itsasargiaren ondoan. Sekulako ikuspegia dago han gainetik: alde batera Miarritze eta euskal kostaldea, beste aldera Landetako hondartza amaigabeak. Senitarteko eta

errefuxiatuen topagunea zen txaleta. Eraikin nagusian bizi zen Manuren ama, baina zaindariaren etxea eta bigarren eraikin bat ere jendez beteta zeuden beti, gehienak Hegoaldetik zetozen iheslariak.

Abuztuaren 21ean Jatsuko baserri-jatetxe batean bazkaria egin zuten Manu Sotak eta Txomin Letamendik. Zopa, babarrun zuriak, arrautza frijituak, txuletak eta ardoa, gazta eta likorea. Atarian eseri ziren lagun biak ilunabarrari begira.

– Zer moduz ama?

– Etcheferdian da. Puntua egiten aritzen da egun osoan. Ia ez du hitzik egiten. Uste dut ez duela gainditu gure enpresaren hondamendia. Hirurehun eta hirurogei milioiko isuna jarri digute frankistek. Erraz esaten da! Ehun milioi aitari, laurogei Ramon anaiari, hirurogei Alejandrori eta berrogei niri. Eta beste hogei ordaindu behar dute ilobek. Nondik aterako ditut nik berrogei milioi? Ez da Espainia osoan halako isunik jarri. Ondasun guztiak kenduko dizkigute milioi horien ordez. Gogotik ordainduko dugu geure herriarekiko maitasuna. Eskerrak aita hil zela ezer jakin baino lehen.

– Manu, sarritan pentsatzen al duzu heriotzan?

– Guk beti pentsatu izan dugu horretan. Heriotza oso presente izan dugu euskaldunok. Hildakoak ondo gogoan izan ditugu beti. Ba al dakizu zer dioen Rodney Gallop idazleak?

– Bota.

– Euskal arkitekturan ez dela ia apaindurarik erabili izan. Eta zer da dekoratzen dugun gauza bakarra?

– Zuk esango didazu.

– Ateak. Etxeetako ateek badituzte halako detaile txiki batzuk. Eta baita hilobiek ere. Hain zuzen ere, biak direlako atariak. Batek bizitzara eramaten gaitu eta besteak heriotzara.

– Zurekin beti ikasten da zerbait.

– Lotura handia izan dugu beti hildakoekin. Bizkaiko Foru Zaharrean argi jartzen du nola egin behar diren oinordetzak. Herentzian etxea uzten da; baina ez hori bakarrik, hilobiak ere batengandik bestearengana igarotzen dira, legez. Ikusten duzu teilatupe hori? Itaxura esaten zaio. Antzina ohitura zen teilatu azpi horretan haur jaioberriak ehorztea, bataiatu aurretik hiltzen zirenak. Hortxe egoten ziren, etxearen babesean, etxeak besotan hartuko balitu bezala.

– Eta zuk, Manu, zer eskatzen diozu bizitzari?

– Halako etxe txiki batean bizi nahi nuke, magal batean. Baina bakarrik ez... sukaldari on bat beharko nuke ondoan.

– Ni sukaldari ona naiz.

– Ez adarrik jo!

– Ezkontza egunean irakatsi zidaten hegaluzea arranparrilan egiten. Aitaginarrebak esan zidan nola egiten duten beraiek. Begira, lehenik eta behin moztu behar duzu hiru atzamarren lodierako hegaluze xerra, gatzez ondo estali eta parrilan jarri.

– Ondo da. Baina nola dakizu eginda dagoela?

– Botila bat ardo izan behar duzu alboan eta edalontzi bat. Botila erdia edan duzunean, xerrari buelta eman. Eta botila bukatzen duzunean, hegaluzea eginda dago.

– Ez da txarra. Amerikarrei egingo diet zure aitaginarrebaren erara.

34

1939, irailak 3. Manu Sota eta Anton Irala presaka bueltatu dira New Yorkera, hango delegazioa handitu eta indartzera. Bigarren Mundu Gerra hasi da.

Irailaren 13tik 22ra bitartean Eresoinkaren azken emanaldiak izan dira Baionan, Miarritzen, Donibane Lohizunen.

1940, urtarrilak 5. Txomin Letamendik Angelutik gutuna idatzi dio Julio Jauregiri Parisko euskal delegaziora. “Venezuelara alde egin behar dut Karmelerekin eta sei hilabeteko alabarekin”, Bigarren Mundu Gerraren arriskuaz ohartuta, joan egin behar dutela derrigorrez.

Urtarrilak 26. Txomin Letamendiren gutuna Angelutik, Julio Jauregiri Parisera. “Badugu Venezuelan sartzeko baimena”.

Urtarrilak 31. Julio Jauregiren gutuna Txomin Letamendiri Paristik Angelura. “Venezuelara ontzi bat abiatuko da otsailaren 22an”, 2.000 liberako laguntza bana daukatela Txominentzat eta Karmelerentzat. Beraz, diferentzia jarri beharra dagoela: 2.340 libera pertsonako: 4.680 denera.

Otsailak 7. Txomin Letamendiren gutuna Julio Jauregiri. “Bidaliko dizkizut 4.680 liberak”.

Otsailak 20. Txomin Letamendiren gutuna Julio Jauregiri, Baionako Bar Le Perroquet-eko orri batean idatzia. Bidaiak huts egin duela-eta, oso kezkatuta dago Txomin.

Martxoak 1. Txomin Letamendik eta Pako Zamakonak Miarritzetik gutuna Parisera. “Prest gaude martxoaren 15eko ontziratzerako. Marseillatik abiatu eta Panamara, lagun hauek joango gara: Karmele Urresti, Josebe Urzelai, Julene Urzelai, Paz Zamakona, Pako Zamakona eta Txomin Letamendi”. Eta jarraitzen du esaten, orain arte 26.280 libera bidali dizkiotela denera Julio Jauregiri. Beraz, ateratzeko bidaia txartelak eta, faborez, bidaltzeko ahalik eta lasterren.

Martxoak 13. Txomin Letamendirentzat Paristik gutuna. “Martxoaren 20an Venezuelara joatekoa zen ontziak atzerapena du. Martxoaren 30ean izango da irteera”. Hortaz, bi egun lehenago Marseillara joan beharra daukate, bisa kontuak egiteko.

Martxoak 30. Julio Jauregiren gutuna Txomin Letamendiri. Ontzia berriro atzeratu dela eta apirilaren 10ean abiatuko dela.

Apirilak 11. Txomin Letamendiren eta Pako Zamakonaren gutuna Julio Jauregiri, Marseillatik Parisera. “Bagoaz Venezuelara. Eskerrik asko egin dituzun gestio guztiengatik”.

Maiatzak 2. *Ville d’Amiens* itsasontzian ateratako argazkiak. Batean, Ikerne txikia eta aitatxo Txomin ku-

biertan etzanda, jolasean. Bestean, euskal errefuxiatu taldea keinu kezkatiekin.

Maiatzak 10. Alemania sartu da Holandan, Belgikan eta Frantzian.

Maiatzak 12. Caracasera iritsi dira Txomin, Karmele eta Ikerne. Argazkia itsasontzitik jaisten: Txomin, tronpeta eskuineko eskuan; atzean Karmele, besoetan Ikerne daramala.

Ekainak 14. Paris hartu dute naziek.

Bosgarren Etorbideko egunerokoa

35

Haur talde bat Washingtongo Etxe Zurira bisitan iritsi da 1940ko abenduaren 25ean. Zain dituzte Franklin Delano Roosevelt eta Eleanor Roosevelt. Presidentea garai eztian dago, azaroan hautatu berri dute-eta hirugarren agintaldirako; haizeberriturik dator gainera, presidenteorde berria izango du alboan, Henry A. Wallace ezkertiarra. Oparia dakarte haurrek, Gabonetako jaiotza bat. Pertsonaia biblikoek euskal jantzi tradizionalak daramatzate soinean eta baserri itxura du Belengo estalpeak. Bezuza eman ahala *Hator, hator mutil etxera* abestu dute. Erbestean den semeari etxera itzul dadin eskatzen zaio kantuan, familiarekin batera igaro ditzan Gabonak. Nahiz eta kanta antzinagokoa izan, testuinguru honetan Gerra Zibilaren eraginez munduan zehar barreiaturik dauden haur errefuxiatuei buruz dihardu.

Non eta Etxe Zurian, gerratik ihesi zihoazen haur batzuk kantari aritzea, nori eta Estatu Batuetako presidenteari, oihartzun handiko berria izan da, Manu Sotak emandako lehen propaganda kolpea. Albistea *Euzko Deya* agerkarian, munduan barrena sakabanatuta dauden euskal errefuxiatuak irakurtzen duten hedabide nagusian argitaratu da abenduaren 30ean. Roosevelt senar-emazteen argazki batek laguntzen badu ere berria, hauek Norvegiako printzeekin ageri dira erretratuan, eta presidentearen ama Sara Delanorekin, Iorategiko banku batean eserita. Ez dago euskal haurren arrastorik. Benetan gertatu ote da hitzordua? Edo Manuk asmatua da goitik behera?

Manuel Intxaustik eta Manu Sotak zuzenean presidentearekin hitz egiteko paradarik izan ez zuten arren, badirudi enkontrua gertatu zela, baina protokolo kontuengatik ez zietela harekin argazkiak egiten utzi. Sari handia izango zen hori, baina politikoki konprometituegia Rooseveltentzat.

Manu Sotaren ordenatu gabeko paper anabasan aurkitu nuen makinaz idatzitako ohar bat egun horri buruzkoa. Berak idatzi zuen albistea, berak bidali zuen *Euzko Deya* agerkarira. Aldea dago Manuk idatzi zuen testutik astekarian agertu zen bertsiora. Aldizkarikoa

ia osorik adorea emateko mezu politikoa da. Manuk, ordea, zehaztasun gehiago ematen ditu; zer kanta abestu zuten kontatzen du, adibidez, eta nor izan zen haur kantariei abestia irakatsi ziena, New Yorkeko neskatila euskaldun bat, Balentin Agirre jatetxeko ugazabaren alaba. Sotak aipatzen du, umeei gozokiak eta freskagarriak eman zizkiela Eleanorrek.

Giza eskubideen urraketen aurka egiten zuen lanarengatik aintzat hartua zen Eleanor Roosevelt. Gerra Zibiletik ihes egindako haurrei sostengua emateko talde bat ere sortu zuen Estatu Batuetan, askotariko intelektual eta zientzialariekin, esate baterako, Theodore Dreiser, Lillian Hellman, Albert Einstein, Dorothy Parker, Thomas Mann edo Edna St. Vincent Millay; eta urte batzuk geroago, Bigarren Mundu Gerra bukatu ondoren, Eleanorrek sustatuko du Nazio Batuen Giza Eskubideen Karta ere.

Horren karietara, non edo non irakurria nuen Etxe Zurian bertan babestuta izan zutela gerratik ihes egindako ume errefuxiaturen bat, baina informazioa ez zen zuzena. Duela gutxi jakin da Eleanorrek hiru haur hartu zituela seme-alabatzat eta beraien ardura izan zuela adin txikikoak ziren bitartean: Janina Dybowska, naziek Polonia hartu zutenean zurtz geratu zen neska-

toa; Tommy Maloney, Londresko alemanen bonbardaketen ondorioz gurasorik gabe geratu zen mutikoa; eta Kerman Mirena Iriondo, zortzi urte zituela beste milaka haurrekin batera *Habana* ontzian Bilbotik ihes egindako euskalduna. Eleanor Roosevelt arduratu zen haren heziketaz hemezortzi urte bete zituen arte, baina mutila ez zen sekula bizi izan Washingtonen, Londresen baizik. Behin besterik ez zuen haurra bisitatu presidentearen andreak, 1942an.

Eleanorrek maiz leporatzen zien hala bere senarrari nola Winston Churchilli oso gutxi egin zutela Espainiako Errepublikaren alde, eta eztabaida sutsuak ere izan zituzten horregatik. Argi dago Franklin Delano arduratuago zegoela bestelako kontu batzuekin.

Nolanahi dela, 1940 eta 1941 urteetan Manu Sotaren obsesioetako bat izango da, kosta ahala kosta, Roosevelt presidentearengana zuzenean iristea.

36

Manuel Intxaustiren seme-alabak izan ziren Etxe Zurira kantari joandako umeak. Euskal jatorriko abokatua zen Intxausti, Filipinetan jaioa baina Amerikako

Estatu Batuetan hiritartua, familia oso aberats bateko oinordekoa. Donibane Lohizunen zuen ohiko bizilekua, baina Europan gerra piztu zelarik New Yorkera aldatu zen, White Plainsen zeukan etxera. Ez zen edonor Intxausti Washingtongo administrazioan, ezagun asko zuen hango barrunbeetan, hala nola, Douglas MacArthur jenerala.

Manuel Intxausti izango da Manu Sotari laguntza handiena emango dion gizona zentzu guztietan, hala diruz nola kontaktuak lortzen. Washingtongo Gobernuari Jose Antonio Agirreren egoeraz ohartaraziko diote, Estatu Batuetan onar dezaten errefuxiatu gisa.

Lehendakaria ezkutuan zegoen 1940ko maiatzaren hasieratik, halabeharrak hala nahi izan zuelako, ezen opor egun batzuk hartzea deliberatu zuen eta irten egin zen Paristik, maiatzaren 8an hain justu. Frantziako mugatik hur dagoen Belgikako La Panne herrirantz abiatu zen, han atseden hartu eta senitartekoekin egun batzuk pasatze aldera. Baina ez zen zortekoa izan Agirre, edo bai, nondik begiratzen den. Hitlerrek Belgika, Holanda eta Frantziaren kontrako erasoaldia egun horietan hasi zuen eta Jose Antonio Agirrek ezin izan zuen Parisera itzuli.

Belgikatik Alemaniara jo zuen, Berlinera, munstroaren sabelean aurkituko ez zutelakoan. Itxura eta izena mudatu zituen han. Inizial berak zituen deitura berri bat onartu zuen –Panamako kontsul batena– garai hartako espioiek egin ohi zuten moduan. Jose Antonio Agirre Lekube ordez Jose Andres Alvarez Lastra.

Ez zen gutxiagorako, ihesean zebiltzan politikari eta artisten ehizan ziharduen Jose Felix Lekerika enbaxadoreak Frantzian. Lluis Companys Kataluniako presidentea bere aginduz atxilotu zuten, eta Gestaporen eskuetan utzi; Francoren oniritziarekin, Bartzelonako Montjuicen fusilatu zuten 1940ko urriaren 15ean. Lekerikak jomugan izan zituen beste batzuk ere: Federica Montseny ministro anarkista, Max Aub idazlea, Julian Zugazagoitia politikari sozialista eta gehiago. Batek daki, Agirre Belgikara oporretara joan izan ez balitz, bera ere atzituko ote zuen Parisen.

Lehendakaria nortasuna itxuraldatuta ibili zen Berlinen, magia trikimailu bat balitz legez 1941eko abuztuaren 27an Rio de Janeiron jendaurrean agertu zen arte.

Manuel Intxausti eta Manu Sotaren betebehar nagusia Estatu Batuetako gizartean eragitea izango zen:

propaganda lana, eta ongi kokatuta zeuden politikari, intelektual eta kazetari eraginkorren lagun bihurtzea, batez ere Washingtonen boteretsuak ziren katolikoena. Dena den, bide meharra zen hori. Vatikanoak Francoren alde egin zuen lotsagabeki eta Espainiako Gobernu garaitua komunistatzat hartzen zuten Atlantikoaz bestaldeko katoliko gehienek. Komunismoak ezinikusi eta ikara handiak sortzen zituen Estatu Batuetako elite zuzendariaren artean. Manu Sota, lotu zituen hamaika hitzorduetan, ahalegintzen zen azaltzen euskaldunok bestelakoak ginela, Jose Antonio Agirre ez zela komunista, katolikoa eta demokrata baino, ez Franco zaleak bezala, zeinak katolikoak bai baina totalitarioak ziren. Tamalez, hori dena ulertaraztea benetan zaila izango zaie Sotari eta Intxaustiri, 1941eko abenduaren 7an Japoniak Pearl Harborreko erasoa burutu arte.

37

Idazle eta pentsalari aurrerakoien artean, aitzitik, hobea izan da erantzuna; nazioarteko brigadetako kide ohiak dira gehienak, edo eta judu ezkertiarrak.

Bilboko liburu-denda ederrenetakoan, Astarloan, Ernest Hemingway idazleak Manu Sotari Honolulutik idatzitako eskutitz bat irakurri dut. Gutunean azaltzen dio New Yorken elkar ikusteko gertu dagoela Hemingway eta ondo baino hobeto dakiela Euskal Herriaren berri, Habanan lagun dituen hainbat pilotariri esker. Hemingwayrekin batera, Jay Allen kazetari ezaguna izango du Manu Sotak beste aliatu gertuko bat.

Estatu Batuetako Estatu Departamentuak, hala ere, zeken jokatuko du Euskal Delegazioarekin. Ez du inolaz ere Franco haserretzeko asmorik, ez luke nahi hura gerran sartzea Ardatzeko herrialdeen alde. Horrexegatik, alde guztiekin ondo konpontzen ariko dira, euskaldunei konfiantza apartekorik eman gabe.

Euskal Herriaz Estatu Departamentuan benetan zer pentsatzen zuten jakiteko premia zeukan Manu Sotak, baina aski informazio lortzen ez zuenez, etsita, eta gizon liraina zela jakitun, ideia bihurri bat otu zitzaion: Washingtonen lan egiten zuen emakumezko idazkari batengana inguratuko zen, hura limurtzen saiatuko zen, informazioa aterako zion.

Ohantzean elkarrekin etzan direnean, ordea, gauzak ez dira andreak espero bezain ondo gertatu, ezta

Manuk uste bezain erraz ere, oso baldarrak dira-eta honen ahaleginak.

– Hasieratik esan behar zenidan gizonezkoak laket dituzula, eta ez emakumeak –errieta egin dio–. Politika kontuak baino jakin nahi ez bazenituen niregandik, trago batzuk hartuko genituen, eta kito.

38

Manu Sotaren gutunei kasu eginez gero, 1940an ezinegona eta tristura nabari dira letretan. Bizitza sozial bizia du, egia da hori, baina herrimina handiagoa da gehienetan. 1940ko otsailaren 25ean, Grace Moore opera kantariaren etxean afalduko du eta Begoña Sota arrebari esango dio malenkoniatsu, “beti oroitzen naiz gure gurasoek Ibaiganen ematen zituzten jai eder haiez”. 1940ko apirilaren 29an amari igorriko dio gutuna. “Afaria antolatu genuen Delegazioan. Bikain atera zen, eta hori zartagina ia kabitzen ez zen gailu elektriko baten gainean prestatu behar izan nuela”.

1940ko urriaren 10ean Pako Zamakonari idatziko dio Caracasera, Txomin Letamendiz galdezka: “Bada mende bat Txominen berririk ez dudala. Idatzi nion

azken eskutitzari ez dio erantzunik eman. Esan zidaten taberna bat zabaltzera doala. Bera ez bada izango lokaleko bezerorik onena dena ondo joango da. Baina bera izanez gero bezerorik onena, esaiozu Karmeleri hesola bat hartu eta buruko kizkur bat bera ere sano ez uzteko”.

39

Caracasko Alta Gracia auzunean bizi ziren Karmele Urresti eta Txomin Letamendi, Ikerne txikiarekin. La Pastora urbanizazioko etxe kolonial bat hartu zuten Garate eta Aretxabaleta familia bilbotarrekin batera. Barealdirako abagunea idoro zuen bertan bikoteak. Bake-une bat erbestean, ume txikia hazi eta Europako gerra giroaz zertxobait atzentzeko. Egunak konturatu gabe igarotzen ziren hiriburuko giro epelean, beste mundu bat zen hangoa, beste era batera antolatuta zegoen denbora.

Venezuelara joandako errefuxiatu euskaldunek segituan aurkitzen zuten lana. Ondo hartuak izan ziren. Andana bat Estatu Batuetako konpainietako petrolio zelaietan hasi zen beharrean. Baina ez horretan baka-

rrik. Caracasen ez ezik Venezuelako bazter askotara barreiatu ziren, zeuden oihanean, zeuden kostaldean. Esate baterako, Jose Mari Solabarrieta, Karmeleren osaba eta Errepublika garaian Ondarroako alkate izandakoa, arrantza lanetan hasi zen. Hiriburuan nagusiki europarrekin zituzten harremanak, erbesteratuak haiek ere, edo herrialdea ustiatzen ziharduten estatubatuarrekin.

Karmele erizain ari zen Gutierrez Alfaro doktorearen klinikan; Basurtuko garaian ezagutu zuen Gonzalo Aranguren medikuak lagundu zion lan bila, bera ere erbesteratua baitzegoen Caracasen. Halandaze, Txomin arduratuko zen ume zaintzan.

Baina ez luzarorako. Behinola, senarra emaztearen bila klinikara joan delarik, eta sarreran harengatik galdetu, andari batek lotsagabe esan dio: “Karmen? Emakume lirain bat?”. Txomin jeloskor jarri da, ez zaio batere gustatu portaera.

– Karmele, erizain lana utzi behar duzu.

– Zertara dator hori?

– Hau ez da zuretzako moduko tokia –zakar samar muturtu zaio.

– Dirua behar dugu. Ez dut ulertzen azkenaldiko zure tema.

– Haurdun zaude...

– Baina oraindik ez da eragozpena.

– Atseden pixka bat ondo etorriko zaizu.

– Hori egia da. Ikernerekin ere denbora pixka bat gehiago egon behar nuke.

Hilabete batzuk barru, 1941eko otsailaren lehenean, zapatu batean, bigarren haurra jaio da, mutiko bat, aitaren izen bera hartuko duena: Txomin, Letamendi Urresti. Urte eta erdiko aldea du arrebarekin, panpina baten antzeko oparia da oinez arin ibiltzen ikasi duen Ikernerentzat.

40

Franklin Delano Roosevelten ahotsari adi zegoen Manu Sota kafetegi batean, 1941eko urtarrilaren 6an irratiz mintzo baitzen presidentea, “Lau libertateen hitzaldia” eskaintzen. Gizabanakoak lau askatasun nagusi dituela egin zuen aldarri: adierazpen askatasuna, pentsamendu eta erlijio askatasuna, duintasunez bizitzeko eskubidea eta beldurrik ez izateko eskubidea. Baina Manu Sotak ikaratuta segitzen zuen, zaurituta-ko piztia bezala, Euskal Herriaren etorkizuna Bigarren

Mundu Gerraren ostean nolakoa izango zen zalantzaz beterik.

Bakarrik paseatzen zen New Yorken, liburuak erosten zituen eta museotan hartzen zuen atseden. “Frick Collectionera joaten naiz arratsalde batzuetan, milioidun batek utzitako museo txiki bat da, eta abantaila du etxe partikularra dela funtsean, eta koadroen ospitale bat dirudi, ez museo desatsegin horietako bat. Grecoren lan eder bati begira zauden bitartean organo edo ganbera-musika kontzertu bat entzuten ari zara, eta horrek kontenplaziorako prestatzen du espiritua”.

Frick Museoaren negutegiko aulki batean eserita dagoela, Pako Zamakonaren gutuna irakurri du. Berri onak dakartza adiskideari buruz: “Txomin Letamendik oso ondo irabazten du bere tronpetarekin”. Eskutitzak adorea eman dio Manuri, eta sentitu du agian gauzak haize alde ipiniko direla berandutu gabe.

41

Hein batean Hemingwayren eta Allenen laguntasunari esker, New Yorkeko literatur giroan sartuko da

Manu Sota. Parte hartuko du Deserriko PEN Club elkartearen inaugurazioan eta buruz buru ezagutuko ditu Thomas Mann, Stefan Zweig, Sinclair Lewis, Sigrid Unset, Somerset Maugham eta Andre Malraux idazleak.

Washingtongo politikan ere abagunea zabaltzen ikusiko du. 1941eko abuztuaren 14an *USS Augusta* gerraontzian Rooseveltek eta Churchillek "Atlantikoko gutuna" agiria adostu dute. Hirugarren puntuak honela dio: "Errespeta dakion munduko herri orori zein gobernu motaren arabera bizi nahi duten hautatzeko eskubidea, eta independentzia eta eskubide subiranoak berreskura ditzatela eskubide horiek indarrez galdu dituzten herri guztiek". Manuk ez du aukera galdu nahi. Atzendu gabe idatziko dio Roosevelti berriro; eta eskutitz honek ere erantzunik izango ez duen arren, hala ere Washingtongo administrazioko idazkari batek gorriz azpimarratuko du Sotaren gutuneko esaldi hau: "Jakizue gure indarren neurrian lagun dezakegula gizateria totalitarismoaren zamatik libratzeko misio handian".

Manuel Intxausti ere urrats bat aurrera ematera deliberatu da. Ordura arte hotel ezberdinetan kokatu eta aldatu izandako Euskal Delegazioarentzat egoitza

finkoa sortzea erabaki du, gastu guztiak bere gain harturik. New Yorkeko Bosgarren Etorbideko 30 zenbakian, Washington Square plazatik hurbil, idatziko du Manu Sotak bere egunerokoa aurrerantzean.

42

Azal urdina du eskuz idatzitako Manuren egunerokoak. New Yorken egon zeneko garai interesgarriena jasotzen du, beharbada, 1941eko urriaren 17tik azaroaren 21era arteko kontakizunak. Nola antolatu zuten Intxaustik eta biek Jose Antonio Agirreren etorrera, zelan iritsi zen Lehendakaria New Yorkera, Erresuma Batuko eta Amerikako Estatu Batuetako zerbitzu sekretuekin izan zituzten harremanen hasiera, egunerokо bizimodua. Dena.

Honelaxe hasten da:

1941, urriak 17.

Kontent, Jose Antoniok Montevideon izan duen harrerarengatik. Presidenteak, estatu-ministroak eta artzapezpikuak audientzia eman diote. Bere omenez meza handi bat antolatu dute aire zabalean Uruguai-

ko Libertateen Irudiaren aurrean. Diputatuen Ganberak bilkura berezi bat egin du berari gorazarre egiteko. Hitzaldiak, oturuntzak. Uruguaitik bidaltzen ari zaizkidan kableak lehertu egingo dira, hain dira adeitsuak.

Urriak 22.

Gaur iluntzean Intxausti Washingtonera joan da Estatu Departamentuarekin hitz egitera Jose Antonioren etorreraz. Lehendakaria ez denez herrialde bateko presidente “ofiziala”, begi onez ikusi dute hura hona etortzea, baina ardura handirik hartu gabe, Espainiako enbaxadorea ez haserretzearren.

Urriak 24.

Nire beldurrak bete dira. Intxausti burumakur itzuli da Washingtondik. Estatu Departamentuan esan diote bihotzez nahi dutela Jose Antonio hemen babestu, baina edozein harrera egitearen aurka daudela erabat, eta adi egongo direla kaian bere zain jendea bilduz gero, eta hala balitz, lehorreratuko dutela lehenago beste toki batean. Arrazoiak: Amerikako Estatu Batuen eta Espainiaren arteko harremanetan tirabirak daude eta ez dute Franco Ardatzera gehiago hurreratzerik nahi. Espainiako enbaxadaren eragozpen kexu

baten beldur dira, eta ondorioz krisi humanitario bat sortzeko aukeraz, larrituta baitaude Jose Antoniok Montevideon eta Buenos Airesen izandako harrera abegitsuekin.

Urriak 28.

Estatu Departamentua gero eta estuago dago Jose Antonioren bidaiarekin. Atzo Intxaustik bi idazkariorderekin hitz egin zuen, eta esan zioten honek “ondorio politiko larriak” izan ditzakeela. Horregatik nahi dute Trinidaden lehorreratu dadin, eta gero handik hegazkinez Miamira.

Intxaustik Jose Antonioren kable bat erakutsi dit, esanez Trinidadeko irtenbidea ez duela onartuko “euskal duintasunagatik”. Ataka zail batean jartzen gaitu horrek. Intxaustik Estatu Departamentura hots egin du eta esan diote Trinidaden lehorreratu behar duela, bai ala bai, ezen, New Yorken lehorreratuko balitz, beldur baitira ez euskaldunez baizik eta istiluak sor ditzaketen inkontrolatuez.

Intxaustik eta biok Jose Antoniori kablegrafiatu diogu mezu bat, azalduz gure ikuspuntua zein den eta hausnar dezan. Bestalde, Intxaustik Washingtonera idatzi du, itxaropen handirik gabe, iradokiz New Yor-

ken egin litekeela lehorreratzea, baina ez Nasa Nagusian.

43

Manuel Intxausti goizean goiz Euskal Delegaziora ailegatu zelarik Manu Sota lo zegoen idazmahaian, burua besoen gainean etzanda. Besoen azpian, egunerokoa; bazter batean, whiski botila erdi hutsik, pipa itzalia eta tabako lipitsak paperen artean.

– Manu, txukundu pixka bat. Croydonera gonbidatuko zaitut gosaltzera. Albisteak dauzkat.

Hotelera iritsi orduko Lehendakariak bidali berri zuen kablea erakutsi zion.

– Onartu du Trinidaden lehorreratzea.

– Eskerrak. Baina amorratu egiten nau Lehendakaria horrela tratatzeak, heroi baten moduan egin behar genion-eta harrera.

– Ez zaitez nahigabetu, Manu. Badatorrela, hori da garrantzitsua. Gero gerokoak.

– Bai, baina atzeko atetik sartuko da. Lotsagarri.

– Arrazoi osoa duzu. Dena den, kontuan har ezazu hemen gauzak astiro doazela. Estatubatuarrak ez daude prest zirt edo zart egiteko.

– Duela gutxi Johnny Agirre izeneko soldadu bat etorri zitzaidan Delegaziora. Euskal jatorriko amerikarra. Esan zidan soldaduak ez daudela gerrarako gertu. Hura zegoen kuartelean ehun eta hogei lagunek egin dute buruaz beste.

– 14ko Gerran beraiek ziren ba zangarrenak!

– Eta gero Eliza dago, hain atzerakoia. Gogoan duzu igandeko sermoia? Roosevelten politiken aurkakoa, Ingalaterrari laguntza apur bat ematearren bakarrik. Erdi komunistak omen dira haiek ere. Ez zait gogorik geratzen mezetara joateko. Aputziren ideietatik gero eta gertuago nago.

– Nor da Aputzi hori?

– Nire aita espirituala. Duela pare bat hilabete Downtown clubera joan nintzen, kazetari batekin geratua bainintzen. Eta han, handikien artean, hara non topo egiten dudan Eibarko anarkista batekin. Zapatak garbitzen ari zen Aputzi. Ihes egin behar izan zuen Eibartik, sanjuan sutan panfleto libertarioak banatzeagatik. Geroztik berarengana joaten naiz zapatak garbitzera, eta nire pena guztiak kontatzen dizkiot.

– Psikoanalista bat baino merkeago aterako zaizu behintzat.

– Oso bizkorra da, filosofo hutsa. Aurrekoan esan zidan askoz interesgarriagoak direla akatsak bertuteak baino. Bertuteak aspergarriak dira, baina akatsek asko esaten dute pertsonei eta herriei buruz. Eta ganorazko herria izateko akatsak behar ditugu! Baina ez handiak, inportanteak baizik.

– Eta zein da gurea?

– Harroak garela.

– Agirrek aipatzen zuen “euskal duintasun” hari buruz ari zara?

– Ahaztu!... Ea laster gure artean daukagun. Beste kafe bat?

– Bai, mesedez.

44

Urriak 29.

Nahiz eta Jose Antoniok Trinidadeko irtenbidea onartu, Estatu Departamentuan larrituta daude oraindik. Azaroaren 4an, Jose Antoniok New Yorkera heldu behar duen egunean, hain zuzen, *Marqués de Comi-*

llas ontzian New Yorkera iritsiko dira Perura Pizarroren mendeurrena ospatzera datozen ordezkari frankistak. Egiatan haien asmoa propaganda falangista egitea denez (eta, beraz, Amerikako Estatu Batuen kontrakoa), zenbait elkartek eskaria egin diote Cordel Hull Estatu idazkariari faxista hauen lehorreratzea debeka dezan. Jose Antonioren bidaia dela-eta Washingtongo Administrazioak dituen beldurretan zerikusirik izango ote du alproja hauen etorrerak?

Urriak 30.

Espioi ingelesen bisita izan dut, Intelligence Serviceko jendearena.

Urriak 31.

Azkenean ere Estatu Batuetako destruktore bat hondoratu dute alemanek. Irratian entzun dut berria (11.00 am). Ez dakit ze ondorio izango duen amerikarren artean, baina ez dut uste sumin handirik sortuko denik. Bakean luzaroan bizi izandako herrietan gertatzen da hori, halako inertzia bakezale bat izaten dute, eta zaila da hortik ateratzea. Gainera, Washingtongo Gobernua beldur da, eta ez hain zuzen nazienganako ikaraz, Lindberghen beldurrez baino, hots, etxe ba-

rruan sartuta dituen naziez. Bitartean, Alemaniak gerra irabazten dirau, eta Ingalaterra ezinean. Oso txarto doa dena.

*Times*en ikusi dut atzerritarrentzat prestatzen ari diren kontzentrazio esparruaren argazkia. Horra eramango ote naute ni ere?

45

Delegazioko telefonoa hartu zuen Manu Sotak. Nea Colton idazlea zen. Pozarren zegoen. Nobela bukatu berri zuen eta ospatzeko party bat antolatu zuen bere apartamentuan, ostiral gauean. Besteak beste, Coward-McCann argitaletxeko editorea agertzekoa zen, Cecil Goldbeck.

– Euskal afari bat antolatu dut etxean. Etorri egin behar duzu.

– Zer prestatuko duzu?

– Garbantzuak eta bakailaoa.

– Baina, Nea, askotan esan dizut garbantzuak ez direla euskal platera.

– Berdin da. Ez dakit besterik egiten. Adio, ostiralera arte. Muxu!

Aspalditik ezagutzen zuen Nea Colton. Egia esan, gerrako haurren kontuarengatik interesatu zen Euskal Herriaz eta geroztik maitemindu egin zen; hizkuntzarekin, kulturarekin, historiarekin liluratuta zegoen. Mirespen horren ondorioz, eta Euskal Herriaren egoera Estatu Batuetan zabaldu nahian, fikziozko nobela bat idaztea otu zitzaion, *The Rivers Are Frozen.* Manu Sota izan zuen horretarako informazio iturria, edozein ordutan deitzen zion zalantzak argitzeko, eta Manuk pazientziaz erantzuten zion.

– Gustatu al zaizu nobela? –galdetu zion Cecil Goldbeck editoreak, arrain platertxo bat eskuan, etxeko liburutegian gonbidatuak zutik zirela.

– Ondo idatzita dago, Nea idazle fina da, baina istorioa...

– Ez zaizu sinesgarria iruditu.

– Ez da hori. Korapilatsua da nire gusturako. Eta gogorregia. Abortuak-eta agertzen dira, guretzat arrotza da hori.

– Zeinen moral estua duzuen europarrek! Begira, ni neu hiru emakumerekin maitemintzen naiz aldiro. Bizitza kitzikagarriagoa egiten zait horrela.

– Nekagarria gero! Maitale bakar bat aurkitzea ere kostatu egiten zait niri.

– Neuk ere garai batean izan nuen maite bakarra, lehenengo emaztea, Eva. Idazlea. Banandu egin ginen, baina nire lagunik onena izaten jarraitzen du.

– Editorea eta idazlea, normala ez irautea.

– Ez zen horregatik izan. Uste dut behin ere ez zuela orgasmorik izan nirekin.

– Ahalegindu al zinen?

– Baietz uste dut, baina arrakastarik gabe. Konbentzituta nago bakarrik hobeto moldatzen zela. Eta zu?

– Ni zer?

– Planta onekoa zara. Ez zabiltza inorekin?

– Inori kontatu ez diodan zerbait esango dizut. Bitxia da, hemen nago, New Yorken, ezagutzen ez dudan pertsona batekin eta beste inorekin baino lasaiago.

– Segi...

– Amak dozena bat haur izan zituen aitarekin. Beti zegoen haurdun. Gauero joaten zitzaion aita ohera eskean. Ama horrela ikusita, hain nekatuta, nazka hartu nien sexu harremanei. Eta liburuetan babestu nintzen geroztik.

– Zein liburu duzu gustukoen?

– *Kixotea*. Pertsonaia ameslaria delako. Itxura batean absurdua da haren mundua, baina zer beste geratzen zaio galtzaileari absurdua eta ironia baino?

Nea Coltonek eten egin zuen solasa, hurreratu eta musu bana eman zien masailean.

– Ai, nire editorea eta nire musa, lagun onak egin zaretela dirudi. Galderatxo bat dut zuentzat. Zer uste duzue, gure amari ala Manuri dedikatu behar niokeela liburua? Amak haurtzaro eta nerabezaroan jasan izan nau eta Manuk azken urte honetan.

– Amari, noski.

– Manuri.

Biei eskaini zien.

46

Azaroak 4.

Gaur, 9:00 am, Jose Antonioren emaztea iritsi da bi umeekin. Oso ondo daude, halako odisea tragikoaren ondoren.

Azaroak 6.

7:15 am. Intxausti eta biok Filadelfiarantz irten gara eta 9ak aldera iritsi. Ordu erdi geroago ailegatu da Jose Antonio Miamitik. Aldean dakar gertatu zaizkion neke guztien zama. Argalago dago, eta sufrimendu aurpegia du. Gauza asko kontatu dizkigu. Sinestezina da nola, pasatu duen dena pasatuta, familia Lovainan miseria gorrian utzi ondoren, gizon honek dituen ontasuna eta kemena. Ziur dago Alemaniak galdu egingo duela gerra. Gauean elkarrekin afaldu dugu White Plainsen.

Azaroak 11.

Argi dago Delegazio honek denetarik egin behar duela. Une honetan euskaldunen orotariko mandatuak ditut egiteko: gitarrarentzat sokak erosi, zirujau-tresnak, leiho modeloak, moda aldizkariak, dibortzio bat eta bi haur euskaldun adoptatzeko eskakizunak.

Gauean White Plainsera, Jose Antoniorekin lan egitera.

Caracasko orkestra ezagun batean tronpeta-jole zebilen Txomin Letamendi. Parisen Canarorekin ari izan zen gisara, Billo Frometak hartu zuen Billo's Caracas Boys izeneko bandan, gaueko hamarretatik goizaldeko laurak arte jotzeko, astelehenetan izan ezik, egunero. Baita igande eguerdiz ere, vermouth sasoian. Libertador eraikinaren goialdeko terrazan izaten ziren emanaldiak, Roof Garden delakoan, eta zuzenean emititzen zituen Radio Caracasek. Pako Zamakonak gutunez Manu Sotari aipatu zion legez, Txominek ederki irabazten zuen orkestrarekin.

Arratsalde batez, Karmele Urresti eta Txomin Letamendi seme jaio berriarekin Carabobo parkean paseatzen dabiltzala, Estatu Batuetako enbaxadan lan egiten duen batek galdetu die:

– Zelan dago Churchill?

– Ondo, eskerrik asko –erantzun dio Txominek.

Eta agur egin ondoren, Karmelek harrituta esan du:

– Nor zen gizon hori?

– Amerikanoen informazio zerbitzuetan lan egiten duen bat.

– Espioia orduan?

– Halako zeozer.

– Eta jakin liteke nolatan ezagutzen duzun espioi amerikar bat? Manurekin zerikusia al du?

– Jakina. Ez izan inozoa.

– Ondo baino hobeto dakizu ez naizela. Baina egiaren erdia baino ez didazu kontatzen, Txomin.

– Gauza oso berde dagoelako oraindik. Galdetu zidaten ea laguntzeko prest geunden eta nik baietz. Horixe da dena, momentuz.

Karmelek bekainak jaso ditu harriduraz.

– Zer esan nahi du laguntzeko prest geundela? Gu biok? Eta zertan laguntzeko?

– Gauza da, tronpeta jo behar baldin badut eta gero euskal zerbitzu sekretuetan ibili, bada ez zait astirik geratzen etxean egoteko. Eta horrexegatik hitz egin nuen bion izenean.

– Berriz diot. Zertan lagundu behar diezu?

– Oraingoz ez didate ezer zehatzik kontatu. Betikoa izango da, zelatan ibiltzea informazioa lortzeko. Venezuelako Gobernuari buruz, Espainiako enbaxadari buruz, naziei buruz... Dena gero beraiek Franco gobernutik ken dezaten. Laguntzeko prest zaude, bai ala ez?

– Noski. Eta zenbat zaudete hemen?

– Mordoa. Garate da New Yorkekin harremana duena. Berak antolatuko du dena.

Karmelek muturra estutu du eta Txominek irribarre. Ezagutzen du Karmeleren keinu hori. Honelako zerbait esan nahi zuen: “Ados. Konforme. Baina gaingainean izango nauzu”.

– Eta, Txomin, zergatik deitu dio amerikar horrek Churchill gure semeari? A ze konfiantza, ez?

– Bromatan esan du, emakumea. Agian burua soila eta handia duelako.

– Zu bai zarela buruhandia. Eta hutsik daukazu gainera.

48

Jose Antonio Agirre ez zen atzerriko herrialde bateko estatuburu gisa sartu Estatu Batuetan. Gobernu autonomo bateko presidentetzat hartu zuten, lege estatusa ere galdua zuena nazioartean, faxistek gerra irabazi zutenetik.

Columbia Universityko historia irakasle legez onartu zuten, Carlton Hayes katedradunaren babesari

esker. Manuel Intxaustiren ezaguna zen Hayes, International League of Friends of the Basques elkarteko kidea eta Roosevelt presidentearen aholkularia. Intxaustik galtzak bete lan egin zuen Agirre Columbian onar zezaten, Hayesi agindurik, hala eginez gero, Unibertsitateko ongile bilakatuko zela, diru laguntza handi batekin. Beraz, zeharka, hark ordaintzen zuen Agirreren soldata, Lehendakariak sekula jakin ez bazuen ere.

New Yorkera iritsi orduko ingelesa ikasten hasi zen. Egunean ordu ugari ematen zituen horretan, itxura txarrik eman ez zezan Columbiako akademiaren aurrean. Euskal Delegazioak ahalik eta gehien atzeratu zuen Agirreri unibertsitatean egingo zioten harrera. 1941eko azaroaren 14an metroa hartu zuten 14. Kalean. Lehen linea. 116. Kalean jaitsi ziren. Geltokitik hurbil dagoen atarian zain zegoen Carlton Hayes. Campusa erakutsi zien, fakultate desberdinak, liburutegia, eta elkarrekin bazkaldu zuten gero. Hayes ondo baino hobeto mintzatzen zen espainolez. Liburutegiko kupula eskergaren aurrean agur egin zien Hayesek:

– Behatu behegainera. Campuseko zorua egiteko Foru Erromatarrean oinarritu ziren. Falka formako adreiluekin egin zuten. Horrela, izotza eta elurra egin-

da ere, sekula ere ez dugu labain egiten. Erromatarren jakinduria!

Ondoren Murray Butler errektorearekin hitzordua zuten Agirrek eta Sotak.

– Bakearen Nobel sariduna da Butler. Norbera zizarearen pare sentitzen da hainbeste Nobel artean –urduri zegoen Lehendakaria, zigarro bat piztu zuen–. Ez dakit nola moldatuko naizen nire ingeles apurrarekin...

– Ez kezkatu. Butler gizon heldua da eta estimu handitan du bere burua. Esan didatenez, ahoak eman ahala hitz egiten du, ez da isiltzen. Zuk utzi niri iruzkinak egiten, eta zuk “very interesting” esan eskua kokotsean jarrita.

Azaroak 18.

Life aldizkarirako Lehendakariari elkarrizketa bat egin dio John Hearsayk. Bere ibilera miragarriak kontatu dizkio eta liluratuta utzi du.

Gero, Columbia Universityra. Father Fordek, unibertsitateko kapilau katolikoak, harrera ekitaldi bat izan du ikasle hegoamerikarrekin, eta Guest of Honour gisa aurkeztu du Jose Antonio. Ikasleei taula gainetik mintzatu zaie Lehendakaria, jazz-band baten aurretik. Ondotik, autografoak sinatzeko eskatu diote ikasleek,

eta dantzan egin dute. Esan didate, Father Fordek berak ere, itxura batean XVIII. mendekoa eta irtirina dirudien arren, dantzan egin duela. Ikaragarria da gizon honek gureganako erakutsi duen jarrera, lehen ikara ematen baikenion pentsaturik komunismoak kutsatuta geundela. Eta, gaur, ohore guztiekin egin dio harrera Jose Antoniori, eta bere mintzaldia esan du, gainera, erabat ados dagoela Lehendakariarekin. Agian, Estatu Departamentua egongo da aldaketa honen atzean.

49

Azaroak 19.

Intelligence Serviceko Millerrekin bazkaldu dut. Kontu interesgarriak izan ditugu mintzagai.

Manu Sotak egunerokoan aipatzen duen Miller hori ezkutuko deitura bat zen. Bill Ross-Smith zuen benetako izena espioi ingelesak. Biharamunean, berriro elkartu ziren.

Azaroak 20.

Thanksgiving Day. Jose Antonioren bila noa, zeina Intxausti eta ume guztiekin joan baita Macy'seko desfilea ikustera. Ostean, Delegaziora, Intelligence Serviceko Miller eta Howardekin bazkaltzera. Azken hau, ingelesen arduraduna da gai hispanoetarako. Jose Antoniok penintsulako egoeraren ikuspegi zabal bat eman die, eta exilioan dauden politikari espainiarren jokaerarena. Howardek ziurtatu dio, Ingalaterrak gerra irabaziz gero Franco desagertu egingo dela. Aurreneko aldia da autoritatea duen ingeles batek baieztapen hori egiten duena. Jose Antoniok esan die, penintsulako etorkizuna ez dela oinarritu behar alderdi politikoetan, errealitate nazionalei erreparatuta baizik. Eta Portugal ahaztu gabe. Azkenik, euskaldunek Amerikan zehar duten garrantziaz aritu zaie. Howardek eta Millerrek telefonoz hots egin didate gaur bertan, adieraziz pozarren atera direla Jose Antoniorekin izandako bileratik. "Gizon hau ikaragarria da" esan didate.

Thanksgiving gaua Balentin Agirreren jatetxean ospatu dugu. Ederra afaria, batez ere piper beteak.

Manu Sota ohartu zen ingelesen promesaren garrantziaz. Euskal Zerbitzuak beraiei laguntzen hasiz gero, akabo Franco. Dena den, promesa hori, Franco

desagertuko zela eta Euskal Herriak bere etorkizuna libre hautatuko zuela, ez zuten inoiz idatziz lortuko. Baina Agirrek eta Sotak ebatzi zuten gauzak berez etorriko zirela, ez zegoela zertan gauzak gehiegi teinkatu aliatuekin.

Azaroak 21.

Coordinatorreko kide den Renduels jaunarekin bildu da Jose Antonio, Delegazioan. Coordinator hau Donovan koronelak antolatu berri duen bulegokoa da, Inteligentzia arloko informazio osoa koordinatzeko eta Roosevelti helarazteko.

Renduelsek dio, Jose Antonioren eta Roosevelten arteko bilera bat antolatuko duela 15 egun barru.

Baikor zegoen Manu Sota. Jauzi handia zen William Donovan koronelaren gizonarekin elkartzea. Bill Donovan Estatu Batuetako Inteligentziaren burua zen, Coordinator of Information (COI) karguarekin; hots, ordura arte bakoitzak bere aldetik funtzionatzen zuten Armadako Inteligentzia, Itsas Armadakoa eta FBI koordinatuko zituen gizona. Eta gainera, hainbestetan amestutakoa agindu zion, Rooseveltekin batzartzea.

Hortxe bukatzen da Manu Sotaren egunerokoa. Azal urdineko koadernoaren gainontzeko orriak erauzita daude.

Euria Caracasen

50

Aurrena euri inarrak entzun ziren bedera-bedera sabaia kolpatzen, ostean are jarraiagoak bihurtu ziren kixkorrak, zerua azkenik truxu batean lehertu zen arte. Lorategiko lurreko hautsa altxatzen zuten tanta lodiek eta dunbotsa atera lurrezko ontzi eta leihoetako burdinazko forjetan talka egitean. Ikernek, artean hiru urteko umeak, pentsatu zuen mamu handi baten oinotsak zirela eta jostailuzkoa balitz bezala etxeko teilatua altxatu egingo zuela. “Euria da, Karibeko euria”, lasaitu zuen amak. Ez zuten egundo halako euri jasarik ezagutu, zirinagoa zen Euskal Herriko euria, hanka mehea, Caracaskoarekin alderaturik. Eta gero, hain arraroa egiten zitzaien haize epel hura, euria ez zegoen hotzari lotua. Neskatoa abiatu zen leihotik begiratzera nolakoa zen erazarria, zeharo liluratuta, eta hantxe, leihoko kristalaren kontra begira eta eskorgan eserita zegoen Txomin neba txikia baztertu nahi izan zuen eskuaz. Tenk eta tira bi umeak,

euri jasa nork hobeto ikusiko, Txomin txikiak harramazka egin zion arrebari eta orduan zoperna negar malko bihurtu zen Ikerneren begietan.

Caracasko euria da Ikerneren lehen oroitzapenetako bat. Bitxia da ohartzea Ikerneren estreinako gomutak Venezuelakoak direla, Parisen jaio eta Atlantikoa ontziz zeharkatu arren. Orobat, gogoratzen du zaldizko tranbiatan ibiltzen zirela hirian barrena, kreola zela haien zaindaria, eta bazutela txakur bat, Txino. Behinola, bulldoga ez baitzen ageri, Ikerne haren bila ibili zen etxeko gela guztietan, lorategian. “Txino, Txino” hots egin eta erantzunik ez. Non sartu ote da? Neskatoa kaleraino irten zen artega, nahigabe handiarekin. Zaindariak auzuneko aguazilari galdetu zion txakurrik ikusi ote zuen eta honek ezetz. Gertatua amari kontatu ziotenean, aguazilaren etxera joan zen Karmele eta, atarian txirrina jotzear zegoela, aguazila bera entzun zuen deika: “Txino, Txino”. Halaxe lortu zuen berreskuratzea, umeen bozkariorako. Txomin txikiak hain estu besarkatu zuen Txino ezen, erreflexuz, ausiki arin bat egin zion, eta Ikerneri iruditu zitzaion lehenago nebak berari egindakoaren mendeku eztia.

51

Winston Churchillen espioiek Rockefeller Centerren zuten New Yorkeko egoitza. Han biltzen zen Manu Sota kaierean aipatzen duen “Miller” delakorekin, benetako izenez Bill Ross-Smith. Millerri informazioa pasatzen ahalegintzen zen Sota, Euskal Zerbitzuak benetan baliozkoak izan zitezkeela frogatu eta Intelligence Service Erresuma Batuko agentziarekin harremanak sendotzearren.

– Jakin dugu bandera espainiarra duten ontzietako kapitainei zorro berezi bat banatu zaiela. Antza denez, zorroak barruan duena benetan garrantzitsua da –esan zion Millerri–, hura galtzen duena hiltzera kondenatuta dago-eta.

Aitarena izan zenez Kantauriko flotarik handiena, faxistek zigor gisa desjabetua, Manu Sotak ongi ezagutzen zituen ontziburu gehienak.

– New Yorkera datozen euskal kapitainengandik zorro horietako bat eskura dezakegula uste duzu?

– Hain zuzen ere.

– Biguna den norbait aurkitzen duzunean deitu egidazu.

– Badut bat. Gaueko hamaiketan izango naiz Madison Etorbidea eta 58. Kalea gurutzatzen diren kantoiko tabernan, hogeita lau orduz zabalik egoten da.

Kapitaina eta Manu Sota jan-edanean ari zirela, kontu kontari, erraza izan zen katanarrua ebastea, horretarako zerbitzari italoamerikar bat baliaturik; Millerri gaztigatu baitzion Manuk: “Edonor irabazteko nor naiz edaten, baina lapurretan makala gero!”. Ez zegoen denbora galtzeko astirik. Kapitaina ohartu baino lehen, zorroa zabaldu eta fotografiatu egin zuten barruan zeraman gutuna. Lan horretaz, Dorothy izeneko estatubatuar bat arduratu zen. Dorothyk, jakin zuenean Sotaren ekintza zela hura, esan zion Millerri, “Sota, ezagun dut, bolo-bolo dabil bere izena departamentuko emakumeen artean”.

Zorroan, mezu sekretuak bidaltzeko erabiltzen zuten kodea zetorren, baina baita agindu bat ere: “Mezu hau irratiz entzundakoan, bideratu ontzia 48 ordu baino lehen Espainiako portuetara, eta hala egitea ezinezkoa balitz Norvegiara edo Hego Amerikara, ahal izatera, Argentinara. Irratiko mezua hauxe da: 46 gradu 15 minutu Ipar Latitudean eta 29 gradu 25 minutu Longitudean mina batzuk ikusi dituzte inora bidean”.

Arrakasta izan zen zorro hori zabaltzea. Churchillek informazio ezin hobea atera zuen ekintza hartatik. Alde batetik, faxisten kode sekretua lortu zuten, eta bestetik, are garrantzitsuago zena, jakin zuten Franco gerran sartzeko gertu zegoela, Ardatzaren alde. Britainiarrentzat berebizikoa zen Espainia gerran ez sartzea eta horretan saiatuko ziren ordutik aurrera, militarburu espainiarrak diruz ordainduz, esate baterako.

Ekintzaren ondorioz, Manu Sotaren eta Euskal Zerbitzuen lanak aintzakotzat hartu zituzten britainiarrenek. Ross-Smithek bere oroitzapenetan prestutasun hori nabarmendu zuen, esanez, euskaldunak benetan baliagarriak izan zirela gerran eta arrisku handiak hartu zituztela aliatuen alde.

1941eko Gabonak ziren. Tabernako zerbitzari italoamerikarrak, arrastorik utzi gabe, atzera ere kapitainaren jaka barnean irristatu zuen zorroa. Ez Manu ez kapitaina ez ziren ezertaz konturatu. Kantari zebiltzan, alai asko, marinelen abesti zahar bat: “Kalian gora, kalian behera, ai ai ai ai”.

Gurasoengandik eta neba-arrebengandik ozeano batek urruntzen bazuen ere, Karmele zoriontsua zen Caracasen. La Pastorako etxe kolonial hartan familia ezagunak batu ziren, hantxe bizi ziren garatetarrak eta, baita ere, lehengusu zituen urrestitarrak. Nabari zen bikote gazteak zirela, ilusioz beteak, amets guztiak mamitzeko bizitza osoa aurrean zutenak. Paulin Urrestik gustuko zuenez kantua, abesbatza antzeko bat sortu zuen La Pastoran bertan, eta gurasoak kantari aritzen ziren ume guztiak patioan jolasean zihardutenbitartean.

Julene Urzelai adiskide min zuen Karmelek, Eresoinka garaitik. Marseillatik ere biak elkarrekin abiatu ziren itsasontziz Venezuelara, eta geroztik harreman estua zuten, hainbeste, ezen Julenek zaintzen zuen Txomin txikia egun askotan eta bi-biek txandaka ematen zioten biberoia umetxoari.

– Julene, badakizu Billo Frometaren bandan sartu baino lehen nik neuk lortu niola talde bat Txomini tronpeta jotzeko?

– Ez da egia izango.

– Goibel ikusten nuen gizona, etxean bakarrik orduak eta orduak tronpeta jotzen.

– Euskal musika jartzen zuen Estudios Universal irratian... Guk behintzat igandero entzuten genuen etxean. Horrek zertxobait entretenituko zuen ba.

– Bai, baina luze joaten zitzaion astea hala ere. Eta behin batean, klinikan lanean ari nintzela, kantari bat ezagutu nuen. Venezuelako kantari ospetsuenetakoa zela esan zidaten, *Alma llanera* abestia idatzi zuena.

– Entzuna dut kanta hori!, sekulako arrakasta izan zuen.

– Kontua da, nik, lotsagabe, esan niola nire gizona tronpetaria zela, Bilboko Orkestrakoa, eta ea egingo zion audizio bat. Baietz esan zidan. Pozarren itzuli nintzen etxera eta kontatu nion Txomini.

– Eta?

– Halako “ikusiko dugu” batekin erantzun zidan. Baina hainbestetan errepikatu nion, azkenean joan zen zorioneko zita horretara.

– Bai ondo!

– Ez!, umorea galduta itzuli zen-eta etxera. “Horrek ez daki tutik musikaz”, bota zidan.

Julene barreka hasi da:

– Esker txarrekoa!

– Gizonak!

53

Harro zegoen Jose Antonio Agirre, Euskal Zerbitzuen eta amerikarren arteko elkarlana era ofizial batean sinatzea lortu zuen 1942an. Britainiarrekin egindako lan onak estatubatuarren zalantzak uxatu zituen. Euskaldunak propaganda eta espioitza lanean arituko ziren batez ere OSSrentzat –Office of Strategic Services, gerora CIA izango zenaren aurrekaria– eta FBIrentzat. Amerikarrek sostengu ekonomikoa emango zioten, eta beraz Estatu Batuetako administrazioa arduratuko zen Euskadiko Gobernuaren finantziazioaz. Euskal espioiek talde gisa egingo zuten lan, ez banako gisa, talde osoa amerikarren esanetara, baina era autonomoan.

Argi zegoen zein ziren bi gudu zelaiak. Alde batetik, Iberiar penintsulan bertan barneratuko ziren euskal agenteek informazioa aterako zuten Espainiako Gobernu berriaren asmoei buruz eta, batez ere, nazien mugimenduei buruz. Euskaldunetako asko portuetako langileak edo marinelak zirenez, ez zen lan

zaila izango Ardatzeko barkuen nondik norakoak zelatatzea. Beste bataila eremua Latinoamerika zen, erbesteratuen multzo zabalak baitzeuden kontinentean barreiaturik, agente nazien ibilerak kontrolatzeko prestaturik eta, premiazkoa baldin bazen, haien egitekoak saboteatzeko.

Eta horri guztiari diktaduraren kontrako propaganda gehitu beharko zitzaion, izan ere, Latinoamerika oso katolikoa zen eta politikari ugarik beren kidetasuna azaldu zuten Francorekiko. Agirre lehendakaria, bera ere katolikoa izanik, Aliatuen aldeko ideiak hedatzen ahaleginduko zen euskal jatorria zuten agintarien aurrean. Itxaropentsu zegoen, bere sareak munduko estatu boteretsuenetako batentzat lanean ari baitzen, eta horrek aurrerantzean ordain politikorik ekarriko zuen.

Nahiz eta Bill Donovan koronelaren ordezkariak Lehendakariari iradoki zion hamabost egunen buruan Franklin Delano Roosevelt presidentearekin elkartuko zela, ez zen halakorik gertatu. Horrez ordez, Henry A. Wallace presidenteordearekin bildu zen Agirre ordu eta erdiz Washingtonen. Geroztik Wallace beti izango zuen aldeko Agirrek Estatu Batuetako administrazioan –beste asko ez ordea, Harry Truman adibidez–. Presi-

denteordeak ez zuen arreta gerra irabaztean soilik jartzen, funtsezkoa iruditzen zitzaion-eta orobat jakitea nola eta norekin irabaziko zen gerra hura; azken batean Aliatuak ideia batzuen defentsan ari ziren borrokan, askatasunaren eta duintasunaren alde, eta Ardatzak, aldiz, “garai ilun berri bat” baino ez zuen ordezkatzen.

– Gerra garrantzitsua da, baina bakea ere bai –esan zion Agirreri–, alegia nola kudeatuko den bakea.

Ez dago jakiterik zehatz-mehatz zer parametrotan hitz egin zuten Wallacek eta Agirrek, eta zer agindu zion batek besteari. Jasota dagoena da, hori bai, Francok Washingtonen zuen enbaxadoreak Estatu Idazkaritzara igorritako kexua, esanez jakin duela Wallace presidenteordea euskal agintari batekin egon dela berbetan eta, promes egin diola, gerra bukatu bezain laster, euskal herrialdeen askatasuna bideratzen lagunduko duela. Kexak ez zuen erantzunik jaso.

54

Euskal Delegazioaren jarduera etenik gabea bilakatu zen, hala harremanetan nola propaganda alorrean.

New Yorkera bildua zegoen Jacques Maritain filosofoaren lagun egin zen Jose Antonio Agirre, gauza pentsaezina urte batzuk lehenago; haren lanak irakurtzen zituen gaztetan eta orain elkarrekin egiten zituzten paseoak Columbiako campusean barrena.

– Behatu behegainera. Campuseko zorua egiteko Foru Erromatarrean oinarritu ziren...

Baina gauez ere egitekoetan luzatu behar izaten zuten. Manu Sotaren egunerokoan behin baino gehiagotan ageri da, goizaldeko orduak arte egoten zela Agirre lehendakariarekin batera lanean, zigarroak erretzen eta anis botilatik edaten. Uste da, Lehendakariaren Europako ihesaldia kontatzen duen *Gernikatik New Yorkera Berlinetik pasatuz* liburua idazten zihardutela biak batera. Agirrek ihesaldi garaian idatzi zuen eguneroko notak irakurri eta gogora zetorkiona kontatzen zion, Manuk paperera ekarri eta bere erara molda zezan dena.

Lortu zuten liburua argitaratzea gaztelaniaz eta ingelesez Estatu Batuetan. Ahalegin bereziz saiatu ziren horretan, eta zenbait gutunetan nabari da Agirreren urduritasuna ingelesezko bertsioa espero baino astiroago doalako. Jokaldia bikain atera zitzaien, merezi izan zuen zain egotea, MacMillan argitaletxe ezagunak

eman zuen argitara eta best-sellerra izan zen, salduenen zerrendan egon zen luzaroan eta aipamen ederrak izan zituen, besteak beste, *New York Times* agerkarian. Itzulpenaren orrazketa, noski, aspaldiko lagun batek egin zuen, Nea Coltonek.

Euskal Delegazioan langile ziharduten Anton Iralak, idazkari gisa, eta Jon Bilbaok, artxiboaren arduradun. Eta Lehendakariak idazkari pertsonal bat ere kontratatu zuen. Bada giro hori jasotzen duen film bat, hamahiru minutuko dokumentala, erbestean zeuden euskaldunei erakusteko egina. New York hiriaren irudiak datoz, etxe orratzak egunez eta neonezko argiak gauez. Eta ikusiko duzu Delegazioan buru-belarri dihardutela Agirreren liburuarekin edo Columbia Unibertsitateko eskolak prestatzen, eta orobat Lehendakariaren familiaren joan-etorriak edo eguneroko bizitzako pasarte arruntak.

Pelikula ikurrina eta *Stars and Stripes* Estatu Batuetako bandera elkartzen dituen irudi batekin bukatzen da, esaldi honekin: “Erbesteko ordu luzeetan itxaropen haize batek eusten die bihotzei eta bizkortzen ditu nahimenak”.

Karmele Urrestik eta Txomin Letamendik Caracasen ikusi dute filma, lagun batzuekin batera.

– Badakit zer gustatu zaizun gehien –esan dio senarrak emazteari.

– Zer?

– Irri egin duzu Manu Sota mahukak jasota harraskan ontziak garbitzen azaldu denean.

– Ez du txarto egiten. Trebetasun apur bat ere badu.

– Nik dakidala lehenago ez du halakorik sekula egin...

– Ba jarraitu eredua! Zeu ere platerak garbitzera hemendik aurrera.

– Ados. Nik ontziak garbituko ditut eta zu joango zara Roof Gardenera.

– Ez, hobeto oraindik. Zu etxeko lanez arduratu eta ni izango naiz espioia.

– Hara! Euskal Mataharia.

Etxera bidean eskutik helduta joan ziren lehenik, eta haize fina altxatu zuenez Karmelek gerritik estutu zuen Txomin, eta horrela, elkarri besarkatuta ailegatu ziren La Pastorara.

Espainiak Venezuelan zuen enbaxadoreak, Jose Antonio Sangroniz y Castrok, ohitura zeukan Roof Gardeneko saioetara joateko. Bilbotarra zen Sangroniz eta altxamenduan Francisco Francori Afrikatik penintsulara hegaz egiteko bere pasaporte diplomatikoa utzi zion. Gerra Zibilean Francoren kabinete diplomatikoaren burua ere izan zen, baina gobernukide batzuentzat “bigunegia” izan bide zenez Caracasera bidali zuten enbaxadore.

Venezuelakoa, dena den, ez zen urrezko deserri hutsa izan. Sangroniz nabarmena zen luxu kontuetan, laket zitzaion erakustea diruduna zela eta sosak ez zetozkiola Espainiako goi kargua izatetik. Susmoak berehalaxe zabaldu ziren Caracasen. Alemanek gerrarako behar-beharrezkoa zituzten tamaina handiko diamante industrialak eta Venezuelan asko zeuden horrelakoak. Beraz, nazientzako diamanteen kontrabando handia zegoenez –eta Espainiako enbaxadore batek ezin zuen ahalkegabeki nazien alde jardun, Franco neutrala baitzen orduan –, euskal agenteen lanetako bat kontrabando hura kontrolatu eta Aliatuei salatzea izan zen.

Sangroniz gizon kultu eta berriketaria Roof Garden dantzatokian ezagutu zuen Txomin Letamendik. Enbaxadorearen eta haren alaben laguntasuna irabazten joan zen gutxika-gutxika, era zuhurrean. Bilbori buruz mintzatzen ziren, eta musikaz edo arteaz. Letamendik Caracasko goi mailako jendartean sartzea lortu zuen eta giro horretan kontatzen zirenak trukatzen zituen enbaxadorearekin.

Gau batean, bizimodua aldatu behar lukeela aholkatu zion Sangronizek:

– Hau ez da zuretzako moduko herrialdea. Espainiara itzuli behar zenuke, horren tronpetista fina izanda.

– Arrazoi osoa duzu, enbaxadore jauna. Nekatuta nago gerra luze honetaz. Baina hemen ondo irabazten dut.

– Espainia asko aldatu da.

– Niri ez zaizkit politika kontuak batere interesatzen. Musika da nire mundua, eta ez dut pentsatzen familia aurrera ateratzean besterik.

– Espainiako gerra amaitu zen, gizona. Orain neutrala da eta uste duzuna baino modernoagoa. Madril, Bartzelona, Bilbo... ez zaizu lanik faltako.

– Caracasen ohitu gara.

– Jakinaren gainean egongo zara Antonio Gezala ere itzuli dela Bilbora. Ohartu da beste inon baino hobeto dagoela han. Urte batzuk igarotakoan Erregimenak asmatuko du haren artelanak baloratzen. Itzul zaitez zu ere, bihotz onekoak izango gara zurekin eta zure familiarekin. Ahaztu Agirre eta haren amets eroak. Badakizu nork lortu dion bisa? Lekerikak.

Txomin isilik geratu zen une batez. Informazio hark nahastu egin zuen erabat eta nekez disimulatu ahal izan zuen Sangronizen aurrean. Egia izango al zen Lekerikari esker itzuli zela Gezala Bilbora?

– Baina hemen ondo gaude, euskaldunen artean bizi gara, haur txikiak dauzkagu... Itzultzea ez da hain erraza.

– Pertsonak jakin behar du edozein egoeratara moldatzen. Francok ongi daki hori. Ez egin kasu gorrien propagandari. Franco ez da eroriko, benetan diotsut. Hobe duzu moldatzen hastea. Nahi baduzu, nik neuk lagunduko dizut paperak egiten. Pentsa ezazu lasai, adiskidea, eta deitu nahi duzunean –enbaxadoreak bere txartela sartu zion Letamendiri jakako poltsikoan, eta zerbitzariari hots egin zion eskuarekin kriskitin eginez–: Daikiri bi, faborez.

1942ko udazkenean Jose Antonio Agirrek, OSSk ordaindurik, bira bat antolatu zuen Latinoamerikako zenbait herrialdetara hitzaldiak emateko. Mexiko, Panama, Kolonbia, Peru, Txile, Uruguai eta Kubako presidenteek harrera egin zioten. Alde batetik, agidanean, aliatuen aldeko propaganda egitea zuen xede, baina beste aldetik, eta bigarren hau ezkutuko kontua zen, hitzaldietara hurreratzen ziren euskaldunak, horietako asko gerran ibilitako gudariak eta exiliatu behar izan zutenak, zerbitzu sekretuetan sartzeko ahalegina egingo zuen.

Hiri bakoitzean hitzaldiak eman zituen; gogoangarriena, beharbada, Habanako Unibertsitatean urriaren 11ko berbaldia. Nafarroako eta Bizkaiko testu zaharrak aintzat hartuz mintzatu zen giza duintasunaz, eta Bizkaiko antzinako legeek torturaren aurka jasotzen duten lege bat irakurri zuen: “Ez diezaiola inork ezein bizkaitarri tormenturik egin, ezta tormentu amenazorik ere, ez zuzenean ezta zeharka ere, ez Bizkaian ez eta handik kanpo ere, inon”.

Ordurako ezagunak ziren alemanek kontzentrazio esparruetan egiten zituzten triskantzak eta Agirre ziur zen arrazoiaren jabe zela bera, euskaldunok gerraren alde egokian geundela, bazuela bere gobernuak halako “nagusitasun etiko bat”, garaiezin bilakatzen zuena. Giza eskubideen urraketen aurka zeuden, askatasunaren alde, eta hori ere zegoen gelditzerik, bere ustez.

Habanako hitzaldi hura baino justu astebete lehenago, Venezuelan izan zen Lehendakaria. Urriaren 5ean iritsi zen Caracasera. Han euskal espioitza talde bat osatuta zegoen ordurako. Blas Garateren agindupean, Calvo Goiri, Lucio Aretxabaleta, Triki Azpiritxaga, Sabin Barrena eta Txomin Letamendi. Lehendakaria Caracasera iristear zela jakinik, beraien ekintza arriskutsuena burutu zuten. Letamendik ondo zekien enbaxadorearen txoferra eta atezaina pertsona bera zirela, eta Sangronizekin batera Roof Gardenera joateko ohitura zuela oso berandu arte. Txominek Billo’s Caracas Boysen emanaldi berezi batera gonbidatu zituen diplomatikoa eta txoferra. Dantzan eta edaten zihardutela, espioitza taldeko kideetako batek enbaxadako kutxa gotorraren giltzak ostu zizkion Sangronizen atezainari, eta halaxe, gau berean, kutxa zabaldu

eta agiri sekretuak zituen zorroa eskuratu zuten. Atezaina ez zen ezertaz ohartu, ezta Sangroniz bera ere, etxera itzuli orduko txoferrak giltzak jakan zituen-eta berriro.

Biharamunean heldu zen Lehendakaria. Haren aurrean zabalduko zuten, OSSko ordezkari baten laguntzaz, enbaxadako kode sekretuak gordetzen zituen gutun-azala. Venezuelako nazien mugimenduak ezagutu zituzten horrela, eta halaber Sangronizek diamanteen kontura egiten zituen tratuak noiz eta nola burutzen ziren.

Ematen du Caracasko ekintza azken froga baten antzekoa izan zela estatubatuarren konfiantza irabazteko. Handik gerora, erabat sendotu zen OSS eta FBIrekiko harremana. Agirrek FBIko Edgar Hooverrekin sinatuko zuen elkarlanerako akordioa.

57

Hiru egunen buruan, urriaren 8ko goizean, Txomin Letamendik automobil bat zain zuen etxeko atarian. Bi motozikleta alde banatara. Lehendakaria zen, ostera labur bat egin nahi zuen berarekin hondartza aldera.

Karmelek Txomin autoan sartzen ikusi zuenean ez zion susmo onik hartu.

Autoa abiatu bezain laster hitza hartu zuen Lehendakariak:

– Lehenik eta behin opari hau eman behar dizut Manu Sotaren partetik.

Woody Guthrieren disko bat zen. *Dust Bowl Ballads*. Letamendik, diskoari begira, azala laztandu zuen.

– Nola dabil gure gizona?

– Kexu, ez diozulako jaramon handirik egiten. Idatzi egiozu gutunen bat lantzean behin. Lagunak zaindu egin behar dira.

– Lanpetuta nabil hemen. Orkestra, familia...

– Bai, jabetu naiz. Nola aldatu diren gauzak Parisen azkenekoz elkar ikusi genuenetik. Esan nizun Karmele zutaz maiteminduta zegoela.

– Zortekoa naiz.

Lehendakariak bizkarra arteztu zuen eserlekuan. Ostera haren xedea azaltzeko unea zen.

– Txomin adiskidea, agian neurekoia izango naiz esatera noakizunarekin, eta nire proposamena onartuz gero baliteke zure bizitzako hanka sartzerik handiena egitea.

– Bota.

– Badakit egoera onean zaudela hemen, baina...

– Esan, koplarik gabe.

– Bueltatuko al zinateke Euskal Herrira? Zulako agenteak behar ditugu barruan. Hantxe dago beneta-ko gerra. Francoren erregimena erortzear dago, baina barrutik egin behar zaio bultza behingoz eror dadin. Gutxi falta da Aliatuek gerra irabazteko. Estatu Batuen indarra geldiezina den arren, Francori lurra bigundu behar diogu azpitik.

– Ume txikiak ditut. Ezingo nuke Karmele hemen bakarrik laga.

Agirrek isilune bat izan zuen, serio, hitz egiten ja-rraitu baino lehen.

– Ulertzen dut. Badakizu ezetz esateko aukera du-zula.

– Benetan?

Ia agurrik egin gabe, automobiletik irten eta oinez egin zuen etxera Txomin Letamendik, bere pentsa-menduetan katramilaturik. Bazekien Karmele kezka-tsu aurkituko zuela, eta berak berri txarrak baino ez zi-tuela.

– Karmele, bagoaz Euskal Herrira. Lehendakariak han behar gaitu.

– Zu beharko zaitu, esan nahiko duzu.

– Gutxi falta da dena bukatzeko. Gauzak antolatu behar dira bake garairako.

– Ez dakit ideia ona den. Gurasoen gutunen arabera, giroa oso txarra da, ez dago ezer egiterik han. Ez al gaude hobeto hemen? Ez al diogu eman nahikoa gure herriari? Gerran ibili zinen, ni erizain Gudarostearekin, Eresoinkan ondoren. Nire anaia Josu preso egon da, Ezkabako gotorlekuan aurrena, gero Redondelan eta Vigon eta Astorgan... kontaezina da zer pasatu duen. Eta beti esaten digute azken ahalegina dela, baina zer lortu dugu? Nahigabea, Txomin.

– Oraingoan egia da, Karmele. Badakit ondo zer pasatu duen zure familiak. Zure nebak senperrenak! Baina ezin da alferrik izan hori dena. Ezin dugu orain albo batera begiratu. Sinetsi egin behar diogu Lehendakariari. Informazio oso xehea du. Bukatzear dago dena...

– Bai, ondo informatuta!, Belgikara oporretara joan zenean bezala, ez zekien Hitlerren ofentsiba zetorkiola gainera.

Karmelek zorrotz begiratu zion Txomini, azken hitzak nabarmentzearren:

– Orain gauzak desberdinak dira. Orain seme-alabak ditugu, urrezko ume bi. Eta familia duen inor ez da itzultzen ari infernu hartara. Nekagarria da beti korrontearen aurka igerian egitea, Txomin. Orain beste batzuk dira gure lehentasunak.

Esku ahurrak senarraren paparrean jarriz, goxoago esan zion:

– Har dezagun guretzat denbora pixka bat.

Gurasoen arteko eztabaidaz kezkaturik, Ikerne aitarengana hurreratu zen eta eskutik tira egin zion.

Aita, amak Txino aurkitu du!

Txominek eta Karmelek ez zioten elkarri hitzik gurutzatu egun hartan. Elkarri begiratzea ere ekidin egiten zuten. Baina oheratzeko ordua iritsi zen eta bakoitza ohearen alde banatara hasi zen eranzten, eta bakoitzak bere aldetik uste zuen zerbait txarto egin zutela, eta ez ziotela batak besteari minik eman nahi. Halaxe, eta tentsio une hori nola hautsi zitekeen pentsatzen zuten bitartean, hala ilunetan emandako laz-

tan bakan batez nola solas hutsal batzuek baliatuta, bi-biak oheratu ziren maindire hotzetan elkar agurtu eta ukitu gabe.

Neure buruari galdetzen diot une hau ez ote zen berebizikoa izan beraien bizitzetan, lipar honek ez ote zuen markatu betiko beraien etorkizuna, ezen ohemahaiko argia piztu eta hitz egiten hasi baitzen Karmele:

– Harro nago zutaz, Txomin, oso harro. Sekula ez duzu amore ematen. Ez dakit damutuko ote zaigun hemengo hau guztia utzi eta Euskal Herrira itzultzea. Baina zuri begira neure buruari galdetzen diodanean, “zergatik?”, zure barruko ahotsa entzuten dut esanez, “itzuli egin behar dut, horixe da nire betebeharra”. Zure kontzientziaren boza da, Txomin. Eta orduan pentsatzen dut: denak zure modukoak balira!

Eta Karmelek ezin izan zuen hitz egiten jarraitu.

59

Manu Sotak aitortu zuen moduan, Agirreri ez zegoen ezetz esaterik. Eta halaxe, 1943ko apirilean, Txomin Letamendi eta Karmele Urresti, bi haurrekin, Bartzelo-

nara bidean jarri ziren *Cabo de Buena Esperanza* itsasontzian.

Historialariak ez datoz bat esatean zein zen Txomin Letamendiren egitekoa Bartzelonan, zergatik eta zertarako itzuli zen, zehazki zer agindu zion Jose Antonio Agirrek. Batek esango du, Lehendakariaren gutun eskuizkribuzkoak zeramatzala Txominek, agindua emanez zerbitzu sekretuak antolatu behar zirela Euskal Herrian eta Espainian. Besteak esango du, dirua eramatera joan zela Barne Zerbitzu guztiak antolatzeko.

Alabaina, OSSko paperetan miatuz gero, Letamendiren itzulerari buruzko ikuspuntu berri bat ezagutuko duzu, orain arteko hipotesiak zalantzan jartzen dituena. Aski duzu “Internet Archive” atarian “Basque Intelligence” bilaketa egitea, ager dakizkizun lotura batzuk OSS eta FBIri buruzkoak, euskal hizkuntzari buruzkoak –Third Language Adquisition– eta ETAri buruzkoak. Hauta itzazu OSSren ingurukoak, Ferdinand L. Mayerrek 1943ko apirilaren 13an Donovan koronelari bidaltzen dion memoranduma irakurtzeko. Besteak beste, Anton Iralak idatzitako “Mission of Letamendi” pasartearekin topo egingo duzu, tronpeta-jolearen itzuleraren berri emango dizuna.

Agente sekretu bat zihoan *Cabo de Buena Esperanza*-n, itxuraz musikaria eta familiako aita bat baino ez zena.

THE MISSION OF LETAMENDI

Itsasontzia Espainiaratu baino gutxi lehen iritsi nintzen Caracasera. Letamendiren irteera eta gerizatzea oso ongi landu izan da, zeharo, ezen Espainiako agintariek, eta are gutxiago euskal koloniak, ez daukaten susmo txikiena ere. Sangroniz jaunarekin izan dituen negoziazioak abilezia eta inteligentzia handiz eraman ditu Letamendik, hainbeste ezen, Sangroniz jauna bera arduratu den xehetasun guztiez eta egin beharreko lan diplomatiko guztiaz. Bi-biak barku berean doazenez, pentsatzekoa da, babesteko modurik onena izango dela Sangroniz beraren alboan izatea eta, bidenabar, Letamendik guretzat garrantzitsua den informazioa lor dezan horrela. Sangronizen alaben lagun mina da Letamendi, eta alabak ere ontzian doaz aitarekin batera.

Aukera izan dut Letamendiri jarraibideak era lasai batean eta zehatz emateko, eta dena modu oso diskretuan. Ez dut uste ezer hobeagorik egin genezakeenik gisa honetako gai batean. Dena den, egoera ezin

hobea izan da guretzat, gaur arte behinik behin. Nire iritsiera Venezuelara, seguru nago, ongi bideratua izan da bertan izan naizen egunetan egin dudan lana kontuan izanda. Hala ere, eta sor daitezkeen arrisku guztiak ekidin eta zirkuitu itxia egitearren, agindu zehatzak eman dizkiot Letamendiri inondik inora ez dadin kontaktuan jarri ezein agente edo azpi-agente amerikarrekin. Ezin dut besterik egin Letamendiren jarrera bikaina azpimarratu baino. Venezuelan zuen egoera ezin hobea uztera doa, eta berarentzat esleitua genuen diruari ere muzin egin dio, eta soilik beharbeharrezkoa duen horretarako erabiliko du.

Beraz, diplomatikoarekin batera itzuli zen Txomin Letamendi, hari segika. Jose Antonio Sangroniz Frantziako enbaxadore egin asmo zuen Francok, Jose Felix Lekerikaren ordez, azken hau Kanpo Harremanetarako Ministro izendatuko baitzuen.

Euskadiko Gobernuaren Barne Zerbitzuetako kidea zen Letamendi, enbaxadoreak uste zuenean tronpetari birtuoso eta adiskidea zuela alboan.

Ikerne hiru urte eta erdiko haurra eta Txomin bikoa, pozik ontziratu dira jostailu berriekin. Bidaia luzean aspertu ez daitezen, osaba Paulin Urrestik oparitu dizkie, jostailu-denda batean lan egiten du-eta Caracasen.

Afalorduan, jantokirako bidean, amak gogor hartu du Txomin umea.

– Zergatik jotzen duzu neba? –kexatu zen Ikerne.

– Badaezpada ere, ondo porta dadin.

Alferrik, jantoki dotoreko harizko zamauari ertz batetik tira egin eta mahaiko ontzi guztiak lurrera botako ditu Txomin txikiak.

BIGARREN ZATIA
1943-1950

Antsosolora itzulera

61

Umeak lokartutakoan, Karmele eta Txomin kamarote aurreko karelean liho zurizko eserleku tolesgarri banatan eseri ziren. Txominek zigarro bat isiotu zuen eta Karmeleri eskatu zion, ea berriz irakurriko zion anaia Josuren gutuna, bost urte lehenago Ezkabako kartzelan igarotakoak kontatzen zituena, hango ihesaldiari buruzkoak, non ia berrehun preso hil ziren 1938ko maiatzaren 22 beltz hartan; 795 presok ihes egin zuten, baina hiruk soilik lortu zuten muga zeharkatzea, gainontzekoak atzitu edo hil egin baitzituzten.

Josu Urrestik, Ezkaban zegoela, beroki barruko oihalean idatzi zituen oharrok arkatzez, eta gatibu aldia bukatu ondoren paperera pasatu zituen zirrimarra haiek, forma eman eta oroitzapenak erantsirik. Karmeleri Caracasera bidalitako kontakizunaren hasieran, honela zioen, zetorrenaren gaztigu egin eta irakurlea prestatu nahi balu bezala: “Ez neban erraz pentsatuko gizonak baldintza hareitan euki leikezanik”.

Karmele ahoz goran irakurtzen hasi zitzaion Txomini.

“Hemen egozanak gehienak Extremadura, Galizia, Leon eta abarretakoak ziran, baina zazpigarren bobedakoak gehienak euskaldunak.

“Guk gazteluko tunela ezagutu gendun. Egun guztian elektra indarra behar zan, 25 kwko argi makala. Tokia zelakoa zan jakiteko, kontu egin, kontaketa ordua helduten zanean bertako zaindariak sudur eta ahoa estalduta sartzen zirala, bertako usai txarrak nazkatuta. Bustitasun handia geunkan barruan eta koltxoiak bustita agertzen ziran.

“Egunean ordubetez urteten ginan patiora, baina egun argitara urtetean begiak ezin zabalduta ibilten ginan. Jateko ez gendun jesarlekurik, ez mahairik. Gure taldean arrantxoa honela banatzen eben: bakoitza bere petatean jesarri eta preso arrunt bik ekarten eben janaria. Ur beroa. Hemen ez egoan besterik. Gosea, benetan gosea.

“Kutsadura asko egoan, eta preso batzuk posporo kutxa eta egurrezko orrazi bategaz erre egiten euskuen ulea, eta bizarra ezkutuan ebagi, ez zalako bizarra kentzeko orririk eukitea lagaten. Gure garbiketarako egunean litro bat ur emoten euskuen eta beragaz

balio behar arpegia garbitu, platerak eta abar. Azkazalak posporo kutxaren lixagaz apaintzen genduzan. Oinik ez gendun inoiz be garbitu”.

– Urtebete luzean oinik garbitu gabe... Hori lubakietan ere ez zen gertatzen –esan zuen Txominek.

Karmelek irakurtzen segitu zuen.

“Egun baten Pico izeneko preso bilbotar bat hurreratu jatan. Gauza ezkutukoa zala, baina ba eukala konfiantza nigan. Hasi zan esaten ihesaldia gertuten ebiltzala eta ondo urtengo ebala. Gerran ibili nitzan lez, ekitea eskatzen eustan. Banekiala armak erabilten eta... Nik erantzun neutsan erasoan ez nintzala sartuko, baina gauzak ondo urteten ebela ikustean, pentsatuko nebala urten edo geratu zer egin. Berak erantzun eustan ados egoala, baina inoiz jakiten baeban norbaiteri zerbait agertu neutsala, erantzuna azkena izango zala”.

Karmelek kontakizuna itzultzen zion bitartean, Txomini bere batailoiko gizonen aurpegiak etortzen zitzaizkion oroimenera, bizia galdu zutenak batzuk, gerraren izugarrikeria ezagutu zutenak denak.

“1938ko maiatzak 22. Igandea zan. Afariko ordura arte ez zan ezer igarri.

“Hamar bobedatan bananduta gengozan. Guretik hasten ziran janaria banatzen, eta halaxe egin ondoren, hurrengo bobedara banakariak aldatu ziranean, gurean berba emonda euken guztiak guardiei eraso, giltzean itxi eta patiora urteten hasi ziran.

“Baina oraindik kanpoan egozan soldaduak menperatzeko egozan.

“Gotorlekua mendiz inguratuta dago eta presondegia lapiko bat lez mendi artean. Soldadu zaindariak mendian egoten dira, bizilekuen atzean, hain zuzen be kapilara joaten ginan bidean.

“Hemen egoan lehenengo zaindaria. Soldaduak ezagutzen eben presoetako bat hurreratu jakon eta, itxuraz, nahiz eta bere guraria kalterik ez egitea izan, hurreratu jakonak eroian burdin zati bategaz gogorregi jo eta uste barik hilda laga eban. Orduan bere kapote, buruko eta fusila kendu eutsazan eta bera geratu zan bertan zaindari lez, eta bere lagunak zainketa-aldaketa egin behar ebenen zain egozan. Horrela, erreleboa egiten hasi ziranean, hareik urten eta soldaduei iskiluak kentzea lortu eben.

“Itxuraz, soldaduen batek zerbait igarrita tiroa jaurti eban, baina berandu zan”.

Karmelek mutiko txikia esnatu zela sentitu zuen. Gutuna utzi eta kamarotera itzuli zen. Kantari hasi zitzaion umeari.

Zeinek ure edan dau,
Aingerutxu batek,
Zenbat bider,
hiru bider,
Jesus, Maria eta Jose,
Jesus mila bider.

62

Beste zigarro bat erretzeko astia amaitu baino lehen itzuli zen Karmele karelera.

– Gehiegi erretzen duzu, Txomin.

– Ez dut uste tronpeta jotzeko garaiak berriz itzuliko direnik niretzat, ez behintzat urte batzuetan.

– Josuren oroitzapenak beste une baterako lagako ditugu...

– Ez, maitea, jarraitu mesedez.

“Brigadetako ate guztiak zabaldu ebazen. Batzuk kanpora urteten hasi ziran. Besteak geldi bertan. Une

haretan zabaldu ziran esamesetan bat hau zan: frantsestarrak Espainian sartu zirala eta jaubetzen hasi zirala.

“Dana guzurra, nahastea.

“Eta bitartean, presondegiko kornetina, preso arrunta zan bera, iheska joan zan. Baten bat konturatu eta bere atzetik jarraitu eutsan. Ez eban lortu menderatzerik eta Artika deitutako herritxoan salatu eban ze gertatzen zan.

“Nik, Julio eta Sabin lagunak barruan lagata, ihes egiteko gogoa igarri neban. Daniel Elorza Basauriko lagunak esan eustalako berak baekiala nundik ibili, Telefonikako hariak zabaltzen lurralde honetan ibilia zalako.

“Horrela kanpora urten neban. Lehenengoz ikusi neban Iruña eta inguruko hegala. Ibili eta ibili konturatu nintzan batzuk barriro etozala gaztelura. Itxuraz, inora joatea ezina zala, bideak zarratuta egozala igarrita. Nik be bira egin neban. Ikusi eta konturatu nintzan Iruñetik jendea linterna argitan etorten hasia zala. Horrela gaztelura heldu nintzan.

“Oraindik ateak zabalik egozan eta gure lehengo tokira sartu nintzan. Han egozan nire adiskide Julio eta Sabin”.

– Ihes egitea lortu eta, norarik ezean, buelta egin behar izan zuen kartzelara –esan zuen Karmelek.

– Marka da gero!

“Halako baten heldu ziran kaleko zaindariak. Inguratu eben gaztelua eta agindu eben barruan gengozan guztiok patiora urteteko. Ez ginan urten. Hala egin bagendu, gaur ez genduan holakorik kontatu ahal izango, hilko ginduezelako.

“Presondegietako zuzendari nagusiak, ahoa neurri, ahora etorkiona esaten eban gure aurka. Eta egia gehienbat hau da: gosea gendula, miseria be bai, urik ez edateko eta garbitzeko, komunak benetan zikin eta nazkagarri. Gure miserian, zorriz beteta, egon ezinean gengozan.

“Erabagi gendun besoak gora jasota patiora urtetea.

“Laster hasi ziran mendi eta bidetan ebiltzanak edo ezkutatu ziranak batu eta gaztelura ekarten. Ni adi egon nintzan adiskide on neban Daniel Elorza basauritarra ekarten ete eben. Eta ikusi be egin neban ekarten. Elizondon atxilotu eben, mugarako bidea noiz hartuko ebilala, arrabete bidera.

“Negargura sartu jatan bera ikustean. Dana galdu eban. Adiskide baten bidez arrantxoa jan ahal izateko

goilara bialdu neutsan. Berak, ordez, gerrikoa bialdu eustan bere oroigarri lez.

“Elorza hau urkara zigortu eben. Baina berak gizonki eta adorez beterik berba eskatu eban epaiketan, urkatu ordez fusilatuta hiltea nahi ebala. Eta halaxe egin eben.

“Beste igeslariak eta atxilotuak izan ziranak goizeko diana jo aurretik jaiki eragin, patiora atara eta arinarinka ibiltera behartuten zituen, etenda jausi eragin arte. Guk ezin ezetan eurei lagundu, ez eta leihotik begiratu ere”.

Gerran ibilia bazen ere, Txominek sekula ez zuen kartzelarik ezagutu. Arreta handiz entzun zituen Josuren kontakizuneko zertzelada guztiak, ezer esateko kemenik gabe.

– 1940ko ekainaren 24an askatu zuten Josu. Ondarroara itzuli zenean San Juan jaiak ziren. Jendea eskutik helduta eta dantzari zetorren Gorozikako auzotik Antsosolo atzeko mendi bide estuetan zehar.

Itsasontziko saloitik ere musika iristen zitzaien Txomin eta Karmeleri, han ere dantzan ariko ziren bidaiariak, beste leku batzuetan britainiarrek eta amerikarrek hegazkinak prestatzen ziharduten bitartean Alemania, Holanda eta Italia bonbardatzeko.

– Irudi ederra da hori, herritarrak, zahar eta gazte, eskutik oratuta aldapan behera txistu soinuaren atzetik –amaitu zuen Karmelek–. Baina Josuri arraroa iruditu zitzaion egoera hura. Pentsatuko zuen, azken batean, jendea ahaztu egiten dela kartzelan dagoenaz edo ihesi dabilenaz, bizitzak aurrera egiten duela erremediorik gabe. Eta horregatik idatzi zituen berari gertatutakoak, ahanzturari hesia jartzeko. Herrira iritsi eta jendea festan, ezer gertatu ez balitz bezala; atzean utzitako infernu luze hura, badoan momentu bat baino ez.

63

Josu izan zen Frantziskok eta Karmenek Larresoroko erbestea uzteko izan zuten arrazoi nagusia. Semea herrira itzuli orduko, berarekin batu nahi izan zuten eta, zailtasunak zailtasun, bizimodu berri bat hasi elkarrekin, ondo jakin arren senperrenak pasa beharko zituztela.

Espero bezala, itzulera ez zen batere xamurra izan, hondamendia eta destaina baino ez zituzten aurkitu herrian. Etxea, Antsosolo, hankaz gora aurkitu

zuten. Gerra garaian ofizialak izan ziren bertan bizitzen, eta alde egindakoan erabat hutsik eta biluzik laga zuten. Altzari, tresna eta apaingarririk gabe, arrantzarako behar zituzten sareak ere desagertu egin ziren biltegitik. Era berean, Ardura Politikoen Tribunalak ebatzi zuen Frantzisko Urrestiren ondasunak oro bahitzea eta haietariko asko erregimenaren alde zeuden familiartekoen esku utzi zituzten, eta beste zenbait salgai jarri.

Antzo-solo eta *Jontxu* baporeak Armada frankistak hiru urtez gerrako kostazain gisa erabili eta gero, bata kaian lotuta zegoen lurrun-makina izorratu egin baitzitzaion, eta bestea ondarrutar batzuei saldu zitzaien. Orobat, etxepean zuten lantegiko makineria osoa.

Deigarria da, bestalde, Karmen Iturriotz emazteak are zigor gogorragoa jaso zuela; senarrarekin baino zitalagoak izan ziren berarekin. Karmen maistra zen gerra aurretik Ondarroako eskola publikoan, eta horixe izan zen zigorraren arrazoi nagusia: irakasleak arriskutsuak ziren diktadurarentzat. Eta 1940ko uztailaren 26an, Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas izenekoak, Karmen Iturriotz zigortu egin zuen Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabatik landa hamabost urtez deserrian bizitzera; horrez gain, hamabost urtez ira-

kasle izateko gaitasungabetzea ezarri zioten, eta 75.000 pezetako isuna. Emakumeari jarritako isuna benaz handia izan zen, kontuan izanik, Frantziskorena 25.000 pezetakoa zela, haren herena.

1941ean, herritik alde egiteko aginduari erantzun nahian, hauxe argudiatu zion Tribunalari Karmenek: “Deserrian bizitzeko baliabide ekonomikorik ez izanik, eskatzen dut, behinik behin, jateko pentsio bat, izan ere, bestela eskean aritu beharko baitut ala gosez hil; maistra izateko gaitasungabetuta nagoenez, badiot, deserria zigor okerragoa dela kartzela baino, han behintzat jateko zer edo zer emango bailidakete”. Baina erantzuna ezezkoa izan zen. Familia berriz ere banandu zen horrela. Aita-semeak Ondarroan geratu ziren, etxea atondu eta lapurtutako ondasun guztiak berreskuratze aldera. Karmenek eta Anitak Burgosera joan behar izan zuten, hiriko komentu batera bizitzera.

Hala ere Karmenek ez zuen amore ematen; herrira itzultzea eta irakasle gisa zuen lana berreskuratzea eskatzen zuen, behin eta berriz. Tribunalaren eskariz txostenak egin zituzten herriko alkateak, parrokoak, Falangeko buruak eta Guardia Zibilaren komandan-

teak. Denetan ageri da nola, portaera bikaina izan arren, ez zioten barkatzen pentsaera.

1942ko martxoko txostenei kasu eginez gero, hauxe zioen alkateak:

> Deberes católicos: cumplió como buena católica.
>
> Conducta privada: buena.
>
> Actuación política: Expulsada por las fuerzas nacionales, separatista vasca, afiliada a las “emakumes”, antiespañola, propagandista.
>
> Actuación profesional: buena.
>
> Actuación durante el movimiento: No tuvo actuación alguna.
>
> Juicio personal: separatista vasca, antiespañola sancionada por el Tribunal de Responsabilidades Políticas a 15 años de destierro de las provincias vascongadas en un radio de 150 kilómetros.

Falangeko buruak txosten bera idatzi zuen; beraz, pentsatzekoa da azken honek esango ziola alkateari zer idatzi.

Eta Pedro Mari Arakama bikarioaren txostena da Karmenekin bihozberena. Nabari da elkar ongi ezagutzen zutela eta begirunea ziotela:

> Deberes religiosos: siempre de comunión diaria.
>
> Conducta privada: excelente.
>
> Actuación profesional: Muy satisfactoria.
>
> Actuación política: perteneció al Partido Nacionalista.
>
> Actuación durante el movimiento: En vista de la actitud que toma el Partido Nacionalista se abstiene de toda intervención a él favorable.
>
> Jucio personal: Aunque perteneció al Partido Nacionalista, en vista de su comportamiento religioso y caritativo con los menesterosos es digna de toda consideración y respeto.

Amaitzeko, Guardia Zibilaren komandantearen informea da guztietan latzena. Exaltación Frutosi “Aitte totu” esaten zioten herrian, hots, aita lodia.

Juicio personal: bueno como persona y maestra, pero completamente malo en lo tocante a la causa nacional de la que es enemiga fanática por sus ideales separatistas vascos y antiespañola.

Karmeni ez zioten Burgostik Ondarroara itzultzea baimendu, bere senarra larriki gaixotu zen arte. Orduan errukitu ziren, nahiz eta irakasle lana ez zuen berreskuratzerik inoiz lortuko.

64

Frantzisko eta Josu aita-semeak, bien bitartean, etxeko ondasunak berreskuratzen ahalegindu ziren, Bilboko Auzitegian errekurtsoak aurkeztuz. Ez zuten gauza handirik lortu. *Antzo-solo* ontziaren auzia Madrileraino iritsi zen, baina, haien erabakiaren zain zeudela eta trikimailu juridiko baten ondorioz, Auzitegi Gorenaren behin betiko sententzia iritsi aurretik enkantean jarri zuen Bilboko Auzitegiak, agidanean, Ondarroako interesatuen presioaren eraginez. Eta halaxe, herritar batzuei adjudikatu zitzaien 700 pezetatan.

Beste itsasontzia, *Jontxu*, gerran frankistek erabili eta gero herriko familia batek hartu zuen beretzat lau urtez. Hainbat bider legea bete zedin eskatu ostean, Frantziskok eta Josuk lortu zuten haren jabetza onartzea eta itsasoratu ere egin ziren aldi baterako. Dena den, arrantzan irabazitako diru guztiarekin geratzen zen Bizkaiko Auzitegi politikoa, izan ere, Frantziskok eta Karmenek isunak ordaindu behar zituzten eta familiaren diru sarrera guztiak horretarako erauzten zitzaizkien.

Etsipenak hartua, Frantziskok deliberatu zuen berak ez zuela lan egingo Gobernu frankistari ordaintzeko. Lotu egin zuen txalupa lehorrean, ontziolako arlanpa batean. Huraxe izan zen berarentzat zigorrik handiena. Egunero ikusten zuen etxeko leihotik, ez atzera ez aurrera baporea, zura usteltzen zitzaiola, ezinbestean.

Geroztik, urte batzuk lehenago bere ontziak portura nola iristen ziren ikustera joaten zen bezala, Arrigorriko begiralekura joaten zen Frantzisko, eta itsasoari beha egoten zen, erbestean zituen seme-alaba eta emaztea gomutan harturik, beraiek noiz itzuliko.

Gau euritsu batean haur negarrak aditu zituen Antsosolon. Ez ziren, bada, bere biloba txikiak izango?

Ziezko arropa jantzi eta kalera irten zen, zaparradatan. Errepide ondoko gurdi batetik zetozen oihuak. Kriseiluaren argia bertara bideratu eta emakume bat eta ume batzuk aurkitu zituen gurdi haren azpian. Melamela eginda zeuden. Tratu txarrak jasotzen zituen emakume bat zen ihesi zebilena. Frantziskok bere kapotea soinetik kendu eta, harekin babestuz, etxera sarrarazi zituen. Egunsentian, etxe atzeko patiotxoan zeukan oilategi zaharrean atondu zuen familia harentzako bizilekua.

Ohera sartu zenean, Frantziskori mundu guztiko nekea bildu zitzaion bihotzean.

65

Karmele eta Txomin Atlantiko erdian zeuden, aitari bihotzekoak eman ziola jakin gabe, itsasontziko musika taldea entzuten. Sangroniz enbaxadoreaz eta haren alabez gain, ofizial alemanak ere saloian zeuden elkarrekin berbetan.

Manu Sotak gutun batean kontatutakoa gomutatu zitzaion Txomini. Manuren lehengusua, Pinotxo Aburto esaten ziotena, erbesteraturik zegoen Etcheferdian,

Miarritzen. Pinotxo ezaguna zen gerra aurreko Bilboko gau giroan, hiriko egunkarietako kronika sozialetan behin baino gehiagotan agertu zen bere izena, handikien festa guztietako gatz eta piperra baitzen, azkena etxeratzen zen gautxoria. Gauza guztien gainetik, mozorrotzea zuen gustuko. Gizon tatarra zen, txikia eta zabala. Antonio Gezalaren Ibaiganeko margoan erdierdian dantzan ari dena Pinotxo zen, lumazko makilari bira eta bira eragiten.

– Badakizu azkena, Karmele?

– Esan.

– Miarritze okupatuan Hotel du Palais luxuzko horretara joan ohi da Pinotxo. Nazien jaietara agertzea du gustuko, ofizial aleman bezala mozorroturik. Han, monokuloa begian duela, bata eta bestea agurtzen ibiltzen da, naziei trufa egiten.

– Harrapatuz gero txikitu egingo dute!

– Ez da erraza hura harrapatzea.

Txominek agiri faltsuak zeramatzan Espainian barrena mugitzeko, Nik Kintana tolosarrak zehaztasun osoz eginak. “Dario Landa” izango zen bere nortasun berria klandestinitatean, Domingo Letamendiren inizial berberekin baina deiturak aldaturik, Agirre lehendakaria Alvarez Lastra izan zen antzera.

66

Karmeleren neba nagusiak, Josebak, Angelun jarraitzen zuen alemanak 1940ko ekainaren hondarrean Hendaiako mugaraino sartu zirenean. Laster egin zuen bat Erresistentziako kideekin. Angelun bizi ziren orduan Fernand de Greef eta Elvire Berlemont senaremazteak (“Tante Go”, gerrako izenez anderea). Paraxutista britainiarrak babestu eta nazien mende zeuden lurraldeetatik ateratzeko sare bat atondua zuten: Comète. Nahiz eta Bruselakoak izan, Angelun zeuden Frantziatik Espainiara ezkutuan igarotzeko soldadu aliatuak. Horretarako, mugaz bi aldeetako euskaldunekin kontaktuan jarri ziren, gerra zibilean ibilitako gudariak gehienak, mugalari lana egin zezaten.

Joseba Urrestiren egoera ezin hobea zen Comète sarean laguntzeko. Apaiza izanik, alemanek emandako baimen berezi bat baliatuz, etxerik etxe ibiltzen zen gaixoak eta ezinduak eta hilurrenak bisitatzen. Bizikleta gainean kilometroak egiten zituen auzoz auzo. Naziek ez zuten apaiz baten susmorik hartuko.

Josebak, “Jacques” goitizenez, postontzi lana egiten zuen Comète sarean, harreman estua zuen De Greefekin, noizean behin iheslariak hartzen zituen apezetxean. Eta aldi berean, Hegoaldean zeuzkan senitartekoen bitartez –Frantzisko ez zebilen geldirik eta Bilbora egiten zituen osterak ez ziren Epaitegian ontzien jabetza eskatzeko bakarrik–, lotura zuzena zuen Bilboko Kontsulatu britainiarrarekin. Datu hau berebizikoa da, iheslariak Kontsulatura helarazi ezean, bizkor samar harrapatzen baitzituzten guardia zibilek, eta nazien esku utzi.

Gisa honetan, Comète sareak ehunka abiadore libratu ahal izan zuen heriotza ziurretik. Mugalarien laguntzaz Donostiara eta Bilbora igaro ostean, gordean eramaten zituzten Madrilera, eta gero Gibraltarrera. Libre ziren han.

Baina Gestapokoek Joseba Urrestiren etxeko atean jo zuten eguerdi batean, bazkalorduan.

– Norbait hartu al duzu zure etxean?

– Bai, jauna.

– Ba al dakizu nor zen?

– Ez, jauna. Ez zidan axola eta ez nion galdetu.

– Ez al zenekien gizon hura gure etsaia zela?

– Ni apaiza naiz eta niretzat ez dago etsairik. Denak ditut lagunak. Gerran zein aldekoa den ez dit axola. Ez da nire ardura. Gerra hau lehenbailehen bukatzea, horixe da nik nahi dudana.

– Poliziari jakinarazi behar zenion etxean inor hartu baino lehen.

– Barkatu, jauna. Nik ez dut behar agintarien baimenik karitatea egiteko.

– Zein herritartasun zuen?

– Ez dakit. Frantsesez egiten zuen.

– Gaizki egin duzu etxean arerio bat harturik.

– Nik gizona hartu nuen. Ohea eta jana eman nizkion. Zurekin ere gauza bera egingo nuke. Hori da apaizaren betebeharra.

– Non dago orain?

– Ez dakit.

– Noiz alde egin zen?

– Biharamunean. Goizean goiz.

67

Txomin Letamendik ez du aukera txikiena galtzen Sangroniz enbaxadorearekin egon eta informazioa lor-

tzeko. Jose Antonio Sangroniz konfiantzaz mintzo zaio eta denetik esaten dio, baita estatu sekretuak ere. Letamendik, ordea, zalantza egiten du, gizon inozoa ote den enbaxadorea edo benetan ba ote dakien Euskal Erresistentziako kidea dela eta horrexegatik kontatzen dizkiola gauzak, filtratu ditzan behar den lekura.

– Agirrek zine izarra ematen zuen Caracasera iritsi zenean. Paper askotan atera zen Ameriketan barrena egindako bira. Errepublikaren Erbesteko Gobernuko kideak ere deseroso zeudela entzun dut.

– Ez neukan horren berri –erantzun dio Txominek–. Bakoitzak atera ditzala bere kontuak.

– Badakit egungo Estatu Batuetako Madrilgo enbaxadorearen laguna ere badela Agirre, Carlton Hayesena. Nonbait, hark eman zion plaza Columbia Unibertsitatean.

– Bai, gizatasun keinu bat izan zuen Hayes jaunak.

Txominek ez du gehiegi busti nahi eta tentuz hautatzen ditu hitzak, ez gehiegi ez gutxiegi esateko. Gutxiegi esateak solasa etenaraziko luke, gehiegi esateak bien arteko konfiantza desegin.

– Roosevelten adiskidea da Hayes, eta horrexegatik bidali du Madrilera, asaldurak baretzera. Hispanista da eta oso elizkoia.

– Halaxe entzun dut...

– Gizon argia da. Estatu Batuek ordaindutako Agirreren biraren garai bertsuan, Hayes eta Franco negoziaketetan hasiak ziren. Egia esan, Madrilera iritsi zenetik ari dira negoziatzen.

Letamendik harridura keinua ezkutatu behar izan du informazio horren aurrean. Badaki Hayes Agirreren haurren argazkiekin joan zela Madrilera eta harreman estua zuela Lehendakariarekin. Baina gauza guztien gainetik Washingtongo Administrazioaren guraria zegoen: ez zuten Espainia gerran sartzerik nahi, ez zuten etsai gehiago nahi; aski lan bazuten ardatzeko potentziei kontra egiten, eta Afrika iparraldean indarrez sartzeko trabarik ere ez zen komeni.

Sangronizek arin adierazi dio bere aburua, paternalismo apur batekin:

– Adostuta dago dena, Txomin adiskidea. Franco neutrala izango da gerran eta aliatuak ez dira gurekin sartuko.

Cabo de Buena Esperanza ontzia Bartzelonara arribatu eta Ramblako Oriente Hotelean hartu zuten ostatu Karmelek, Txominek eta bi umeek. Egun batzuk igaro zituzten hirian, Poliziaren aurrean susmo arrarorik ez sortzearren. Piztiak ikusi zituzten Zooan, Auzo Gotikoan barrena paseatu ziren, ipuin fantastikoak asmatu zituzten Güell Parkean, funikularrean igo ziren Tibidabora... Artxandara balihoaz bezala. Eta azkenik, Bilbora etorri ziren trenez; eta handik Ondarroara, familiarengana.

Antsosolo aurrera iritsi zenean, Karmeleri arreta eman zion etxearen itxura zaharkituak, atzean lagatako Caracas berriarekin alderatuta. Bizilekura eraikinaren ertz batean zeuden harrizko eskailera batzuetatik sartzen zen. Anitak haurren ahotsak entzun eta, leihora agerturik, aldarri egin zuen:

– Hau poza! Hemen dira!

Besarkada batean urtu dira denak, atalasean.

– Zenbat gauza, Karmele, zenbat zoritxar! –xuxurlatu dio belarrira Anitak.

Eta umeengana makurtu da gero.

– Zein handi zauden, Ikerne! –esan dio neskatilari.

Honek kontentu eman dio musu gozo bat.

– Zu al zara Churchill txikia? –esan dio mutikoari.

Baina hau muturtu egin da; izebari jaramonik egin gabe, eskaileretan eseri da jostailuzko automobilarekin jolastera.

Anita ez da berandutu notiziak ematen:

– Aita oso ahul dago.

– Ez esan.

Karmelek korrika igo ditu eskailerak, arin joan da korridorean beste puntara aitarengana, eta gizon zurbil bat besarkatu du.

– Etorri naiz, aita! Haurrak ekarri ditut. Ez naiz gehiago zuen ondotik urrunduko. Anitak esan dit bihotzekoa izan duzula, baina hurrengo hilabeteetan etxean bertan edukiko duzu zure erizain kutuna. Ondo jarriko zara segituan, laster dator uda, paseatzera joango gara elkarrekin. Gauza asko ditut zuri kontatzeko.

Aitak esku biak estutu dizkio alabari.

– Argaldu egin zara –ez dio besterik esan.

Jean-François Nothomb 1943ko urtarrilean iritsi zen Angelura. Comète sareko buru berria izango zen. Behar zuten “euskaldun” itxurako norbait, susmorik eragingo ez zuena, eta nahiz eta Belgikan heriotzara kondenatua izan eta naziek uste Londresen errefuxiatuta zegoela, Iparraldean zebilen hara eta hona, herritar bat gehiago balitz bezala.

Eta Nothombek jakin zuen arriskuan zegoela Joseba. Eskuko atzamar txikia falta zitzaion agente alemaniar bat omen zebilen Urresti apaizaren atzetik.

Halatan, Ondarroan, Frantzisko ohiko legez Arrigorriko begiralekuan itsasoari begira zegoen batean, atzetik norbaitek eskua jarri zion bizkarrean.

– Nor da ba gizon lodi hau?

Joseba zen! Aitak ezin zuen sinetsi. Estutu luze bat eman zioten elkarri.

Nothomben aginduz, Josebak muga zeharkatu behar izan zuen, agente alemaniarrarengandik libratzearren. Madrilera zihoan ihesean, baina hara gidatzen ari zen kontaktua konbentzitu egin zuen sorterrian lipar batez geratzeko. Aita agurtu nahi zuen eta ezagutzen ez zituen iloba berriak ikusi: Ikerne eta Txo-

min, Karmeleren seme-alabak; eta Edurne, Josuren txikia.

Une hori izan zen familia osoa elkarrekin egon ziren bakarretako bat.

Gero, Josebak egun batzuk igaro zituen Madrilen; eta azkenik, Gibraltarren hegazkina hartu zuen Londresera. Han biziko zen gerra bukatu arte.

Joseba Urrestik Angelutik ihes egin eta gutxira erori zen Angeluko sare osoa. Ia denak atxilotu eta Alemaniara eraman zituzten deuseztatze esparruetara. Flossenbürgera bidali zuten Jean-François Nothomb.

Aliatuek esparrua askatu zutenean, berrogei kiloko gizona baino ez zen.

Gaitzizenez, Dario Landa

70

Giro gaiztoa zegoen Txomin Letamendi Bilbora iritsi zenean. Egoera negargarria. Luis Alaba fusilatu egin zuten Madrilen 1943ko maiatzaren 6an, Euskal Inteligentziako gizon garrantzitsuenetako bat.

Baina Letamendik bazekien borroka antifrankistak, nahiz eta kolpe handiak jasan, sekulako ahalmena zuela behin eta berriz lurretik altxatzeko. Taldeak berrantolatzen hasita zeuden Bilbon, Donostian, Madrilen eta Bartzelonan, kartzelatik irtendako gudariekin eta bolondres berriekin.

Flavio Ajuriagerra, esate baterako, zerbitzu britainiarrekin lanean ari zen 1941etik Bilbon. Athletic futbol taldearen sortzaileetakoa eta jokalaria izandako William Dyerren seme Patrick Dyer ezagutu zuen Flaviok, eta Bigarren Mundu Gerra garaian portura sartzen ziren Ardatzeko itsasontzien jarraipena egiten jardun zuten, Comète sarearekin loturak egin zituzten, hirian zebiltzan agente naziak bilatzeaz arduratu

ziren: Karl Albrecht, Eugen Armbruster, Heinz Arp, Joseph Boogen Sanders, Eduard Bunge, Friedhelm Burbach, Erich Claussen, Georg Demmel, Urbano Eggenberger, Eugen Erhardt, Wilhelm Eickhoff, Friedrich Endriss, Karl Fraulob, Rudolf Hailer, Peter Hardt, Karl Wilhelm Heim, Bruno Heuberger, Otto Hinrischen, Martin Hoffmann, Alfred Hoppe, Luis Kiefer, Richard Kliemann, Ernst Klingenberg, Paul Klinkert, Emil Lang, Rudolf Lehmann, Siegfried Lehmann, Franz Lipperheide, Friedrich Lipperheide, Josef Lipperheide, Christian Messner, Alfred Muller-Bergh, Karl Pasch, Wilhelm Pasch, Walter Paul, Wilhelm Peluger, Friedrich Platte, Wilhelm Plohr, Edmund Reineke, Wilhelm Roden, Ernst Schad, Emil Schaeidt, Rudolf Schmitz, Arno Schuller, Josef Schutz, Bruno Sketta, Wilhelm Spretter, Otto Tarnow, Gunter Tenbergen, Karl Thiec, Hans Ernst Woisin, Walter Zschiesche.

Egun batean, hara non esan dion Patrick Dyerrek Flavio Ajuriagerrari, agiri berezi batzuk eraman behar direla Bilboko Kontsuletxetik Madrilgo enbaxada britainiarrera berehala.

– Noizko egon behar dute ba Madrilen?

– Biharko. Garraiolari seguru bat behar dugu.

– Eta biharko ezin bada?

– Etzirako.

Flavio, orduan, Otxandioko lagun batengana joan da. Gaztea da, arina da, bizkorra da.

– Bizikleta prest al daukak?

– Bai.

– Madrilera joaten ba al dakik?

– Bideari jarraitzea nahikoa da.

– Hau eraman behar duk.

Dalmacio Langarika txirrindulari ezaguna bilakatuko zen urte batzuk geroago: bi bider irabaziko zuen Espainiako Txapelketa eta behin Espainiako Vuelta.

71

Flavio Ajuriagerra izan bazen Bilboko arduraduna, Madrilgo taldearen buru Joseba Rezola ordiziarra zen, gerra garaian Defentsako idazkari nagusia izandakoa. Santoñako El Dueson eta beste zenbait espetxetan preso egon ondoren 1943an askatu zuten, baina herrian bizitzeko debekua ezarri ziotenez, Madrilera joana zen lanera Elizaran eraikuntza enpresara.

Talde anitza zen hangoa, Junta de Resistencia zeritzon erakundea sortu baitzuten diktaduraren aurka

zeuden alderdiek eta elkarlanean jarduten zuten; noiz edo noiz Chicote taberna ondoan zegoen putetxe batean biltzen ziren bilerak egiteko. Euskal abertzaleez gain, sozialistak, errepublikar ezkertiarrak, anarkistak, katalanak eta galiziarrak.

Joseba Rezolaren agindupean ziren, besteak beste, Koldo Mitxelena, Sabin Barrena, Bernabe Orbegozo edo Pello Mari Irujo. Kontaktu onak zituzten Pardoko Jauregian eta informazioa ateratzen zuten handik, monarkikoen artean infiltraturik. Finantzaren egoeraz jakiteko, Banco de Vizcayako zuzendari Bordegarairekin elkarrizketatzen ziren; ez ziren alferrik Espainiako bankurik handienen artean Bilbokoak.

Txomin Letamendiren egitekoetako bat, agidanean, talde desberdin hauen arteko lotura indartzea eta bermatzea zen, koordinazio azkar eta ziurragoa lortzea penintsulan barrena zeuden taldeen artean.

Ariztimuño batailoian Txomin Letamendirekin batera gerran ibilitako Sabin Barrenaren bitartez segituan jakin du, Joseba Rezola harrapatu egin dutela Madrilen, 1944ko abuztuan. Eta hala ere, bi asteren buruan libre utzi dute, frogarik ez dutelakoan. Oso kontuz ibili beharko!, aske uzteko modu hau poliziaren ohiko amarrua da, susmagarriari jarraipena eginez

ahalik eta kide gehien harrapatzeko. Eta noski, tentuz ibili dira aurrerantzean. Baina bederatzi hilabete gero-ago, 1945eko maiatzean, Reina Victoria hiribidean, berriz atxilotu dute Joseba Rezola; Carabanchelen eduki dute egun batzuez, eta ekainaren 2an Irunera daramate trenez, gogor interrogatu dezaten han.

Trena badator Donostiarantz, larunbata da. Hernaniko geltokian mozkor bat sartu da. Balantzaka zeharkatu du bagoia, tupust egin du batekin eta besteare-kin. Joseba Rezolak ezagutu egin du adiskidea: Ander Arzelus *Luzear* kazetari eta idazlea da. Donostiako Norteko estaziora iritsi baino lehen Arzelus bertsotan hasi da, bazterrak nazkatzen diharduen kantari hordi bat da, eta Rezolari adierazten ari zaio trena geratu baino lehen bagoitik salto egin behar dutela, biek ba-tera, Erresistentziako kideak zain dauzkatela kanpoan, haiek eramango dituztela toki ezkutura.

Oso bizkor gertatu zen ihesa, ez dakit tirorik ere egin ote zuten guardia zibilek. Barriola sendiaren etxean gordeta egon zen Joseba Rezola, harik eta abuztuko bigarren asteazkenean automobil frantses ofizial bateko maletategian muga igaro zuen arte, Zi-burura.

Hiru hilabete ziren Bigarren Mundu Gerra amaitua zela Europan. Franco eraisteko ahaleginak indartzen segitu beharko zuten, mobilizazioak eta diplomazia moduak azkartzen.

72

Nazioarteko politikagintzan gero eta handiagoa zen Jose Antonio Agirreren itzala. Bere irudia estatu gizon batena zen, gizon lasai eta zuhurrarena. Pentsatu zen bera izan zitekeela Francoren aurka zeuden alderdien artean zubi egin zezakeen gizona –bitartekari lana ere egina zuen elkarri muturka ari ziren lider errepublikazaleen aurrean, esan nahi baita Prietoren eta Azañaren artean–, eta amerikarrek bere izena ere hartu zuten gogoan balizko Espainiako presidente izateko. Agirreren profila aldatuz zihoan New Yorken egin zituen adiskidantza berrien eraginez. Moderatu egin zen eta, Euskal Herriaren erabakitze eskubideari sekula uko egin ez zion arren, independentziaren hautua baztertzen hasi zen, Federazio Iberiko baten mesedetan. Jarrera horrek ezinegona sortzen zuen bere kideen artean; adibidez, Manuel Irujo Espainiako minis-

tro izandako nazionalistarengan, zeinak Londrestik egiten zuen lan eta agintari britainiarrei euskal independentziaren aldeko engaiamendua lortu zien. Hala ere, Agirreren lidergoa ez zen sekula zalantzan jarri.

1944ko abenduaren 10ean Lehendakariak hitzaldia eman behar du Nobel saridunen aurrean Waldorf Astoria hotelean. Ehunka gonbidatu daude; Thomas Mann idazlea ere parez pare izango du, bera entzuten.

Manu Sotarekin batera prestaturako hitzaldia errepasatzen ari dira biak Delegazioan. Paper batzuk ahoz goran irakurtzen dihardu Agirrek:

“Gaurkoa dela-eta, gomutatzen ditut bata bestearen atzetik antzinako usteak. Amerikaren konkistari buruzkoak dira, baina, badiot nik, balio unibertsala dute. Ari natzaizue Francisco de Vitoria aitari buruz, Nazioarteko Zuzenbidea asmatu zuen berari buruz, hain zuzen. Amerikako herri eta gizakien aurka zegoen oldar inperialistari aurre eginik, *Imperator non est dominus mundi* betoa plazaratu zuen Franciscok, esan nahi baita, *Enperadorea ez da munduaren jabea*, inperioaren dominioa ezin zitzaiela bertakoei ezinbestean inposatu, beren borondatearen aurka. Eta gaur egungo despota totalitarioen aitzindari haiek erantzuten zutenean “indiarrak fedegabeak zirela eta horregatik

menderatuak izan behar zutela”, Vitoria aitak Carlos V.a enperadorearen aurrean protesta egin zuen eta eskubide hori ez zela existitzen aldarri egin. Indiarrak defendatu eta esan zuen: *Quia credere est voluntatis*, alegia, *ezen sinestea borondatezkoa baita*”.

Lehendakaria urduri dabil, gelako alde batetik bestera, paperak eskuan dituela.

– Manu... bukaera honi ez diot indar handirik ikusten. Latinezko esalditzar hau... Ez ote da jasoegia?

– Nobel saridunen aurrean egongo zara.

– Ez dakit, Manu, agian egokiagoa izango da zerbait apalagoa.

– Ez dago zu asetzerik! Baina, tira, badut beste ideia bat.

Manuk paper batean eskuz idatzi du esaldi bat eta Lehendakariari irakurri dio:

– Askatasunaren ideia bera hain da indartsua, ezen bera bakarrik baita gauza gaur egungo sistema despotikoak desagerrarazteko. Ezen despotismoa ezin baita beste despotismo batekin borroka, askatasunarekin baizik, herriak beti bideratuz egitasmo baikorrekin.

– Ez dago gaizki. Baina horrela hobeto geratzen da: Ezen despotismoa ezin baita beste despotismo ba-

tekin borroka, askatasunarekin baizik, herriak beti bideratuz egitasmo baikorrekin eta albo batera utzita edozein ekintza ezkor.

Pozik, elkarri eskua eman diote Manuk eta Lehendakariak.

Hitzaldia arrakastatsua izan zen. Baina bien bitartean, beste aldean ere hariak mugitzen ari ziren. Franco diktadorea, Ardatzak gerra galdu egingo zuela ikusita, Aliatuen aldera hurbiltzen hasi zen. Horretan jardun zuten Jose Antonio Agirreren aspaldiko ezagun bik: Carlton Hayes enbaxadoreak eta Jose Felix Lekerika ministroak. Gutxienez hamar izan ziren Lekerikaren eta Hayesen arteko bilerak 1944an: abuztuaren 26an, abuztuaren 30ean, irailaren 11n, irailaren 22an, irailaren 28an, urriaren 9an, azaroaren 2an, azaroaren 13an, abenduaren 2an eta abenduaren 14an.

Garai bertsuan, Amerikako Estatu Batuetako presidente Rooseveltek honela idatzi zion Hayes enbaxadoreari: “Arrakasta handiz atera duzu aurrera erabat zaila zen misioa eta, horrela, gerraren norabideari garrantzirik handiena duen ekarpena egin diozu”.

Caracastik itsasontziz zetozela, Sangroniz enbaxadoreak Letamendiri ohartarazi izan zion Carlton Hayes amerikarra eta Francoren Gobernua negoziazioetan hasiak zirela, baina Bartzelonara iritsi zenean zorroan zituen aginduek beste zerbait esaten zuten. Bill Donovan OSSko koronelaren agindu zuzenak zituen Letamendik: Euskal Zerbitzuek ahalik eta informazio gehien atera behar zuten Francoren erregimenari buruz, amerikarrek zehatz-mehatz jakin nahi zuten- eta zer egoeratan zegoen Espainia. Batez ere, informazio militarra eta finantzakoa jasotzea eskatzen zieten. Helburua: aliatuen balizko inbasio bat prestatzea.

Txomin Letamendik, Dario Landa gaitzizenez, bizitza bikoitza baina aldi berean lasaia zeraman Bilbon. Particular de Indautxu kalean bizi zen Karmelerekin eta bi umeekin. Ikernek Colegio del Pilarren ikasten zuen eta Txomin semeak Jesuiten eskolan; honek aste osoa eskola inguruan igarotzen zuen, asteburuetan zinema izaten baitzen eta lagunekin futbola. Txomin aita-semeak Athleticen entrenamenduak ikustera joaten ziren San Mamesera noizean behin. Aitari futbola gustatzen zitzaion. Zubieta adiskidea Argentinan zen,

hango futbol ligan izar bat zen; baina nolakoak diren gauzak, erbesteratu zen futbolarien belaunaldi hura ona bazen, entrenatzen ikustera joan ziren hori, gerraostean sortutakoa, are hobea izango zen laster; beharbada, Bilboko taldeak emango zuen onena.

Letamendik aldamenean izaten zuen beti tronpeta; eta baita argazki kamera bat ere. Kaxoi batean sobreak eta txartelak edukitzen zituen: “Domingo Letamendi - Representaciones” leloarekin, itxura egiteko, nonbait ogibide bat izan bazuela adieraztearren. Bere eta Erresistentziako gainontzeko kideen laneko biltokia Bailen etxe orratzeko bulego bat zen, eta hantxe gertu zeuden Falangeren bulegoak ere. Letamendi Espainian barrena ibiltzen zenez, hara eta hona, espioitza lanak egiten edo mezulari gisa, askotan ez zuten ikusten etxean Karmelek eta umeek. Kobratzeko Verdes liburu-dendara joan behar zuten eta han diru zorro bat ematen zieten hilabetea pasatzeko. OSS erakundeak Agirreren organizazioari ematen zion dirua zen.

Behin batean, amak ezin zuela-eta, Ikerne alabari agindu zion joan zedin diruaren bila Verdesera. Ikernek, toki hura liburu-denda dela ikusirik, ez du zalan-

tzarik izan bere buruari opari bat egiteko. Apalategian dagoen ale bat seinalatu dio Tere Verdesi.

– Liburu hori nahi dut, *Mujercitas*.

Tere Verdes kartzelatik irten berria da, Luis Alabaren espioitza sarean parte hartu izanagatik kondenatua izan ondoren. Eta *Mujercitas* entzundakoan gogora etorri zaizkio borrokako bere adiskideak: Felicitas Ariztia, Bitori Etxeberria, Delia Lauroba, Itziar Mujika.

Ikerne etxera iritsi denean, amak esan dio:

– Hemen dirua falta da.

– Liburu bat erosi dut, ama.

– Hara!, ondo egin duzu, laztana.

74

Letamendik etengabe erabiltzen zuen argazki kamera. Erretratu guztiak ez ziren baina, helburu militar edo estrategikoei ateratako bat-batekoak. Bere bildumako argazkien artean bada bat, 1945eko udan Ondarroako hondartzan egindakoa. Txomin aita, Ikerne, Txomin semea, eta beste neskato bat –Mirentxu izeneko lehengusina– eta Jai izeneko fox terrier bat. Argaz-

kia ez zuen Txominek atera, Karmelek baino; horregatik falta da ama erretratuan.

Ikernek lagunak egin zituen herrian, horien artean gure ama. Caracasen etxeko hizkuntza gaztelania izan zuten, izan ere Txomin aitak ez zekien euskaraz, eta euskara erabiltzen Ondarroan hasi zen, aitona-amonekin eta ezagutu zituen lagun berriekin. “Zure amak gaztelaniaz ez zekienez”, kontatu zidan Ikernek, “bada berarekin ikasi nuen euskara”.

Aita ez zenez beraiekin askotan egoten, hondartzako argazkian pozik ageri dira Ikerne eta Txomin seme-alabak. Herriko lagunek erakutsi zieten umeei nola harrapatu haitzetan karramarroak, makilatxo batekin eta animaliatxoari buelta emanda, ziztadarik ez egiteko.

Diktaduraren sasoi hartan, gizonek eta emakumeek banaturik egon behar zuten hondartzan; hareatza bitan zatitzen zuen oihal luze bat jartzen zuten erdian. Karmele bere onetik ateratzen zuen kontu hark. Bere buruari esana zion, ordura arte erabat libre ibili zirela Caracasko hondarretan eta gauza bera egingo zutela herrian.

Arrigorriko hondartzatik Saturrarango haitzak ikusten dira aurrez aurre. Karmele senarrari eta umeei kontatzen hasi da haitz haien istorioa.

– Elkarrekin dauden bi haitz haiek maitaleak ziren garai batean, Satur eta Arantza izenekoak.

– Zer da maitaleak?–galdetu du Ikernek.

– Elkar maite duten bi pertsona. Baina Satur eta Arantzaren arteko maitasuna ezinezkoa zen; eta elkarrekin egotea lortzen ez zutenez, harrizkoak bihurtu ziren.

Aguazil batek eten zuen familiaren arteko solasa.

– Emakumezkoak zarete. Ezin duzue hemen egon senar-emazteak elkarrekin.

– Baina karramarroak harrapatzeko leku aproposa hau da, beste aldean ez dago haitzik.

– Berdin zait. Emakumeak alde batera eta gizonezkoak bestera. Eta akabo.

Zirkinik egin gabe, guardiak 500 pezetako isuna jarri zien. Karmele ezin sinetsirik zegoen. Eta guardia joan zenean, Ikernek amari galdetu zion:

– Satur eta Arantza bezala, gu ere haitz bihurtuko al gara?

– Ez, laztana, zu lasai. Harrizko bihotza dutenak beste batzuk dira.

– Beharbada maitaleei ere multa jarriko zieten...

75

Ikerne eta Txomin neba-arrebek ez zekiten zehatz-mehatz aitaren bizibidea zein zen, nahiz eta, beraien bostean, usteko zuten garrantzi handiko lana izango zela, ez baitzuten etxean aita ikusten otorduetan, eta lotara ere, etortzen bazen, oso berant agertzen baitzen. Behin eta berriz galdetzen ziotenez, eta gehiago eutsi ezinik, Karmelek behin batean Arenaleko zubira eraman zituen umeak eta eskuarekin Bailengo eraikina seinalatuz esan zien: “Begira, hortxe lan egiten du aitatxok”. Eta etxe orratza ikustean, haurrek irudikatu zuten, aita buruzagia zela eta gorengo solairuan egiten zuela lana eta beheko pisuetan zeudela bere mendekoak eta, horregatik, hainbeste jenderi lana ematen ziolako eta ardura handia zelako berea, bada, hori zela etxean hain gutxi azaltzeko arrazoia, benetan bestelakoa izan arren errealitatea, bulego hura alegiazkoa baitzen benetan.

Halatan, aita etxean zegoen aldietan, ahalik eta luzeen egoten ziren elkarrekin, egun-pasa egiten

zuten Bilbo inguratzen duten mendietan zeuden garagardotegietan, edo ikuskizunetara joaten ziren, edo Casilda parkera ahateei ogi apurrak botatzera. Haietako egun batean, Joe Garson ikusten izan ziren, munduko gizon indartsuena, zeina gauza baitzen ukabil gogorraz hormarik sendoena ere zulatzeko.

Arratsean, Txomin txikia oheratutakoan, argia amatatu aurretik aitari galdetu dio:

– Nor da indartsuagoa, Joe Garson ala zu?

– Ama, zalantzarik gabe ama da indartsuena.

– Bai zera! –zapuztu da semea.

– Niri beti irabazten dit eskaileratan gora dendako poltsak igotzen!

– Egia da hori?

– Bai, noski. Eta orain egizu lo.

Gau batzuetan, bikoteak bakarrik atera nahi izaten zuen kalera; eta umeek jakiten zutenean gurasoak zinera zihoazela beraiek koterondarrekin utzita, matxinatu egiten ziren.

– Guk ere pelikula ikustera joan nahi dugu!

– Konforme –esaten zuen amatxok–, barre egiteko pelikula labur bat ikusiko dugu.

Eta orduan gurasoak eta umeak maindire azpian sartu eta Karmele kili-kiliak egiten hasten zitzaien, txi-

kiei aurrena eta, gero, denek batera aitatxori, borroka alai batean amaitu arte.

Indautxun jende berriarekin topo egin zuten umeek. Eta begitantzen zitzaien, auzoan bizi ziren pertsona haiek elezaharretakoak zirela. Adibidez, kale berean bizi zen “Bala Gorria”, futbolaria izandakoa, ezker hegaletik baloiarekin korrika egiten inoizko bizkorrena; eta Txomin txikiak eskua ematen zion ikusten zuten bakoitzean. Etxepeko atezainak, Anparok, hain hitz gutxikoa zenak, behinola kontatu zien bere senarrari obus batek burua moztu ziola gerran; eta Ikernek gau hartan ametsetan ikusi zuen gizona.

Karmelek, Bilbora bildu zenean, ezin izan zuen erizain gisa lan egin, ezinezkoa baitzen frankismoaren aldirik ilunenean eta, hori zela-eta, Txominek zerbitzu klandestinoetan lan egiteagatik kobratzen zuen diruarekin bizi behar zuten, Estatu Batuetatik zetorren diru horrekin, hain zuzen. Eta, Karmele erresistentziako kide aktiboa ez bazen ere, izan bazuen berak ere gaitzizen bat: “Katalina”; baina ez dut sekula jakin, gaitzizen horrekin ezkutuko ekintzetan ibili zen edo ez, gauza zaila bestalde bere egoera kontuan izanda, ezen Venezuelatik Bilbora iritsi berri, 1943ko Gabonetan, haurdun geratu baitzen.

Urtezaharra Txominen anaia batek Artxandan zeukan txaletean igaro zuten, bozkarioz, zoriona debekatua zegoen hiriaren urdailetik urrun.

76

Parisera itzuli zen Jose Antonio Agirre 1946ko otsailaren 9an, Estatu Batuetako Armadak jarritako hegazkin batean.

Nazio Batuen Erakundearen sorreran parte hartu zuen San Frantziskon. Mundu osoko ordezkariak joan ziren Muir Woods izeneko basora. Sekuoia erraldoiak ikusi zituzten, garaiena 79 metrokoa eta zaharrena 1.200 urtekoa. Zuhaitzetako asko erreta zeuden. Batzuk biribilean hasten zirela konturatu zen, erdialdean hutsunea utzita. Erretako zuhaitz zaharraren adaxkek osatzen zuten biribil hura.

Franco isolatzea erabaki zuen Nazio Batuen Erakundeak, eta kondenatzea haren erregimena.

Eta Francok Washingtonera bidali zuen Jose Felix Lekerika, enbaxadore legez isolamendua hausteko misioa emanda.

Urte nahasia izango zen 1946koa. Mundu Gerra bukatu berri eta Franco isolaturik, Erresistentzia ahalegindu zen erregimenaren erorketa bultzatzen. Agirreren gizon nagusiak hiru buruzagirekin koordinatuta zeuden: Europan Pepe Mitxelena, Latinoamerikan Jose Mari Lasarte eta klandestinitatean Juan Ajuriagerra.

Grebak eta protestaldiak areagotu ziren han-hemenka, diktadura ahuldu asmoz. 1946ko apirilean, protesta batean, Antonio Gezalaren semea atxilotu zuen Poliziak Bilbon. Komisaldegian hil zen. Nonbait atake epileptiko bat izan zuen, hori da bertsio ofiziala. Antonio Gezala hondatuta geratu zen, eta itsutu egin zen. Ezin zuen gehiago margotu. Ilunak izan ziren pintorearen azken urteak. Filatelia bildumako pieza nagusiak saltzeari esker jarraitu ahal izan zuen bizitzen.

77

Gerraren atzaparretatik ihesi joandako nazi batzuen diru iturri eta sostengua ere artelanak izan ziren. Bizimodu berri bati ekiteko, kasu gehienetan, Hego Amerika zuten helburu.

Bigarren Mundu Gerraren bukaera hurbiltzen ari zela, Bilboko portuko praktikoak, Erresistentziarekin eta Erresuma Batuko inteligentzi zerbitzuarekin lotura zuen Patrick Dyer agenteari hots egin zion.

– Portuko alde militarrean koadro batzuk ikusi ditut kutxetan sartuta.

Praktikoak konboi alemanak noiz ateratzen ziren abisatzen zuen, nora zihoazen, zer zama mota zeramaten, eta baita ere, agente alemanen ibiliei buruz. Kontua da konboi horien azpian itsaspekoak egoten zirela, eta Aliatuek horiek hondoratu nahi zituzten batez ere.

Portuan zeuden koadroak Alois Miedl pasante alemanak atera zituen Frantziatik, herrialde hau askatzear zegoela, 1944ko azaroan. Hermann Göringen arte saltzaile handiena zen Miedl, eta artelanak Larneko M van Valkenburg eta Amsterdamgo Goudstikker bildumetakoak izan bide ziren, juduei lapurtuak hain zuzen. Buenos Airesera eramateko prest zeuden Bilboko portuan. Göringen asmoa zen haiexek saldu eta dirua ateratzea, Alemaniatik ihes egitea lortzen bazuen behintzat.

OSS zerbitzuen arabera, bi multzotan banatuta zeuden koadroak. Lehen taldean Van Dyck, El Greco

eta garai haietako margoak. Bigarrenean berriagoak: Goya, Rembrandt, Rubens, Cezanne eta Vermeer, besteak beste.

Alois Miedl ahalegindu zen Pradoko Museoko arduradunei margoak saltzen, eta ustez haiek egon ziren Vermeer hura erostekotan. Baina ez zeukaten nahikoa diru.

Miedlek Frantziako muga igaro zuen berriz ere. Makiek harrapatu ere egin zuten, baina ihes egitea lortu zuen biharamunean. Gerra ostean Miedlen Holandarako estradizioa eskatu zuten Aliatuek. Espainiako Gobernuak ez zuen onartu.

Bitxia da, izan ere, koadroen afera honetako paperen artean Jose Felix Lekerika agertzen da. Holandako Gobernuak bazuen-eta beste plan bat koadroak berreskuratzeko. Lekerika Kanpo Harremanetarako ministroa zen orduan, eta pentsatu zuten berari eskatzea antola zezan, Bilboko ezagun aberats batzuk lagun zituela, halako enkante pribatu bat. Miedlen mihiseak bertatik bertara izango zituzten horrela. Baina hau ere ez zuten ontzat hartu.

Karmeleren eta Txominen etxeko atea jo zuen Poliziak 1946ko otsailean. Goizaldea zen, zaratak sumatu zituen Txominek, eta ozta-ozta balkoitik ihes egitea lortu zuen, sekretak miatzera sartu zirenean. Aldamenekoen etxera pasatu zen, balkoitik balkoira, eta haien portaletik hanka egin zuen gero.

– Domingo Letamendiren emaztea al zara?

– Bai.

– Esaiozu janzteko. Gurekin eraman behar dugu.

– Ez dago.

– Ez du hemen lo egiten?

– Gaur ez.

– Eta non dagoen esango al diguzu?

– Lanpetuta dabil azken hilabeteetan.

– Baina non?

– Ez dakit.

– Ez al dakizu senarra non dabilen?

– Bere gauzetan ariko da. Madrilen edo.

– Hau emakumea, senarra non dagoen ez dakiena.

– Zure emazteak ere ez daki ba ondo zu zeu nondik zabiltzan.

– Zer diozu!? –haserre bizian jarri zen polizia.

– Ezpainetakoaren orbanek salatzen zaituzte. Garbi ezazu alkandora zeure etxera itzuli baino lehen.

Ez zen Letamendiren bila joan ziren lehen aldia. Beste batean, Donostiatik Bilbora trenez zetorrela, Karmelek auzokoaren bidez abisua eman zuen eta Txominek lortu zuen Zolloko apeaderoan salto egitea.

Egoera estutzen ari zela ikusirik, Bilbon zerbitzuetako kide ziren Anton Zugadirekin eta Andima Ibinagabeitiarekin elkarrizketa zakar bat izan zuen.

– Bilbotik alde egin behar duzu –agindu zion Zugadik.

– Emaztea haurdun dago, hirugarrenaren esperoan. Ez nago Bilbotik desagertzeko moduan.

– Poliziak ez dio utziko bere lana egiteari.

– Astebete baino gehiago egon naiz ezkutuan. Aski dela uste dut.

– Bi edo hiru aste igaro izan balira ere berdin!

– Batzuek irudipenak baino ez dituzte ikusten.

– Zure bila joango dira berriro.

– Bukatu da solasaldia. Banoa etxera.

– Txomin, faborez. Lubakian burua ateratzen lehena zu zinen, baina orain ezkutuan egoteko ordua da.

Amore eman zuen Dario Landak. Bilboko jarduera utzi eta Donostiara joan zen aldi baterako.

79

Ez dago jakiterik nola, baina Letamendik lantzean behin jasotzen zuen Manu Sotaren berri. Haren bidez ezagutu zuen balentria bitxi bat, Manuren iloba Ramon Sotak egindakoa.

Bigarren Mundu Gerran *marine* izan zen Ramon Sota. Nahiz eta atzerritarra izan, onartu egin zuten Armadan, antza denez Ingalaterran ikasten ari zenean zerbait berezia egin zuelako. Baina Guadalcanalen zauritu egin zuten, eta Kanadan egon zen gero, OSS-ren kanpamenduetan, armekin entrenatzen.

Jose Mari Lasarteren agindupean, Buenos Airesera joan zen azkenean; nazien irrati instalazioetan bonbak jartzen jardun zuen, eta diamante tratuak galarazi nahian ere bai. Ez zen sekula euskaldunekin nahasten, ezta hurreratu ere, inork susmorik har ez zezan; Buenos Airesko kontserbadoreen artean ibiltzen zen, eta ezkondu ere egin zen Francoren aldeko historialari baten ilobarekin.

– Arrain handi bat harrapatu dut! –esan zion behinola Anton Osa portugaletetarrari.

– Eta zer egin behar duzu, saldu ala jan?

– Itsasontzi bateko bodegan gordeta daukat. Anton, zoaz nagusiengana nire partetik, esaiezu nazi kriminal bat dugula, Washingtonera deitzeko segituan.

Josef Mengele medikua zen nazi hura.

Baina Anton Osa gogo txarrez itzuli zen Ramonengana.

– Nagusiek esan dute ez dela posible.

– Ez dela posible zer? Ezin dute Washingtonekin kontaktatu?

– Ez, ez dela posible Mengele izatea. Eta arraina berehala askatzeko esan dute.

Mengele hantxe bertan tiroz hiltzeko zorian izan zen Ramon. Baina nagusien agindua bete zuen eta kito, Montevideon askatu zuen.

Handik gutxira, ordea, Washingtondik kontragindua iritsi zen: harrapa ezazue Josef Mengele!

Berandu zen harrezkero.

– Anton, adarra jotzen ari zaizkigu –esan zion Ramonek adiskideari–. Mengele entrega niezaiekeen, Mengele hil nezakeen... baina askatzeko agindu digute apropos.

– Zer egingo diogu ba!

Urteak geroago, Nazio Batuek 1955eko abenduan Francoren Espainia onartu zutenean, Ramon Sotak gerrako domina guztiak bueltan bidali zizkion Estatu Batuetako Gobernuari.

80

Nahiz eta bigarren lerro batera pasatu, Txomin Letamendik aktibo segitzen zuen Donostian ere. Mugatik jendea pasatzen ibilia zen Joseba Elosegirekin bat egin zuen. Kontu xelebreak zeuzkan hark.

– Ho Chi Minh vietnamdarrak hamabi egun igaro ditik Miarritze inguruan. Pilota partida bat ikusten izan duk Saran.

– Zertara etorri da? –galdetu zion Letamendik–, oporretara?

– Ez. Parisera joan duk orain, Frantziako Gobernu berriarekin independentzia negoziatzera.

Joseba Elosegik ere bazituen bere asmoak. Faxisten estatu kolpearen hamargarren urteurrenean kolpea eman nahi zuen, 1946ko uztailaren 18an hain zuzen. Donostia osoa Espainiako banderez betetzekoak ziren frankistak, ospakizun eder bat egite aldera,

eta Elosegik bandera haien guztien gainetik ikurrina zabaltzeko asmoa zeukan.

– Letamendi, hire laguntza behar diat.

– Bota.

– Ikusten al duk Buen Pastor katedralaren dorreko muturra?

– Bai, ikusten diat. Urruti zagok hemendik, baina hiriko edozein tokitatik ikusteko moduan.

– Ikurrin handi bat ipiniko diat hor ostegunean. Zer iruditzen zaik?

– Primeran! Baina zein da nire egitekoa?

– Dorrera igotzeko eskailerak nola dauden begiratu behar duk, eta eskaileretatik muturrera nola pasa gaitezkeen aztertu.

Letamendi turista eta erreportari plantak eginez joan zen katedralera.

– Venezuelatik nator –esan zion parrokoari–. Espainiako eliza nagusien dorreak argazkitan hartzen ari naiz, eta dorreetatik hirien ikuspegiak.

– Ez dago arazorik, jauna.

Han joan da, beraz, Letamendi bere kamerarekin goraino. Egin ditu argazkiak eta erakutsi dizkio Elosegiri. Nondik sartu, nola igo, noraino iritsi eta abar.

– Erraza daukazue –esan dio Txominek.

Elosegi eta beste bi kide, uztailaren 17ko arratsean, Buen Pastor katedraleko sakristian sartu eta bertan ezkutatu dira, horretarako daramaten giltza jokoaz baliaturik. Geroago, gaueko ordu batean joango dira ikurrina puntaren puntan ipintzera.

Igo direnean, ordea, ohartu dira gauzak ez direla Letamendik kontatu bezain errazak. Badaude eskailerak kanpandorreraino, noski; baina ondoren, orratz gotikoa hasten den tokian, hor eskalatu egin behar da.

– Letamendi madarikatua! –Elosegi haserretu egin da.

– Zer gertatzen da?

– Ederra sakatu digu!

– Zaila dago kontua orduan?

– Bai. Letamendik ez zuen nahi gu damutzerik, eta gezurra esan digu ekintza aurrera atera dadin.

– Atzera egin beharko dugu?

– Ezta pentsatu ere! Donostia osoak ikusi behar du ikurrin hau egunsentian!

Elosegik soka bat lotu du gerrian eta, neke handiz bada ere, lortu du tximistorratzera iristea. Ipini du ikurrina kanabera batean eta, beherakoan, balkoitxo batean pote batzuk paratu ditu, txartel batekin: “Kontuz, leherkariak!”.

Goizaldeko hirurak arte ez zuten katedraletik irten behar; ordu horretan adiskide batek zigarroa piztuko zuen kale ertzean eta, arriskutik aparte, bidea irekiko zien. Baina Elosegiren laguntzaileetan gazteena presatuta eta oso urduri zegoenez, behar baino ordu erdi lehenago irten ziren elizatik.

– Lapurrak! Lapurrak! –garrasi egin zuen kanpoan norbaitek.

Eta harrapatu egin zituzten Joseba Elosegi, Pedro Mungia eta Inazio Urbieta.

81

Karmele larriturik zebilen, egunetan ez zuelako izan senarraren inolako berririk. Goiz batez Indautxuko etxera karta bat iritsi zen, Ezekiela Urrestiren izenean. Karmelek zerbaiten susmoa hartu eta zabaldu egin zuen.

Gutuneko idazpuruan Gasteizko jatetxe baten izena zetorren, eta behean eskuz: “Ezekiela maitea, idazten dizkizut letra hauek esateko dena ondo doala eta zure hutsune handia dudala. Karmen”.

Berehalaxe jabetu zen Karmen hori Txomin zela klandestinitatetik idazten. Gasteizko idazpurua erabiltzea Poliziaren aztarna galarazteko zen, baldin eta gutuna haiek harrapatuko balute.

Karmeleren familiako izenak ziren Ezekiela eta Karmen, amaordea hau eta izeba hura.

Zertxobait lasaitu zen Karmele gutuna jasotakoan. Baina mezuak lehen zeukana baino hutsune handiagoa eragin zion.

82

1946, abuztuak 5, astelehena. Txomin Letamendi atxilotuko dute.

Txominek bazekien fardel garrantzitsu bat iritsiko zela Donostiako Norteko estaziora, Madrildik igorria. Baina haren bila joatekoa zen kideak huts egin zuenez, han geratu zen paketea. Txominek ez zuen zalantzarik izan, bera joango zen jasotzera. Fardel susmagarri hura nork hartuko, zelatan zeuden guardiak. Hantxe bertan atzitu zuten.

– Zer egiten zenuen Norteko estazioan pakete horrekin? –galdetu dio Andrade komisarioak polizia-etxean.

– Ezustean aspaldiko lagun bat aurkitu dut kalean, herren egiten zuela. Eskatu dit, ea faborez pakete bat hartu eta eramango nion kafetegira.

– Nor da zure lagun hori?

– Rezola.

– Rezola? Frantzian dago-eta!

– Madrilen lan egiten zuela uste nuen nik. Senitarteko bati bisita egitera etorri dela Donostiara ulertu diot.

– Badakizu zer dagoen pakete horretan?

– Ideiarik ez. Nik hartu besterik ez dut egin, Rezolari eramateko.

– Oso bitxia zara zu: kalean mamu bat ikusten duzu eta haren aginduz pakete bat jasotzen duzu, zeure burua arriskuan jarriz.

– Rezola gu denon nagusia zen, ni batailoiko komandantea nintzenean gerra garaian. Mesede bat eskatu dit eta mesedea egitera joan naiz, ez da mandatu bat izan.

– Edo benetan ergela zara pakete arriskutsu hori hartzean, edo benetan azkarra zara guri gezurra sakatuta libratuko zarela pentsaturik.

– Ez dakit zer esan. Ez dizut galdera ulertu.

– Esaten ari zarena gezurra baldin bada, zuretzat okerrago; horrek probatzen baitu benetan konfiantzako gizona zarela txori handi batzuentzat.

Letamendik lurrera begiratu du, aurpegiko izua gorde nahian.

Andrade inspektoreak paketea eskuetan hartu eta mehatxu eginez esan dio:

– Pakete honetan nahikoa informazio dago zu fusilatzeko. Esadazu egia!, edo zureak egin du.

– Ez dut gezurrik esan.

– Ados, orduan gure gizonetako bat bidaliko dut kafetegira, Rezola edo haren lagunen bat han ote dagoen. Inorekin topo egiten badugu, libre utziko zaitugu.

Baina ez zegoen inor kafetegian. Inspektorearen pazientzia ahitzen ari zen.

Ondarretako kartzelan sartu zuten. Karmele bisitan joan zitzaionean, espetxeko kapilauak ohartarazi zion:

– Ez dago ikusteko moduan.

Manu Sotak Miarritzeko Etcheferdian zegoela jakin zuen Txominen egoeraren berri, Txileko Santiagon argitaratutako *Euzkadi* aldizkariko ale bat irakurri zuenean:

“Uztailaren 30ean atxilotua izan zen, Euskal Erresistentziako kide zela akusatuta, Jose Agirre Iturbe abertzalea, zeina tortura latza jasan ondoren hilik suertatu zen. Data bertsuan, salaketa berarekin atxilotu zuten Donostian Domingo Letamendi abertzalea, zeina torturatua izan ondoren egoera larrian dagoen. Euzkadiko agintari frankisten jarrera anker honen aurrean, Txileko Euskal Ordezkaritzak, aberkide eta ondorengo guztien izenean, protestarik indartsuena azaldu nahi du”.

Egunkaritik burua jaso eta hormari begira geratu zen Manu. Hantxe zegoen zintzilik Woody Guthrieren argazki bat, gitarra eskuetan zuela; “This machine kills fascists” zuen musika tresnan idatzia. Eta aldamenean, Antonio Gezalaren Ibaiganeko koadroa; Ma-

nuri iruditu zitzaion, inoiz baino ezabatuagoa zegoela Txominen aurpegia mihisean.

Udarik laburrena

84

Karmele bere buruari galdetzen ari zitzaion ea zer demontre egiten zuen Txominek giltzapean, bera haurdun egonik zergatik joan behar izan zuen horren muntazkoa ez zen fardel haren bila, gomutan hartu zuen haurdun zegoela Txominek esandakoa, bai, zure ondoan izango naiz beti, eta etorri zitzaizkion Antonyn beraien harremanaz izan zituen zalantza guztiak, iruditu zitzaion ez zuela merezi horrenbeste emateak trukean hain gutxi jasotzeko, gogoratu zituen Txominen berbak belarrira kantatuak, ohartu zen zeinen babesgabe geratzen ziren bere umeak, pentsatu zuen benetan zoriontsuak izan zirela Caracasko paradisu epel eta urrun hartan, beraiek bakarrik, familiarik gabe, lagunik gabe, aberririk gabe, kartei erantzun gabe, balizko garaipenei kasurik egin gabe, bera eta Parisen barrena bizikletaz ibiltzen zen musikari lirain hura, hain goxo hitz egiten ziona, hain leun laztandu, eta otu zitzaion ez zela nahikoa, sentitu zuen lipar batean

Txominekin elkartzea ez zela aukera onena izan, hainbeste gizon parez pare eta hura hartu behar, konturatu zen makala zela, makala zela gauza askotan, etxeko gauzak konpontzen makala, diruarekin makala, ohiko bizimodu bat eramaten makala, geltokitik pakete ziztrin bat jasotzen makala, makala baino makalagoa, amorratu egin zen ez zuelako maitemindu behar bera baino hamabost urte zaharragoa zen gizon hartaz, bai, zaharragoa, hori da hitza, zaharragoa, hobeto izango zela erizain lanetan jarraitu izan balu, libre, aske, erabakiak bere kabuz hartzen eta inoren meneko sentitu gabe, eta hala ere, hala eta guztiz ere, bisitan joan zitzaion Ondarretako kartzelara eta negar egin zuen elkar ikusi zutenean, odolezko negarrak egin zituen, bai, Karmelek.

85

Letamendiren atxiloketaren biharamunean, hain justu, Erresistentziaren historiako ekintza berezieneta-ko bat gertatu zen, geopolitika mailan bere garrantzia duena. Noel Baker diputatu laboristaren bisita Euskal Herrira.

Bigarren Mundu Gerraren bukaeran mugimenduak izan ziren nazioarteko politikan, eragina izan zutenak gurean. Alde batetik, Jose Antonio Agirreren laguntzaile izan zen Henry Wallace presidenteorde estatubatuarraren gainbehera. Rooseveltek bere azken agintaldirako, 1944an, Harry Truman aukeratu zuen presidenteorde gisa eta Wallace Merkataritza Departamenduko buru jarri zuen. Baina Roosevelt hil zenean, poliomielitisak jota, Trumanek kargutik kendu zuen Wallace, ezkertiar samarra iruditzen baitzitzaion. Hori berri txarra izan zen Agirrerentzat. Baina, bestalde, itxaropen leiho bat zabaldu zen Erresuma Batuan, 1945ean Churchillek galdu egin baitzituen hauteskundeak eta Alderdi Laboristak irabazi. Laboristak beti izan ziren gertukoagoak Errepublikaren Gobernuarekiko eta euskaldunekiko –Bilbotik ateratako umeak jasotzen ere lan handia egin zuten Gerra Zibilaren garaian–; beraz, Francoren kontra gogorrago egingo zutela uste zuten.

Erresistentziaren indarra nolakoa zen erakusteko, Euskal Zerbitzuetako buruek Noel Baker diputatua gonbidatu zuten Euskal Herrira, ikus zezan zenbaterainoko indarra zuen borroka antifrankistak hemen, eta

konbentzitzeko Franco oso ahul zegoela eta zirt edo zart egin beharra zegoela hura kargutik kentzeko.

Baker 1946ko abuztuaren 6tik 14ra egon zen hemen. Donostia, Bilbo, Bartzelona eta Madrilera eraman zuten Juan Ajuriagerrak eta Anton Zugadik auto batean. Bartzelonan, Consell Nacional de Catalunyako kideekin egon zen Iuzaroan hizketan –haien artekoa zen Josep Benet historialaria ere–.

Autoa pasatzen zen herri guztietan Erresistentziako kideak agertzen ziren bide bazterrera, tente jartzen ziren eskua kopetara eraman eta agur militarra eginez. Jakina, euskal espioiek komeni zitzaien errepideetatik eraman zuten autoa, gehienetan trafiko gutxi zegoen lekuetatik. Donostiara bidean, Elgetara iritsi zen segizioa eta han herri osoak egin zion ongi etorria. Noel Baker txundituta zegoen.

Ostera amaitu eta muga zeharkaturik, Baionan zegoela, egin zuen aurreneko gauza Parisko enbaxadore britainiarrari hots egitea izan zen.

– Egunotan ikusi dudana ikaragarria da. Euskaldunek erakunde paramilitar perfektua dute. Espainia osoan halako antolakuntzarik balego, Francok ez luke egun bakar bat gehiago igaroko boterean.

Handik gutxira, Jose Antonio Agirre lehendakariarekin eta Euskal Gobernuko kontseilari sozialistekin bazkaldu zuen –Enrique Dueñas eta Fermin Zarza– eta inpresio ezin hobea agertu zien haiei ere.

Josep Benet idazle eta politikari katalanaren alargunak esaten zuen, Txomin Letamendik zerikusi handia izan zuela Noel Baker diputatuaren bisitan. Zer antolatu ote zuen ba atxilotua izan aurretik? Ez dut jakin, baina egunen batean argituko da agian.

86

Txomini bi urteko kartzela zigorra ezarri eta 1946ko abuztuaren 21ean Madrilgo Carabanchel kartzelara eraman zutenean, Karmele haurdun zegoen zazpi hilabeteko eta konturatu zen aitak ez zuela semea jaiotzen ikusiko, zergatik eta hark jaso behar ez zuen pakete bat hartu zuelako.

Baina zer zegoen pakete madarikatu hartan? Batzuek uste izan dute dirua zegoela fardelean. Esan izan da, halaber, eta era okerrean, Txominek diru hori erabili behar zuela Erresistentziako sarea sendotzeko. Baina ez da horrela. Fardelean paperak baino ez zeu-

den, txostenak, diktaduraren aurka borrokan ari ziren talde desberdinenak, eta propagandarako materiala.

Sumarioa irakurriz gero ikusten da, Txomin Letamendiz gainera beste hiru lagun izan zirela kondenatuak.

Lehenik eta behin: Ramon Ariño Fuster, Aragoikoa, Madrilen laketua; 45 urte zituen atxilotutakoan; Izquierda Republicanako burua zen. Informazioa Frantziara ateratzeko gutunak ematen omen zizkion Imanol Pagaldairi Madrilen. Lotura zuzenak zituen erbestean zeuden Errepublikako buruzagiekin eta goi mailako informazioa zerabilen esku artean. Nonbait berak ohartarazi zituen errepublikarrak Franco boterean tinkatzeko britainiarren artean zeuden trikimailuez.

Bigarrena: Juan Otaiz Arin, irundarra; 29 urte zituen atxilotutakoan; Madrilen lan egiten zuen erredaktore gisa. Honek Madrilen paketea hartu zuen Bernabe Orbegozo *Otarbe*-ren eskutik eta Donostiara eraman zuen trenez. Donostian Garaialde izeneko bati entregatu behar omen zion, baina hau agertu ez eta Txomin Letamendi joan zen paketea hartzera Norteko estaziora.

Hirugarrena: Carmen Leclerq Sarasola, donostiarra; 45 urte zituen atxilotutakoan. Donostiako Ponsol

sonbreiru dendako alaba zen. Paketea azkenean emakume honen etxean entregatu behar omen zen, eta honek emango zion *postariari* Frantziara pasatzeko.

Beraz, Madrildik Frantziara zihoan informazioa zen Norteko estaziora iritsitako fardel hartan zegoena, Ramon Ariño Fuster ezkertiarrak, Euskal Zerbitzuen bitartez, erbestean zeuden buruzagi errepublikarrei igorri ziena.

87

Karmele Urresti arrain garraioko kamioian joaten zen senarra bisitatzera Ondarroatik Carabanchelera. Josuk eramaten zuen, arraina saltzeko kamioia erosi baitzuten Antsosolon aitak eta biek. Ontzirik ezean, erabaki zuten probatzea kamioia erosi –gorri koloreko Dodge bat– eta Madrilen arraina saltzen. Josuk etengabe egiten zituen bidaiak, eta hori profitatzen zuen Karmelek, elkarrekin egiteko hegoalderako bide luzea.

Josu kontalari fina zen. Behin baino gehiagotan, gerrako ibilerak kontatzen zizkion arrebari, baina ez nekeak eta tristurak. Nahiz eta bizipen latzak izan, Josuk bazekien egoera zailak ere umorez apaintzen.

– Frontean borrokan ari ginenean, batzuetan ez genuen jakiten lubakiaren alde batean edo bestean geunden, erraza zen lerroa igarotzea. Behin, beste aldera igaro eta bueltan nentorrela, gudari batek pasahitza eskatu zidan. “Pasahitza? Ezta susmorik ere”, nik. Eta hark: “Ongi da, neuk ere ez dakit. Tira, zer bazkaldu genuen atzo?”. Eta nik orduan: “Garbantzuak”. “Bai, hori da, aurrera!”. Horrela bizi ginen.

– Ez nago umoreko, Josu.

– Egia da, gazteak eta zeharo inozoak ginen. Beste batean, gauez lubakian guardia egiten ari ginela, halako txistu hotsak entzuten ziren. Albokoak galdetu zidan: “Zer da zarata hori?”. Eta nik: “Haizeak elektrizitate kableak mugitzen dituela”. Baina benetan tiroak ziren, guri botatzen ari zitzaizkigun tiroak!

– Zuk, izan ere, hori irudimena daukazuna!

– Baina irribarretxo bat atera dizut, ezta?

Madrilera joan, Madrildik bueltatu, 1946ko urriaren 14an Patxi jaio zen, hirugarren haurra. Ondarroan erditu zen Karmele, Antsosolon, Ikerne eta Txomin Tia Bittoriren txaletean zeudela, Lekeitioko bidean. Bittori, Frantziskoren arreba, alarguna zen eta bakarrik bizi zen etxe handi batean. Bihotz onekoa zen Bittori, urrestitar guztiak herritik kanporatu zituztenean eta

bere leihopetik pasatzen ikustean esan zuen: “Kanporatu egin zaituztetela? Bada, neu ere banoa zuekin!”. Sartu zioten buruan halako batean hobe zuela herrian geratzea.

Anita ondo-ondoan izan zuen Karmelek debora guztian. Eta Patxi jaioberria ikusi zuenean hasperen egin zuen, “haga larrosa batean etorri da-eta”.

Zazpi urteko Ikernek ez zekien aita kartzelan preso zeukatenik, pentsatuko zuen lanean zebilela alde batetik bestera bere merkataritza-agente txartelak banatzen. Lantzean behin gutunak idazten zizkion, eta aitari eskutitzez kontatu zion Patxi kulumiñuaren etorrera ere.

– Ama, atera gu hiruron argazkia! Kartarekin batera aitari bidali nahi diot, ez ahazteko gurekin.

88

“Aita, amaren sabeletik beste neba bat atera da. Patxi deitzen da.

“Itsusia da negar egiten duelako eta gorri-gorri jartzen delako.

“Ez daki berbetan eta olgetan ere baina maite dugu.

“Amak bainatzen eta janzten uzten dit.

“Ez dakit bera den azkena edo oraindik ume gehiago kabitzen den amaren tripa barruan. Eskerrak ni lehena izan nintzela ateratzen.

“Hiruron argazki bat bidaltzen dizut. Patxi txikiena da”.

89

Bakerren bisitaldiaren arrakastak adoretu egin zituen Euskal Zerbitzuak, eta diktadurari estualdi bat ematea deliberatu zuten. Denbora igarotzen ari zen, Bigarren Mundu Gerra bukatu zen, Nazio Batuen Erakundeak Franco kondenatu zuen, blokeoa ezarri zioten, baina ez zen ezer mugitzen. 1945 osoa pasatu zen eta 1946a ere bide beretik zihoan. Jose Antonio Agirrek aginduta, azaroan, Joseba Rezolak eta Jose Mari Lasartek hogei egun igaro zituzten Hegoaldean. Misioa, diktaduraren aurkako ekintzak antolatzea izan zen, Francoren ahulezia azalera ekarriko zutenak.

1946, abenduak 18. Bilbo erdialdean, Arriaga antzokiaren aurrean zegoen Emilio Mola jeneralaren irudiari bonba jarri zioten Agustin Egañak eta bi adiskidek. Ekintzaileak, ihes egin beharrean, jendartean nahastu eta zer gertatu ote zen ikustera geratu ziren, susmagarri ez suertatzeko.

1947, apirilak 6. Aberri Eguna, manifestazioak egin ziren Hegoaldeko hiriburuetan. Jose Antonio Agirrek eta Joseba Rezolak mezuak irakurri zituzten erbestetik emititzen hasi zen Radio Euzkadiren bitartez. Eta bestalde, Joseba Urrestik gutun bat bidaliko du Londrestik Antsosolora: “Atzerritik laster txokora itzultzeko itxaropenarekin”.

1947, apirilak 14. Bilbon manifestazioa Errepublikaren egunean.

1947, maiatzak 1. Greba Orokorra egin zen, diktaduraren aurkako alderdiek eta legez kanpo zeuden sindikatuek deituta. Armada atera zen kaleetara. Maiatzaren 6ra arte izan ziren grebak.

1947, maiatzak 7. Jose Antonio Agirrek mezua bota zuen irratiz, zorionak emanez greben arrakastarengatik; 4.000 lagun irten ziren kalera. Egun berean, Agustin Unzurrunzaga ELAko kidea hil zuten Donostian, Bergarako greba orokor batean parte hartzeaga-

tik atxilotu ostean; urte batzuk geroago Martin Ugalde idazleak Caracasko erbestean *Xabaleren hazia* ipuina idatziko zuen, kasu garratz hau gogoan.

Giro nahasi horretan, maiatzaren 16an, kartzelatik atera dute Txomin Letamendi behin-behineko askatasunez. Madrilen bertan, ezagutzen ez zuen Patxi semea hartu du besoetan. Zazpi hilabete dauzka.

– Calixto aurpegia daukazu –esan dio txikiari aurpegia ikusi orduko–. Hori da, Calixto deituko dizut, zure anaiari Churchill bezala.

Emazteari umea bueltan ematean, harriduraz atera zaio:

– Ume honek arrain usaina dauka!

– Josurekin etorri gara-eta kamioian.

90

Espetxetik irten berritan, Txominek eta Karmelek uda Ondarroan igarotzea erabaki dute, umeekin batera. Antsosolotik Txominek gutun bat idatzi dio Juan anaiari Madrilera. Bere kezkak azaldu nahi dizkio, umorez beti ere; baina aurreratuko dio hurrengo misioa Bartzelonan duela.

“Ondarroan, 1947ko ekainaren 3an.

“Anaia eta iloba maiteak,

“Dena ongi Ondarroan, neska-mutilak altu eta indartsu hazten ari dira, eta nire Kalixtotxu gizon txiki bat eginda dago. Ederra da eta oso irribarretsua, baina lantzean behin halako txilioren bat botatzen du ezen dudatan egoten bainaiz berriz Carabanchelera ez ote naizen itzuliko.

“Bulegoko buruek adierazi didate ni Bartzelonara joatea nahi dutela, han aukera handiak izango omen ditut nire negozioetarako. Egun batzuk eskatu ditut pentsatzeko, izan ere, gauza guztien gainetik nire betebeharra da familiarekin denboralditxo bat igarotzea.

“Argi dago (Poliziak) ez nauela bakean utzi nahi. Hau dena uztea beste erremediorik ez dut, bestela, edozein egunetan, kataplun”.

Hilaren 8an San Mamesera joan da Txomin semearekin, Kopako final aurrekoa ikustera Real Madriden aurka. Madrilen galduta datoz bilbotarrak, 3 eta 2; baina Zarra, Panizo eta Gainza tartean dituen taldea edozertarako gauza da, Ligan 3 eta 6 irabazita daudeeta Chamartin estadio berrian.

– Zer egingo dugu, aita? –galdetu dio Txomin txikiak.

– Irabazi!, inolako zalantza barik.

Baina partida ez da uste bezala atera. 0-1 galdu du Athleticek, Molownyk sartutako gol bat dela medio. Partida ez da ikusgarria izan, Txomin txikia aspertu egin da, eta pixka bat beldurtu ere bai, zelaia betetzen duten gizonezkoen oihuekin eta zigarroen kearekin.

– Amarengana joan nahi dut –esan dio aitari, San Mamestik irten bezain laster.

– Aurrena izozki bat jango dugu, igandea da-eta.

Letamendik Ondarroan igaro zuen uda laburrean, herriko zaharrenen ahotik jakin dudanez, Francok uztailean egin behar zuen erreferendumaren aurka hitz egin zuen Olearen tabernan, eta ezkutuko mitinen bat ere eman omen zuen horren karietara. Bozketa, Ley de Sucesión de Jefatura de Estado delakoa onartzeko zen. Finean, frankismoaren trikimailu bat zen itxura zabalago bat emateko mendebaldeko potentzien aurrean. Lege berri horren arabera, Espainia monarkia bat izango zen, baina hori bai, Franco hil eta gero.

Gainerakoan, mendizalea zenez, umeekin bueltak ematea zuen gustukoa. Gorozika auzora igotzen zen –San Juan egunean jendea dantzari jaisten zen bidezidorretik–, batzuetan Mutriku aldera hartzen zuen, Lekeitio aldera besteetan.

Neure amak kontatu dit, behin batean bera ere gonbidatu zuela mendi buelta egitera, Ikernerekin batera.

– Egun osoa igaroko dugu etxetik kanpo –gaztigatu zion Txominek, neskatoa zen gure amari–. Ekar ezazu jateko zerbait eta zelairen batean jango dugu.

Ama pozik zegoen, gizon hura arrotza egiten zitzaion arren. Karmelerekin bazuen tratua, nola ez, baina oso gutxitan ikusia zuen Txomin. Herrian esaten zen ez zuela lan finkorik, edo inork entzuna zuen kontrabandista zela. Gauza argirik ez. Dena den, kontent, garai hartan egiten zen moduan, zapata kaxa batean sartu zuen egun-pasarako jatekoa: aita arrantzaleak prestatu zion patata-tortilla. Ez zen xamurra izan zapata kaxa lortzea, herriko dendetan galdezka ibili eta azkenean eman zioten bat; aitak jakia barruan sartu eta kaxa lastozko lokarri batekin lotu zuen, korapiloarekin helduleku bat eginez, dotore. Baina Antsosolora iritsi zenean Txominek irri egin zion:

– Zertarako ekarri dituzu zapata horiek?

– Ez dira zapatak, aitak tortilla bat egin du denontzat.

– Eskerrik asko, baina nola jantziko dut tortilla bat bi oinetan? –esan zuen Txominek txantxetan.

Gure amak ez zuen ulertu Txominen ateraldia, eta Ikernek ere ez; garrantzitsuena da egun ederra igaro zutela hirurek elkarrekin, oroitzapen hori gordetzen du behintzat gure amak.

Francoren erreferenduma 1947ko uztailaren 6an izan zen eta Txominek ezinegon handiz hartu zituen emaitzak. %89,86ak alde bozkatu zuen. Eta nahiz eta emaitzak aurreikusteko modukoak izan –diktadurak dena kontrolatzen zuen garai hartan–Txominek amorru handia sentitu zuen, ematen baitzuen herria garaitua izan zela.

Alde bozkatu zutenen artean, aitona zegoen, gure amaren aita. Zapata kaxa hain dotore prestatu zuen arrantzale garaitu hark Francoren aldeko botoa eman zuen, lana galtzeko beldurrez.

91

Artean haurrak lo zeudela, Karmelek gosaltzen ziharduen sukaldean. Gauez ez zuen ia lorik egin, pentsatzen gauean senarrarekin izan zuen talkari buruz; “Bihar Bartzelonara noa”, esan baitzion Txominek, “egun batzuk igaro behar ditut han lanean”.

Goizean, alkandorako botoiak lotzen sartu zen senarra sukaldean.

– Egun on. Eguzkitsua dator gaur.

Karmelek ez zion deus esan.

– Hamarretan irtengo da trena, joan egin behar dut. Eman musu bana umeei.

Karmelek ez zuen burua bueltatu ere egin.

Sukaldeko balkoitik ibaia ikusten zen, alde zaharreko etxeak ere bai. Errege-Erregina Katolikoen ezkutua zuten Espainiako banderak jartzen ari ziren etxeetan eta itsasontzietan, Ama Birjinaren jaiak baitziren herrian. Musika bandarekin prozesioan joan ziren Antiguako ermitara herriko agintari zibil eta militarrak, eta atzetik jende oldea.

Txominek etxeko atea itxi zuenean itzartu zen Ikerne.

– Aita?

92

Anaiari kartaz adierazi bezala, 1947ko abuztuko bigarren hamabostaldian Bartzelonara joan zen Letamendi, “bulegoan” agindu zioten manatua betetzera.

Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria izango zen Katalunian, legez kanpoko ordezkaria, esan beharrik ez dago, eta bere aurretik han egondako baten tokia hartuko zuen, Jorge Egia delako batena. Joseba Elosegiren goitizena zen Jorge Egia, Buen Pastorreko kanpandorrean ikurrina jarri zuen ekintzailearena.

Txomin Letamendi, Bartzelonan, Jose Antonio Primo de Rivera kaleko 320 zenbakiko 2 pisuko pentsioan bizi da, Maria Teresa Fernandezen etxean.

Abuztuaren 29an eguerdiko 12:00etan etxetik irten da metroa hartzeko asmoz, bisita eta elkarrizketa batzuk egiteko hitzorduak dauzka.

Baina, Plaza de España izeneko metro geltokiaren barruan sartu denean, gainera etorri zaizkio hiru polizia sekretu eta atxilotu egin dute. Bartzelonako erakustazokari dagokiona da geltoki hori, bertan daude 1929ko Nazioarteko Erakustazokako eraikinak, noucentismo deritzon estilo modernistan eginak.

Eskuburdinez estekaturik eraman dute Primo de Rivera kaleko 320 zenbakira, 2. pisura, zabaldu dute seguritate kaxa bat, eta han harrapatu dute dokumentazio guztia.

Agirien artean batzuk ziren Josep Pous i Pages *Marquet* jaunak (Consell Nacional de la Democracia

Catalanako lehendakariak) Txomin Letamendiri eman zizkionak, zeinak bidali behar ziren Londresera, New Yorkera, Frantziara (zehaztu gabe nora) eta EAJri.

Agintari katalanen izenak eta helbideak ere harrapatu zituen Poliziak –Jorge Egiak, hots, Joseba Elosegik pasatu izan zizkionak–. Letamendik geroago idatzi eta filtratu ahal izan zuen lehendabiziko gutun ezkutuan honelaxe dio: “Kontu honetan ere ahal izan nituenak salbatu nituen, batez ere Esquerrako bi buruzagiak”. Eta hau ere bai: “Gureei buruz, itzela izan zen galdeketa; ahalik eta hobekien defenditu nuen neure burua, nire aurrekoak pertsona bera izaten jarraitzen du: Jorge Egia”.

Lau eguneko interrogatorio gogorra izan zuen Letamendik, gau eta egun, Via Laietanako komisaldegiko ziegetan.

Egun batzuk geroago, espetxetik, azalpen xeheak eman zizkien Erresistentziako buruei gutunez.

“Pasa den hilabeteko [abuztuko] 29an atzitu ninduten, ostiralez. Era honetan gertatu zen: etxetik irten nintzen eguerdiko 12etan metroa hartzeko asmoz, bisita batzuk egiteko geratuta bainengoen. Geltokiaren barruan nengoela, “Eskuak gora!” bota zidaten hiru polizia sekretuk. Miatu egin ninduten eta galdetu zida-

ten nondik nentorren. Esan nien kanpotarra nintzela eta Erakustazokara nentorrela. “Gezurtia zara gero! –esan zidaten–, ikusi zaitugu Jose Antonio etorbideko 302 zenbakitik ateratzen eta halaxe dela baieztatzeko oraintxe bertan joango gara bertara”. Eskuburdinak jarrita eraman ninduten eta atezainari galdetu zioten ea ezagutzen ninduen. Hark baiezkoa esan zuen. Igo ginen solairura, neure giltzak kendu zizkidaten, atea zabaldu zuten eta garrantzizkoa zen guztia gordetzen nuen segurtasun kutxa ireki. Han zegoen hiru ordu geroago bidali behar nuen posta, igortzeko prest. Halaber, hantxe zeuden nire aurrekoak egindako lan guztiaren kopiak, kontaktuan egon behar nuen pertsonen telefono zenbakiak eta helbideak. Harrapatu zidaten gauzarik muntazkoena izan zen Conselleko presidentea den Marquet jaunak pasatu zidan posta, guk hartzaileei bidaltzeko: bat Londreserako zen, bestea New Yorkerako eta beste bi Frantziarako. Karta horien kopia bana ere helarazi zidan, gure alderdiak gorde dezan.

“Ohartzen zaretenez, nire egoera benetan deabruzkoa zen; lau egunez izan naute inolako atsedenik hartu gabe hala gauean nola goizean deklaratzen. Ahal nuena salbatu dut, nahiz eta beraiek beldurgarrizko bitartekoak erabili.

“Buruzagi katalanen izenak eta helbideak hartu zizkidaten –lan hau eginda utzi zidan nire aurrekoak–; kontu honetan ere ahal izan nituenak salbatu nituen, batez ere Esquerrako bi buruzagiak.

“Gureei buruz, itzela izan zen galdeketa; ahalik eta hobekien defenditu nuen neure burua; nire aurrekoak pertsona bera izaten jarraitzen du: Jorge Egia.

“Nire aitortzan esan dut, abuztuko lehen hamabostaldian Bartzelonara bidali ninduela EAJk, komunistekin izan ezik gainontzeko alderdi katalanekin ahalik eta harreman onenak izateko.

“Salatzailea, seguru nago, pentsioko ugazaba andrea izan da, eta baita bere laguna ere, Division Azulean ibilia zen hura. Pertsona hauek, egoera ekonomiko estuan izanik, nire segurtasun kutxa zabaldu zuten ea dirurik zegoen ikusteko, eta ezustekoa hartu eta gero deitu zioten Poliziari. Astebete lehenago atezainak ohartarazi zidan ez zela jende fidagarria, eta erabakita neukan beste toki batera joatea. Esan nien nire emaztearekin hitz egin nuela telefonoz eta hurrengo hilabetearen hasieran iritsiko zela gure hiru umeekin; ez zuten kontua begi onez ikusi. Eta etengabe argia, ura eta gasa kobratzera joaten zitzaizkienez, nire kutxa zabaltzea erabaki zuten, ea dirurik aurkitzen

zuten eta larrialditik atera; orduan konturatu ziren dirudik ez neukala, baina bai zerbait are interesgarriagoa. Etxe hartan egotekoa nintzen azken eguna zen”.

93

Irailean Letamendik kartzelatik ezkutuan eta presaka ateratako gutun hura klandestinitateko norbaitengana helarazi zuen, adieraziz lehenbailehen abisua eman behar zitzaiela Txomin Goitiari, Donostiako agente sekretuei, Casassas delako baten neskari...

“Adiskide maitea, *** [izen ezabatua]-ren bitartez daukat zure berri. Eskertua naukazu benetan kontu desatsegin honetan azaldu duzun interesarengatik.

“Atxilotua izandakoan hartu zidaten gauzen artean zure txartela zegoen, eta nor zinen galdetutakoan esan nien aspaldiko lagun bat zinela eta azken 12 urteetan elkar ikusi gabe geundela. Konbentzitu nituen eta txartela bueltan eman zidaten baina, badakizu, txikitako lagun bat baino ez zara beraientzat –futbola, pilota, eta abar–. Aldean nituen txartelen artean Txomin Goitiaren bat zegoen eta hark, gainera, etxera hots egin zidan ordurako Poliziak hartuta zegoela.

Esan nien Lekeitiotik ezagutzen nuela eta, jakin zuenean Bartzelonatik nenbilela, nirekin jarri zela kontaktuan Ondarroatik San Adrian herrira arraina ekartzeko negozio bat jartzeko, izan ere, bera han hozkailu handi bat eraikitzen ari zen. Badiot, Goitia jakinaren gainean jarri behar dela lehenbailehen eta deklarazioan zer esan dudan hari kontatu.

“Atxikita doakizun aitortza Donostiara eraman behar litzateke, Alderdia jakinaren gainean egon dadin. Uste baduzu horretarako aukerarik badagoela, esadazu eta emango dizut helbidea.

“Tira, adiskidea, argi dago zortea ez dudala izan aldeko, eta etsi-etsian ez zaidala besterik geratzen pazientzia izatea baino.

“Kontua garrantzi handikoa denez eta zarata handirik atera nahi ez dutenez, ez dituzte arrain handiak atxilotuko. Espero dut bazterraldi hau igaroko dela eta aukera izango dudala abokatu on batekin hitz egiteko, eta hark nire askatasunerako bidea agian aurkituko du lege ulertezin horien artean.

“Garrantzitsua. Casassasen neskari abisatu behar zaio azkar-azkar, ez diezadan telefonoz deitu niretzat jasotako enkargu edo hitzorduren batekin, adostuta zegoen bezala”.

Txomin Letamendi harrapatu eta egun batzuk geroago atxilotu zuten Josep Benet, Frente Universitario de Resistenciako burua Katalunian. Bere mintzaideak erortzen hasiko ziren gutxika.

94

Irailaren 15ean, astelehena, Karmelek bisita egin dio Bartzelonako Modelo kartzelara. Zahartuta aurkitu du, ahul. Betzuloak ditu eta ubeldurak nabari zaizkio aurpegian eta lepoan. Karmelek ez zekien zer esan hura ikusi zuenean. “Zer moduz?” bat galdetzea inozoa izango zen eta, gainera, ez zuen erantzun hori entzun nahi. Bazekien-eta bere senarra hondatua zegoela barrutik eta kanpotik. Duda-muda eta isilune luze baten ostean, “mundu guztiak bidaltzen dizkizu goraintziak”, esan zion. Baina berehala igarri zuen Txominek ez zuela solasaldia bide horretatik eraman nahi.

– Zer moduz umeak?

– Hasi dira eskolan. Patxi, gure puzker-umea, Ondarroan dago aitona-amonekin. Beste biak Indautxun.

– Norekin utzi dituzu?

– Koterondarrek asko laguntzen didate, bestela ezingo nuke bisitan etorri.

– Ondo daude umeak orduan...

– Aurrekoan Ikerne eta Txomin zinemara joan ziren, eta hara non agertu zen mutikoa itsasontzi txiki batekin etxera. Zinemako eserlekuaren azpian aurkitu omen zuen. *Antzo-solo* jarri zion izena txalupatxoari eta bertan Caracasera bueltatuko garela esaten du.

– Eta zelan dago Ikerne? Patxi jaio zenean berak bidali zidan argazkiari begira pasatzen ditut orduak.

– Bizkor hazten ari da. Faltan botatzen zaitu. Ira-kurtzea du gustuko, eta txintxirrika ibiltzea kalean.

– Musu handienak Ikerneri emazkiozu.

– Ezusteko bisita bat ere izan dugu Antsosolon.

– Zure neba Joseba?

– Ez, ez, Joseba ez. François Nothomb etorri zen. Ikusi behar zenuen aita Frantzisko, hari etxeko traste guztiak erakusten, ganbarako irratia-eta. Heriotza es-parrutik erdi hilik atera eta gero sasoiko zegoela irudi-tu zitzaidan; baina, tira, ez dakit burutik oso sano bueltatu den. Lekaidea egin da, Petit Jésus ordenakoa. Jacques Maritainen ideien jarraitzailea da. Erabateko pobrezian bizi nahi du eta ezer ez dutenei lagundu.

– Bejondeiola.

– Argazki bat ere atera genuen elkarrekin. Begira, hortxe gaude: Josu, Nothomb, Patxi besoetan duela Karmen, aita, Anita, Gaizka, Begoña, Ikerne, Txomin eta tia Bittori, denok batera.

– Ene, zeinen handi dauden umeak!

– Bai, arin pasatzen da denbora.

– Eta amerikanoek ez dute zirkinik egiten, haien babes osoa agindu zidaten...

– Tamalez haizeak beste alde batetik jotzen du orain. Pardoko tatarrak gero eta lagun gehiago ditu, denak dira komunisten beldur.

– Honek ez du itxura onik, Karmele. Hainbeste neke eta promesa, ezertarako ez.

– Ez pentsatu orain horretan. Zu beti izan zara baikorra. Suspertu zaitez. Zain gaituzu, gure makala.

Bisitaldian Karmelek ez zuen astirik izan senarrari kontu guztiak esateko. Ahaztu zitzaion kontatzea bere Jai, fox terrier maitea, hil egin zela mukieriz. Nerbioi ibaira salto egin zuen Campo Volantin parean eta geroztik ez zen osatu. Ikernek disgustu handia hartu zuen.

Eta hurrengo bisita batean ere ez zion kontatuko, ezta ere, 1947ko azaroan AEBetako Gobernuak muzin egin ziola Francoren kontra egindako Nazio Batuen

kondena bati. Harry Trumanek mundua bi zatitan banatu zuen, “mundu librea” alde batetik eta “diktadura komunista” bestetik. Bazirudien Francoren diktadura mundu libreko partea zela harentzat.

Ahulegi zegoen Txomin gauza horiek entzuteko.

Kartzela egunak

95

Josep Beneten artxiboan daude Txomin Letamendik atxiloketari buruz kartzelatik bidalitako bi gutunak. Diktadura garaiko eta trantsizioko politikari eta pentsalari garrantzitsuenetakoa Katalunian, bere bizitzari buruzko oroitzapenak idazten ari zela hil zen; memoria horien lehenengo zatia bakarrik argitaratu ahal izan zuen zendu aurretik, eta gerraoste garaiko kontu guztiak paperen, agirien eta apunteen anabasa eskerga bat dira. Benetek prentsan emandako elkarrizketetan Letamendiren izena aipatzen baitzuen, eta Benet bera ere atzitu baitzuten Letamendiren erorketaren ondorioz, horrexegatik jo nuen haren paperetan miatzera.

Ondare itzela da Josep Benetena, hamaika paperzorro eskutitz, dokumentu, argazki eta anotazioz beteak. 1945-1950 urteei buruzko karpetetan begiratu eta gauza bitxi asko idoro nuen. Ez zetozen ordenatuta, urte batetik bestera jauzi egiten zuten, paper

gehiegi ziren bata bestearen atzetik artez ibiltzeko. Gehienak Erresistentzia Katalanaren barne-agiriak ziren, propaganda, sabotajeei buruzko datuak, Montjuiceko gazteluaren plano bat. Besteak beste, 1947ko Francoren Erreferendumari buruzko agindu bat ere bazetorren, Telefonicako agintariek langileen artean zabaldutakoa.

“Barcelona, 3 de julio de 1947.

“El señor Delegado del Gobierno en la Compañía Telefónica Nacional de España, Don Felipe Acedo Colunga, dice a esta Delegación con esta fecha lo siguiente:

“Siendo como es el voto el ejercicio de un derecho así como el cumplimiento de un deber que lleva aparejadas sanciones, caso de no hacer uso del mismo, me permito rogar a usted se sirva dictar las oportunas órdenes a fin de que se advierta a todo el Personal de esta Compañía Telefónica en todo el Territorio Nacional, de que debe comparecer y tomar parte en el Referendum del próximo día 6, en evitación de los perjuicios que pueda irrogarles y sobre todo con el alto móvil de servir a la Patria.

“Dios guarde a Usted muchos años”.

Horrela erraza da ia %90ak alde bozkatzea, botoa derrigorrezkoa denean.

Orobat, Erresistentziaren 1945eko ezkutuko egunkari batean berri batzuk irakurri nituen. Erresistentziaren ekintzak, nazioarteko egoerari buruzko notiziak. Berri laburren artean, Ondarroatik ihes egindako gazte batzuei buruz mintzatzen dira. Esaten denez, gauez eta itsasontziz dozena bat gaztek alde egin zuten Ondarroatik Iparraldera. Sorpresa hartu nuen ikustean, Frantzisko Urresti eta Karmen Iturriotz zeudela gazte horiei laguntzen, eta Iparraldean zain zituena Joseba Urresti apaiza zela. Gurasoek eta semeak sare bat antolatu zuten Armada frankistan engaiatu nahi ez zuten gazteak erbesteratzeko.

Paperak pasa eta pasa, Josep Benetek 2002ko uztailaren 22an Arxiu Nacional de Catalunyan egindako eskakizun bat topatu nuen. Txomin Letamendiri buruzko agiri juridiko guztiak eskatzen zituen. Ia 200 orri dira guztira. Benaz, zorrotza izan zen Benet; obsesioaren mugaraino helduta, dena jakin nahi zuen euskal agenteari buruz, eta esan beharra dago gauza asko deskubritu zuela.

Letamendiri buruzko karpetan datoz atxiloketako datuak, komisaldegian egindako galdeketak eta dili-

gentzien irekiera, Bartzelonako Modelo kartzelako sarrera agiria, Carabanchelgo kartzelara egindako bidaiak, espetxean jaso zituen zigorrak, epaiketako sumarioa, dena.

Hasiera-hasieran, boligrafoz idatzita, zerrenda bat dator. Letamendiren objektu pertsonalak hauek ziren:

Berokiak 1
Abarketak 1
Jakak 1
Atorrak 3
Kamisetak 3
Galtzontziloak 4
Jertseak 1
Prakak 4
Zapata pareak 2

Ostean, komisaldegian zabaldutako diligentzia dator, Eduardo Quintela komisarioak sinatua.

“DILIGENCIA: Después de una estrecha vigilancia de sujetos que se presumía pudieran estar en contacto con el mismo, se llegó a localizar en la calle Avenida de Jose Antonio número trescientos dos, segunda, a DOMINGO LETAMENDI MURUA y al cual al hacérsele

un registro en la habitación que tenía alquilada en dicha casa se le encontró una gran cantidad de documentos que le acreditaban como el agente informador de la política catalana y actividades de todo género desarrolladas en Cataluña, acerca del ya dicho Gobierno Vasco en Francia. Entre estas actividades destacan por su gravedad las de tipo militar y las de información en general de diversos organismos del Estado. Por la documentación cogida y del interrogatorio realizado al LETAMENDI se desprende que este individuo, que usaba indistintamente los nombres de DAMIAN LANDA y LAZA, y DARIO LANDA, se había hecho cargo de esta labor desde los primeros días del pasado mes de agosto en sustitución de un sujeto que él afirma se llamaba JORGE EGUÍA".

Eduardo Quintelaren Brigada Soziala izan zen Letamendiri galdeketa luzea egin ziona. Quintelaren taldea ezaguna zen oso basatiak zirelako. Txomin ez zen suspertuko galdeketa hartan jasandako kolpeetatik.

Letamendiren atxiloketa aipatzen da (Beneten paperen artean hori ere) Josep Pous i Pages idazlearen bi gutunetan, bata 1947ko irailaren 6koa eta bestea 9koa. Pous i Pagesen goitizena Jaume Marquet zen, bere nobela bateko pertsonaia bati hartua. Buru zen,

gizon hau, alderdi zenbait biltzen zituen Consell Nacional de la Democracia Catalana elkarte klandestinokoa.

Pous i Pagesek karta horietan kontatzen du ezbehar handia izan dela Letamendi harrapatzea; izan ere, berarekin batera erori dira Josep Benet eta Lluis Torres Front Universitar de Catalunyako kideak. Fronte hori ideologia desberdinetako gazteek osatzen zuten. Letamendiren gutunean aipatzen den Casassas hori komunista zen, Lluis Torres sozialista, Josep Benet eta Joan Sansa katoliko katalanistak.

Gutun horiengatik dakigu, “La brigada operant era la del famos Quintela, de brutal anomenada”. Nonbait atxiloketak izan ziren, baina estuen hartu zutena Letamendi izan zen; katalanak libratu egin zituzten egun gutxira (Montserrateko elizako agintariek izango zuten zerikusirik), edo, gutunean dioen bezala, “es una fingida benevolença, encaminada a inspirar-nos una excessiva confiança a fin de fer més endavant una agafada de tota l’organització o al menys dels seus elements més importants i mes actius?”.

Kide katalanak libre utzi arren, Letamendiren auziak jarraitu egin zuen, Quintela komisarioak iritzi baitzion kontua Madrilgo epaitegi batek ebatzi behar zuela.

“1947. 16 de diciembre.

“Dirección General de Seguridad.

“Jefatura Superior de Policía de Barcelona. Brigada Social.

“El caso debe de quedar a disposición del Juzgado Militar Especial de Madrid, de Espionaje y comunismo, según oficio recibido en esta jefatura de dicho juzgado”.

Juzgado Militar Especial de Espionaje y Comunismo delakoaren epaile instruktorea Enrique Eymar Fernandez koronela zen, Francoren garaiko pertsonarik ilunenetakoa. Errepublikazalea izandakoa, Izquierda Republicanako Toledoko karneta zeukan 1 zenbakiarekin, gerra mutilatua zen eta francozale amorratua bilakatu zen gerra ostean. Eymarrek milaka pertsona epaitu zituen eta milaka kondenatu heriotzara. Gizon maltzurra izan bide zen; fusilatzera zihoan jendea bisitatzen zuen bezperan, eta itxaropena ematen zien,

indultua iritsiko zela-eta. Biharamunean bere aurrean fusilatuko zituzten.

Gauzak horrela, 1948ko urtarrilean Carabanchelera eramango dute Txomin Letamendi, epaitegi berezi horrek diligentziak abiatuko baititu. Sumario Urgente 426.

Hamahiru hilabetez egongo da Carabanchelen.

97

Espioitza sarea desegiten ari zen.

Florentino Goikoetxea mugalaria tirokatu eta atxilotu egin zuten 1944ko ekainaren 28an, baina uztailean ospitaletik ihes egitea lortu zuen. Joseba Rezola atxilotu zuten 1945eko maiatzaren 26an Madrilen, baina Irunera trenez zekartela Donostian ihes egin zuen Ander Arzelusen laguntzarekin, eta elkarrekin pasatu ziren Iparraldera. Flavio Ajuriagerra 1945eko abuztuaren 31n hil zen gaixotasun larri baten ondorioz. Koldo Mitxelena atxilotu zuten 1946ko apirilaren 10ean Madrilen. Joseba Elosegi atxilotu zuten 1946ko uztailaren 18an Donostian. Pello Mari Irujok Madrildik ospa egin zuen Sabin Barrenaren aginduz eta muga

igaro zuen 1946ko irailean. Andima Ibinagabeitiak ihes egin zuen Bilbotik 1947ko martxoaren 15ean Anton Zugadi atxilotu zutenean; Erresistentziako lagunek Poliziari eraso eginda askatu zuten Anton Zugadi hiru egun geroago. Txomin Letamendi atxilotu zuten 1947ko abuztuaren 29an Bartzelonan. Jesus Insausti *Uzturre* eta Imanol Pagaldai atxilotu zituzten 1948ko urtarrilaren 22an Madrilen, eta Sabin Barrenak eta Bernabe Orbegozok ihes egin zuten. Uzturrek zigor esparrutik hanka egin zuen 1951ko maiatzaren 19an emaztearen eta Jon Bilbaoren laguntzarekin, eta muga igaro zuen Jesus Solaunekin batera. Ander Arzelus *Luzear* hil egin zen 1949ko abuztuaren 27an Baionan.

Josep Benetek ere jaso zuen gainbehera honen berri. Bere oharretan kontatuta dator Joseba Rezolaren Madrilgo taldea nola erori zen.

“Ordura arte, Madrilgo FUCeko ardura nik neuk izan nuen, profitatuz aldika bertara egiten nituen bidaiak Felix Millet jaunaren idazkari pertsonal gisa. Joan Bta. Roca i Cavall-i esker, Unió Democràtica de Catalunyako burua bera, eta euskal nazionalisten aspaldiko laguna, aukera izan nuen euskaldunek Madrilen zuten erakunde klandestinoarekin harremanetan jartzeko. Horiek, 1943tik aurrera, erakunde txiki bat era-

tua zuten Estatuko hiriburuan, teknikoki oso eraginkorra zena. Sortzaile eta buru Joseba Rezola zuten. Eta talde horretako kide ziren, besteak beste, Sabin Barrena, Pello Mari Irujo, Manuel Irujo ministro ohiaren anaia, eta Koldo Mitxelena, zeina urteekin euskal hizkuntzalari handia bihurtuko baitzen. Haietatik gehienak, heriotzara kondenatuak izan ziren gerra garaian, eta kartzelaldia ere bete zuten, eta ostean borroka klandestinoan sartu ziren. Aitor dut miresmen handia sortzen zidatela borrokalari kementsu haiek. Oraindik gomutan dut Joseba Rezolak, ezagutu nuenean, sortu zidan zirrara.

"Anarkistek beraiek, horren aktiboak zirenak urte haietan, behin baino gehiagotan erabili zituzten euskal zerbitzuak Madrildik Frantziara, edo alderantziz, ezkutuan joan ahal izateko. Zerbitzu hori beste pertsona batzuek ere erabiltzen zuten. Esate baterako, Rafael Sanchez Guerra politikari errepublikazalea ere euskaldunek eramango dute gordean erbestera, Giralen gobernuan ministro izateko".

Josep Beneten lekua Joan Sansa gazteak hartu zuen. Sansak harreman estua izango zuen Rezolaren taldearekin. Behin, Alianza Nacional de Fuerzas Democráticas elkartearen bilera batera gonbidatu zuten; Pi-

doux tabernan egiten ziren bilera horiek, Gran Vian, Chicoteren ondoan; tabernara sartu eta ezkerreko aldean esertzen ziren, butaka handi batzuetan. 1946ko apirilean izan zen Poliziaren sarekada. Mugimendu Libertarioko kide bat, Pedro Polo, toki hartan sartu zenean, Bartzelonako Brigada Politiko Sozialeko poliziak atzetik joan zitzaizkion. Poliziaren sarrerak sekulako zalaparta sortu zuen lokalean –putetxe bat baitzen– eta iheska ari ziren erresistenteei tiroka jardun zuten. Joan Sansak eta Pello Mari Irujok atzeko atetik alde egin zuten. Baina harrapatu egin zituzten Ramon Piñeiro galegista eta Koldo Mitxelena.

Nonbait, Bartzelonako CNTko kide batek, Eliseu Mellisek egin zuen salakeria. Hil egin zuten gero Mellis, Bartzelonan, anarkistek beraiek.

Joan Sansak, bien bitartean, ikusirik bere izena ez zela inon agertu, mediku ikasketak jarraitu zituen. Baina, Josep Beneten aburuz, Madrilgo hura kolpe latza izan zen antifrankismoarentzat. “Mundu Gerra bukatu eta Francoren erregimena demokraziarekin ordezkatzeko sortu zen aukera, argi zegoen, galdu egin zela”, kontatzen du. “Alde batetik, egia da, gerra irabazi zuten potentzia demokratikoen utzikeriarengatik. Baina, batez ere, buruzagi antifrankista monarkikoek

eta errepublikazaleek jakin ez zutelako Francoren aurrean alternatiba sinesgarria osatzen, bateratua eta gauzagarria. Alternatiba horren faltan, Francoren erregimena finkatu egin zen”.

98

Eta azkenik, beste ezusteko bat.

Frankismoko azken fusilatu batek, Juan Paredes Manot *Txiki*k, kartzelatik bidali zuen azken eskuizkribuaren kopia bat aurkitu nuen Letamendiren garaiari buruzko Josep Beneten paperen artean.

Zer egiten zuen eskuizkribu hark han? Nondik aterako ote zuen? Zer ikustekorik zuten Letamendik eta Txikik? Beneten hutsegite bat ote zen? Miragarria iruditu zitzaidan kasualitatea; eta Txikiren eskuizkibuan, deigarria pasarte hau: “Hoy somos los que estamos en el banquillo pero mañana estarán ellos y será el pueblo quien nos hará justicia. No lo olvidéis, puesto que mis compañeros y yo no podremos. Confíamos en vosotros”.

Letamendi Carabanchelera bidali zutenean, Erresistentziako beste kide batzuekin elkartu zen. Hantxe zeuden Jesus Insausti *Uzturre* eta Koldo Mitxelena, nahiz eta azken hau libratu egingo zuten handik hamabost egunera.

Uzturrek itzulpen literarioak egiten zituen kartzelako patioan, kukubilko jarrita; asko egin zituen, tartean William Saroyanen lau narrazio.

– Zer darabilzu paper horietan? –galdetu dio Txominek.

– Itzulpenak, denbora-pasa.

– Bai, jakinaren gainean nago gerra garaian heriotzatik libratu zinela itzulpenen kontura.

– Heriotzara zigortu nahi ninduen fiskalak. Ofizioko abokatuari otu zitzaion esatea ni ez nengoela burutik ondo, eta burutik sano ez dagoen bat ezin dela hil. “Zergatik dago burutik eginda?”, galdetu zuen epaileak. “Bada, *Don Kixote* euskarara ekarri nahi duelako”. Eta epaileak aise erabaki zuen: “Benetan erotuta dago gizon hau, hori ezinezkoa da!”. 30 urteko kartzela zigorra jarri zidaten.

– Eta? Lortu al zenuen *Don Kixote* itzultzea?

– Ez, ez nago horren burutik.

Patioko ibilera luzeetan gauza asko kontatzen dizkiote elkarri bi lagunek, esate baterako, kartzelan zeuden naziei buruzkoak.

– Ba al dakizu hor dagoen hori nazia dela? –esan dio Letamendik Uzturreri–. Francok kartzelan sartzen ditu, babesa emateko. Mundu Gerra bukatu zenetik nazien ehiza omen dago herrialde guztietan barrena, eta horregatik ez ditu badaezpada ere kalean utzi nahi.

– Bat harrapatzekotan egon ginen gu.

– Nor?

– Léon Degrelle.

– Belgikako nazia, Hitlerren hurre-hurrekoa zena?

– Horixe berori.

– Entzunda daukat lasai asko bizi dela Madrilen, hegazkinez ihes egin eta Conchako badian lurreratu zenetik. Espainiak ez du sekula estraditatuko.

– Bada, une batean, Léon Degrelle lokalizatzeko eskatu zigun Belgikako Gobernuak. Eta halaxe egin genuen. Ez hori bakarrik, bahitzeko plana ere egin genuen. Harrapatu eta eskuburdinekin Bruselako Plaza Handiaren erdian uzteko asmoa geneukan.

– Ez da egia izango!

– Prest zegoen plan osoa. Bagenekien Degrellek amorante bat zuela Madrilen, Helene Cornette. Pedro Urracaren emaztea zen Cornette, baina badakizu... Degrelle planta onekoa da, bi metroko gizona, eta emakumeek...

– Lluis Companys harrapatu zuen zakurraren emaztea da Cornette?

– Hain zuzen ere. Eta Cornette honek eta Degrellek bazuten habiatxo bat Toledon, eta hara eramaten zituen txofer batek.

– Eta txoferra euskalduna zen!

– Ez, ez gara hainbesterako. Baina txoferra konbentzitzea lortu genuen, autoa Madrildik Donostiara eramateko Degrelle barruan zeramala. Eta handik beste aldera pasatuko genuen itsasontziz. Dena lotuta geneukan, baina bat-batean aginduak aldatu egin ziren. Gobernutik esan ziguten belgikarrek atzera egin zutela, ez zitzaiela hura sekuestratzea komeni, Degrellek ba omen zituen-eta esateko zikinkeriak politikari batzuei buruz.

– Hori amorrazioa!

– Tira, bai, baina bitartean justizia apur bat egitearekin amets egiteko aukera ere izan genuen.

– Horrek asko balio du.

– Bai, baina bide batez denei demostratu genien oso ondo antolatuta gaudela edozeri aurre egiteko.

– Eta horrek askoz gehiago balio du.

100

1948ko apirilean Karmele Urrestik eta Jose Antonio Agirre lehendakariak randebu bat izan zuten Donibane Lohizunen. Karmele artega zebilen eta egon beharra zeukan Agirrerekin, senarraren egoera hobetzeko bideren bat aurkitze aldera. Joseba Urrestik, nebak, lortu zion hitzordua, Lehendakariaren hurrekoa baitzen.

Itsasertzetik paseatu zuten elkarrekin.

– Arduratuta nago Txominen egoerarekin. Osasunez ez dabil ongi eta urrun ikusten dut bere askatasuna.

– Badakit galdeketa oso latza izan zuela Bartzelonan. Gainera, sumarioa espeziala da, izen handi asko dago hor, eta ez da erraza izango Txomin libratzea. Baina zaude ziur, gure esku dagoen guztia egingo dugu ahalik eta lasterren kartzelatik ateratzeko.

– Ez dut zalantzarik –Karmelek ostertzera begiratu zuen, baina gero zuzenean galdetu zion–: Kartzelatik irtendakoan ez du beste misiorik izango, ezta?

– Ez, Karmele. Nahikoa egin duzue. Lan bat lortzea izango da berarentzat onena, eta bizi lasai. Pentsatu dut arrain-inportazio enpresa bat jar dezakezuela agian. Lortuko dugu finantziazioa horretarako.

– Ea egia den. Baina nik ez dut egoera batere argi ikusten. Frantziak Francoren blokeoari bukaera eman dio, ez da seinale ona.

– Ez genuen horrelakorik espero.

– Nik ez diot gauza hauei buruz ezer kontatzen Txomini, kontu ezkorrik sekula ez, ezingo luke jasan.

Bazkaldu ere elkarrekin egin zuten eta, pixka bat lasaiago, hitz egin zuten beste gai batzuez: Ondarroa, Eresoinka, haurrak, Paris...

Agur egin baino lehen Jose Antonio Agirrek lapitza eta papera atera zituen, eta ohar bat idatzi zuen, gutun-azal txiki batean sartu zuena.

– Emaiozu hau Txomini.

– Eskerrik asko, jauna. Estimatuko du. Ez da gauza ezkorrik izango, noski.

– Dena baikorra.

Karmele pozik itzuli zen Txominentzat Lehendakariak eskuz idatzitako gutunarekin eta, batez ere, haren askatasuna lortzeko lan egingo zutela egindako promesarekin.

101

Han, erreparatuz gero patioko bazter hartan, gaur kukubilko dagoena ez da Uzturre, Letamendi baizik.

– Zer duzu?

– Lehendakariaren gutuna jaso dut.

– Zer diotsu ba?

– Eusteko. Badituela Karmele eta biontzako planak hau dena amaitzen denerako.

– Albiste ona da.

– Bai.

– Nik bestelako gutun bat hartu dut, Eymarrena. Deklaratzera joan behar dut. Badakizu tratamendu psikiatrikoan dagoela? Nolatan egon litezke milaka pertsonaren bizitzak gaixorik dagoen pertsona baten esku? Aurreko batean galdetu zidan ea katolikoa ote nintzen. “Familia bai behintzat”, erantzun nion pentsatu gabe. Eta hori esanda, gogoan hartu nuen Bigarren

Mundu Gerra garaian nola ezkutatu nituen etxean bi poloniar eta nola goizero gure amak arrosarioa euskaraz esaten zien eta beraiek polonieraz erantzun. Datu hau, baina, ez nion esan.

– Eta zer esan zizun?

– Itauna egin zidan ea egunero jauna hartzen nuen, arrosarioa errezatzen nuen, eliza baten aurretik pasatuz gero otoitz egiten nuen. Nik esan nion, jaunartzea igandetan bakarrik, baina arrosariorako ez nuela astirik. Eta berak bota zidan: “Horixe da zure gaitz guztien jatorria! Horrela zaude ez duzulako arrosariorik errezatzen”. Epaile batek esateko gauzak dira, gero, horiek? Erotuta dago!

– Badirudi azkenean ni ez nauela Eymarrek epaituko. Bartzelonan egingo didate Gerra Kontseilua, espioitzari buruzko tribunal militarrak, baina hangoak. Ematen du indarra egin dutela kanpotik, Eymarren atzaparretatik librarazteko.

– Zorionak. Badakizu, inoiz ez da jakiten nork lagunduko dizun. Behin batean, Polizia orpotik nuela Madrilen, ni ihesean eta haiek oihuka “A ese rojo, a ese rojo!”, kaleko jendeak ni gelditu ordez bidea zabaltzen zidan, eta poliziei itxi. Atso batek animatu ere egin ninduen; “Corre, hijo mío, corre!”.

– Aizu, Jesus... egingo al zenidake mesede bat?

– Nire eskura badago, bai, jakina.

– Uztailaren 13an Ikerne nire alabaren urtebetetze eguna da eta oparitxo bat egin nahi nioke. Ipuin bat idatzi dut, umeentzako modukoa.

– Hara! Zeri buruzkoa da ba?

– Beethovenen bizitzako pasarte batean oinarritu naiz. Eta ipuintxo hori bidali nahi nioke...

– Baina?

– Baina nik euskaraz ez dakidanez, zuk itzultzea nahi nuke, gehiegi eskatzea ez bada. Ikernek euskaraz irakurtzen eta idazten ikastea, horixe da nire ilusio handiena.

Eta Ikernek bere bederatzigarren urtebetetzean aitak Carabanchel kartzelatik bidalitako ipuin bat jasoko du.

> “Es éste un pequeño obsequio que te hace tu aita con motivo del día de tu cumpleaños. Lo que te envío son unas líneas sobre la vida de un gran músico. Cuando las leas acuérdate de que tu aitatxu te quiere mucho y te tiene presente en todos los momentos.
>
> “Agur. Txomin.

“Carabanchel Alto, 13-7-1948”.

BEETHOVEN’EN BIZITZAZ

Bonn’en gertatu zan. Ilargi bete gau bat zan. Beethoven’eri dei egitera joan nintzan gero alkarrekin apaltzera juateko.

Kale estu eta ilun batean gindoazelarik bat-batean gelditu zan nere laguna. “Entzun”, esan zidan, “soinu hori? Nere eresi batekoa da: Sonata en F. Bejondeiola! Zeinen ederki joa!”.

Beste aldean zegoan kaxkar itxurako etxe batetik zetorren soinua. Beste alderatu gintzaizkizun entzun zale. Jotzailea etengabe ari zan; halako batean, hara!, soinua hausi eta bere ordez zerutik bailetor ahots goxo bat egin zan soinu:

“Nik ezin gehiago jo. Zeinen dan ederra! Baino ez det behar hainbat indar... Emango nuke zerbait horraatik Colonia’n musika aldi bat entzuteko!”.

“Baño arrebatxo” erantzun zion bere lagunak, “zertarako nahigabe gehiago gureganatu? Doi-doi degu etxea zerekin ordaindu...”.

“Ondo diozu, baino ez nuke hil nahi behin-behinik musika-aldi bat entzun gabe. Gauza hoiek ez dira ordea guretzat eginak”.

Begiraka neukan Beethoven. “Goazen barnera”, esan zidan.

Letamendi tronpeta-joleak, Letamendi agenteak, Letamendi aitak, ipuintxoan kontatu zion nola sortu zen Beethovenen pieza ezagunenetako bat: *Ilargitea*. Gau bakar batean sortu omen zuen maisuak. Bakarrik bizi ziren neba-arreba txiro horien etxeko piano zaharrean inprobisatu zuen pieza –zuzeneko kontzertu bat izan zezaten etxean bertan– eta gero, bere etxera bueltatu zenean, gau osoa egon ei zen idazten eta idazten.

Nahiz eta benetan horrela sortua ez izan, Ikerneri kontatu nahi zion unibertsala dela musika, ez duela gutxi batzuen esku egon behar, eta artistak ere ez duela ahaztu behar nondik datorren.

Karmele umeak oherarazten zegoen gelan sartu zen Frantzisko, Antsosoloko barruko geletako batean, eta iratzarri egin zuen. Oso artega zegoen aita.

– Angelutik deitu dute. Joseba gaizki dago. Birikietako gaitza du. Ezin da mugitu ere egin, norbaitek joan behar luke hura zaintzera.

– Lasai aita. Pentsa dezagun nola egin.

– Ezin dugu denbora galdu muga zeharkatzeko bisatuak-eta eskatzen. Ezkutuan igaro behar da, ohiko bideetatik.

– Anitak ezin al du?

– Anitak? Proposatu diodanean negarrez hasi zaiteta, “nik ezin dut”, “nik ezin dut” esanez. Eta zu zara erizaina.

– Baina nik umeak ditut, Txomin kartzelan... Harrapatzen banaute fusilatu egingo dute, gero.

– Anitak zainduko ditu umeak.

– Ados, neu joango naiz.

Londrestik Angelura itzulia zen Joseba, Bigarren Mundu Gerra bukatu orduko, RAFeko hegazkin militar batek eraman zuen Miarritzeko Parma aireportura. Eta Karmele ez zen nebarengana itsasoz joan, ihesi zihoa-

zen gazte haien antzera. Zainduegi zegoen bide hori. Lehorretik joango zen. Tolosan geratu zen mugalariarekin, maingua zen. Madrildik zetozen ama-alaba batzuk aurkeztu zizkion, erbestean zegoen senarrarengana joan nahi zuten eta elkarrekin pasatuko zuten muga. Gizon hark azaldu zien Bidasoak ur gutxi zuen toki batetik igaroko zirela, oinez; baina bertara iritsi zirenean guardia zibilak zeudela konturatu eta itxaron egin behar izan zuten. Marea gorantz zetorren. Bidea libratu eta ibaia zeharkatzea erabaki zutenerako ura gerriraino iristen zitzaien. Ama-alaba haiei lagunduz, estu baina azkenean lortu zuten Iparraldera iristea.

Josebak ezin zuen sinetsi Karmele apezetxean sartu zenean.

– Zer egiten duzu zuk hemen?

– Egun-pasa.

Karmelek aste batzuk igaro zituen Angelun neba zaintzen. Parisera ere joan zen nebarekin batera arnas aparatuko mediku famako batengana.

– Zenbat urte biziko naizen jakin nahi dut –esan zion serio Josebak medikuari.

Hark agindu zion utz zezala euskal kostalde hezea eta joan zedila bizitzera Alpeetara, hain zuzen, Niza

ondoan zegoen Thorenc izeneko herrian bizilekua hartzea onuragarria litzatekeela bere osasunarentzat.

Karmelek Angeluko egun haietan egin zituen adiskide mami De Greef sendikoak, Comète sarekoak.

– Joseba, gizon hain zuzen eta seriosa ematen duen hau –kontatu die umorez Karmelek–, bromazale amorratua da. Ganbarara igotzen zen eta handik, tximiniako zulotik hitz egiten hasten zen, ahots larria jarrita: “Zuekin Londresko BBC irratia”. A zelako sustoa hartzen zuen aitak!

Ondarroara ez zen mendiz bueltatu Karmele. Josebaren etxean, goiz batez, emakume bat agertu zitzaion motorbizikleta batekin.

– Emanen dugu buelta bat?

103

Lehendakariak hala eskatu baitzion, Karmelek sarritan idazten dio kontatuz zein den Txominen osasun egoera eta nola moldatzen den umeekin eta gastuekin.

1948ko abuztuan diotso, osasunez apur bat hobeto dagoela senarra, baina, dena den, ez diola kontatu

Txomin txikia luzaroan gaixorik egon dela eta medikuetan ibili direla.

Udazken hartan bertan, ordea, Letamendiren osasunak okerrera egingo du nabarmen. Urriaren 25ean, goizez, Uzturrek zaindariak ohartaraziko ditu bere laguna ez dela ohetik altxatzen. Atake zerebral bat izan du. Paralizatuta geratu zaio gorputzaren alde bat.

Mugimendu eta oroimen arazo larriak izan arren, 1949ko otsailaren 5ean Bartzelonako kartzelara eramango dute, Gerra Kontseilua abiaraziko baitiote. 690-IV-48 sumarioa da berea.

Karmele larrituta dago. Behin eta berriz idazten dio Lehendakariari.

1949, apirilak 9. Karmelek diotso, hilero 3.000 pezeta jasotzen dituela. “Horietatik 1.300 Bartzelonara bidaltzen ditut, ni bertan ez nagoenean Txominen zaintzaz arduratzen den familiari ordaintzeko”. Eta gastu askoren zerrenda egiten dio, xehetasunez. Bitxiak eta halakoak saldu behar izan dituela aitortzen dio. Agurtzerakoan, esaldi misteriotsu bat: “Cumpla mucho con el Gordo, y le da mi más completa enhorabuena”.

1949, maiatzak 10. Letamendi 30 egunetan ziegan isolatuta egotera zigortu dute. Arrazoia: bizarra egiteko makina harrapatu diotela.

1949, maiatzak 11. Karmeleren gutuna Lehendakariari. Bartzelonako pentsioko emakumeak ez diola Txominen gauzetatik deus ere bueltatu. Eta larritasunez idatzi dio, labur: “La salud de Txomin está muy quebrantada”.

1949, ekainak 9. Lehendakariari erreguka ari zaio, jasotzen duen diru kopuruarekin ezin duela bizi, laguntza behar duela mesedez. Eta gaztigatzen dio azkenik: “Txomin oso-oso gaixorik dago”.

1949, uztailak 26. Behin-behineko askatasunerako eskubide guztiak ukatu dizkiote Letamendiri.

104

“10 de febrero de 1950.

“Consejo de Guerra Ordinario.

“RESULTANDO: Que el día primero de septiembre de mil novecientos cuarenta y siete fue detenido en esta Plaza, por la policía, el procesado DOMINGO LETAMENDI MURUA afiliado al Partido Nacionalista Vasco

desde fecha anterior al Glorioso Movimiento Nacional y que durante la pasada Rebelión Marxista perteneció al Ejército Rojo como Comandante del Batallón Ariztimuño, huyendo a Francia poco antes de terminar la Guerra de Liberación, marchando con posterioridad a Caracas, Venezuela, hasta que en el año de mil novecientos cuarenta y tres regresa de nuevo a España, fijando su residencia en Ondarroa, logrando relacionarse de nuevo con elementos exiliados del titulado Gobierno Vasco por mediación de un tal Rezola, ex-secretario de defensa de dicho Gobierno, Andima Ibinagabeitia y Antonio Zugadi, sujetos que le ofrecieron se hiciera cargo del cometido que hasta tal fecha venía desempeñando en Cataluña otro afiliado conocido por Jorge Eguía, como agente del expresado Gobierno Vasco en el exilio, siendo un exponente de su actuación desarrollada en esta Plaza, la diversa documentación que le fue intervenida al ser detenido, entre la que figura una carta fechada a veintisiete de agosto de mil novecientos cuarenta y siete al expresado Cayetano (Sansinenea o Rezola) en la que rinde cuenta de sus primeros trabajos en pro de la causa: unas instrucciones tituladas “importancia de la información sobre personalidades”, un recordatorio militar fran-

quista, en el que se solicitan datos concretos respecto de organización militar y fortificaciones, un cuestionario militar, autoridades militares de la región, divisiones que la guarnecen, regimientos que las integran, fortificaciones, servicios, unidades destacadas y fuerzas de cobertura de la frontera, un cuestionario económico, un escrito dirigido al Gobierno Vasco en el exilio escrito por un tal Marquet [Josep Pous i Pages], afiliado a los partidos catalanistas clandestinos; un extracto de una carta dirigida a un diputado laborista [Noel Baker], redactada en francés y sellada con un sello del Consell Nacional de la Democracia Catalana –Presidencia–, un informe emitido por dicho Consell, organismo que pretende encuadrar a todos los partidos clandestinos y subversivos de Cataluña, propugnándose en este documento la implantación en España de una República Federal, con el establecimiento de sendos Gobiernos autónomos en Cataluña y País Vasco”.

Letamendiri bost urteko kartzela zigorra ezarri zioten eta Guadalajarako kartzelara eraman zuten abuztuaren 16an. Ziega lagun izan zituen Imanol Pagaldai Arbulu eta Donostiako Villasante abizeneko bat; haiek biek zaindu zuten, egoera tamalgarrian baitzegoen eta, gainera, burutik nahastuta.

– Ba al duzu seme-alabarik? –galdetu dio Imanol Pagaldaik.

Txominek argazki bat atera du koltxoi azpitik, eta paparrean ipini du. Ikernek bidali zion argazkitxoa da. Gainerakoan, ez da gai erreakzio normalik izateko: txikituta dago, ahituta dago.

Azkenean, 1950eko urriaren 18an askatu zuten Txomin Letamendi. Oso kalteturik, Imanol Pagaldai preso kideak atera behar izan zuen besoetan, haren anaia Juani atarian entregatzeko. Argal-argal zegoen, mutiko baten pisuarekin, 35 kilo.

Anaiarekin Madrilgo Zurbano kaleko etxean egongo zen aurrerantzean. Juan, Aire Armadako kapitain izandakoa Errepublika garaian, lanera Madrilera joana zen gerra amaitutakoan. Zortea izan zuen, lagun bati esker eraikuntza lanetan hasi baitzen, aireportuak egi-

ten, eta posizio ona ere lortu zuen. Txominek Frantziako kontzentrazio esparrutik Juan libratu zuen gisara, Juan ahalegindu zen anaia sendatzen. Diru eta baliabide asko jarri zuen medikuetan: intsulina eta plasma, sondak zakiletik eta ahotik, bi elektroshock...

Baina Txomini ez zitzaion aurrera egiteko indarrik geratzen. “Hildakoek ez dute jaten” esaten zuen jatekoa hurreratuz gero, eta ahoa ixten zuen.

Zabaldu gabeko opari bat

106

Juan anaiak lanean ziharduen bitartean, haren emazte Angelesek zaintzen zuen Txomin. Ordura arte Angelesekin harremanik apenas izan zuen arren, Madrilen haien etxean egon zen hiru hilabeteetan adeitasun oso berezia sortu zen.

– Zergatik ez duzu ba bizarra kentzerik nahi?

Angelesek garbitzen zuen egunero: galtzarbeak, eskuak, oinak; baina bizarra egiteko labana ateratzen zuen bakoitzean Txominek masailetan jartzen zituen bi eskuak.

– Ez, ez dut berriz zigortzerik nahi –esaten zuen–, ez dut hilabete osoa ziegan bakartuta egon nahi...

Txominek nahasmen uneak izaten zituen, batzuetan ez zuen jakiten non zegoen ere, kartzelan edo amesgaizto batean harrapatuta.

Ostiral eguerdi batean, kanpoan trumoia entzuten dela, Txominek gelatik hots egin dio Angelesi.

– Zurekin hitz egin behar dut.

– Harrikoa egiten ari naiz.

– Baina orain izan behar du.

– Zer duzu ba?

– Barkamena eskatu nahi dizut.

– Niri? Zergatik?

– Hasiera-hasieratik onartu ez zintudalako.

– Ez dakit zer adierazi nahi didazun.

– Juanentzat nahiago nuen bestelako andre bat, Euskal Herrikoa.

– Avilan jaiotzea egokitu zitzaidan ordea...

– Ez naiz justua izan zurekin. Barkamena eskatzen dizut. Orain badakit Juanek ez lukeela aurkituko zu bezalakorik.

Angelesek gomutan hartu zituen bazterturik sentitu zen une haiek, nola borrokatu zen Juanen ondoan egoteko, baldintza makur guztien aurka.

– Aizu, Txomin; ni euskalduna naiz –esan zion Angelesek irribarre goxo batekin–, Avilako euskalduna! Euskaraz ere badakit-eta zertxobait. Ba al dakizu zer esan nahi duen “makala” hitzak?

– Noski, horrela deitzen dit Karmelek.

– Eta ez zaio arrazoirik falta. Makala zara jaten, har ezazu purea!

Angeles zen Txomini jatekoa emateko nor zen bakarra. Baina hark likidoa besterik ez zuen jaten. Egoera tamalgarrian zegoen. Hortzik ez ahoan, sudur-trenkada hautsita. Zunda bidez elikatu beharko zuten handik gutxira.

Letamendiren adiskide guztiak kezkatuta zeuden.

Azaroaren 8an Jose Antonio Agirre lehendakariak Joseba Urrestiri idatzi zion. “Txomini buruzko berriak jaso ditugu azken aldian, esanez bere egoera oso larria dela, eta beldur gara zorigaiztoko bukaera izango ote duen (...) Nik ez nuen sekula pentsatuko horrenbeste denboraz Txomin preso izango zutenik gero horren egoera tamalgarrian libre uzteko. Bere alboan izango gaitu, ezin baitugu ahaztu Txominek aberriari eman dion guztia eta, ezta ere, izan duen suerte txarra”.

Azaroaren 30ean Manu Sotaren gutuna Lehendakariari. “Karmele Urrestiren eskutitza jaso berri dut azalduz Txomin Letamendiren egoera txarra. Kontatu didate, hilaren 18an atera zutela kartzelatik, zeharo nahastua eta oso-oso gaixo. Dirudienez, medikuek ez daukate inolako itxaropenik. Karmelek eskatzen dit zuri idazteko, nolabaiteko laguntza eman diezaiozun, Juanito Letamendi, Txominen anaiaren zama zertxo-

bait arintzeko, berak zaintzen du-eta etxean. Helbidea da: Zurbano 85, 2. Goraintziak Mari emazteari eta seme-alabei. Besarkada sendo bat. Manu”.

Txominen beherakadaz larriturik Angelesek telefonoz hots egin zionetik, Kamelek Madrilera bidaia antolatzen ziharduen Gabonak elkarrekin pasatzeko, umeak eta guzti. Azken ahalegina zen, Txominek bizitzea aukera zezan. Amak adoretuta, Ikernek kartatxo bat idatzi zion aitari, esanez Gabonetan joango zirela berarengana, eta Urtezaharrean bere urtebetetze eguna zenez oparitxo bat erosia zutela, baina hori sekretua zela eta sorpresaren zain egon beharko zuela.

Athletic futbol taldearen ikurra zeukan paparreko bat zen oparia.

107

Osasun egoera okertzen ari zen ezinbestean. Juanek mediku onenak ordaindu zituen, tratamendu desberdinak probatu ea erreakziorik bazegoen, baina ematen zuen Txominek amore eman zuela. Ez zuen bizi nahi.

Elkarrekin lo egiten zuten Txominek eta Juanek, ohe berean; anaiak ez zuen bakarrik utzi nahi, iruditzen zitzaion-eta bere epeltasunak lagunduko ziola negu hotzari aurre egiten, hain zegoen mehar.

– Badakizu, Txomin, Argelesen ere horrela lo egiten genuela? Latako bokarten antzera, bata besteari lotuta, lurrean. Preso bakoitzak baldosa bat zeukan, eta batek bira egiten zuenean beste guztiok ere bira egin behar izaten genuen.

Baina Txominek ez zion aditzen. Eta hala ere hizketan segitzen zuen anaiak:

– Beti izan zara anaien artean finena, Txomin. Gu denok lanean ginen bitartean zu etxean geratzen zinen, bazkaria prestatzen eta tronpeta entseatzen. Amak nahikoa zuen dendako bezeroei kasu egiten, Calixto zaharra etxetik joana zen-eta harrezkero. Aldarte txarra zuen aitak, baina zuk bazenekien hari buelta ematen. Akordatzen al zara? Aitak jakin zuen etxe ondoko tabernan zeundela billarrean jolasten eta bertara joan zen, kirioak airean, haserre, nagikerian izango zinela pentsatuta. Baina, tabernan sartu eta ohartu zenean tximistaren parekoa zinela billarrean eta jendea adi-adi zegoela zuri begira, bizkarretik heldu eta bozkariotan esan zuen: “Hau nire mutila da!”.

Txominek ez zion aditzen. Eta hala ere hizketan segitzen zuen anaiak:

– Futbola gustatu bai, baina ez zinen onenetakoa. Auzoko Club Cantabria taldean jokatzen genuen anaiok, baina zu lokatzik zapaldu gabe, musikari bat bezala beti dotore, erabaki zenuen hobe izango zela zuretzat clubeko presidentea izatea, partidak harmailatik ikusteko. Eta gu, zure anaia biak, basatzan! Akordatzen al zara?

Baina Txominek ez zion aditzen. Eta hala ere hizketan segitzen zuen anaiak, bera ere lokartzen zen arte.

108

1950, abenduak 20, asteazkena, Txomin Letamendi hil egin da, Madrilen, 49 urte bete gabe, Juan anaiaren etxean. Karmele Madrilera joan da bizkor, autoz osaba batekin, baina bera bakarrik, umerik gabe.

Hiletak San Ignacio elizan izango dira, hain zuzen ere Begoñako Ama Birjinaren irudi bat baitago han. Elizkizunaren erdian, gizon batek erdiko korridoretik eliza osoa zeharkatuko du lore sorta bat eskuan dara-

mala. Mundu guztia begira-begira geratuko zaio. Gizon txiki bat da, Pinotxo Aburto da. Manu Sotaren partekoak dira loreak, ikurrin kolorez: zuri, gorri eta berde.

Karmele ez da hiletan geratu. Ondarroara itzuli da berehala, seme-alabengana. Ikernek 11 urte ditu, Txominek 9, Patxik 4.

Antsosolon aita besarkatu du sendo-sendo eta negarrez hasi da. Ikerne beraiei begira dagoela konturatu denean, neskatoa ere besarkada berean sartu du. Gero, malkoak lehortu eta esan die:

– Gabonak dira, ezta? Kanta dezagun.

Ahots-hari mehe batekin hasi da kantari. *Hau da gabaren zoragarria...*

Txominek kartzelatik idatzitako azken gutuna poltsikoan zeukan Karmelek.

“Maite zaitut. Badakit kalte handiak eragin dizkizudala eta zure bizitza ikaragarri zaildu dudala. Eskatzen dizut, faborez, niri bisitarik ez egiteko. Ez nuke nahi nire azken oroitzapena gizon etsi eta garaitu batena izatea. Nahi dut oroit nazazun beti izan naizen modukoa, alaia, eta irudi hori seme-alabei helaraztea. Oraindik maite banauzu, behar dut zu gehiago ez etortzea. Azken mesede bat: idatzi egiozu nire anaia Juani

eta esan bere esku utziko duzula nire zaintza, eta ni gomuta nazazu beti pozik eta tronpeta bat eskuan”.

109

1951ko uztailaren 3an Txomin Letamendiren izenean karta ofizial bat iritsi zen Antsosolora. Askatasun zertifikatua zen. Sei hilabete eta erdi ziren hil zela.

HIRUGARREN ZATIA
1953-1979

Etxe huts

110

Beharbada zeru urdinean ilargi bete gorritua ageri zelako ilunabar hartan; beharbada Karmenek maistra lanera berriz itzultzea eskatu eta emazteari betiko ezezkoa eman ziotelako; beharbada arrain garraioaren negozio txiki hark ere porrot egin zuelako, eta porrotaren ondorioz Josu eta Jon semeekin haserrealdia izan zuelako, eta bi-biek Venezuelara joatea erabaki zutelako; edo beharbada Karmele alaba alargun geratu zelako eta hau ere neben bideari jarraiki Caracas aldera abiatu zelako *Marqués de Comillas* ontzi madarikatu hartan; beharbada Txomin suhia egoera tamalgarri batean hil zitzaiolako eta haren heriotzaren urte berean hasi zelako Lehendakariaren ametsaren gainbehera, Nazio Batuek Franco birgaitu eta Madrilera itzultzen hasi zirelako mendebaldeko herrialdeetako enbaxadoreak; beharbada Lekerika lagun zaharrak Washingtonen enbaxadorea izanik 62,5 milioi dolarreko kreditua erdietsi zuelako Espainiako erregimena-

rentzat; beharbada gogaituta zegoelako eguna joan eta eguna etorri ontziolako arlanpan *Jontxu* baporea usteltzen ikusteaz, sekula itsasoratzeko aukerarik gabe, barku umildua; edo beharbada, zergatik ez, Anita alaba nagusia Mexikora ezkondu zelako, berandu eta gaizki ezkondu, eta ez zuelako senarrarekin zoriontsu ikusten, astero igortzen zizkion kartetan idazten zionaren arabera; edo beharbada umeek ibaian bainatzea debekatuta zutelako eta haurrak igerian zeuden bitartean moilan uzten zituzten arropak aguazilek uretara berariaz botatzen zituztelako, arropa bustiarekin zebilen hari isuna jartzeko; eta beharbada dena debekatuta zegoelako urte haietan, den-dena, beharbada horrexegatik hartu zuen erabakia Frantzisko Urrestik, herri osoa aho bete hortz utziko zuen erabakia, nork eta berak, mediokritatea jasan ezin zuen gizon hark, etxeko leihotik begiratu eta galipota kalean gaizki jartzen zuten langileei agirika egiten zien agure hark, oilategia plano ingeles batzuk behatu eta bere eskuez eraikitzeko nor izan zen makinari hark, erbestetik itzuli zenean zerua goian lurra behean laga zuten bihotz nekatu hark, 1953ko San Juan bezperan, umeek suak egiteko trasteak biltzen ziharduten arratsalde luze hartan, jendea San Juani kantari ari zi-

tzaion iluntze berean, damurik gabe, zalantza izpirik gabe, etxepeko lantegian gasolina-potoa hartu eta noizbait familiakoa izandako ontziolara joan zen, bidean geldiarazi nahi zutenei aurre eginda, inori aurpegira begiratu ere egin gabe, zuzen, irmo, eta han, potoa zabaldu eta arlanpari atxikita zegoen *Jontxu* hegaluze-ontzia gasolinaz busti zuen, mela-mela egin gasolinaz, bai, amorrazio osoz, beharbada geratzen zitzaion indar apurra bertan xahutuz, bere atorra zuria ere gasoil orbanez betez, eta birritan pentsatu gabe lastargia izeki eta ontziko karel artera bota zuen, gerra garaian herriko jendea babesean jarri zuen ontzi hura, semeak Iparraldetik onik ekarri zituen txalupa, ontzi bati ezar dakiokeen zigorrik ankerrena, lehorrean lotzea, nozitu zuen baporea, kiskali egin zuen.

Frantziskoren betaurreko biribiletan sugarrak islatzen zitzaizkion bitartean, halako bake lipar bat sentitzen hasi zen, luzaroan lotzen zuen kate batetik askatzen ari balitz bezala, amiñi batean bederen. Bere bihotzeko itsasontzitik ateratzen ziren su-lamei begira egon ondoren, begiak itxi eta betazalak estalirik ere sugarrak ikusten jarraitu zuen, pizten eta itzaltzen ziren argitxoak, mikroskopio batetik behatutako laranja koloreko organismo ñimiñoak ziruditenak, zizareen

gisara higitzen, ezari-ezarian, txinpartok ezabatzen joan ziren arte.

Eta etxera itzulitakoan otu zitzaion, umeek bainatzea debekatuta zutenez, behintzat ezkutaketan jolasteko ontzi-hezurdura bat izango zutela aurrerantzean, hildako balea erraldoi baten sabela, eta bertan irudikatuko zutela haurrek, esate baterako, piratak zirela Karibe itsasora bidean, Karmele zegoen itsasoaz bestaldeko lurralde urrun hartara. Eta halako kontuak asmatzen hartu zuen loak, aspaldiko partez, jabal.

111

– Ikerne, denboratxo batean ez dugu elkar ikusiko –gaztigatu zion Karmelek alabari Berrizko ikastetxean.

– Lehenengo aita joan zen! Eta orain zu! Gorroto zaituztet!

– Txomin zintzo portatu da –gogor egin zion amak–, zu baino txikiagoa izanda.

– Utzidazu behintzat Santurtziko portura zu agurtzera joaten.

– Ezin da...

Hiru haurrak Euskal Herrian utzi eta Caracasera itzuli zen Karmele Urresti 1953ko bedatsean. Gerraosteko lehen egonaldian bezala, berehala aurkitu zuen erizain-lana, eta gainera Gonzalo Aranguren medikuak bizitzeko gela bat ere utzi zion bere klinikan, mediku egoiliarrentzat eraiki zuten pabilioi berrian. Hamarkada bat atzera utzitako herri epel eroso berbera izaten jarraitzen zuen Venezuelak, baina senarraren heriotzak eta, batez ere, seme-alaben hutsuneak edozein poztasun-keinu edo gogobetetze galarazten zizkion Karmeleri. Egia zen, bi neba, Josu eta Jon, bere aurretik joanak zirela Venezuelako erbestera, eta Josuk ordurako bazeramatzala hilabete batzuk petrolio konpainia batean lanean, urrun, oihanean, eta bestalde Jonek bizimodua ateratzen zuela han-hemenka lan txikiak eginez eta pentsioetan lotan, izeba Ezekielaren etxean egun batzuk egon eta gero bere bideari ekin zionetik –nonbait aiurri gogorrekoa zen izeba–; baina hala ere neba-arrebek ez zuten maiz elkar ikusten, hain zeuden lotuta bizimodu berri bat egoki hasteari.

Gauzak horrela, Karmelek barruan zeukan hutsuneari amaiezina irizten zion, nahiz eta barru-barrutik uste zuen bere erbestea ez zela alferrikakoa, premiazkoa zela hilero-hilero etxera dirua bidali nahi bazuen;

era horretan, Ikerne, Txomin eta Patxiren heziketa ordaintzeaz gain, familiako negozioaren porrotaren zuloa ixten laguntzen zuen, eta orobat gurasoek estatuarekin zituzten zigorrezko zorrak.

Hastapeneko hilabeteetan Karmelek bere aisialdiko une laburrak nostalgiaz igarotzen zituen, seme-alabei gutunak idazten, etenik gabe, eta baita Anita ahizpari ere, senar zoliarekin zoriontsu ez bazen behingoz utz zezala eskatzen, Mexikotik alde egin eta berarengana, Caracasera, etor zedila adoretuz. Arratsalde batzuetan Caraboboko parkean paseatzera joaten zen, Txomin jaioberria zenean senarrarekin batera ibiltzen zituzten tokietara, eta sinesten zuen, hein batean, senarra oraindik bere ondoan zeukala, halako presentzia leun bat. Parkeko banku batean eserita, amesten zuen han nonbaitetik agertuko zitzaiola senarra, laguna, maitalea, eta esango ziola, ohi bezala, berandutzen ari zela, etxera bueltatu behar zutela berehala, Roof Gardenera joan behar zuelako tronpeta jotzera. Horrela, sentitzen zuen ez zegoela bakarrik, Txominekin zegoela nolabait, nahiz eta benetan bere bakardadea itzela izan, han inguruko pertsonarik bakartiena baitzen Karmele, sekula ere ez zuen-eta inorekin hitzik egiten.

Egunerokotasuna hausten zion ezuste bakana postontzian kartaren bat jasotzea izaten zen, familiaren berri izatea. Alabaina, goiz batez, errutina bakarti hori hautsi zuena Mobil Oil konpainiatik jaso zuen deia izan zen. Gonzalo Arangurenen klinikara hots egin zioten esanez Josuk lan-istripu larria izan zuela, erredurak zituela gorputzeko atal desberdinetan, petrolio-putzu batean izandako eztanda batengatik. Zorionez, nebaren bizitza ez zegoen arriskuan, baina erreduren larritasuna zela-eta, Caracasko egoitza batera hurreratuko zuten eta erregutu zioten Karmeleri ea arduratuko zen, arreba izanik, Josuren zaintzaz eta aseguru-etxeekin eta egin beharreko izapide guztiez.

Karmelek bere anaia lehenengo aldiz bisitatu zuenean, egiaztatu zuen eskuetan eta hanketan zituen erredurak hirugarren gradukoak zirela eta hasieran uste baino luzeagoa izango zela haren zaurialdia. Egunero joan zitzaion ospitalera geroztik, eta bisita haietan Mobil Oileko langile bat ezagutu zuen Karmelek, gizon adeitsu bat, eta hark Karmele erizaina zela jakin zuenean, berehala kontatu zion Mobil Oil konpainia petrolio-putzuetan lan egiteko mediku eta erizainen bila ari zela, gerta zitezkeen istripuetan langileak ahalik eta lasterren artatzeko.

– Mobil Oilek hemengo edozein klinika pribatuk baino askoz hobeto ordaintzen duela ziurtatzen dizut –esan zion gizonak–. Baina ez zenuke Caracasen lan egingo, ustiapen guneetan bertan baizik. Txandak oso gogorrak izaten dira, erauzketak ezin baitira gelditu, eta medikuek eta erizainek aldioro egin behar dute guardia.

Karmeleri aurpegia argitu zitzaion. Egiatan ez zekien oso ondo zerk erakartzen zuen gehiago, hango soldata onak edo ezertarako astirik gabe lan egin beharrak, hobeto eramateko horrela erbestearen zama.

– Dena uzteko prest dauden erizainak aurkitzea ez da erraza izaten konpainiarentzat. Jakizu euskaldun asko daudela gurean. Fama ona duzue. Langileak eta fidagarriak zarete. Prest bazaude, zuretzat gordeko dut lanpostua.

Karmeleri komeni zitzaion lan hura; zaila zen ezetz esatea, amerikanoekin haserretuta egon arren. Senarra kartzelan zegoenean estatubatuarrek ez zioten sostengurik eman, harrapatu zutenean haien menpeko agentea izanik ere; eta hori gutxi balitz, errezelo handia sortzen zion amerikarrek Francorekin zuten jarrerak, ematen baitzuen bat-batean munduko lagunik onenak egin zirela. Baina Karmeleri senak agintzen

zion gauza guztien gainetik familiaren hobe beharraren alde egin behar zuela une hartan, eta onartu egin zuen lanpostua.

– Ados. Oihanaren erdigunera joango naiz.

Eta Anacon lan egiten hasiko da, Anzoategui izeneko estatu urrunean. Estatu Batuetako mediku eta teknikarientzat etxetxoak eraiki zituzten han, oholezkoak, zuri-zuriak, aurrefabrikatuak, eta haietako batean biziko da Karmele, bera bakarrik. Egunez eta gauez lan egingo du, etenik gabe, txandak bata besteari lotuz, oporrik ere hartu gabe. Ahalik eta diru gehien bildu nahi du gurasoei bidaltzeko eta, batez ere, denbora papurtu gura du, seme-alaben hutsune eskerga arintzeko.

112

Zirriborroz beteriko Francoren zigiluak betaurrekoetako kristaletan jarrita jauna hartzera joateagatik ezarritako zigorra bete zuenean, Ines prefektuak zuzendaritzara deitu zuen Ikerne.

–Bueno, bueno, baina nor dugu hemen? Gure Visitación hezigaitza –esan zuen serorak aitaren eginez–. Eser zaitez, faborez.

Ikerne aulkian eseri eta artez begiratu zion mojari. Urteetan sartuta zegoen, eta neskatoaren jarrerarekin ez zegoen nazkatuta, asper-asper eginda baino. Serorak eztarria garbitu zuen hitz egiten hasi baino lehen:

– Ematen du ikastegi honetan ez dagoela zentzaraziko zaituen inor. Beraz, tratu bat egin beharko dugu. Zu hemendik aurrera Visitación izango zara eta, horren truke, ni ahaztu egingo naiz zure barrabaskeria guztiez. Ondo iruditzen al zaizu?

Neska pentsakor geratu zen.

– Baina nire izena Ikerne da, euskaraz.

– Eta zergatik ez Visitación? Esanahi bera dute eta askoz politagoa da. I-ker-ne ahoskatu ere ezin dut egin ia. Visitación beste gauza bat da, doinu ederragoa du. Badakizu nondik datorren izena?

– Ez, ez dakit... Akaso, amak azkenekoz egin zidan bisita laburretik? –Ikerne haserre zegoen mundu guztiarekin.

– Ez, lotsagabea. Bisitan joan zena Ama Birjina izan zen. Isabel bere lehengusinarengana joan zen haurdun zegoela kontatzera. “Bedeinkatua zu emaku-

me guztien artean eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua, Jesus”. Badakizu zer den hori? Izen alaia da, ederra, Visitación, Ama Birjinak Jainkoari egindako esker oneko alabantza.

– Ados.

– Ados, esan duzu? –Ines prefektuak eskuak zerura jaso zituen, goi-ardurari eskerrak emanez bezala–. Jainko maitea, hasi dira gauzak bere onera etortzen. Nahiz eta gurasoak deabru hutsak izan, umeak salba litezkeela uste izan dut beti.

– Visitación Monte de Hoyos...

– Zer?

– Visitación Monte de Hoyos Avellanedas naizela –esan zuen neskatoak, harro.

– Ez, txiki, Visitación Letamendi zara zu.

– Nire izena Visitación izango bada aurrerantzean, alegia Ikerneren ordez Visitación, diot nik izango naizela Monte de Hoyos Letamendiren ordez, Avellanedas Urrestiren ordez, Collados Muruaren ordez eta, azkenik, Fuentefría Iturriotzen ordez. Ahor nire izen-abizenak!

–Baina, baina... –serora gontzetatik saltarazita, bulegotik bota zuen Ikerne, birao bibliko batzuk jaurti eta gero.

Handik egun batzuk barru, Ikerne eskolako patioan saskibaloian zebilela, papertxo bat jausi zitzaion uniformeko poltsikotik. Zaintzaz arduratzen zen mojak berehalaxe jaso zuen lurretik, Ikerne konturatu baino lehen. Karratuz betetako paperean, Ikernek “Ene aberri laztana” zeukan kopiatuta, itzulita hori ere, euskal kantak ere itzuli egin baitzituen, denbora-pasa. Serorak zuzendaritzara eraman zuen papera.

– ¡¿Que los vascos tenéis hierro?!, pues yo os haré morder el polvo –bota zion prefektuak, idatzita zegoena irakurri zuenean.

Aste Santuko oporretako azken egunean, Berrizko Mesedeetako Misiolarien eskolatik dei bat jaso zuten Antsosolon. Ikernek prest zeukan uniformea, ondo lisatua, gelako aulki batean, eta maleta ere bai, egina, ohearen kontra.

– Ez dadila etorri –hori baino ez zioten esan Karmeni.

Aitona-amonek Zallako irlandarren eskolara eraman zuten orduan, pentsatuz han laxoagoak izango zirela haurren hezkuntzan eta ez zutela Erregimenarekin hain lotura estua izango. Ikernek ingelesez ikasi zuen.

Berrogeita hamar urte igaro izanak ematen duen talaiatik itzuliz gero Francoren erregimena finkatzen ari zen hamarkada hartara, deigarria egingo zaigu denbora, esan nahi baita egunen joana, ikaragarri mantsotu zela sasoi hartako biztanleentzat. Garaituak izan ziren haientzat arras pisua zen egunerokotasuna, inolako ilusiorik gabekoa, eta soilik beraien bizimodua hala edo bestela aurrera ateratzea zuten helburu, horretarako duintasuna galdu behar bazuten ere maiz. Begiratu batean badirudi ez zela gauza berezirik gertatzen ari, baina sakonean mugimendu handia zegoen. Azalean ez, azalean ez baitzituzten bi aukera besterik: edo etsipena edo erbestea, erdibiderik ez.

Disidentziak biziraun zuen esparru intimoan, hots, etxeetan, eta han, gerra galdu zuten familietan, han bai bazegoela su txiki bat piztuta, han bai egiten zuela epel, beldurrak eta ikarak erabat itzali ez bazuten. Diktaduraren erantzunaren hazia etxe barruan aldatu zen, gordean, ilunpean, urte batzuk barru berdatuko zen udaberriaren esperoan.

Karmen eta Frantzisko irrikaz egoten ziren bilobak etxean hartzeko. Oporretan izaten zen hori, udako oporretan oroz gain, eta bilobak beraiek ere, nola ez, desiratzen egoten ziren barnetegietako egunerokotasun ilun eta goibela utzi eta Antsosolora joateko, aitona-amonengana bai, baina batez ere bestelako mundu bat aurkitzera Ondarroan, mundu mitiko bat beraien begirada gazteetan, nahiz eta aitona-amonentzat herria, askotan, kartzela handi bat baino ez izan. Gaztetxoak libre sentitzen ziren Ondarroan, libre alde batetik bestera ibiltzeko, mendira joateko, hondartzara, lagunekin jolasean aritzeko. Letamendi-Urresti neba-arrebek gustuko zuten hori, edozerekin jolasteko aukera hori, eskoletako diziplina zorrotzetik urrun.

Amonak, oharturik bilobek gaztelaniara jotzen zutela sarritan eta euskara, erabiltzen bazuten, pobrea eta akastuna zela, erabaki zuen isun txiki bat jartzea gaztelaniaz hitz bat esaten zuenari. Amona baino bigunagoa zen arau horrekin Miren, Anita Mexikora joan zenetik Antsosolora laguntzera etorri zen neskatoa, inguruko baserri batean jaioa, Akilan hain zuzen. Horren biguna zen ezen ordaintzen ere berak laguntzen zien askotan.

Eguraldi txarra zenean, Antsosolo barruan aitonarekin desfileak antolatzen zituzten, kanpoko leiho oholak bildu eta leihoak ondo itxita, gudariak zirela irudikatzen zuten eta kantari ibiltzen ziren bata bestearen atzetik korridorean barrena, “ikusi mendizaleak...”. Desfileak egiteko jantzi egiten ziren eta zetazko paperarekin paperezko ikurrin txikiak josten zituzten, eskulan atsegina, Gaizka osabaren laguntzaz egiten zutena, abenduko oporretako egun euritsuetan. Afalostean, arrosarioa irakurtzen zuen amonak. Justu une horretan bertan, larritasuna sartu eta Gaizkak alde egiten zuen komunera.

Jonek begiko zuen Miren, eta elkarrekin ere egoten ziren maiz, eta gurasoek galdetzen zioten beren buruari ea lagunak baino zerbait gehiago ziren, Jon Venezuelara joan zelarik, argi geratu zena bestalde, Mirenek maiteminak jota ematen zuen-eta, garai bateko neska alaia, goibel.

Patxi txikiak gustuko zuen Antsosolo errekan bertan lan egiten zuen otzaragilearengana joatea. “Baldomin” esaten zioten otzaragileari, izen bereko Mutrikuko baserrian jaioa baitzen. Frantziskok laga zion etxe ondoko xirripan lantegitxoa jartzen, San Juan Txurru aldean. Emakumeek lixiba egiten zuten erreka

ere hantxe zegoen. Uretan beratzen uzten zituen zumeak, eta gero aizto handi baten laguntzaz xaflak ateratzen zituen, hanketan hartuta kiribildu egiten zituenak. Behin xaflak bata besteari lotutakoan, gaztaina egurrez egiten zien hegala.

Patxik laket zuen zume bustiaren usain sarkorra. Otzaragilearen hanka biluziei begira egoten zen, luzaroan, bere ondoan jarrita, ikusiz nola egoten zen hankagorririk beharrean.

– Zergatik begiratzen nauzu horrela? –galdetu dio Patxiri.

– Ez dakit, iruditzen zait eskuekin eta hankekin lan eginda, halako tximino antzeko bat zarela, saki aurpegizuri bat.

– Saki bat, zer ote da hori? Aurpegi zuria banaiz baina, hala ere...

– Venezuelan bizi den tximino bat, amak haren argazki bat bidali zidan bere gutunetako batean. Esku luzeak ditu, zuk bezala, eta ilez beteta dago. Beltzarana da baina begibitartea zuria du.

– Ni ez naiz sekula hemendik atera. Bizitza osoan lanean jardun dut, otzarak egiten, baina ez naiz kexatzen. Ez. Ni naiz neure nagusia, eta gauza handia da, oso jende gutxik esan dezake hori. Baina lana ez da

hain astuna izaten lagunak bisitan etortzen bazaizkit. Asko itsasgizonak dira eta gauza mordoa kontatzen didate. Orduan, bidaiatu gabe ere, gauza pilo bat dakit mundu zabalari buruz. Egunero ikasten dut zer edo zer.

– Eta gaur, zer ikasi duzu?

– Amak zure falta handia daukala.

114

Karmelek nolabaiteko kontsolamendua kausitu zuen Anacoko paisaiaren edertasunean, hain desberdina zen ordura arte ezagututako guztiaren aldean, zerikusirik ez Ondarroako ibar estuarekin, ezta ere Bilbo edo Paris hirietako jende zirimolarekin. Klima atsegina zen Anacokoa, epela, sub-tropikala. Arratsaldetan sortzen zen haize finak eguneko une goxoena bihurtzen zuen eguzkia ezkutatzen zen hura, arrautza gorringoa odolusten. Orduantxe itzartzen ziren animaliak aditzen zituen Karmelek, intsektu ñimiñoetatik hasi eta ugaztun handiak arte, denak batera deiadar, marru, korrok eta ziztu egiten; urlehortarrak, hegaztiak eta herrestariak orkestra erraldoi bat eratzen

denen artean, erabat harmonikoa, Anacoko gau izartsua zabaldu arte irauten zuena, ezari-ezarian notak amatatzeraino.

Petrolio putzuetan zauritutako gaixoak zaintzen ibiltzen zen Karmele, gehienak erredurak zituztenak, bateon bat sukar tropikalarekin, beste batzuk urdaileko arazoekin. Erizaindegian egiten zuen lanari esker gaixo horietako askorekin harremanetan jarri zen, baita mediku eta sendagileekin ere, bera bezala lo-hiri berezi hartan bizi zirenak. Gutxika-gutxika, lagun taldea handituz joan zen, eta gizatalde berezi hartan barneratzen, lagun minik egin ez zuen arren.

Esan beharrik ez da, ziurrena, lankide bat baino gehiagok Karmelerekiko erakarpena sentituko zuela, hain zen oraindik gaztea eta liraina, baina berak sekula ez zion inori utzi laguntasunaren muga zeharkatzen. Urtebetetze festetara ere, gonbidatu arren, oso gutxitan agertzen zen.

Gizonekin, esate baterako, bazkalorduan jantokian ohi baino atseginago agertzen baldin bazen, han denek zekiten zergatik zen, eta iritsi berriei ere halaxe gaztigarazten zieten.

– Ez ezazu itxaropenik egin. Ez dizu zuri irribarrerik egin. Seme-alaben gutuna jaso berri du eta horre-

gatik dago kontent. Zeruko ateak zabaldu zaizkio bat-batean.

115

Antsosoloko bizimodu geldoak aztoramen handia izan zuen aitona Frantziskok istripua izan zuenean etxeko urtegia konpontzen ziharduela. Gainera erori zitzaizkion harriak, ohol zatiak eta lohia. Baldomin otzaragileak askatu zuen anabasa hartatik. Geroztik beherakada izan zuen haren osasunak. Txolintzen ere hasi zen aitona, umetuta zegoen, pijama luzea jantzi eta, lotarako txano eta guzti, teilatura igotzen zen.

– Zer egiten duzu berriz ere hor goian?

– Oherako ordua da.

– Ez duzu afaldu behar?

– Prest al dago ba?

– Hori esatera etorri naiz.

– Zer daukagu?

– Berakatz zopa.

– Berehala noa.

Frantzisko lan egiteko moduan ez zegoenez, etxeko zamak arintzearren Karmen eskola partikularrak ematen hasi zen Antsosoloko liburutegian. Han inguruko umeak joaten ziren berarekin ikastera, otzaragilearen semea adibidez, eta baita Migel Anjel izeneko mutiko bat ere, urte batzuen buruan herriko alkate frankista bihurtuko zena.

Ondo sentitzen zen Karmen eskolak ematen, agian benetan asetzen zuen eginkizun bakarra zen. Matematikak maite zituen, Bilbora joaten zen bakoitzean behintzat matematika liburuak erosten zituen Verdes dendan.

Eskoletan, orria lerro batekin banatzeko agintzen zien umeei: ezkerraldean eragiketa ebatzi, eskuinaldean ebazpenaren arrazoibideak argitu. Eskolak bukatutakoan zigarro bat erretzen zuen, lasai ederrean, eta ahaztu egiten zituen une batez iraganeko eta oraineko neke guztiak.

116

Anitaren eta senarraren arteko harremana gero eta gaiztoagoa zen. Anitak Mexikoko jantokietan lan egi-

ten zuen, sukaldari. Eta senarra bere kasa ibiltzen zen, nagikerian. Arratsalde batean, Anitak, aurreratuta zuen dirua hartu eta Caracasera hegan egin zuen. Ezin zuen gehiago jasan. Hantxe zeukan zain Jon neba, Karmele hiriburutik urrun bizi baitzen.

– Banandu egin behar duzu –esan zion Jonek arduratuta–. Ez zoaz Mexikora bueltan. Onena Ondarroara itzultzea izango duzu, gurasoengana. Aita ahul dago eta zure laguntza eskertuko dute.

Ontziratu zen eta ailegatu zen halako batean Antsosolora. Baina han, ikusirik gurasoak estutasun ekonomikoan bizi zirela, eta haientzat ere traba izan nahi ez zuenez, Joseba nebarengana aldatzera deliberatu zen, Frantziako Itsas Alpeetako departamenduan dagoen Thorenc herrira. Madamme Dutz izeneko emakume batekin bizi zen han Joseba, Montecarloko Orkestran jo izan zuen biolinista baten alargunarekin. Biriketako gaitzak asko makaldu zuen Joseba, eta honek benaz eskertu zuen arrebaren laguntza.

“Zer egiten dute apaiz batek eta biolinista baten alargunak elkarrekin etxe berean?”, idatzi zion gutun batean Karmeleri. “Paseatu egiten dute, arteaz eta literaturaz hitz egiten dute”. Anitak bazekien, ordea, Karmelek irri egingo zuela lerro haiek irakurtzeaz ba-

tera, eta segituan gehitu zuen: “Tira, nik uste dut hauek biek...”.

Karmeleri ondo iruditzen zitzaion harremana: “Zer esango dizut, ba, edonolakoa izanda ere bien arteko harremana, gure nebaren zoriona besterik ez zaigu axola behar guri, Dutz andereak arnasa hartzea eragozten ez dion bitartean behintzat”.

Esan behar litzateke, agian, Josebaren eta Dutzen arteko harreman horrek antz handia zuela Thomas Mannen nobeletan edo Anton Txekhoven kontakizunetan ageri diren pertsonaiekin, inork ziur ez baitaki noraino diren platonikoak eta zenbateko elipsia egon den fisikoa ere izateko. Hain zuzen horrexegatik, Anita erne zegoen beti... azkenean deus ere ez jakiteko, noski.

“Josebaren ametsa Venezuelara joatea da, han elkarrekin bizi gaitezen anai-arrebak”, idatzi zion Anitak Karmeleri. “Halaxe esaten dit: Anita, prest daukat dokumentazio osoa, aliatuek emandako diplomak, kondekorazioak... Baina osasunak ez dit laguntzen bidaia luze hori egin ahal dezadan”.

Eta Karmelek honela idatzi zion Anitari, ez ironia gutxirekin: “Ez ote da izango Dutz andereak nahiago

duela Alpeetako freskura Ameriketako sargoria baino?”.

117

Gabonetako opor batzuetan, Ikernek eta gure ama izango zenak topo egin zuten kalean. Beroki berri batez jantzita zegoen gure ama, aitonak itsasoan udako kanpaina ona egin eta gero. Hizketan jardun ondoren, agur egindakoan, amak entzun zuen nola esaten zion Karmenek Ikerneri:

– Lasai, Ikerne, zuk ere izango duzu noizbait horrelako beroki bat.

Jarraian gure amak ez zuen entzun amonak eta biobak izan zuten elkarrizketa, Antsosolo bidean aienatu zirenean. Baina honen gisakoa izan zen...

– Badakizu, Ikerne, egunero joaten naizela mezetara.

– Bai.

– Eta badakizu Zapatandi bikarioak Pedro Arakama izena duela.

– Ez, hori ez nekien. Zegamakoa dela esan zenidan. Eta aitortza berarekin egiten duzula.

– Hori da ba kontua. Hauxe esan diot: “Jauna, gaur oraindik egin ez dudan bekatu bat aitortu behar dizut”. Eta bikarioa harritu egin da: “Oraindik egin ez duzuna?, nola liteke?”.

– Zer da, ipuin bat? –galdetu dio Ikernek amonari.

– Ez, ez, benetan gertatu da.

– Eta zer esan diozu orduan?

– “Aitortu behar dizut ez duzula ondo hitz egiten gaztelaniaz sermoian, ez dituzula aditzak ondo jokatzen”.

– Hara! Eta zer esan dizu berak?

– Ezer ez. Zapatandi aho zabalik geratu dela ikusirik, Patxiren eskutxoari oratu eta alde egin dugu.

Ondarroan zegoen alditan, Patxi bilobak laguntzen baitzion amonari mezetara. Gogo onez gainera. Elizaren kanpoan zeudela, munstroen irudiei begira egoten zen Patxi. Hegoaldera ematen duen fatxadan bada hegaleko ate bat, eta han, arrosa-leihoaren ezkerraldean, bada irudi izugarri bat: biluzik dagoen emakume bat irensten ari da herensugea. Patxik bere buruari galdetzen zion zergatik izan behar zuen bekatua emakume biluzi eder hura; eta pentsatzen zuen, herensugeari so, Anitaren senar ohiaren itxura zuela, bera ere

izeba irensteko zorian egon zen-eta, munstro itsusi halakoa!

118

Zallako ikastetxean bi urtez egon eta gero, udako oporretan, bizikleta karrera batean parte hartu zuen Ikernek Ondarroan. Berak ez zuen artean bizikletarik, baina osaba Gaizkaren *Bartali* hura hartuta egin zuen lehia Lekeition barrena.

Zaletasun handia zegoen garai hartan herrietan eta kaleak mukuru beteta zeuden karrera ikusteko. Aitona eta amona ere kalera atera ziren, bozkarioz, biloba korritzen ikustera.

Eta hantxe agertu zen helmugara Ikerne, karreristen artean lehena!, mutilen *Bartali* batean neska bizkorra. Lasterketa besoak gora bukatu ostean, aitona-amonengana hurreratu zen. Poz-pozik zegoen aitona, puztuta, harro, bilobarekin. Baina kexati amona:

– Nondik atera dituzu praka horiek? Ez al zegoen laburragorik?

Biharamunean, Thorencera joan zen Ikerne, osaba Joseba eta Anita bisitatzera. Han ezagutu zuen Dutz

andre misteriotsua ere. Eta handik, hegazkinez, Nizatik Londresera, Josebak ikastetxea lortu baitzuen ilobarentzat Surreyn; ostatua ere Josebaren eta Karmeleren lagun baten etxean hartuko zuen, Janine de Greefen etxean, Fernand eta Elvireren alabarenean. Haren senarra, Phil, tenientea da Britainia Handiko Armadan, eta kontatu diote elkar ezagutu zutela Comète sareak libratutako paraxutista zelako hura ere. Geltokitik etxera iritsi orduko, Ikernek jakingo du eraikinari euskal izena jarri diotela: “Txekaria”.

– Euskarazko izena da, bai, baina ez gara gogoratzen esanahiaz –esan diote.

Ikerne ere isilik geratu zen, artean ez baitzekien hitzak zer esan nahi duen.

119

Gauero bezala, lotaratzean, Frantzisko Urrestik esan zuen:

– Arazoak konpontzera noa.

Eta bertan geratu zen, ez zen esnatu 1955eko maiatzaren 30ean.

Bilobak ziklista karrera irabazi zuelako, aitona zoriontsu!, horixe izan zen Ikernek oroitzapenean gorde zuen haren azken irudia.

Karmelek Anzoategui aparteko hartan jakin zuen aitaren heriotzaren berri, erizaindegian luze eta astun lan egin ondoren posta zabaldu zuenean.

Bakarrik egingo du negar, karta eskuan duela, oholezko etxe zuriaren atariko eskaileretan eserita. Garrasi egingo dio oihanari, barru-barrutik egingo du heiagora, eta oihuarekin ikaratuta hegan hasiko diren hegaztien zalaparta izango da jasoko duen erantzun bakarra.

Denok batera berriro

120

Garai hartako bi superpotentziek, Estatu Batuek eta Sobietar Batasunak, mundu osoan nahi izan zuten eragin eta ahalegindu beraien aldera eramaten herrialde gehienak, eta horren ondorioz sortutako Gerra Hotzak nazioarteko mapa politikoa zeharo baldintzatu zuen, hainbeste ezen ez baitzen egon mundu zabalean zatiketa horretatik libratu zen naziorik. Euskal Herria ez zen salbuespena izan. “Bigarren Mundu Gerra bukatu berritan ezin zen igarri ere egin hurrengo hamarkadak, hots, 1945etik 1955era bitarteko urteek herri txikien bizitzan izango zuten eragin latza”, idatzi zuen Julio Caro Baroja antropologoak, “ez eta ere hirurogeiko hamarkadan piztuko ziren mutazio biolentoak. Euskal Herriak aldaketa hori nozitu du Europa Mendebaldeko gainontzeko herrialdeek adina, edo gehiago”.

Nahiz eta 1954an eta 1956an egindako greba orokorrak jendetsuak eta arrakastatsuak izan –Bilbon 50.000 langile atera ziren kalera eta 4.000 atxilotu

izan ziren–, nazioarteko giroa Francoren gero eta aldekoagoa zela ikusirik, Jose Antonio Agirrek kulturara jo zuen berriro eta, orduan ere Manu Sotaren laguntzaz, mundu mailako kongresu bat antolatu zuen Parisen: Euskal Mundu Biltzarra.

Lehendakariaren, eta bera buru zen belaunaldi osoaren, beltxarga-kanta gisa hartzen da gaur egun bilkura hura. Izan ere, 1944az gero OSSrekin lankidetza eten ostean, diru faltarengatik erbesteko Euskal Gobernuari eutsi ezinik zegoen Agirre, eta orduan, gehien behar zuenean, Mendebaldeko estatuek bizkarra eman zioten garai batean horren estrategikoa iruditzen zitzaien estaturik gabeko estatu-gizon hari. Jose Antonio Agirreren azken urteak desengainuaren urteak dira.

Manu Sotaren patua ere pareko joan zen. Senitartekoen aburuz, bere bizitza bitan zatitzen da. Bigarren Mundu Gerra bukatu arte guztiz aktiboa izan zen Manu Sota, Euskal Delegazioan, estatubatuarrekin harremanetan, espioitza lanetan, hara eta hona, gelditzeko astirik eta paradarik gabe. Aitzitik, gerra amaitu zelarik, goitik behera aldatu zuen bizitzaren norabidea. Miarritzen bizitzen jarri zen, Etcheferdian, euskal literatur lan klasikoak aztertzen eta hiztegi erraldoi bat egiten

–Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca–, ia etxetik irten gabe. Akzio-gizona izatetik espirituala izatera igaro zen. Garaitua sentitzen zen, engainatua, gogaitua. Ondorioztatu zuen politikak baino hizkuntza *zaharrak* indar eta zentzu handiagoa zuela, euskaldunek bizirik iraungo zutela hizkuntzak bizirik irauten zuen bitartean, eta euskara lantzen eta babesten emango zituen bere bizitzako gainontzeko urteak.

Garai hobeen esperoan, zaratatik urrun eta liburuen artean, egunen joanari norabide espiritual eta filosofikoa emanez, bere egin zuen, urte batzuk lehenago, Nafarroa Behereko Ibarrola herriko etxe baten atarian ikusi eta bere kaierera aldatu zuen inskripzioa:

Adiskideentzat lehenic,
Heltzen denean pobreric,
Etsaier, nor gabe denic,
Dener nago zabalduric.

121

Erbeste ekonomikoa jasaten duten ama guztien antzera, Karmelek amesten zuen Anacoko erretiroan

bere seme-alabekin berriro elkartu eta familia berrosatzea, oraingo honetan, Caracasen. Hutsetik hastea bezalakoa izango zen berarentzat. Lan on bat izan bazuen, eta bera arduratuko zen seme-alaben hezkuntzaz. 1957ko Gabonak bakardade osoan igaro ondoren, Mobil Oilen lekualdaketa eskaria egin zuen, Caracasko egoitzan beretzat tokirik ba ote zegoen, eta baiezkoa jaso zuenean, astirik galdu gabe, Ikerne eta Txomin seme-alabei eskutitz bana idatzi zien, esanez bukatu zela eskola eta barnetegien garaia, eta elkarrekin bizi behar zutela Venezuelan.

Karmelek kalkuluak eta aurreikuspenak eginak zituen. Pentsatu zuen, Mobil Oileko lekualdaketa uste baino gehiago atzeratuz gero, onena izango zela seme-alabak Caracasera iritsitakoan Jonen etxera joatea, beraien osabaren etxera, urteak baitzeramatzan nebak hirian bizitzen eta, maiteminez, Miren ere berarengana bildu baitzen, Anita Antsosolora lan egitera joandakoan etorritako neskato hura.

Jonek ez zuen sosik La Guairako kaira ailegatu zen egunean, bidaia txartelean xahutua zuen dena; eta beraz, portutik hiribururako bidea oinez egin behar izan zuen, errepidetik, maleta aldean zeramala, kamioilari bat gizonaz errukitu eta jaso zuen arte. Vene-

zuelako hainbat lekutan bizi izan ondoren, lan batetik bestera, azkenean lortu zuen Caracasen finkatzea. Eta hiriburuan zegoela, espero gabeko bisita bat izan zuen; Miren zen, abisatu gabe ozeanoa zeharkatu zuena –hark ere zeukan diru urria gastaturik–, pentsatuz Jonek estimatuko zuela berak egindako maitasunkeinu ikaragarria. Nahiz eta Miren zalantzati egon, gizon lirain eta prestua izaki Joni ez baitzitzaion ezkongairik faltako Caracasko euskaldunen eta ez euskaldunen artean, ondo atera zitzaion hartutako arriskua; berebiziko sorpresa izan zen Jonentzat eta elkarrekin egin zuten bidean aurrera, tartean bi seme jaiota.

Ilusioak eta pazientziarik ezak markatutako itxaronaldi luzearen ondoren, Caracasera iritsi zen Ikerne, eta osaba Jon eta izeba Mirenek etxean hartu zuten, Karmele Anacotik itzuli bitartean; eta gero, Chacaitora bizitzera joan ziren ama-alabak, hiriaren erdigunera, Anclemi deitzen zen eraikin batera.

Caracasen Ikernerekin berriz topo egin zuen goiz hura bizi osoan izango zuen gomutan Karmelek: nola besarkatu zuen alaba bere indar guztiarekin, nola nahastu ziren emozioaren urduria eta pozaren handia, nolakoak izan ziren ezustekoa eta barreak konturatu zirenean Ikerne ama baino zertxobait altuagoa zela.

– Jainkoarren, emakume bat eginda zaude-eta!

– Hemezortzi urte ditut...

– Baina zu beti izango zara nire alabatxoa.

– Zurea bezalako soineko moderno bat behar nuke...

– Utzi begiratzen! Argazkietan baino askoz politagoa zara!

Liluratuta zegoen Ikernerekin, eta bata bestearengandik bananduta igaro bazuten ere bost urtez, alabak transmititzen zuen energia baikor hark, edertasunak eta bozkarioak, erabat asebete zuten. Bai, orain bai, bizitza osoa zuten aurrean, bizitza zoragarria, eta inork ez zien galaraziko hura bete-betean bizitzea.

1958. urte hartan bertan, ama-alabak berriz elkartu eta pare bat hilabete geroago iritsi zen Txomin Letamendi Urresti ere, bigarren hezkuntza bukatu berritan Venezuelara abiatu baitzen itsasontziz egindako ostera ia amaigabean.

122

Konturatu ere egin gabe, Karmele, Ikerne eta Txomin ohitu egin ziren atzerriko herrialde hartan zuten

elkarbizitzara, beraien arteko banantzea gau luze bat besterik izan ez balitz bezala. Eta lantzean behin hirurak elkarri begira geratzen ziren arren, pentsatuz bezala “ze arraroa den hau!, eta ze ederra aldi berean!”, Caracasko eguneroko bizitzako trenean sartu ziren eta ezinbestean aurrera eraman zituen hirian barrena.

Euskal Etxean itzal handia zuen Karmele Urrestik, begirune bereziz tratatzen zuten, denek zekiten-eta Txomin Letamendiren alarguna zela, Venezuelako erosotasunak laga zituztela Francoren aurka borrokatzen segitzeko; hildako senarraren argazki bat ere jarria zuten hango saloian, omenduz horrela borroka antifrankistan eta Euskal Herriaren alde egindako ahalegina.

Gainontzeko euskaldunak bezala, maiz joaten ziren Euskal Etxera, igandero behintzat bai, izan ere erbesteratuentzat hura zen aisialdirako zuten elkargune ia bakarra; baina Karmele ez zuen betetzen giro hark, ematen zuen-eta etengabe atzean utzitako bizitzari begira zeudela, itzultzea amesten eta egunean bizi gabe. Egurats hertsia begitantzen zitzaion hangoa Karmeleri. Eraginik izango zuen horretan Jesus Galindez euskal agentea New Yorken bahitu eta hiltzeak ere, CIAren oniritziarekin gainera, izu-laborria zabaldu

baitzen ondorioz euskal diasporan, babesgabe sentitzen ziren, kaltebera. Caracasen euskaldunek euskaldunekin izaten zituzten harreman estuenak, eta urteak igaro ahala fosildua zirudien denak, galdutako paradisuaren nostalgiak estaltzen zuen atmosfera, halako irrits ezin ase batek. Eta Karmelek nahiago zuen aurrera begira ibili.

Seme-alabek, ordea, lagunekin elkartzeko eta ondo pasatzeko toki bat legez ikusten zuten Euskal Etxea. Antolatzen ziren ekintzetan parte hartzen zuten, zirela euskal dantza saioak, zirela pilota partidak, dena delakoa. Ikerne, bestalde, lanean ere hasia zen, idazkari gisa Mobil Oil konpainian, eta soldatak ematen duen konfiantzarekin batera hasi zen bizitzen gaztaroko urte zoroak, non gauza guztien gainetik agintzen duen maitasunak.

123

Caracasen bertan, baina Euskal Etxeko girotik aparte, Karmelek adiskidantza sakondu zuen Txominen ezkutuko taldean ibili zen gizonezko batekin, Andima Ibinagabeitiarekin. Ihes egin eta erbesteratu

zenez geroztik, itzultzaile lanetan murgilduta zegoen, kulturgintza suspertu nahian; ordu luzeak ematen zituen latinezko klasikoak euskarara ekartzen: Virgilio, Katulo, Ovidio.

Andimak bazuen damu bat Karmeleri aitortzeko:

– Ez genuen Txomin Bartzelonara bidali behar. Erabaki inozoa eta egoista izan zen gure partetik. Nahikoa egina zuen ordurako. Ez dakit, haren kide gisa, nolako ardura har dezakedan haren heriotzan, baina jakizu, Karmele, barru-barrutik sentitzen dudala.

– Ez zen zuen errua izan. Zeurea ez behintzat. Badakizu nolakoa zen Txomin: errebeldea, inkonformista. Ezin zuen beste alde batera begiratu. Horrelakoxea zen, eta kito. Ezin zuen bizi diktadurak berarekin zerikusirik izango ez balu bezala, lasai ederrean, mugitu gabe. Bizitzak aukera onak eman zizkion, Canarok Parisen, gero hemen Sangroniz ziztrin hark... Bazenekien, ezta?, erosi egin nahi izan zuela. Tira, aukera onak izan zituen, baina Txominek zirt edo zart egiteko gogoa zeukan. Musikari bat besterik ez zen, baina musikari engaiatua.

– Txominen heriotza kolpe oso latza izan zen guretzat guztiontzat, horixe bakarrik esan nahi nizun. Jabe-

tzen naiz kontsolamendu eskasa dela zuretzat, baina galera ikaragarria izan zen benetan.

– Badakit, Andima. Baina Txominentzat garaiz egindako atzera-egitea sekula ez zen garaipena. Toki guztietan daude horrelako pertsonak, bizitza osoan borrokatzen direnak. Eta normalean beraien bizitza ez da luzea izaten. Bartzelonan izango ez balitz, Madrilen harrapatuko zuten, edo bestela beste edonon. Ezin zion grinari eutsi.

Lehendabiziko enkontru haren ondoren, Karmelek lagun fidel eta handia ikusi zuen Andimarengan, Euskal Etxetik apur bat aldentzen zuen gizon kultua eta geldigaitza. Ibinagabeitia ilobekin bizi zen Caracasen, baina batzuetan ematen zuen Karmeleren familiako kidea zela; beraiekin batera joaten zen hondartzara, meriendak egiten zituzten harrizko bankuetan eserita, Karmelek gustura igarotzen zituen orduak politikaz eta kulturaz hizketan, isilpeko solasaldiak ere bai ez kontatzeko modukoei buruz. Egiazko lagun bat bihurtu zen Andima, eta osaba antzeko bat seme-alabentzat.

Andimak Ikerne ingelesez hitz egiten entzun zuen estreinako aldian harrituta geratu zen neskaren hizkerarekin eta ahoskatze mailarekin. Hiriburuko terraza

batean Karmele, Andima, Txomin eta Ikerne afaltzen ari zirela, lanetik ezaguna zuen estatubatuar batekin ingelesez mintzatzen hasi zen Ikerne, naturaltasun osoz, hainbat ezen bere mahaikideak txundituta laga baitzituen.

– Non ikasi duzu horrela berba egiten? –galdetu zion Andimak.

– Ingalaterran. Nire bizitzako urterik onena izan zen.

– Aristokratek bezala egiten duzu.

– Zoragarriak ziren beren etxean hartu nindutenak. Ingeles peto-petoa zen Phil, lord bat zirudien. Kontatzen zituen gauzen arabera, bazirudien Londres osoak ezagutzen zuela. Pentsa, Churchillen alaba ere haren adiskidea zen, Sara Churchill...

– Oso ondo portatu dira gurekin –esan zuen Karmelek.

– Askotan gogoratzen ziren zurekin, ama. Eta zer esanik ez osaba Josebarekin...

– Abade klandestinoa!

– Sussexko etxeari ere euskarazko izena ipini zioten!, Angelun bizitako urteak gogoan.

– Zein izen? –Andimari jakinmina piztu zitzaion.

– “Txekaria”. Baina ez zekiten zer esan nahi duen...

– Eta zer esan zenien zuk?

– Ni isilik, nik ere ez nekien-eta!, zer nahi duzu egitea. Bururatu zitzaidan agian “Txekaria” horretako *txe* hori “etxe” hitzetik etorriko zela. Auskalo...

– Iparraldean erabiltzen den “xerka” aditzetik dator ziur aski. “Txekaria”, beraz, izango litzateke “xerkaria”, bila ari dena, “the seeker” ingelesez.

– Guri ondo datorkigu izen hori –esan zuen Karmelek–. Bizitza osoa bide berriak bilatzen, mundu berri baten xerka.

124

Lehendakariak, noizbehinka, Gobernuak Parisen zuen egoitza utzi eta bidaiak egiten zituen euskal presentzia nabaria zen herrialdeetara, Latinoamerika aldera gehienetan; eta lehenago urte batzuetan izan zuen baikortasuna jadanik erkideen artean zabaldu ezin bazuen ere, 50eko hamarkadaren bigarren erdialdean bere betebeharra izaten zen, alde batetik, iraun-

kortasunaren garrantziaz ohartaraztea eta, bestetik, Gobernuari eusteko behar zuen diru bilketak egitea.

Caracasen egona zen 1957an, Euskal Etxeak hamabost urte betetzen zituela ospatzearren, eta 1959ko martxoaren 28an atzera itzuli zen Venezuelako hiriburura, Aberri Egunaren bezperan.

Biharamunean, Euskal Etxeko lorategian meza entzun eta gero, hitzaldia egin zuen Lehendakariak, beti bezain kementsu, beti bezain argi, nahiz eta bertaratu zirenei agian iruditu errepikatu egiten zela ideietan, agindutako egoera berria asko atzeratzen ari zela, halabeharrez. Lehendakariari entzun ostean zelaian geratu ziren bildutakoak, elkar agurtu eta solas egiteko.

Une hartakoa da argazkia, oso gertutik egina. Lau lagun ikusiko dituzu irudian, Karmele Urresti eta hiru gizonezko: Jose Antonio Agirre, Santiago Aznar kontseilaria eta Lucio Aretxabaleta, Gobernuaren Venezuelako ordezkaria. Karmele zuriz jantzita dago, mahukarik gabeko soineko batekin, bitxi-orratz bat paparrean, eguzkitako betaurreko beltzak, arras dotore eta modako. Apur bat nekatuta antzematen zaio Lehendakariari, bera da berbetan ari dena. Serioski begiratzen dio Karmelek, ezpainak estu, irribarrerik gabe. Bien arteko hitz trukea azalekoa izan da, elkarri

dena esanda edukiko balute bezala, dena jakingo balute bezala batek besteari buruz. Lau lagunetatik inork ez du Letamendi aipatu, baina denak gogoratu dira Letamendirekin.

Bazkalostean Karmele Lehendakariarengana hurbildu da, Txomin eta Ikerne seme-alabak aurkeztu nahi dizkio-eta. Bozkarioz daude gazteak, ez dakite Karmelek dakiena, zelako estutasunak igaro zituen aita kartzelan eta hilzorian zegoenean, zenbat gutun idatzi zizkion laguntza eske. Seme-alabek ez dituzte zauri horiek, garbi dute bihotza.

Agirre beti da arretatsua. Lanari buruz itaun egin dio Ikerneri eta ikasketei buruz Txomini. Baina Ikernek badu zerbait gehiago, eta ezin dio eutsi esateko gogoari.

– Lehendakari jauna, ezkondu egingo naiz udazkenean.

– Hara!, berri ona da hori. Nongoa duzu zorioneko senargaia?

– Bilbotarra, baina hemen bizi da aspalditik. Rober Diaz Mata, *Txapartegi*. Gerra Zibilean *Habana* ontzian alde egin behar izan zuen umeetako bat.

– Ondo gogoan dut une lazgarri hura –esan dio Lehendakariak–, ez ditut une lazgarriak sekula ahazten.

Pozten naiz orain zoriontasuna aurkitu duelako neska jator batekin.

– Eskerrik asko, jauna. Ilusio handiz gaude. Euskal Herritik etorriko dira nire neba txikia Patxi eta Ondarroako amona. Egun berezia izango da.

– Zure bataio egunean izan nintzen, baina tamalez ezin izango dut zure ezteietara etorri...

– Oso atsegina zara.

Txominek aldiz, Ikerne baino lotsatiagoa izaki, hitz gutxi trukatu zituen Lehendakariarekin, baina miresmenez begiratzen zion, haren mugimendu guztiei adi. Agirrerekin berbetan jardun zuten ia guztiei ere galdetu zien haiei zer esan zien; eta halaxe kontatu zion, adibidez, Lehendakaria Euskal Etxera gidatu zuen guardiak, motorbizikletaz aurretik joan ohi diren horietako batek:

– Zuen lehendakari hori munduko azken puntaraino berarekin joateko modukoa da.

– Zergatik ba?

– Bere bila iritsi garenean, bakoitzari galdetu digu gure izena eta zer moduz dagoen gure familia. Inoiz ez du halakorik egin ezein politikarik.

– Adeitsua da, bai, asko maite dute denek.

– Baina harrigarriena izan da, gero autotik jaitsi denean eskerrik asko esanez agur egin digula, betiko bere guardia bagina bezala.

– Beharbada hori da zuregandik espero duena, betiko akorda zaitezen.

Lucio Aretxabaletak alde egin zuelarik Jose Antonio Agirre une batez jantokian bakarrik utzita, horman zintzilik zegoen Txomin Letamendiren argazkiari begira geratu zen, pentsakor. Eta zigarroa amatatu eta hasperen egin zuen, adoreak huts egin balio bezala. Eta bakartu egin zen. Eta pentsatu zuen noraezean dabilen itsasontzi baten buru zela beharbada, *Alsina* izeneko ontzi haren gisakoa, zeina 1941. urtearen hastapenean norarik gabe egon baitzen 441 egunez, eta hantxe zihoazen bere arreba Maria Teresa Agirre, eta Telesforo Monzon adiskide eta kontseilaria, eta Lucio Aretxabaleta bera, eta baita Niceto Alcala Zamora zaharkitua ere, Espainiako Errepublikako lehen presidentea izan zena. Eta ontzi hark tira-bira biziak izan zituen moduan, halaxe Alderdiak ere, gauzak aldatzen ari baitziren Alderdiaren barruan. Belaunaldi berriek beste era bateko politika aldarrikatzen zuten, lemakolpe bat euskal politikagintzaren norabidean. EAJtik zetozen gazte batzuek ETA sortu zuten 1958ko aben-

duan; eta tartean zen Julen Madariaga Agirre ere, Maria Teresaren iloba, umetxo bat zelarik *Alsina* ontzi hartan erbesteratutakoa.

Garai berri bat hastear zegoen euskal nazionalismoaren historian.

125

1959ko uztailaren 13an, Ikerneren urtebetetze egunean hain zuzen, amona Karmen hil egin zen Ondarroan. Ezin izan zuen bere azken ametsa bete, Ikerneren ezkontzara joatea, alegia.

Beste askotan bezala, uztaileko arratsalde hartan ere elizan sartu zen Patxi bilobarekin, baina han ondoeza sentitu zuenez, atera egin behar izan zuten presaka, eta elizapeko plazatxoan zegoen tabako-denda batera eraman zuten, gela itsu batean etzanarazteko. Hantxe bertan, Patxiren esku txikiari helduta, utzi zion arnasa hartzeari.

Ilundu zenean, Gaizka semeak eta haren lagun batzuek Karmenen gorpua eserleku luze batean jarri eta tabako-dendatik Antsosolora garraiatu zuten.

Ezbeharrak, hala ere, ez ziren hor bukatu. Handik gutxira Joseba Urresti hil baitzen Alpeetan zuen txokoan.

Antsosolo ezagutu nahi izan zuen Madamme Dutzek, eta han hiru hilabetez bizitzen egon zen, dolua pasatzen. Ordurako, urrestitarren familia zabaletik, Gaizka baino ez zen geratzen Ondarroan.

Azkenean, Venezuelara joandako hiru seme-alaben artean ezinegon eta zalantza handienekin lehorreratu zena Patxi izan zen, hiruretan gazteena. Egiatan, Patxik ia ez zuen gomutan hartzen ama nolakoa zen –zazpi urte baino ez zituen Karmele Ameriketara joan zenean–, eta bere aurpegiaz gogoratzen bazen, Antsosolon zeukaten argazki bati esker zen. Semearen nahasmenaz berehala jabeturik, Karmele geldo hurreratu zitzaion eta, luzaroan elkarrengandik aldenduta egon ez balira bezala, txantxetan hasi zitzaion:

– Zer, Patxi, hau Ondarroako Kale Handia baino pixka bat handiagoa da, ezta?

Ahaztuta zeukan amaren ahots sendoa bat-batean entzuteak barrenak mugiarazi zizkion mutilari. Karmelek amultsu besarkatu zuen eta Patxik utzi egin zion; begiak itxi besterik ez zuen egin, amari zerion lurrin lasaia usaintzen zuen bitartean.

Egun hartan Patxik ez zuen negarrik egin. Karmelek bai ordea.

Urte zoriontsuak

126

Berrogeita hamasei urte zituela Jose Antonio Agirre lehendakaria 1960ko martxoaren 22an hil zela jakin zuenean, minbiziz gaixorik baina uste baino goizago, Parisen, sorlekutik urrun, gaitzak halako garapen laster eta ankerra izan ostean, tristura eta zurztasun sentipen bat zabaldu zitzaizkion gorputz osoan Karmele Urrestiri, politikari gisa miresgarria izateaz gainera berarentzat batez ere pertsona maitatua baitzen, haren hurbiltasunarengatik, harekin igarotako une zail eta zoriontsu guztiengatik, eta berehala konturatu zen gidari argirik gabe geratu zela euskaldungoa, hogeita hiru urtez gidaritza irmoa izan eta gero. Iruditu zitzaion, Lehendakariari heriotza iritsi zitzaiola nozitzen zuen nahigabearengatik, nekatuta zegoelako, halaxe ikusi zuen-eta Caracasera egindako azken bidaia hartan, ahul, sekula ez bezala, malenkoniatsu, jabetu zelako bazterrean utzi zutela behinola ondoan izan zituen potentzia horiek, igartzen zuelako haientzat Eus-

kal Herria euli-kaka zela orain, Gerra Hotzaren erdian, ikusezina erabat. Karmelek pentsatu zuen, haren ametsa ahitu egin zelako hil zela nolabait, nahiz eta medikuek esan egunero erretzen zituen zigarroek sortu ziotela minbizia.

Caracasko euskal jendartean halako goibeltasun eramanezin bat nabari zen. Jakinminez jarraitzen zituzten Paristik zetozen berriak, Donibane Lohizuneko hiletako argazkiak ikusi zituzten egunkarietan, nola eraman zuten zerraldoa Gambetta kalean gora, segizio luzea hilerriraino, eta nola ehortzi zuten kanposantuko bazter batean, harrizko hormaren kontra, granito gorrizko hobian. Hegal batean, lauza batean zizelaturik, Gernikako Arbolaren aurrean egin zuen zina: “Jaungoikuaren aurrean apalik, euzko-lur gañian zutunik, asabearen gomutaz, Gernikako zuaizpian nere aginduba ondo betetzia zin dagit”; apalik, batez ere apalik, baina Jainkoaren aurrean soilik; munduaren aurrean ez, Historia letra larriekin idazten den horrek baztertu izan arren; eta, mingarriena zena, indartzen ziharduen diktaduraren aurrean ere ez. Eta han zeuden Agirreren gorpuaren aldamenean gobernukideak eta politikariak eta eliza-gizonak... denak gizonak. Hantxe Jesus Mari Leizaola, Agirreren ordezkoa, Le-

hendakari berria, inolaz ere haren itzalik lortuko ez zuena.

Argazkian agertu barik, koadrotik kanpo, bi kale gorago eta hilerriko muinoan, Manu Sota, txapela buruan eta gabardinaren lepoak altxatuta, hasi berri zen bedatse hotz hartan, negarrez, bazterrera zegoen kultura-gizona, hainbat egun eta gau Agirrerekin batera igaro zituen idazlea, Agirre mundu mailako aktore bihurtu zuen antzerkigilea, bera, politikarekin ahitu zena, ikusten zuena bazetorrela belaunaldi berri bat, kontentagaitz zegoena beraiekin, beste erreferentzia batzuk zituena gogoan, Estatu Batuak ez, Erresuma Batua ez, Frantzia ez, beste norabaitera begira zegoena, potentzia handiei baino txikiei, deskolonizazioaren osteko mundu berriari, Agirrek eta Sotak Euskal Herria lehen mailako bilakatu nahi izan zutenean, aitor zion bere buruari orain, beharbada xalotasun handiegiarekin jokatuz. Bai, gazteak munduko txikiei begiratzen hasiak ziren, Kubako iraultzari, Aljerian sortzen hasi ziren liskarrei, Israelgo estatuari, nola bi mila urtean erdi itzalirik egon zen sugar mendrea, hizkuntza, hebreera, berreskuratu zuten; eta Manuk pentsatu zuen hori ere ez zela guretzako lekua, euskaldunon neurria beste nonbait zegoela, agian handien artean ez baina

txikien artean ere ez, erdian, denekin batera baino, eta horrexegatik tokirik gabe ikusten zuen bere burua, hileta hartan bezala, bi kale gorago, hilerriko muinoan, lagunzurtz, maite zuelako Agirre, nahiz eta askotan eztabaidatu berarekin, nahiz eta sarritan uste izan zatiaz ausartago jokatu behar zuela, eta maite zuen hala eta guztiz, zuzena zelako, etikoa zelako, baina batez ere fidela, ez zituelako bera eta beralakoak inoiz bazterrera utzi, hil arte.

127

Oso gertu sentitu zituen heriotza haiek guztiek samina sortu arren, argi dago Karmele Urrestiren bizitzako urte lasaienak eta, beharbada, zoriontsuenak 1960. hartan hasi zirela, Agirrek hilondoan emandako opari bat balira bezala.

Mobil Oil konpainiak bere departamentu guztiak Caracasko eraikin itzel bakarrean zentralizatu zituenez, handik hirurehun bat metrora dagoen Urbanización Miranda delakora joan ziren bizitzera. Euskal konstruktore batek egina zen urbanizazioa, bost eraikin luze eta erdian lorategia. Ikerne ezkondu zen arte

elkarrekin bizi izan ziren Anita, Ikerne, Txomin, Patxi eta Karmele. Bi logelako etxea zen. Anitak Ikernerekin lo egiten zuen ohe batean eta bestean Karmelek bi mutilekin.

Astegunetan atsedenik gabe lan egingo du Karmelek Mobilen eraikin itzel horretan –baita Ikernek ere, baina beste solairu batean–. Txomin, bere aldetik, teknikari lanean hasiko da General Motors-entzat, Estatu Batuetatik La Guairara datozen milaka autoren azterketak eta txostenak egiten. Eta Patxik oinarrizko ikasketak segituko ditu, Anitak jantokietan beharrean diharduen bitartean. Lehenago ezagutu ez dituzten aurrerapen teknikoak dauzkate etxean: garbigailua, tupperrak, mikrouhin labea... azken hau Anitak, zer gerta ere, sekula erabiliko ez duen arren.

Asteburuak elkarrekin egotekoak dira. Larunbatean, goizean goiz jaiki eta etxea garbituko dute denen artean, automobila parkera eroan eta xaboi urez igurtzi, eta distiratsu utzi ondoren azokara arraina erostera, itsaso bete arrain, “zuek pentsio baten jabe izan behar duzue gutxienez” saltzaileak esateko moduan. Lantzean-lantzean oihalak erostera joango dira, Anitak eta Karmelek bi-biek baitakite ondo josten. Eta Patxik, etxeko txikienak, amari lagunduko dio

txertoa derrigorrez egunero hartu behar duten gaixoei bisita egitera.

Igandeetan, berriz, Euskal Etxera: aurrena lorategian meza entzutera eta ostean frontoira, pilota partidetara. Eta pixkanaka, gero eta gehiagotan, Txominek eta Patxik nahiago izango dute beisbolean jokatzera lagunekin joan.

Caracas argitsuan beste moral bat zegoen, gazteen sexu harremanetarako ere zabalagoa. Patxik inoiz esan didanez, “han ez genuen sentitzen pisurik”, eta neurri batean lortu zuten iragan gordina ahaztea, nahiz eta aitortu behar ez zirela jendartean zeharo integratu, “handia baitzen atzean utzitakoa”.

128

Karmelek senarraren txikitako lagun bat ezagutu zuen: Juan Olazabal. Administratzailea zen Lorenzo Mendoza Fleury izeneko garagardogile baten enpresan eta, beraz, egoera ekonomiko paregabean zegoen. Ikerneri Juanek berak utzi zion Chrysler dotore bat ezkontzarako, eta jantzi ere hantxe jantzi zen Juanen etxe apainean, eta handik abiatu ziren elizara.

Gizon hark estimu handitan zuen Karmele eta, batzuetan oharkabean, besteetan nabarmen, saiatzen zen berarentzat bizimodu berri bat bilatzen. Igande batez, mezaren ostean, Iorategian elkarrekin paseatzen zebiltzala, bidezidor honetatik irristatu zen solasaldia...

– Letamendi argia, Letamendi bizia, kaleko mutilik bizkorrena zen. Haren atzetik ibiltzen ginen denok.

– Bai, neu ere eraman ninduen atzetik.

Olazabalek besotik heldu zion Karmeleri, geratzeko keinua eginez.

– Karmele, biok maite genuen Txomin. Baina iritsi da bizitza berri bat hasteko unea. Zugan biziko da beti, baina gaztea zara oraindik, berrogeita bost urte ez da ezer, bizitzaren erdia duzu aurretik.

Eta aurrera eman zuen urratsa Karmelek.

– Umeak ditut. Ahizpa bat.

– Umeak? Bizarra dute lepoan! Horiek laster ihes egingo dute etxetik, Ikernek bezala.

– Ez zaizu arrazoirik falta. Baina arduratuta eta tarrapatan ibili izan naiz orain arte. Utzi egidazue egunean egunekoa bizitzen, astiro, patxadan.

Olazabalek ez zuen amore eman nahi.

– Sumatuko zenion... Judu estatubatuar hori, Golob, txoro-txoro eginda daukazu. Antolatuko dizuet hitzordua nahi izanez gero. Gizon atsegina da, kultua eta diruduna.

Eguzkitarako betaurrekoekin babesturik, urrunera begiratu zuen Karmelek.

– Ez dakit, Juan.

– Baina konturatzen al zara zenbat diru duen?

Karmelek betaurrekoak kendu zituen.

– Golob etxerako modukoa da, ados. Baina, esadazu, zeri buruz berba egingo nuke berarekin?

129

Txominek General Motorsen zeukan soldata ona izan arren, Karmelek nahi zuen semeak unibertsitate-ikasketak egitea, Estatu Batuetan, ahal balitz. Eta halaxe, ekinaren ekinez, lortu zuen Mobil Oilek Fullbright beka bat ematea semeari Louisianako Estatu Unibertsitatean Ingeniaritza ikasketak egiteko 1962-63 ikasturtean. Han joan zen Baton Rougera, artean John Fitzgerald Kennedy presidenteari burua tiroz lehertu ez ziotenean.

Eskolak hasi berri, Txominek Sarasua izeneko gazte bat ezagutu zuen unibertsitatean, Julito Sarasua, eta galdetu zion abizen hori izanda euskalduna zenetz –izen-abizen bereko ezagun bat ere bazuen-eta, eibartarra–, eta hark ihardetsi: “euskalduna bai, baina Kolonbiakoa”. Sarasua eta biak lagun egin ziren. Gazte azkarra zen Julito kolonbiarra, iaioa matematiketan.

Campusetik paseoan zebiltzan batean, Estatu Batuetako Armadako errekrutatze bulego batera sartu ziren elkarrekin.

– Gauza bat galdetu nahi diet.

– Ziur al zaude? –esan zion Txominek, ikaraturik.

Batere lotsarik gabe galdetu zion militar bati:

– Armadan sartuz gero ikasketak ordainduko dizkidazue?

– Hala da, bai.

– Ongi da, Julio Sarasua naiz, paperak beteko ditut –eta aurrerantzean estutasun ekonomikorik ez zuen izan kolonbiarrak.

60ko hamarkadako Estatu Batuetan eskubide zibilen borrokak indarra hartu zuen. Ikasturte hartan, Mississippiko Unibertsitatean lehendabiziko afroamerikarra sartu zenean, James Meredith, liskarrak izan ziren,

segregazionistek Armadaren aurka egin baitzuten Meredith unibertsitatera sar ez zedin. Txominek orduan hartu zuen arrazakeriaren kontzientzia. Unibertsitateko ikaskide txurien artean entzuna zuen, autoz zihoazenean beltzen bat zebrabidea zeharkatzen ikusiz gero hura zapaltzeko ahalegina egiten zutela.

Txominek ezin du sinetsi. Sartu da txuri bat autobusean, ikusi du beltz bat barruan, haren parera iritsi eta alboan eseri zaio. Txoferrak, haserre, beltzari kolpe egin eta atzeko aulkietara bidali du. Itxuraz, beltzek beti joan behar dute gutxienez eserleku bat atzerago. Giro arrotz hartan, Txominek ez du bere lekua aurkitzen Baton Rougen, oso deseroso sentitzen da, eta bere ingeles maila baxuak ere ez dio asko laguntzen. Goiz batean unibertsitateko kafetegian gosaltzen ari dela, gizonezko bat hurreratu zaio erronka jotzen:

– Tira, egidazu lekua, zoaz txokora!

– Baina, baina, a ze itxura dakarzun! Ez zaitut ezagutu ere egin.

Julito Sarasua da, ate bat baino tenteago, militar jantziz.

– Eta?, zer moduz Armadan?

– Primeran! Inork ez dauka ideiarik ezertaz, tontoz beteta dago. Nagusia naiz ni han. Baina beldur naiz Khrustxovekin eta Kubako misil horiekin ez ote den gerra sortuko. Eta zu, Txomin, zer moduz hemen? Ni joan nintzenetik asper-asper eginda, ezta?

– Egia esan behar badizut, oraintxe bertan pentsatzen ari nintzen dena haizea hartzera bidali eta Caracasera itzultzea.

Mobil Oilekoek behin eta berriz aholkatu bazioten ere eusteko, denbora kontua zela ingelesa behar bezala menderatzea, ez zien jaramonik egin. Amak ez zuen ulertu semearen erabakia, eta haserretu egin zitzaion, baina Txomin bueltatu egin zen Caracasera, egoskor. Viasa, Venezolana Internacional de Aviación, hegazkin konpainian lortu zuen lana segituan, eta han aritu zen sei urtez, merkantzien sailean. Konpainia erraldoia izaki, mundu mailako beste batzuekin akordioak zituen, esate baterako, Estatu Batuetako Panamekin; eta horrek hegaldiak libre antzean egiteko parada eskainiko zion, edozein parajetara, baita Euskal Herrira ere.

Hizkuntza hiltzeko beldurrak, izu-ikara horrek zeharkatzen du euskal literatura osoa, 1545ean argitaratutako lehen liburutik. Hastapeneko poema liburu horretan Beñat Etxeparek mundu mailako beste hizkuntzen pare jarri nahi du euskara, nabari baititu gutxiespena eta zanpaketa, eta teknologiaren baitan –kasu hartan inprentan– ipini du itxaropena. Euskara desagertzearen ikara, bistan da, areagotu egin zen Francoren diktadurapean, aurreneko urteetan batik bat, debekatua eta baztertua izan baitzen, eta makurragoa dena, duintasun gabetua; ezertarako balio ez zuen hizkuntza bilakarazi nahi izan zuten, iraganeko gauza bat, erabilgarria ez dena bizitza modernoan, ezer konpontzen ez duen traste zahar bat balitz bezala.

Andima Ibinagabeitiak gutxiespen eta zokoratze haren kontzientzia handia zeukan. Caracasko Euskal Etxean bertan oso gutxi egiten zen euskaraz, gaztelaniazkoak ziren euskaldunen arteko harreman ia guztiak. Eta saiatzen zen egoera horri nolabaiteko bira ematen: meza itzuli zuen apaizek euskaraz eman zezaten, sermolari euskaldunak bilatzen ahalegindu zen, euskara ikasteko metodoa asmatu eta erabili ere egi-

ten zuen. Ez hori bakarrik, inguruko jendearengan euskararekiko jarrera baikor eta aktiboa sustatzen zuen etengabe. Andimaren txaplata gehien eta gogo onez jasan zuenetako bat Martin Ugalde idazlea izan zen, urte haietan bera zen-eta kultur erreferentzia bereziena Caracasko euskaldunentzat. Ugalde, erbesteko Gobernuko lehendakariorde izango zena geroxeago, Venezuelan kazetari eta idazle ezaguna zen, batez ere *Elite* aldizkariko erredaktore-burua zelako eta lantzean behin gaztelaniaz argitaratzen zituen kontakizunengatik.

Euskararen Egun batean, Martin Ugaldek hitzaldia egin zuen Euskal Etxean, “Unamuno eta euskara” izenburuarekin, baina gaztelaniaz. Martinek Andima asko estimatzen zuenez, hitzaldia zer moduzkoa iruditu zitzaion galdetu zion.

– Jendeak txalo egin dizu –erantzun zion ironiaz Andimak–, baina nik ez dut ezertxo ere ulertu.

Andimaren ekite horren ondorioz edo, Martin Ugaldek *Iltzaileak* ipuin liburua argitaratu zuen 1961ean Caracasen, gaurko kritikarien ustez ipuingintza errealista euskaraz lantzen aitzindaria. Gerraosteko gertakizunak dira liburuan azaltzen direnak, klandestinitateari eta Poliziaren oldarrari buruzkoak. Ipuinen artean

bada bat, “Arrak eta emeak” izenekoa, Txomin Letamendiri gertatutakoa gogorarazten duena. Letamendiren kasuaz ari ote da? Nork kontatu ote zizkion gertakari horiek guztiak Martin Ugalderi? Andima Ibinagabeitiak agian? Ez dut uste Karmele izango zenik.

Ibinagabeitia pertsona zabala zen, besteen ideiak begirunez onartzen dituenetakoa, euskararen aurka egiten ez zuen bitartean. Parisen 50etako hasieran Jon Mirande poetaren adiskide egin zen; honek, euskaraz eta labur, Vladimir Nabokoven *Lolita* nobelako istorioarekin antzekotasun suerte bat daukan kontakizuna idatzi zuen, *Haur besoetakoa*, errusiarrak idatzi zuen garai bertsuan; lehen euskal nobela modernista dugu, baina inork plazaratu nahi izan ez zuena –Gabriel Arestik argitaratu zuen arte urte asko geroago, 1970ean–. Kontu da, Jon Mirande gaizki ikusia zegoela kultur giroan, probokatzailea eta katolikoen ziztatzailea, pertsonaia deserosoa, noizean behin faxistekin mahai berean jaten ohitua zena. Eta hala eta guztiz Ibinagabeitiak, 1956ko otsailean Caracasera iritsi zenez gero ere, Miranderi Parisera gutunak idazten jarraitzen zuen; eta igandetan eta parkean, Mirandek erantzuten zizkion letrak irakurtzen zizkien Txomin eta Patxi gazteei. Hauek gustura entzuten zituzten

itsasoaz bestaldetik zetozen berriak, poeta haren bizimodua Parisen, *Igela* izeneko aldizkari apurtzaile baten inguruko arazoak, zenbat lan egin behar zen euskal literatura zertxobait berritzeko eta ezagutarazteko. Orobat, Andimak gutun haiek irakurtzen zituen manera kontuan hartuta, eta Miranderi buruz miresmenez hitz egiten zielako, Txomin eta Patxi anaiei burutik pasatu zitzaien bi idazle haiek, beharbada, maiteminduta zeudela, beraien bihotzak elkartuta zeudela modu batez edo bestez.

Txominek etxeko giroan Baton Rougeko autobuseko pasadizoa kontatu zuenean, Andima Ibinagabeitiak azaldu zien gerra ostean Bilbon ere jendea bota egiten zutela autobusetik.

– Inor euskaraz berbetan adituz gero, kalera!

– Beraz, Bilboko afroamerikarrak al gara gu? –atera zitzaion Txomini.

– Ez da gauza bera, jakina, baina antzeko zerbait da. Bigarren mailakoa zara, baztertua. Eta denontzat berdintasuna lortu nahiak akuilatu egingo zaitu. Ez ote genuke nahi autobus osoak gutxika-gutxika euskaraz ikastea, inor baztertu behar izan gabe?

Andima ez zen ohartzen orduan, baina bere amets haiek eta euskararekiko maitasun baldintzarik gabekoa errotzen hasi ziren, sakon, bi anaiengan.

131

– Juan Olazabal oso gaixo dago –telefonoz hots egin diote Karmele Urrestiri.

– Eta zer pentsatu duzu?

– New Yorkera eraman nahi nuke –erantzun dio Lorenzo Mendozak, Olazabalen nagusiak–. Hegazkin komertzial bat alokatuko diot Viasari. Eserleku guztiak kendu eta ospitale bat antolatuko dut han barruan.

– Garesti aterako zaizu gero!

– Dirua ez da arazoa. Erizaina behar dut hegazkinean, eta zu gurekin New Yorkera etortzeko eskatzen ari natzaizu.

Hegazkina hodei zurien gainetik gora altxatu denean, badirudi Juan Olazabalek igarri duela zerutik gertuago dagoela lurretik baino; esnatu egin da eta begiak zabaldu ditu, ikustearren hilik edo bizirik dagoen.

– Karmele, zeinen ondo zaintzen nauzun beti! –esan dio gaixoak, lasaitua harturik.

– Niretzat hainbeste senargai aurkitzen ahalegindu eta gero, zer egin behar nuke ba...?

– Merezi duzulako saiatu naiz.

– Txarto egin duzu. Zuk eskatu izan bazenit, zurekin ezkonduko nintzen, tentela. Eta orain ixo, atseden hartu behar duzu-eta.

132

1964ko oporrak Ondarroan pasatzea erabaki zuen Txominek. Viasako txartel doanekoa lor zezakeenez, Caracas-New York-Paris ibilbidea egiten zuena hartu zuen. New Yorken geldialdia egin zuen, hiria ikusteko, eta ostean ministroen hegaldia zeritzona hartu zuen, goizeko hamarretakoa, Parisera. Hegaldia erdi hutsik zihoan, batzuk politikariak eta besteak Txominen moduan Europara opor egitera zihoazen hegazkin konpainiako langileak. Parisen trena hartu zuen, Gaizka osaba zain zeukan Hendaian.

Udan haurtzaroko lagunekin adiskidetu zen berriz ere, tartean Andoni Arrizabalaga izeneko bat, politika kontuetan sartuta zebilena.

– ETAkoa naiz –aitortu zion naturaltasun osoz, elkarrekin izan zituzten solasaldietan azaldu zitzaizkien kezken ondorio logikoa balitz bezala.

60ko hamarkadaren lehen erdialdean, espontaneoak izaten ziren ETAkoen ekintzak, ez zituzten goiko aginduak betetzen; besterik gabe, lagun talde bat bildu eta beraiek erabakitzen zuten zer egin eta nola burutu sabotajea: ikurrinak han edo hemen jarri, pintada hau edo hura idatzi.

Andonik laguntza eskatu dio Txomini, Ondarroan ekintza bat egiteko; haren aita abertzalea da eta ba omen dauzka ikurrin ñimiño batzuk etxean.

– Horiek zabaldu behar ditugu.

– Non, herriko zumardian?

– Ez, haizeak eramango lituzke. Elizan botako ditugu, meza nagusian.

– Zer diozu? Nola botako ditugu elizan gutaz inor ohartu gabe?

Andonik ondo pentsatuta dauka dena: harrizko munstroak dauden teilatura igo, pasabide estu batetik

igaro nabe gaineko sabaitik aldarearen parean dagoen zulotxora, handik argia zintzilikatzen da-eta.

– Zulotxo horretatik botako ditugu.

– Baina, baina, harrapatu egingo gaituzte. Nik Caracasera itzuli behar dut.

– Ezetz ba, Txomin. Hartu lasai. Ikurrinak sabaitik erortzen diren unean gu eliza barruan egongo gara, mezatan. Ezingo dute susmatu gu izan garela.

Andonik sistema bat prestatu du horretarako. Kandela, metxa eta lokarri batekin. Kandela piztuko dute, sua behera iritsitakoan metxa isiotuko da, metxa horrek erreko du ikurrinak askatuko dituen lokarria.

– Metxa on bat beharko dugu, su hartuko duena garra beheratzen denean eta, gainera, soka erreko duena.

– Ez kezkatu, Iparraldera joango gara eta emango digute.

Eta muga zeharkatu zuten, eta ETAko buruzagietako bat zen Julen Madariagarengana iritsi ziren handik eta hemendik, eta hark eman zien argi-muki zati bat. Baina ez ziren kontent bueltatu. Metxa hark ez zuen ezertarako balio.

– Kakatzarra! –kexatu zen Andoni, metxa probatu zuenean–. Badakit non lortuko dudan ganorazko bat.

Ikusita zegoen Txori-erreka aldean etxeak egiten ari zirela eta aurrez mendiak zulatzen zituztela dinamitaz. Obrako hesi gainetik pasa, metxa-soka eder bat lapurtu, sutan jarrita probatu eta... aurrera!

1964ko abuztuaren 12an, goizeko mezaren ondoren, elizako sabaira igo dira bi mutilak. Atondu dute mekanismoa, jaitsi dira beheko plazara eta sartu dira hamaiketako elizkizunera. Erdi partean eseri dira, artega, gero eta ezinegon biziagoarekin.

– Ez da kandela itzaliko, ezta? –galdetu dio Txominek.

– Ez.

– Nola dakizu?

– Ez dakit, baina zu lasai. Funtzionatzen ez badu, ez da ezer gertatuko, ezer ez.

Eta halako batean, sagarapenarekin batera, hasi dira ikurrinak sabaitik erortzen, ehunka paper txiki eliza osoan barreiatzen, udako malutak eliztarren buru eta sorbaldetan pausatzen.

Oporrak bukatu zirenean, Txominek Parisen hartu behar zuen Venezuelarako hegaldia eta Andonik eraman zuen autoz Hendaiako tren geltokira. Baina handik itzuli zenean Guardia Zibilak kosta ahala kosta jakin nahi zuen zein deabruk bota zituen ikurrin haiek

elizan. Andoni saltsa guztietan sartuta zebilenez, harrapatu eta galdeketa egin zioten, berehala aitor zezan berak egin zuela barrabaskeria.

– Ni ez naiz halako gauza sofistikatua prestatzeko kapaz. Letamendi izan da.

Txomin ozeanoaren gainean dago ordurako, hegazkineko leihatilatik begira. Eskua jakako poltsikoan sartu du musu-zapiaren bila, eta zintz egiteko atera duenean kolore biziko paper zimurtu bat erori da eskuineko zapataren ondora.

133

Euskal Herritik urrun izanik ere, ETAk Caracasen bere taldea sortua zuen eta Venezuelako hiriburuan bertan argitaratzen hasi ziren *Zutik* aldizkaria; hor agerkari horretan agertzen zen belaunaldi berriaren politikagintza berria, ideiak, asmoak. Lehen zenbakia 1960an atera zuten, Jose Antonio Agirreren heriotzaren karietara; hildako lehendakariari egindako gorazarrea zen.

Hortaz, Txomin Letamendi udako oporretatik Caracasera bueltatu zenean, ETA barruan lan egiten hasi

zen, beste gazte asko bezala ozeanoaren bi aldeetan; izan ere, jarraipen handia zuen erakunde berriak gazte abertzaleen artean, eta ez hain gazteen artean. Garai hartan, ETAren inguruan mugimendu zabal bat osatu baitzen, ez soilik politikoa, mugimendu kulturala zen batez ere, berreskuratu nahi zuena aurreko hamarkadetan atzera egindakoa, eta ilusioa piztu zuen, oraindik bizirik geunden.

1964ko urte hartan bertan, ikurrintxoak Ondarroako Andra Mariaren parrokian barreiatu ostean, ETAren elkarretaratze batean parte hartuko du Txominek, baina Caracesen. Charles de Gaulle Frantziako presidentearen bisita dela-eta, pankarta batekin azaldu dira: “Libertad para Euzkadi”. Eta gero, *Zutik* aldizkaria inprimatu eta banatzen ere ibiliko da.

Hamarkadaren hasieran desakordio txiki bat ematen bazuen ere, handituz joan ziren EAJren eta ETAren arteko diferentziak, ez zetozen bat ez forman ez fondoan. Horren adierazgarri, 1966ko Aberri Egunaren deialdia bakoitzak bere aldetik egin zuen: batzuk Gasteizera eta besteak Irun-Hendaia tartera. ETAk bere kasa ospatutako lehen Aberri Eguna izan zen.

Caracasera Euskal Gobernuko kide zen Joseba Rezola joan zen, eta Euskal Etxera egin behar zuen bisi-

ta aprobetxatuz, frontoian, ilobak dantzan egitera atera behar zuten unean, Irunen izandako errepresioa eta atxiloketak salatzeko idatzi bat irakurri nahi izan zuen osaba Jonek, denen bistan eta Rezolaren aurrean. Txistuka hartu zuen jendeak eta bota egin zuten Euskal Etxetik Jon Urresti *Kirru*. Karmelek ikusi zuenean bere neba egoitzatik kanporatzen ari zirela, sentitu zuen bera ere handik botatzen ari zirela hein berean.

Banaketaren piramidearen oinarriak, beti gertatu ohi den moduan, beheko jendea harrapatzen zuen nabarmen, eta behin desberdintasunak politikoak eta dialektikoak izan baziren, azkenean tentsio hori, zatiketa hori familietara igaro zen, baita Caracasen ere, eta urrestitarrak ez ziren horretan salbuespena izan.

134

Ikerne Bilbora itzuli zen senarrarekin, eta zortea ere eduki zuten urte batzuetan, egoera on bat lortu baitzuten frankismoak izan zuen zabalpen ekonomikoaren garaian. Euskal Herrira bueltatzea, agidanean, sekula damutu ez bazitzaion ere, Ikernek, normala

denez, faltan botatzen zuen Caracasen zegoen familia, gutunak idazten ematen zituen egunak, bat bestearen atzetik.

Ikernek zuen hutsuneaz jabeturik eta haren semealabek itsasoaz bestalde zeukaten familia ezagutu behar zutela pentsaturik, Andima Ibinagabeitiak zintak grabatzen zizkien magnetofonoz, eta postaz bidali. Antzinako ipuinak izaten ziren, baina Caracasen zuten bizimoduari buruzko pasadizoak ere bai. Zintak entzutean, umeek izeba Anita zuten gustukoen, bere ahotsez sukaldeko errezetak kontatzen, nola egin hau eta nola bestea; telebistaz ikasi zuen teknika, izan ere Venezuelako katean bazen sukalde-saio bat, eta Anitak ez zuen inoiz ere galtzen. Onena zen kaneloiak egiten. “Kaneloik tentu handixaz en bir diz. Alde batetik, berduri xehe-xehe en bizue, kipuli, zanahorixe eta beste erozein berdura be bai. Okela pikau bota horreta berdureta eta beste alde batetik pasti ipini egosten...”. Karmenek “berduri” esaten entzun balu, eta ez “barazkixak”, isuna jasoko luke Anitak.

1967ko uztailaren 30ean, zinten ordez, Ikernek telegrama jaso zuen Bilbon. “Caracasen terremotoa. 300 hildako. Lucio Aretxabaleta hil. Gu ondo. Anita beldurtuta”.

Karmele eta Anita ahizpek –baita Patxik ere, handik bazebilen– asko maite zuten Andimak liburuak ahoz goran irakurtzea, fikziozkoak izan edo ez. Arratsalde batez, gutxi lehenago argitaratu zen *Sobre el pasado de la lengua vasca* saiakerarekin agertu zitzaien Miranda urbanizazioko etxera. Irakurketarekin hasi baino lehen, pixka bat girotzearren, Andimak azaldu zien nola eta noiz sortu zen liburua, eta nor zen egilea: Koldo Mitxelena.

– Aspaldiko laguna dut. Erresistentzian ibili eta espetxe zigorra bete ondoren, hizkuntza klasikoak ikasi zituen Madrilen, eta orain Salamancako Unibertsitatean irakasteko tartea egin dio Antonio Tovar hizkuntzalariak. Tovar falangista izan zen, baina laster sortu zitzaion desengainua Francorekin. Horrek sortu du Euskal Hizkuntzaren lehenengo katedra eta han ematen ditu eskolak Mitxelenak.

Falangetik zetorren Tovar hura ere zerbitzu sekretuetan ibilitakoa zen, arerioarekin, baina euskal etimo-

logia hiztegia osatzen elkarrekin jardun zuten Mitxelenak eta biek.

– Badakizue euskara ez dela hizkuntza indoeuroparra baina hitz indoeuropar asko dituela?

– Esate baterako? –galdetu zion Karmelek.

– Maite izan.

– Orduan ez genekien maitatzea zer zen? Esaten nuen bada nik euskaldunak makal samarrak ginela maitasun kontuetan! Kanpotarrek erakutsi behar hori ere, asto hutsak izango ginen-eta.

– Oraindik ere bai batzuk –esan zuen Anitak.

Andimak, ordea, ez zuen solasaren haria galdu nahi eta heldu egin zion berriz ere Mitxelenaren lanari.

– Miraria da euskara oraindik bizirik egotea. Mitxelenak berak ere ez daki oso ondo zergatik. Entzun hau: “Hizkuntzaren babesik handiena ez zen izan bere indarra, baizik eta Euskal Herriaren eta euskaldunon ahultasun militarra eta ekonomikoa. Gure atzerakuntza kulturalak ez zuen gure herria erakargarri egiten erromatarrentzat, beste toki aberatsago batzuk bai, ordea. Eta, horregatik, ez zen latina zabaldu. Gure bizimodu oinarrizko eta primitiboa ez zen egokia latinez

hitz egiten zuen jendea guregana hurreratzeko, ohituago baitzeuden bizimodu erosoago batera”.

Andimak irakurketa eten eta zertxobait nahastuta ziruditen bere solaskideei begiratu zien.

– Ez dut ondo ulertzen –ausartu zen Karmele–, orduan erromatarrekin ongi konpondu ginen eta bisigodo eta frankoekin ez?

– Hori da! –piztu egin zen Andima–. Kontua da, Mitxelenaren aburuz, zibilizazio batek aztarnarik utzi badu euskaran hori latina izan dela. Baina ez zapaldu egin gintuztelako indarrez eta odolez, ez. Erakarpena izan zen beraien armarik eraginkorrena. Beraien botereak, kulturak, erakarri egiten zuten, baina bisigodoak eta frankoak gauzak inposatu nahian etorri ziren, beraien legeak ezarriz, hizkuntza, dena, eta orduan altxatu egin ginen. Onerako, bai; txarrerako, ez. Entzun bestela: “Euskaldunak, ia aurka egin gabe onartu zuten erromatarren menperaldia, eta gutariko batzuek probetxua ere atera zuten egoera hartatik, toki on eta eroso bat lortu baitzuten Erromatik zetorren ordenamendu berrian. Baina gero, ez genuen inola ere onartu bisigodo eta frankoen agintea. Mendeetan ibili ginen beraien aurka borrokatzen”.

– Auskalo, seguruena goserik izango zirelako izango zen –esan zien Anitak–. Eta zuek, ez al duzue afaltzeko gogorik?

Andima eta Karmele elkarri begira geratu ziren, pentsatuz bezala egia biribila esan zuela Anitak.

136

1967ko azaroaren 2an hil egin zen Andima Ibinagabeitia. Diabetikoa zen, eta bihotzeko arazo kronikoengatik hil zen. “Poliki-poliki joan zen heriotzara”, idatzi zuen Patxi Letamendik duela urte batzuk.

Hiletan senitartekoak, Letamendi-Urrestitarrak eta lagun euskaldun batzuk bakarrik izan ziren, berak hala eskatuta. Erbestean hil zen Andima, hain maitea zuen Ovidio bezalaxe, zeinaren *Ars Amandi* euskarara ekarri zuen, Augusto enperadoreak Erromatik urrun bidalia, ez zetorrelako bat bere ideiekin, eta beste “enperadorea”, Madrilgoa, oraindik bizirik zegoela.

Andimaren hiletan egon eta gutxira, Txomin Letamendi Urresti Euskal Herrira itzuliko da. Amak leporatu zion ez zuela zentzurik Viasako lan finko hura utzi

eta sorterrira itzultzeak, garai oso nahasiak zirela eta pixka bat itxaroteko pazientzia eduki behar zuela.

– Ziur zaude itzuli nahi duzula? Ez dira garai onenak Euskal Herrira itzultzeko.

– Ama, joan egin nahi dut.

– Baina lana duzu, etorkizun argi bat.

– Ez dit axola lana galtzeak. Itzuli egin nahi dut. Zuk beti esaten zenuen noizbait bueltatuko ginela Euskal Herrira, Venezuelako garai hau pasatu egingo zela.

– Zure aitaren modukoa zara, idealista hutsa. Eta gainera egoskorra. Ezinezkoa zen hura iritziz aldaraztea eta, bistan denez, zeu ere ez.

– Utzidazu nire bizitza bizitzen, ama. Neure bidea egin nahi dut. Badakit ez dudala beti asmatuko, akatsak izango ditudala, baina akats horiek nireak izango dira; eta horrela, akatsez akats, ikasiko dut oinez ibiltzen.

Karmelek tonua aldatu zuen.

– Txomin, oso urte politak igaro ditugu elkarrekin. Beti oroituko naiz.

Hegazkina hartu eta Txominek ozeanoa zeharkatuko du azken aldiz, hurrengo 50 urteak definituko di-

tuzten urte erabakigarri eta korapilatsuen hastapenean.

Laino paisaia

137

Haize bortitzak sakatu egiten zion kardalari, eta hegazkinetik ur-bits hari begira zihoan Txomin, gogoratuz oporraldian Ondarroara joaten zenean, Gabonetan oroz gain, zein izaten zen nerabezaroko jolas ernagarriena: enbata egunetan kai-muturrera joatea gustatzen zitzaien neska-mutilei, eta han olatuei iheska ibiltzea; uhinek gogor jotzen zuten muturraren kanpoko aldean, talkaren ondorioz kresalezko zaparradak sortzen ziren eta busti egiten zuen azpian zegoena. Bazeuden, kanpoaldeko olatu-horman, iglu forma zuten bi babesleku; batetik bestera ibiltzen zen Txomin, gainontzeko neska-mutilak bezalaxe, arin-arinka, horma gainditu ondoren uhina indartsu erortzen zenean, busti nahi ez eta iheska. Kai-muturretik behera zetozen urek, lurrean narras eginez, emakume baten ezkontza soineko erraldoi bat ematen zuten, harizkoa izan ordez apar zuriz eta burbuila biribilez egina.

1968 geroztiko urteetan, batetik bestera korrika eta ihesean ibiliko da Txomin, tartean babes txikiak hartuta, iglu txikerretan, itsasoak noiz irentsiko duen jakin ezinik.

138

Aldez aurretik abisatu gabe, alegiazko agerpenak izaten diren moduan, Comète sareko buru François Nothombek Karmeleren etxeko atea jo zuen Caracasko Miranda urbanizazioan.

– Franco! –halaxe deitzen baitzioten lagun artean–, hau ezustekoa! Baina, baina, zer egiten duzu Caracasen? –harritu zitzaion Karmele.

– Familia bisitatzera etorri naiz.

Era oso txiroan jantzita zegoen gizona, abitu zahar batekin, zer ikusirik ez Antsosolora egin zuen azken bisitarekin, orduan jaka bat baitzeraman eta barruan jertse lepo luze bat. Anitak pentsatu zuen une batez ortozik zihoala, eta oinetara behatu zion; baina, ez, sandaliak bazeuzkan behintzat.

– Sartu, eser zaitez eta konta egiguzu zerk ekarri zaituen hona.

– Misiolari nabil Amazonas aldean. Yekuana indiarren artean kristau fedea zabaldu nahian.

Karmelek eta Anitak ezin zuten sinetsi.

– Baina horiek oihan erdian bizi dira...

– Horrexegatik hautatu nuen jomuga hau. Aspertuta nengoen Europarekin. Zibilizaziotik kanpo egoteko premia neukan. Milioika jende hil duen gerra bat sortu zuten potentzietatik ahalik eta urrunen. Oinarri-oinarrira jaitsi nahi nuen, gizakiaren hastapenetara itzuli, benetako zerbaiten bila, oraindik kutsatu gabea.

– Eta bakean al zaude yekuanen artean? –galdetu zion Karmelek.

– Oso gustura nabil. Beraiek badakite jainkoa zer den eta non dagoen.

– Orduan erraza egingo zitzaizun kristautzea.

– Ez!, ez dut garau bat bera ere kristautu. Beraien jainkoekin jarraitzen dute. Eta ni neu ere zalantzatan jarri naute, ez ote diren jainko txiki horiek gurea baino eskuzabalagoak. Esker onekoak dira eta uste dut estimatzen dutela egiten dudan lana: irakurtzen eta idazten irakatsi. Kontatzen dizkiedan istorioak, horiek bai gustuko dituztela.

Eta bi ahizpei ere kontatu zizkien bere istorioak Nothombek. Arratsalde ederra igaro zuten elkarrekin.

Ohi zuen bezala, familiako kide guztiez arduratu zen, eta Karmelek banan-banan azaldu zion nola moldatzen ari ziren seme-alabak, eta baita Jon eta Miren ere.

– Zelan erabaki du ba Txominek Euskal Herrira itzultzea? Venezuela herrialde zoragarria da!, eta soldata ere bazuen hemen. Han, aldiz, oraindik frankismo ilunean bizi dira. Ez al da maitasunagatik izango?

– Maitasunagatik? –Karmele pentsakor geratu zen, baina berehala erantzun zion–: Bai, maitasunagatik izan da, baina aberria maite duelako, beste ezer ez.

Barre egin zuten Karmelek eta Nothombek. Anita sukaldetik jateko pixka batekin etorri zen unean bertan eserlekutik jaiki zen Nothomb.

– Ez al zara afaltzen geratuko?

– Eskerrik asko, baina joan egin behar dut.

– Eta lotan ere ez?

– Ezin dut, ezta nahita ere –erantzun zuen begirada beheratuz–. Kongregazioan eskatzen digute, nora joan hango txiroenekin pasatu behar dugula gaua.

Franco Silencio izeneko eraikinen azpian lo egiten zuten eskaleengana joan zen, beraiekin batera gaua igarotzera.

Anitak, sukaldea jaso ondoren, Karmeleri esan zion:

– Ez gara ezagutzen.

– Zertaz ari zara?

– Nothomb bezalako jende hau, esan nahi dut, jende garrantzitsua dena, heroiak ere izan direnak kasu askotan, mundua aldatu nahi duten pertsona handi horiek...

– Esan behingoz.

– Bada, jende estilo hori gero... neure buruari galdetzen diot, tira, nola portatuko ote dira alboan dituztenekin? Eguneroko iraultza txikia nola eramango ote dute? Pertsona zintzoak izango dira?

– Zer gauza esaten dituzun, Anita...

Karmelek isilarazi egin zuen ahizpa, baina ez da dudarik eman ziola zer pentsatua, ohean etzan zenean, isilean, galdera bera egin baitzuen bere kabutan: “Ezagutzen al gara?”.

139

Giro berezia aurkitu zuen Txominek berriz Euskal Herrira itzuli zenean. Irakinaldi eta inarroste garai bat, zalantzarik gabe, eta gainera, agian are erakargarriagoa egiten zuena, belaunaldi berri batek gidatua, ge-

rran garaitua izan ez zen belaunaldia, gerra bizi ere izan ez zuena, ez eta gerraurreko kultur giro aberatsa ere –Letamendi aitak eta Manu Sotak bizi izandakoa–. Gazte jendea zen. Haiek ari ziren borroka antifrankistan, orpoa ateratzen garai batean gudari, gidari eta eredu izan zirenei.

Txominek uste zuen bigarrenez jaio zela. Hannah Arendten aburuz, norbera berriz jaiotzen da mundura pertsona aktiboa, publikoa, politikoa bilakatzen denean. Txominek bere bizitzako orri zuria bitan banatu zuen goitik beherako lerro bat marrazturik, Karmenek matematika eskoletan egiten zuen antzera, eta ezkerreko aldean iragana jartzea erabaki zuen: ebatzi ezineko gertaera multzoa, ahaztu nahi zuen gurasorik gabeko haurtzaro hura, grisa, fraideen barnetegietan emana; eta eskuineko aldea etorkizunarentzat gorde zuen, inork diktatuko ez zion etorkizun harentzat, paper zuri zati hura. Berak eta bere belaunaldiak argituko zituzten gizarte zaharkitu hark zituen arazoak, manera azkar eta, iduriz, erraz batean.

Gazteen asaldura gizarteko maila guztietara zabaldu zen, orobat kulturara eta unibertsitate girora. Orduantxe izan zen bigarren pizkunde kulturala; musikan, literaturan, artean sortzaile berriak agertu ziren,

tradizioan oinarritu bai baina gauza garaikideak egin nahi zituztenak, Ez Dok Amairukoak edo herrialde bakoitzean Jorge Oteizaren babesean sortu ziren artista taldeak. Langileak ere kontzientzia hartzen eta beldurra galtzen ari ziren, Francoren sindikatu “laru” horiez gain, beste antolaketa berri batzuk sortzen hasi ziren, eta berrantolatzen gerraostean debekatutakoak.

50eko hamarkada iluna igarota, kaleak berriz ere protestaz bete ziren, gero eta ageriagoa zen diktaduraren aurkako jarrera. Aurreko belaunaldiaren izua gainditzen ari zen ezari-ezarian.

Alabaina, Txomin eta bere lagunen bilakaera, Andoni Arrizabalagarena tartean, nahiko intuitiboa izan zen garai hartan, bazekiten zeren aurka ziharduten, oso argi zeukaten hori, Francoren aurka, baina teorizazio maila handirik gabe. Dotrinak bigarren maila batean zeuden. Arrizabalagak berak, zeina Elgoibarren CCOOetan sartua zen, aitortu zuen, esan esaten zuela sozialista zela baina sozialismoa zehatz-mehatz zer zen jakin gabe; Joseba Sarrionandia gazte bati egin zizkion adierazpenok, 1977ko amnistia eta gero, *Zeruko Argia* astekarian argitaratutako elkarrizketa batean. Ondoren hasiko dira irakurtzen eta teorizatzen, baina hastapeneko sasoi haietan egin nahi zutena

zen, egin eta eragin gizartean, isilpetik atera barruko ahotsa.

1968ko abuztuaren 2an ETAk jauzi kualitatibo handia eman zuen bere estrategian: aurrez erabakitako lehen hilketa burutu zuen, Meliton Manzanasena hain zuzen. Torturatzaile ezaguna zen Manzanas, bere eskuetatik pasatu ziren borroka antifrankistan ari izan ziren alderdi eta sindikatuetako buruzagi gehienak, abertzaleak, sozialistak, komunistak, autonomoak...

ETAk erabaki hori hartu zuen Txabi Etxebarrietaren hilketa eta segituan. Erakundeko buruzagietako bat zen Etxebarrieta eta, ekainaren 7an kontrol batean geldiarazi zutelarik, tira-biran guardia zibil bat hil zuen: Jose Pardines. Osteko jazarpenean Etxebarrieta bera hil zuten. Ez batek ez besteak ez zituzten hogeita bost urte.

Meliton Manzanasen hilketa eztabaidagai izan zuten oinarrizko kristau taldeetan, Acción Católica izeneko hartan kasu. Alegia, ebatzi nahi zuten moralki onargarria zen edo ez kristau batentzat. Halaxe, herri bakoitzean, talde txikietan bildu ziren gazte katolikoak eta eztabaidatu zuten Manzanasen heriotzari buruz. Nahiz eta apaizak bilera horietan egon, bozketa unea iristen zenean elizgizonak irten egiten ziren gelatik.

Bileretara deitua izateak eta eztabaidatu izanak Manzanas hiltzea ondo edo txarto zegoen, ideia bat ematen digu zer giro bizi zen orduan Euskal Herrian.

Adibide gisa esan behar da, urte batzuk lehenago, Txomini egokitu zitzaiola, beste lan batzuen artean, erakundearentzat diru-bilketa egitea, nonbait berbetan argudioak egoki antolatzen zituelako. Eta Ondarroa inguruko aberatsekin hitz egitera joaten zen sosak eskatzen, garai hartan oraindik borondatez ordaintzen zenez dirua.

Eskean joan zenean, Txomini honela mintzatu zitzaion haietako bat:

– Nik ordainduko dut. Ados. Gauza asko egin duzue hemen bizi zen egoera motela suspertzeko. Baina, kontzientzia arazorik izan ez dezadan, nahiago dut dirua apaiz bati ematea eta gero hark zuei.

– Ez dago arazorik. Asko ditugu horrelakoak.

140

Igandero bezala, Anita Urresti meza ostean konfesatzera joan zen, eta “Ave Maria sortzez garbia” esan ostean aitormena egin zion apaizari Euskal Etxean.

– Aita, bekatu egin dut. Gaur goizean poztu egin naiz gizon baten heriotzarekin.

– Noren heriotzarekin?

– ETAk herenegun hil zuen horrekin.

– Nik ezin diot falta horri penitentziarik ezarri; izan ere, nik neuk ere gauza bera sentitu dut albistea jakin denean. Biok egin badugu bekatu, Jainkoak berak erabaki dezala zigortzen ala barkatzen gaituen. Eta, hortaz, zoaz bakean.

Anita kaperatik irten zen pentsatuz, menturaz, ETAk justizia egin zuela Meliton Manzanas torturatzailea hilda, ez zela krimena izan. Gaur egunetik begiratuta, esanguratsua da ikustea nola zabaldu zen sentipen bera Francoren aurka zegoen gizataldearen zati handi batean, ideologia desberdinak izanda ere, nahiz eta beraiek berez heriotza zigorraren aurka egon. Pentsamenduaren eta sentipenaren arteko alde honek agian beste edozerk baino hobeto azal dezake ETAk garai hartan lortu zuen atxikimendua.

Gomutan hartzen dut, horren karietara, Milan Kundera idazle txekiarrak sobietarren sasoian estatu krimenak ikusi ez zituzten haiei buruz idatzi zuena. “Gizakia da laino artean oinez ari dena. Baina iraganeko jendea epaitzeko atzera begiratua egiten duenean ez

dakusa inolako lanbrorik. Bere orainetik, behin etorkizun izan zen talaia hartatik, bidea erabat argia dela iruditzen zaio, erabat ikusgarria. Atzera begiratuta, bidea ikusten du gizakiak, ikusten du jendea oinez, baina dagoeneko lainorik ez da".

Denok ibili gara oinez lainopean, ala ez? Halakorik galde ote diezaiokegu geure buruari? Nor da itsuago: Manzanasen heriotzaz poztu zen Anita?, edo ni neu hura epaitzen dudalako mende erdi geroago eta inguratzen zuen lainoa ikusi gabe? Ez al da langarra egiten ari lerrook idazten ari naizen bitartean?

Anna Akhmatova poeta, Errusiako literaturak eman duen handienetakoa, traidoretzat hartu eta desterratu egin zuten komunismoaren aurka zegoelako; kartzelan ziren gazteei buruz idatzi zuen bere lanik gorena, *Requiem*, eta betiko gal ez zedin buruz ikasi zituzten pasarteak gatibuek eta senideek ("semea preso, senarra hilotz / egizu nire aldeko otoitz"). Vladimir Maiakovskik, aldiz, Lenin laudatzeko poema idatzi zuen hamarkada bat lehenago, asmatu gabe urte batzuen buruan zer gertatuko zen Sobietar Batasunean; egingo zuen leialtasunarengatik, etorkizun eder baten alde sentitzen zuen ilusioarengatik, are diziplina zentzu batengatik, edo aurreko gizarte ankerrarekiko

amorruarengatik, bere eta beralakoen ametsa zapuztuko zuen etsaiari zion beldurrarengatik. Batek daki.

“Maiakovskiren itsumendua, betiereko giza kondizioaren alde bat da”, ebatzi zuen Milan Kunderak.

141

Gobernazio Ministerioan aztoramen handia sortu zuen Manzanasen hilketak, beldur ziren aurrerantzean ez ote zen hilketa gehiago izango.

Bartzelonako Brigada Politiko Sozialean, Txomin Letamendi Murua harrapatu izan zuen berberean lan egiten zuen Juan Creix komisarioa bidali zuten Euskal Herrira, ETAko buruzagitzarekin albait azkarren buka zezan.

1968ko abuztuaren 18an, Manzanas hil eta hamabi egunetara, Andoni Arrizabalaga atxilotu zuten Ondarroan, igandez, herrian jaiak bukatu berri zirela, Jesus Mari Aramaio adiskidearekin batera kaletik zihoala. Salbuespen Egoera ezarria zegoenez Gipuzkoan, Zarautzera eraman zuten galdeketak egitera; horrela, zortzi egunez eduki ahal izango zuten beren eskuetan.

Tortura mota guztiak egin zizkioten guardia zibilek, eta hanketatik zintzilik buruz behera ere eduki zuten eskailera zuloan hirugarren pisutik. Familiakoak Andoniz galdezka Zarauzko kuartelera joan zirenean, tratu txarrak ezkutatu beharrean, harro, nola zegoen erakutsi zieten, egoera tamalgarrian, ez ezagutzeko moduan, itxuragabetuta aurpegia. Halakoxea zen orduan inpunitatea.

Abesti batean tortura haien kontakizuna egin zuen Telesforo Monzonek, zeina kontseilaria izan zen Jose Antonio Agirreren lehen gobernuan eta Karmele Urrestiren adiskidea Eresoinka garaitik –“Eresoinkako lilia” deitzen zion Karmeleri–. Monzonek idatzitako *Itziarren semea* kantua entzute handikoa egin zen Pantxoa eta Peiok grabatu orduko.

Jesus Muñecas kapitainak egin zion galdeketa zitala, eta orduko giza eskubideen urraketagatik Maria Servini Argentinako epaileak juzgatu egin nahi du gaur egun.

Andoni Arrizabalaga 1969ko urtarrilean irten zen Martuteneko kartzelatik, baina bost egun geroago bere bila joan ziren berriz, Antsosolotik gertu, San Juan Txurru kalean zeukan etxera. Barruko patiora salto egin eta ondoko portaleko etxe batean ezkutatu zen.

Gure amaren ahizpa bizi zen han umeekin. Nire lehengusu Iñakiren gelan sartu eta hantxe geratu zen. Poliziek alde egin zuten halako batean. Gure izeba gelara abisatzera joan zitzaionean, Iñakiren ondoan aurkitu zuen, pasatutako larrialdia eta gero, nekatuta, lo seko.

Ihesaldiak ez zuen asko iraun. Apirilaren 3an harrapatu zuten, ez oso urruti, Bolibarren, baserri batean.

Ondarroan leherkari txiki bat jarri zuten gazte batzuek Udaltzaingoaren auto batean; ez zen biktimarik izan, helburua ere ez zen halakoa, kristalen haustura izan zen kalte bakarra. Bost gazte ondarrutar atxilotu zituzten ekintzaren ondoren, eta Andoni Arrizabalagari egotzi zioten lehergailu hura lortu eta gazteei helarazi izana.

142

Txomin Letamendiren ardura ETAren barruan propagandara mugatzen zen batez ere, aldizkariak, boletinak, paskinak inprimatu eta zabaltzen zituen. Bilbon zeukaten inprimategi klandestinoa, eta Txominek han jakin zuen, Zazpi Kaleetako pisu franko batean bizi ze-

larik, atxilotu egin zutela Andoni bere laguna. Arrizabalagaren ostean hainbat eta hainbat atxiloketa izan ziren, ETAren buruzagitza osoa ere erori zen, bi pisutan zeuden-eta denak bilduta.

Txomin Letamendi Urresti ere harrapatu egin zuten Bilbon. 1969ko apirilaren 13a zen.

Inoiz kartzelan egon denak edo lagunik preso izan duenak badaki, kartzelan ez dela astirik izaten ez ezer berezia aurrera ateratzeko ez beste ezertarako, salbu eta gogoeta egiteko. Eta Txominek atzera begiratu zuen, nondik nora zebilen jabetzearren. Gomutan hartu zituen familiakoak, hain urrun zeuden ama eta Anita izeba, ozeanoaren bestaldean, ez-mundu batean, paradisu arrotz bateko epeltasunean, oraindik iragan krudel baten zauriak sendatzen, oso astiro. Baina batez ere beste emakume bat zen Txominen gogoa betetzen zuena kartzelako bakardadean: Nekane.

Elkar ezagutzen ez zuten eta jatorri ezberdinekoak ziren jendez osatutako afari batean ezagutu zuen Nekane, non izango eta Antsosolon bertan.

Gaizka osaba bizi zen orduan etxetzarrean Nati bere emaztearekin. Etxe handia zela ikusita, eta jakinik herritar talde bat toki bila zebilela umeentzat, Kar-

menen aspaldiko amets bat bete zuen, eta herriko lehenengo ikastola bertan antolatu zuten, dozenatxo bat umerekin. 1966a zen orduan, eta nahiz eta legezkoa ez izan urte asko geroago arte, zegoen zirrikitu legal bat aprobetxatuz sortu ziren euskal eskolak han eta hemen. Gurasoek ez zekiten zer gertatuko zen beraien umeekin, haien heziketa homologatua izango zen edo ez; bazuten konfiantza diktadorea hiltzean gauzak aldatuko zirela, baina ziurtasunik batere ez.

Haurren ahots txolinek betetzen zuten garai bateko Frantziskoren lantegia.

Non ezagutuko andrea, eta bertan, bere betiko etxean. Neskak entzuna zuen, “Antsosoloko mutilak” elizan ikurrinak bota eta alde egin zuela Venezuelara. Etxean ez zuten begi onez ikusi ekintza hori, gurasoak oso atzerakoiak baitziren, eta aitak Gerra Zibilean Francoren alde borrokatu zuen gerrako heroia zen, *Baleares* guduontzian, hain zuzen, zeinaren hondamenditik bizirik atera zen.

Nekane afaltzera joan zen Antsosolora, etxetik bota baitzuen amak eta ez zuen nora jo. Ez dakit herriko liskarretan parte hartzen zuelako, edo, baliteke, baita ere, prakak janzten ausartu zelako, amari hori benetako bekatua iruditu zitzaion, a ze piura neska

bat prakekin! Prakak janzten zituen lehenengoetako neska izango zen Nekane.

Eta Nekanek Venezuelari buruz galdetu zion Txomini.

– Munduko herri miragarrienetako bat da Venezuela. Denetik dauka, Karibeko hondartza zuri eta ur garden horiek, oihana, mendiak, ur-jauziak... Herrialde handia da eta ez oso populatua. Kultura aberatsa du. Ehunka hizkuntza mintzatzen dira han.

– Hara joan nahi nuke, egia esan, mundu osoa ezagutu nahi nuke nik...

– Bada, eramango zaitut, hala nahi izanez gero.

– Nola zuk eramango nauzula!? Neuk eramango zaitut zu.

Txomin irrikaz zegoen presondegitik irten eta ostera ere Nekanerekin elkartzeko. Aurreneko hitzorduan huts egin arren, berriz ahaleginduko zen. Nahi zuen Nekanek eramatea galtzak etxean, bien etxean.

Lau hilabeteko kartzelaldia bete behar izan zuen Txominek. Basauriko espetxetik beste kide batzuekin batera irten zenean, kanpoan zain zeukan Ikerne arreba.

– Argazki bat egin behar dizut lehenbailehen, amari Caracasera bidaltzeko.

– Ondo nago...

– Ez naiz ni kezkatuta dagoena, ama baizik. Badakizu jasan ezinezko beldurra diola kartzelari eta torturari.

Lehendabiziko egunetik Txominek nahi izan zuen Nekanerekin berriz ere bildu, beren maitasun istorioarekin aurrera jarraitzeko. Nekane emakume independentea zen, librea, menturazalea, ahal zen neurrian behintzat. Lagunekin egotea gustuko zuen –Parisera joana zen auto-stopez–, baina era berean bazekien gustura zegoela Txominen alboan, solasturi ona baitzen mutila eta barre eginarazten baitzion sarritan.

– Badakizu, Txomin, Parisera egin genuen ostera hartan mutil bat ezagutu nuen eta liburu bitxi bat oparitu zidan. Idazle argentinar batena da, Julio Cortazarrena, *Kronopioen eta famen istorioak*. Eta liburu horren arabera, mundua bitan banatzen da.

– Jakina, alde batetik pobreak daude eta bestetik aberatsak.

– Ez zaitez panfletari jarri, ez gaude mitin batean. Kontatzen ari naizena hori baino politagoa da. Entzun. Munduan bi pertsona mota dago: batzuk dira kronopioak eta besteak famak. Kronopioak pixka bat moldakaitzak dira, desordenatuak, despistatuak, baldarrak... baina adur ona ere badute. Eta famak, aldiz, zentzudunak dira, ordenatuak, zerebralak... alegia, aspergarriak.

– Eta zuk, zer naizela uste duzu?

–Tira, nik esango nuke, pentsatzen duzula fama zarela, dena ondo egiten duzula, pertsona zuzen eta serioa zarela eta hori guztia; baina sakonean... kronopioa zara.

– Aizu, Nekane, nahi duzuena esango duzue Cortazarrek, ezagutu duzun mutil horrek eta zuk. Akaso arrazoia ere izango duzue: mundua bitan banatzen da. Baina funtsean... zatiketa beste era batekoa da.

– Zein da ba?

– Gu biok eta gainontzeko guztiak.

Neska begira geratu zitzaion, pentsatuz bezala, “tentel honek ez dit musurik emango ala?”. Txomin geldi-geldirik zegoen, begirada lotsati eta izu horrekin.

Eta orduan Nekanek besoa laztandu eta musu eman zion, leun.

144

Andoni Arrizabalaga adiskidearen egoeraz oso kezatatuta zegoen Txomin. Hura ez zegoen Basaurin, Burgosen baino, eta tribunal militar batek epaituko zuen.

Burgosen zeudela, ETAkoek erabaki zuten estrategia berri bat hartzea epaiketetarako, hots, defentsako abokatua ez zuten onartuko eta epaiketa fartsa bat zela salatuko zuten. Ez zen bromatako kontua baina, Burgosko kartzela hartan fusilamendu asko izan ziren Gerra Zibilaz geroztik, patioko hormak ere zulatuta zeuden tiroekin.

Militarrez beteta zegoen gela. Heriotza zigorra eskatzen zioten. Eta Andonik esan zuen ez zuela onartzen abokatua, Juan Mari Bandres.

Harrituta zegoen mundu osoa: biktimarik sortu ez duen lehergailu txiki bat lortzearren heriotza zigorra eskatzen bazioten, zer gertatuko zen erori berri zen buruzagitza osoarekin? Haiei Pardines guardia zibila-

ren eta Manzanas poliziaren hilketak egozten zizkieten-eta!

Andonik estrategiarekin jarraitu zuen. Eta hitz egiteko txanda iritsi zitzaionean, aldamenean zeukan Jesus Mari Aramaiori esan zion.

– Oraintxe ikusiko duzu zelako gorria asmatuko dudan...

Eta ahotsa goratuz esan zuen euskaraz:

– Ni Arrizabalagatar Andoni naiz. Tribunal hau ez dut onartzen, ni herriak bakarrik juzgatuko nau.

Hura izan zen militarren sable hotsa. Fiskalak, ezpata eskuan hartu eta zutik jarri nahi izan zuen, baina trabatu egin zen mahairekin.

– Si quieren la independencia, que los lleven a una isla desierta –garrasi egin zuen– y se mueran de hambre.

Nahiz eta, agidanean, Andonik ahoz gora esan zuena ulertu ez, buruzagi militarrek ez zuten halako desobedientziarik espero epaiketan, beraien mutur aurrean inor hain lotsagabe aritzerik, izututa ordez.

Heriotza zigorra eman zioten Andoniri. Hirurogeita hamabi ordutan, Francok berak kondena sinatu egin beharko zuen edo kommutatu. Ordu luzeak izan ziren, Andonirentzat ez ezik baita Euskal Herri osoarentzat

ere. Mobilizazio ugari egin ziren Francok zigorra alda zezan. Andoniren amak Paulo VI.a aita santuari laguntza eskatu zion, Vatikanoan zegoen jesuita baten bitartez.

Francok, orduan bai, kondena kommutatu zion eta bizi osorako kartzelaldiaz trukatu. Andonik jakin zuenean, Aramaio estu besarkatu zuen patioan, bizi osorako zigor errukiorrarengatik bozkarioz.

Puerto de Santa Marian egingo zituen Andonik urterik gehienak eta hango egonaldiak, preso sozialekin harremantzeak batez ere, moldarazi egin zizkion bere pentsamenduak. Ideia ezkertiarrak sendotzen hasi zitzaizkion. Gauzak aldatu egin behar ziren, bai, baina ez soilik Euskal Herriari begira.

Aramaio adiskideak kontatzen zuenez, Andonik ez zien epikarik jartzen zoritxarreko egun haiei, ez epaiketari ez komisaldegiko tortura egunei, umorezko mendeku txiki bat besterik ez. “Sokatik zintzilik nindutenean eskailera zuloan”, esaten omen zuen, “pentsatzen nuen eroriz gero, han azpian zegoen bizikletaren kontra joko nuela buruaz. Eta pena izango zela bizikleta izorratzea”.

Karmelek telebista bidezko albiste laburrez jarraitu zuen 1970eko abenduaren 3an zabaldu zen makro-prozesua, Burgosko prozesua zeritzona. ETAko buruzagitza osoa epaitu behar zuten. Eskaria: hamasei pertsonarentzat 6 heriotza zigor eta 752 urteko espetxealdiak.

Auziaren oihartzuna mundu mailakoa izan zen. Hemezortzi egunez nazioarteko hedabideak Euskal Herrira begira egon ziren. Azkenean, komandante fiskalak berretsi egin zituen ez sei, bederatzi heriotza zigor baizik –hasieran baino hiru gehiago– eta 519 kartzela urte. Europa osoan ugaritu ziren protestak. Parisen jendetza bildu zen elkartasuna adierazteko eta Francoren erregimena gaitzesteko. Euskaldunek eta, bide batez, antifrankismoak oro har lortu zuten diktaduran gertatzen ari zena nazioartean ezagutaraztea.

Caracasko protestetan parte hartu zuten Anitak eta Karmelek, eta berriz bizitu zitzaizkion hainbat urte lehenago senarrarekin sufritutakoak. Karmeleren ezinegona handitzen ari zen, gero eta kezkatuago semearekin pentsatzen, bazekien-eta ez zituela ekintza

klandestinoak nolanahi utziko, beti ibiliko zela hara eta hona ezkutuan.

1970. hartan, gutxi geratzen zitzaion Karmeleri erretiroa hartu eta Ondarroara itzultzeko, nahiz eta, beste askok bezala, bere buruari agindu zion ez zela bueltatuko sorterrira Franco hil arte. Baina Txominen patuak estututa zeukan, ez zekien nondik zebilen ere, haren berri oso gutxi izaten zuen, eta gainera beti lauso.

– Anita, itzuli egin behar dut –esan zion ahizpari.

Elur asko egin zuen Burgosko prozesuan. Telebistako irudietan, Anitak, elur malutak ikusi zituen militarren uniforme berdeetan itsasten. Irudiek hotza emango baliote bezala, eskuak gurutzatuz besoak berotzeko keinua egin zuen.

Francok amore eman zion nazioartetik zetorkion presioari, eta heriotza kondenak bizi osoko kartzelaldiekin kommutatu zituzten.

146

Zatiketak eta zalantzak nabarmenak ziren ETAren barruan. Buruzagitza eroritakoan, ETA VI.a sortuko da,

borroka iraultzailea hobetsiko duen erakundea. Laster, horietako asko troskismoak erakarriko ditu, bere eginez Parisko 68ko iraultzaren ondorioz sortutako ideia berriak.

Pragako iraultza eta gero, ikusi zuten Ekialdeko herrialdeetako bizimodua ere ez zela mundua hobetzeko bidea, sozialismo erreala delakoa. Ezker alternatiborantz jo zuten kide batzuek. Eta garrantzia hartzen hasi ziren eskubide zibilen defentsari lotutako eskabideak, emakumeen aldekoak, ekologismoak, sexu askatasunak... Haien arteko bihurtu zen Txomin Letamendi Urresti.

Dena aldatu nahi zuten orduan Txominek eta bere lagunek, gizarte ohitura eta mekanismo finkatuak zalantzan ipini, mundua irauli, galtzerdia barrukoz kanpora jartzen ahal den erraztasun berarekin.

Nekanerekin zeukan harremana aurrera zihoan eta, ematen zuen, ohikoena halaxe zelako ezkontzeko tenorea ere iritsi zitzaiela.

– Ezkonduko al zinateke nirekin? –galdetu zion Txominek 1971ko neguko goiz hotz batean.

– Taldean baldin bada, bai.

Horrela, hiru bikote batera ezkondu ziren denak batera eta zibiletik, argi uzteko beraien modernotasun

iraultzailea. Bikoteetako batek, Nekaneren ahizpak, Manolitak, elizkizuna ere nahi zuen, baina euskaraz. Eliza barruan hori debekatuta zegoenez mendian ezkondu ziren, Labetxen. Orduan ohitura zegoen horrelakoak egiteko. Sarritan Guardia Zibila agertzen zen –gonbidapenik gabe– eta ezkontza bertan behera uzteko eskatzen zuen. Eta halaxe ezkondu zen Nekaneren ahizpa, zuriz jantzita eta haurdun, zazpi hilabeteko, mendian, pinu artean, guardia zibilak zelatan zituztela eta kanpai hotsik gabe. Aldarea harkaitzak ziren, kalizari eusten zion ehun sakratua goroldioa zen eta santuak arbolak. Gonbidatuak mendiko botekin eta anorakekin jantzita.

Amak neba-arrebak giltzaz itxi eta ez zien ezkontzara joaten utzi, zer gerta ere.

147

Manu Sotak bisita berezi bat izan zuen Etcheferdian. Sir Alec Guinness aktorea joan zitzaion etxera.

Askotariko zaletasunak daude mundu zabalean, dela berunezko soldadutxoen bildumak egitea, dela jostailuzko trenak biltzea; bada, Guinness jaunak kan-

paiak laket zituen eta, horren karietara, Europako elizetako kanpaien inbentarioa egiten ari zen. Iparraldera iritsi zelarik, Manu Sotarekin hitz egin nahi izan zuen, Cambrigdeko Unibertsitateko irakasleren batek aholkaturik.

Guinnessek galdera bitxiak egin zizkion ezkilez: handiak edo txikiak ziren, zer adierazi nahi zuten soinuek, eskuekin jotzen ziren edo lokarri mutur batekin, noiz eta nola eginda zeuden edo kanoi zaharrik erabili ote zen horretarako.

– Sota jauna, gogoan al duzu zein unetan jo ziren hemengo bazterretako kanpaiak aldi berean azkeneko aldiz?

– Nik neuk batera jotzen entzun nituen *Kwai gaineko ibaia* filmean egindako lanarengatik Oscar saria irabazi zenuenean.

Ingelesak modu onean hartu zuen Manuren ateraldia eta topa egin zuten whiski edalontziekin, leihotik Miarritzera begira.

– Nora joateko asmoa duzu bihar? –galdetu zion Manuk.

– Gonbidapen bat egiteko puntuan zaude.

– Ainhoako elizako dorrea ikusgarria da, ez dago hemendik urrun. Dena den, jakinaren gainean egongo

zara Zuberoan hiru puntako kanpandorreak dauzkatela eliza batzuek. *Hirutako zeinutegia* esaten dute euskaraz. Gotaine, Ezpeize, Sarrikota, Zalgize edo Mitikilera bisitan joan nahi al zenuke?

– Argazkiak egingo ditugu.

Oldarkorrak eta frenetikoak izan ziren Francoren diktadurako azken urteak, eta geroago Espainian Trantsizioa deitu zioten hartakoak. Garai historiko bik, badoan batek eta badatorren besteak, elkarrekin talka egiten dutenean hala jazo ohi da, gertakariak tarrapataka metatzen hasten dira eta, orobat, gertakari horiek bizi dituzten pertsonen kontakizunak, ikuspegi desberdinetatik azaldurik, aniztu egiten dira; istorio arrunt eta xeheak, baina kontraesankorrak direnetan ere zehatzak.

Vietnamgo gerrako triskantzak dituzte gogoan batzuek, edo Krabelinen Iraultza Portugalen. Beste batzuek Augusto Pinocheten estatu kolpean Salvador Allenderen heriotza, edo Puig Antichena, edo Eli Gallastegirena. Shock uneak izan ziren Luis Carrero Blanco Almirantearen hilketa, Madrilgo kafetegi batean 13 hildako utzi zituen Correo kaleko, Gasteizen eliza baten barruan bilkuran zeuden bost langileren herio-

tza Poliziak tirokatu ostean... Asimilatzeko gauza larriak, emozionalki; zalantzarik ez egiteko kontu latzak, politikoki.

Diktaduraren aurka zeudenen artean talde eta zatiketa ugari zegoen, dena atomizatuta; eta gainera, euskal nazionalismo klasikoaren eta mugimendu aurrerazaleen arteko tentsioak beti ziren nabarmenak, sarritan narritagarriak. Gaur egun zentzuzko eta normaltzat hartzen diren borrokek, esate baterako abortuarenak, eztabaida itzelak sortzen zituzten. Ezkerra bera ere estua baitzen alor batzuetan, zaila izan zen gizabanakoaren askatasunak aldarri egiten zituzten ideiak Francoren oposizioan zeuden taldeek onartzea. Borroka feministari dagokionez, Txominen eta Nekaneren giroan ahaztezina izan zen Adela Ibaberen heriotza. 1973ko otsailaren 11n, legez kanpoko abortu bat egitearren odolustuta hil zen. Pasadizo honek arrasto sakona utzi zuen; Oskorri taldeko Natxo de Felipek, Gabriel Aresti poetarekin batera, kanta bat egin zion: “Orain, / batere zaratarik gabe / joan haitzaigu / eskoletan ere, / euskal eskoletan ere, / klaseen arteko burruka / gogorkien / lehertzen zenean, / zeinean / gizonak / gizonen kontra, / eta euskaldunek / euskaldunen kontra / dihardukaten”.

Txomin propaganda lanez arduratzen zen sasoi hartan. ETA VI.ak 1972an bat egin zuen Liga Komunista Iraultzailea izeneko alderdi troskistarekin, eta alderdi iraultzaile berri honek inprenta txiki bat zuenez Bilbon, tintaz papera zikintzea zen Txominen egitekoa. Ezkerra adar ugariko zuhaitza zen, eta adar haietako bakoitzak bazituen bere analisiak eta esatekoak eta salatzekoak; beraz, papertegietan eta inprimategietan zenbat risma eta tinta kopuru saltzen zen kontuan hartuta bakarrik, errepresio indarrei erraza egiten zitzaien norbait legez kanpoko alderdi politikoren batean zebilela asmatzea, ez da munduko bizkorrena izan behar horretarako.

1975eko apirila da, Nekanek zerbait arraroa susmatu du Bilbon, handia da polizien mugimendua, eta ospa egitea lortuko du –aldi hartan amak lagundu zion ihes egiten, nonbait onartua baitzuen nolakoa zen alaba–, baina Txomin atxilotu egingo dute.

Komikoa da Basauritik Carabanchelerako bidea furgoneta barruan. Aurretik zihoazen motorbizikletak eta patruila autoak aldendu egin dira semaforo batean, Gasteizko bidearekin okertuta. Presoek barrutik oihukatzen dute: “Orain ezkerrera, gero eskuinera, orain zuzen...”.

Baina jazarpenak maila bat gora egina zuen. Gaixorik zen Franco generalisimoa, eta agian ahultasun horrexek are ankerragoa bilakatu zuen dena. Txominek kartzelan jakin zuen Ondarroako gaztetxo bat, Koldo Arriola, batxilergoko kurtso bukaerako afari festan zebilelarik kuartelera deitu zutela aurretik pasatu zirenean. Guardia zibilek bere amaren tabernan gosaltzen zuten. Ez zen bizirik atera. Nonbait urduri eta mozkortuta zegoen guardia batek hil zuen mutila.

Nekane ezkutuan zebilen, senarra Carabanchelen preso zen bitartean. Ihesean Bartzelonara heldu zen, han ezaguna baitzuen serora bat, eta hark babestu egin zuen komentuan, klandestinitatean zeuden beste ekintzaile antifrankista zenbaitekin batera. Moja-etxe berean zegoen babes hartuta Juan Paredes *Txiki* ere, Badajozko herri txiki batean jaiotako etakidea, lan bila Zarautzera iritsitako familia apal bateko semea. 1975eko maiatza zen orduan, baina uztailaren amaieran *Txiki* atxilotu egin zuten Bartzelonako Boada kalean eta, epaiketa bizkor baten ondoren, heriotzara zigortu zuten.

ETAko Anjel Otaegi eta FRAP erakundeko Sanchez Bravo, Garcia Sanz eta Baena Alonso bezala, Txiki fusilatu egin zuten irailaren 27ko goizean. Che Guevara-

ren irudia zuen kamisetaz jantzirik argazkietan ezagutu izan dugun gazte hura komentuko klaustroan paseatzen diharduela gogoratzen jarraitzen du Nekanek.

149

Txomin harrapatu zuten 1975eko apirileko egun berean atxilotu zuten bere anaia Patxi ere, Iruñean, Medikuntza ikasten ari zela. Txominen anaia izatearren eraman zuten Patxi komisaldegira –ohiko praktika zen hura, familiakoak ere sarekada berean eramatea–, baina berehalaxe utzi zuten aske.

Izua erraietaraino sartu zioten mutilari. Ikasketak artez bukatu eta gero, derrigorrezko soldadutzara joatea egokitzen zitzaionean, erabaki zuen ez zuela horretarako gogorik, ez eta kuartelean agertzeko asmorik ere aurkeztu behar zuen egunean. Ihes egin zuen Iparraldera. Bere aitonak euskal erresistenteekin batera bidaltzen zituen gazte haien antzera, arrantzontzi batean joan zen, Nekaneren aitaren barkuan hain zuzen ere. Ontziburua ezeren jakitun ez zela, sotoan ezkutatu zuten marinelek, trein eta txankuekin, eta horrelaxe igaro zen bestaldera.

Manu Sotak etxeko ateak zabaldu zizkion gazteari Miarritzen, Karmele Urrestiren eskaria aintzat harturik. Manu bozkariatuta zegoen, antzinako lagun minaren seme txikia Etcheferdian jasotzeagatik. Aitari buruzko ipuin asko kontatu zizkion Patxiri, argazkiak kutxetatik atera eta erakutsi, bien gustukoa zen musika jarri eta aditu.

– Ikusi duzu horko koadroa...

– Bai, ederra eta alaia da gero! –aitortu dio Patxik–, ez diot begirik kendu etorri naizenetik.

– Antonio Gezala izeneko pintore batek margotu zuen. Bilboko gure etxeko hall zabala da hori.

– Liluragarria!

– Eskailerapean dagoen musikari taldean, piano luzearen atzean dagoen tronpetaria nor ote da?

– Nahiago nuke zeuk esatea...

– Zure aita da, bai, Bilbok eman duen tronpetari finena. Oraindik ere entzun nezake gau hartako musika!

Patxik txunditurik aditu zituen aitari buruzko Manuren kontakizunak, benetakoak izan zitezkeela zalantzan jartzeko modukoak ia denak. Eta abentura zoroak balira bezala aditu zituen Manu beraren balentriak, New Yorkeko zerbitzu sekretuen garaikoak.

– Ez al zara ausartuko galdetzen zein pasahitz erabiltzen genuen zerbitzu sekretuetako kideen artean?

– Ez esatekoei buruz ez galdetzeko ohitura daukat, jauna.

– Baina Patxi, ez al zara ba niregana etorri ez esatekoak konta diezazkizudan?

– Arrazoi osoa duzu –barre egin du mutilak Manuren konplizitatezko txantxa entzutean–, jakin beharrekoak esan gabe uzteak, gainera, agian kalte egingo dizu noizbait.

Eta solasean segitu zuten, atsedenik gabe, berriz elkar ikusteko aukera sekula errepikatu ez zela biek balekite bezala.

– Euskaldunak izan gaitezke hau –eta Manuk esku ahurra zabalik erakutsi zion, bostekoa emateko keinua eginez– edo izan gaitezke beste hau –eta ukabila estutu zuen gogor–. Halakoxeak gara, eskua luza diezaiokegu kideari gaur, baina baita ukabila estutu ere amorruz bihar.

Manu ukabila itxita geratu zen, pentsakor. Eta segidan liburutegi itzeleko beheko apalategitik filologia aldizkari ale bat atera zuen.

– Iruditzen zait ukabila estuturik gabiltzala luzaroan. Kezkaturik nauka horrek. Bada liburu bat hamasei-

garren mendekoa, *Refranes y sentencias* izenekoa, esaera hau gordeta duena: “Il eikek eta il aie, ta ire erailea il daie”.

– Zer esan nahi du?

– Uste dut adierazten ari zaigula, nik norbait hil ahal dudala, eta gero ni hilko nautela, eta ostean nire hiltzailea ere hilko dutela, eta horrela etenik gabe. Alegia, hiltzen hasten zarenean ez dakizula noiz etengo den katea.

Urte batzuk geroago, Patxi Erromara joan zen batean, amak egindako mandatuari jarraiki François Nothomb bisitatu zuen, familiaren aspaldiko laguna.

– Venezuelako oihana utzi zuen –azaldu zion amak– eta moja izandako batekin bizi da orain Erroman.

– Noiz arte harrituko gaituzte Nothomb jaunaren bizitzako joan-etorriek?

Etxe bitxi bat zen hangoa, nahasian zituena munduko toki askotako gauza txikiak eta garai oso ezberdinetako oroitzapenen lurrina.

– Anita deitzen da nire emaztea –esan zion Nothombek–. Mintzatzen natzaion bakoitzean zure izeba Anita maitagarriaz akordatzen naiz. Gustukoa dut hori.

Patxik estimu handiz gogoratzen du Erromako juntadizoa. Agur egitean, erantzuten jakin ez zuen galdera bat bota zion Comèteko kide ohiak:

– Euskaldunak, hain jende etikoak izanik beti, nolatan hasi zineten hiltzen?

150

Karmele Urresti 1975ean itzuli zen Euskal Herrira, Txominen egoeraz kezkatuta zebilelako gehienbat. Franco bizirik zegoen artean, baina gutxi falta zitzaion diktadurari. Ailegatu zelarik, lehenik eta behin Antsosolora egin zuen ostera, hainbeste urtetan ikusi gabe zuen etxera, zeina hutsa eta arrotza begitandu zitzaion Frantziskoren eta Karmenen faltarengatik. Gomutatu zen bere haurtzaroaz, anai-arrebez inguratuta, eta irudikatu zituen Txomin senarra eta umeekin batera igarotako uda argitsu haiek.

Etxetik atera eta Arrigorrirako ibilbidea egin zuen, bakar-bakarrik eta astiro, bata bestearen atzetik oroitzapenak jaiotzen zitzaizkion bitartean. Arrigorriko behatokitik dena garbi ikusten zen, hego haizeak itsas paisaia argitu egiten baitzuen. Ematen zuen bertan-

bertan zeudela Getariako arratoia, Donostia eta harantzago Miarritze bera. Josebaz gomutatu zen orduan, nola Angelun hilobiratuta zegoen, Ondarroatik hain urrun, bere azken nahia sorterrian lurperatzea izan arren.

Karmelek ezin izan zituen agurtu ez aita, ez ama, ezta Joseba ere, ezin izan zuen haien hiletetara joan, eta orain herrira itzuli zelarik Amerikako urteen ostean, orain bizi osoan borrokatu zuen diktadura bukatzear zegoela, ez zen kontent sentitzen; nola egongo zen pozik hainbeste urte kanpoan egon eta gero, maite zituenak dagoeneko ez zeuden-eta berarekin, eta seme-alabak ere bakoitza bere aldetik: Txomin kartzelan, Patxi ihesi eta Ikerne Bilbon, bere bizimodua egiten familiarekin.

Karmelek pisu bat hartu zuen Ondarroan, Anitarekin batera bizitzeko, bi ahizpak bakarrik. Gutxika-gutxika neba-arreba guztiak itzuliko ziren Euskal Herrira, Jon eta Miren, beren bi semeekin, eta Josu ere bai, urte luzetan Venezuelan gogor lan egin ondoren.

Etxean bertan erizaintza kontsulta bat jarri zuen Karmelek. Ohatila bat atondu zuen, gaixorik edo zauriturik zetozenak artatzeko, eta mahai luze batean jarri zituen bisturia, artaziak, bendak, botikak... denak

ondo ordenatuta, aitak erakutsi zion gisara, dena garbi eta zuzen, berak lantegian tresnak jartzen zituen dotorezia berdinarekin.

Eta barruko gela batean, Txomin Letamendi Muruaren Conn tronpeta distiratsua.

151

Carabanchelgo espetxera semeari bisitan joan zitzaionean, Karmeleri barrenak mugitu zizkioten hango hormek, usainak eta giroak. Lipar batean hogeita bost urte atzera egin zuen bere gogoak, eta senarra bisitatzera joaten zen garaiaz oroitu zen, eta haren galeraz.

Baina, kemenez, pentsamendu haiek uxatu eta orainera itzuli da, bertan preso baitauka semea, zain, eta Caracasen adio esan zionetik ez dute berriz elkar ikusi. Txomin oso pozik dago ama ikusteaz, nola ez, nahiz eta pentsatu ez dela hau berriz batera egoteko une eta toki aproposena, kartzelako bisita-gela hotz eta zikin batean, eta ama hain urduri, larrituta, asalduzko garai horretan bizi den giro gaiztoarengatik.

– Txomin, gauza bat aitortu behar dizut...

– Zer, ama?

– Seme ona izan zara, esanekoa, zintzoa. Txikitan, egia da, oso bihurria zinen, baina gero ez didazu gerra handirik eman.

– Gaur arte, ikusten duzunez.

Karmele isilik geratu da une batez, eta esan dio:

– Sentitzen dut hainbeste urtez bakar-bakarrik utzi zaitudalako.

Txomin hunkitu egin da, ez zuen-eta espero amaren ahotik halako hitzik, beti izan baitzen apur bat hotza eta zuzena, sentimendurik ia inoiz ere adierazten ez zuena.

– Ez ezazu atzera begiratu, ama. Horrek ez du bueltarik. Franco hiltzen denean, orduan bai, izango dugu astirik elkarrekin egoteko. Gauzak aldatzen ari dira, mundua askatzen ari da, eta ez Euskal Herrian soilik, Espainian, Portugalen, mundu osoan ari da jendea altxatzen. Denok batera egin behar dugu borroka.

– Ez dakit, Txomin. Gustatzen zait zu hain idealista izatea, mundu hobe baten aukeran sinestea... Baina ez dut uste kanpotik ezer jasoko dugunik. Begira, bestela, Agirre lehendakariari zer gertatu zitzaion. Uste dut euskaldunok geuk bakarrik oinez egiten ikasi behar dugula, kanpora horrenbeste begiratu gabe; be-

netan diotsut, gure indarretan sinetsi eta aurrera egin, geure bidean.

Txomin ez zegoen eztabaidan jarduteko. Amak ez zuen halakorik merezi. Gaia aldatu zuen, eta gauza hutsal baina atseginez aritu ziren, premiazkoak baitira horiek ere, bisita ordua ahitu zen arte.

Ziegara itzuli zenean, amaren oroitzapena lausotzen joan zen eta Nekanerena argitzen; eta pentsatu zuen orduan berak ez zuela nahi gurasoei gertatutakoa beraiei jazotzea, horrenbeste urte aldendurik, horrenbeste urte bakarrik. Ez, berak, Nekaneren alboan izan nahi zuen kartzelatik ateratzen zenean, Gabriel Garcia Marquezen *Ehun urteko bakardadea* edo Italo Calvinoren *Baroi arranpalaria* nobelez mintzo zitzaion neska harekin, Sartre eta Beauvoirren harremanaz aditu baten ziurtasunarekin hitz egiten zion emakume harekin, esaten ziona “bizitzari den-dena eskatu behar zaio, eta bete-betean bizi”; eta betiereko maitasunik sekula ere aginduko ez zion arren, maitasun handia ematen zion bueltan ezer eskatu gabe, elkarrekin zeuden une hori infinitua bihurtuko balu bezala, borondate eta askatasunari lotutako maitasuna. Eta akordatu zitzaion, jarraian, nola joan ziren mendira ekaineko arratsalde batez, eta ikusi zituzten belaze

zabalak, inoizko berdeenak, belarra hazita zegoela, eta hantxe oinekin zapaldu eta ohantze bat atondu zuten, eta bertan etzan ziren elkarrekin, han belar luzearen babesean, gorderik, ohantze natural hartan, eta elkar maitatu zuten libre, animaliatxoak balira bezala, naturaren hots txikiak entzuten; eta gero belarizpi bat ahoan sartu eta zeru urdinera begira geratu zen Txomin, eta zeru eskergak eta lur hezeak legez beraiek ere bat egiten zutela sentitu zuen, une batez bada ere... Eta begiak zabaldu zituen ziegako ohean eta ikusi zuen sabai usteldua, karratua hura ere, muino hartako zeru urdin karratuarekin zerikusirik batere ez zuena.

152

1976an Espainiako Gobernuak emandako amnistia partzialarekin irten zen Txomin Letamendi kalera, uztailaren 30ean, Marcelino Camacho buruzagi komunista espainiarra “ez gaituzte ez menderatu ez makurrarazi, eta ez gaituzte otzanduko” esanez atera zen egun berean.

Dena den, Txominek askatasuna berreskuratu zuelarik ez zuen beste munduko suhartasunik nabaritu kalean. Franco 1975eko azaroaren 20an hil zenean lehertutako alaitasun zalapartaria pixkanaka nahastu eta herdoildu egin zen, pozaren atzetik kezka etorri zen kasu askotan, halako sentipen gazi-gozoa. Ez zen erraza adostasunetara heltzea, tentsioa nabari zen politikan eta artegatasun hori zabaldu egin zen jendartean ere.

Gazte iraultzaileek uste zuten bazeudela baldintzak aldaketa sakon bat emateko, baina Espainian eskuindarrek irabazi zituzten hauteskundeak eta Alderdi Komunistak espero ez zituen emaitza kaskarrak izan zituen %10eko bozekin. Gero desengainua hedatu zen, eta iraultzaile haietako batzuk, gazteenak, heroinaren zurrunbiloan sartu ziren, mundu errealetik ihesi, paradisu artifizialetara joz.

Euskal gizarteko sektore batek ez zituen onartu Espainiako Konstituzioa eta Gernikako estatutu autonomikoa. ETAk, zatiketaz zatiketa, bere jarduerarekin jarraitzeko erabakia hartu zuen. Talde paramilitarren bortizkeria ere asko bizkortu zen urte haietan.

1978ko abenduaren 27an, Iñaki nire lehengusua, Andoni Arrizabalaga ihesean zihoalarik ohera sartu zi-

tzaiona, Gabonetako oporrak profitatuz herriko liburutegira joan zen. Arrotz esnatu zen eguna Ondarroan, hego-haize zakar batek epeltzen zituen bazterrak, ez zuen ematen negua zenik. Hutsik zegoen liburutegia, lehengusua bertara ailegatutakoan ohartu zen beste gaztetxo bat besterik ez zegoela barruan.

Liburuzaina Jose Mari Arrizabalaga zen, 27 urtekoa, Karmenen ikasle izandako Migel Anjel alkate frankistaren anaia, hain zuzen, eta hura bezain eskuindarra, gazte karlisten burua.

Apalategitik atlas bat hartu eta orriak pasatzen ari zen lehengusua, bat-batean tiro-hotsek ikaratu egin zutenean. Ez zekien zer arraio gertatu zen, mapei begira loturik egon zen-eta ordura arte. Burua zutitu eta ikusi zuen liburuzaina hilik zetzala lurrean. Paperak barreiaturik, behegaineko liburuetako bat zabalik, orriak zikintzen zituen odolak ez zuen hizkiak irakurtzen uzten.

153

Gezalaren *Artisten gaua Ibaiganen* margoa gomutan hartzen dut behin eta berriz. Olio-pinturako dan-

tzariak eskuan darabil makila lumaduna, biraka, gure ludia bere orbitan bezala. Duela ez asko, Zumaiako flyschera egindako bisitaldi batean, zeinak azala galdua duen liburu erraldoi baten bizkarra dirudien, plegu guztiak bistan, gidak azaldu zigun lurraren historia luzea asmatu ahal dela haitzaren geruza desberdinei kasu eginez gero. Izotzaldiak eta beroaldiak markatuta datoz, geruzek badituzte kolore argiagoak edo ilunagoak. Baina benetan deigarria egin zitzaidana hauxe zen: lurraren orbitaren araberakoak direla garai hotzak edo beroak, eta orbitaren aldaketak muda dezakeela planetako klima; 22’1 gradutik 24’5erako oszilazio txiki bat aski da kalte handiak eragiteko.

Ze unetan pasatu ginen gu, herri bezala, izotzaldi luze batera? Gure kontzientziek ere orbita aldaketa bat izan al zuten? Zergatik ez genuen aurreikusi, gizabanako eta gizarte bezala, gerora gertatuko zena? Zergatik ezin izan genuen geratu indarkeria espiral hura? Zergatik isildu ginen askotan? Zergatik ez genuen onartu bestearen sufrimendua? Zergatik bihurtu ginen harrizko, Ondarroako elizako irudi haien antzera?

Ez naiz gai orain galdera horiei taxuzko erantzunik emateko, ez naiz nor sentitzen balizko erantzun horiek

neure buruari sinetsarazteko ere. Baina, behinik behin, egun nahi dudana da atzera begiratu eta orduan sufritu zuten guztien lekuan jartzea, beraien mina sentitzearren neurea balitz bezala. Eta ondoren beraiei entzun, banan-banan entzun, nahiz eta haien kontakizunak desberdinak edo kontrajarriak izan; eta gero egiara hurbildu, jakinik egia osagarria dela beti, pieza asko dituena, pertsonak adina agian, eta ikuspegi eta sentipen desberdinak biltzen dituela bere baitan.

Bihoztu nahi nuke garai berri bat, abian dena dagoeneko, klima epelago batekin, justua eta librea. Badakit denbora behar dugula, baina bagoaz pixkanaka, eta gainera, Simone Weilek zioen bezala, nahikoa da bi edo hiru pertsona oinez hastea, ondotik jendarte osoa bide beretik joan dadin.

154

Manu Sota 1979ko abenduaren 29an hil zen. Pare bat dozena lagun joan ziren Getxoko San Jose Obreron egin zen hiletara. Itxikeria eta sektarismo handiko giroa zen ordukoa; batzuentzat Manu izango zen aris-

tokrata burgesa, edo bere biografia zertxobait ezagutzen zutenentzat Agirreren garai zaharretako pertsonaia, edo modaz pasatako erdal idazle ahaztua. Nahiz eta independentista izan hil zen arte, bere bizitzako azken urteetan dezepzio anitz izan zuen, Etcheferdiara zerga iraultzailea eskatzen zuen gutuna iritsi zenean bezala.

Lourdesko erromes gunera andari lanetan laguntzera udaro joaten zen agure haren, “mundura besteei laguntzeko jaiotzen gara” zioen idazle haren hiletara ez zen ia inor agertu, ematen zuen ez ziola inori axola gizon berezi hark. Nolanahi ere, eliza kanpoan, zertxobait urrundurik, Agirre lehendakariaren hiletan Manu Sota bezala, Karmele Urresti eta Ikerne Letamendi zeuden, adiskideari eta aitabitxiari gorazarre egiten.

Agur, agur Manu Sota jauna, agur t’erdi.

Hemen gire.

AZKENA
2010-2011

155

Nobelaren eta bizitzaren arteko ezberdintasunak asko dira, baina esaldi bakar batean laburtzearren esango nuke: nobela gauza itxia da eta bizitza zabala. Eleberriak, eraginkorra izan dadin, kontakizuna lotzen jakin behar du, haririk solte ez uzten ehuntzen ari den oihal erraldoian. Bizitza, ordea, egiten doa egunez egun, mudatzen eta garatzen; eta hari solte asko dituenez gero, egundo ez dakizu nora eramango zaituen. Pertsonaiak benetakoak diren eleberrietan idazleak hautatu egin behar du zer kontatu eta zer ez, biribiltasuna edo sinesgarritasuna lortze aldera. Baneukan aukera pertsonaiei izenak aldatuz liburu erabat fikziozkoa idazteko, eta hori amarru amultsu moduko bat izango zatekeen, zilegitasuna emango lidakeena

jolas literarioa nahierara egituratzeko eta edertzeko, baina ez beharbada beti egiaren aldamenean egoteko ihesbiderik hartu gabe.

Nobela 1979. urtera arte iritsi da, Manu Sotaren heriotza egunera arte. Baina harrezkero gauza mordoa gertatu da, noski, Letamendi-Urresti familiaren bizitzan. Esate baterako, udaletarako lehen hauteskundeetan Karmele eta Txomin ama-semeak hautetsiak izan ziren Ondarroan, bakoitza alderdi banatan; semea LKIko kide legez aurkeztu zen eta, aldiz, ama Herri Batasuna koalizio sortu berriko kide, Monzonen ibilbidearen antzera. Asko dira nobelatik kanpo geratu diren oroitzapen eta pasadizoak. Ikerne aktorea izan zen Antxon Ezeizaren *Ke arteko egunak* filmean, erbestetik zetorren protagonistaren emaztearen rolean. Txominek bikoizketa lanak egin zituen, eta euskaraz ikusten genituen galai amerikar batzuen ahotsa berea zen. Patxi medikuak bihotz eta birika andana baten zaintza egin zuen urtetan Bilbon. Eta Karmele, laurogei urterekin, Antony egoitza ikustera bueltatu zen Ikernerekin batera, ihesean zebilen bilobari Parisera egindako bisita baliaturik; lurrean koltxoi baten gainean lo egin zuen pisu batean, eta erabat gaztetu omen zen egun haietan, Ikernek kontatzen duenez.

Beti galdetu izan diot neure buruari gure garuneko zein tokitan gorde eta metatuko ote diren oroitzapenak; eta zein den haiek antolatzeko era, bata bestearen gainean ote dautzan Atlas hegoaldeko buztinezko etxeen gisa edo katedral gotikoak bezala, antzinagoko eliza erromanikoak estaliz eraiki izan baitziren maiz, eta hauek era berean antigoaleko tenplu erromatarren oina profitatuz, edo aitzitik era kaotikoago batean biltzen ote diren tropikoko oihanen antzera, edo beharbada pilatzean forma fraktalak eratzen dituzten, gure barruan hodeiak eta olatuak eta kristalak sortuz, elurrarena bezain forma ederrekin, nahiz eta zauria ere eragin dezaketen haiengana hurreratuz gero; eta zergatik gomuta batzuk geratzen ote diren horren agerian, desengainua haur baten begietan legez, lehen planoan, eta beste zenbait horren ezkutuan, nola hitz egokiak unerik zailenetan.

Garun barneko liburutegiak balira, ordena alfabetikoari jarraiki apalategietan pilatuko ziren gogorapenak, edo gaika: hala nola, maitasunezkoak, oinazeari

lotuak, izuari, haurtzarokoak, ezinegonari atxikiak, ezintasun eta etsipenari, bizipen erotikoei eta azkenik zorionari. Baina ez, gauzak ez dira gehienetan norberak irudikatzen dituen modukoak izaten, eta oroitzapenak tematikoki metatzearen ideia hori metafora ederra izan arren, eta nahiz eta defendatzailerik ere izan baduen iraganean, ez zaio erabat egiari lotzen.

Nik dakidan arte, badirudi oroitzea lotuago dagoela espazioari denborari baino, zeren “denboraren gezia” esaten zaion horri ez baitio jaramon handirik egiten garunak; gure bizitza gertakizunen jarraipen bat izanik gure burmuinak ez du hala jasotzen, esan nahi baita oroitzapenak ez doaz bata bestearen atzetik, eta horren adierazle da txikitako gertakari bat azal-azalean izan dezakegula eta, aldiz, ez garela gomutatzen atzo bertan jazotakoaz. Aspaldian, libururik eta are gutxiago internetik ez zegoen garai hartan, memorizatzeko tekniken oinarria zen oroitzapenak gauzekin lotzea; jauregi bat irudikatzen zuten, gelaz gela, eta oroitzapenak bertako altzariekin erlazionatzen ziren, hartara objektua gogoan hartuz gomuta ere jaioko zelakoan burura –Mateo Ricci XVI. mendeko misiolariaren kasua datorkit burura, zeinak Txinako

enperadorea harri eta zur utzi zuen teknika hori erabiliz gauzak gogoan hartzeko zuen gaitasunarekin–.

Nolanahi dela, gure burmuina ozeano handi bat da eta hango mendikate ikusgarriak eta munstro beldurgarriak ezagunkizun dira oraindik.

Kontu jakina da, hori bai, oroitzapen bakoitza emozio bati lotuta dagoela, eta horregatik esan ohi dugu gogorapenak onak edo txarrak direla, atseginak edo mingarriak; eta gomutak gordeta dauden kutxak zabaltzeko bidea ere emozionala izaten da askotan, lurrinen bat usaintzean, paisaia bat berriz ikustean, larruazala ukitzean, ahots bat ezagutzean edo kanta bat aditzean.

Baina zer gertatzen da oroitzapenik ez duzunean? Ustez bizi behar zenuen hori benetan bizi izan ez duzunean? Norbere bizitza zulo beltzez beteta dagoenean?

Ikernek, Txominek eta Patxik uste izan dute beti munduaren ulermenak bi maila zituela, bi unibertso paralelo existituko balira bezala, non batean gizartearen gehiengoa zegoen, eta bestean beren familiaren bizipenak, gordean bizitako emozioak eta sentipenak. Jende guztiak izan dituen gogorapenetatik asko beraiek ez dituzte, atalak falta zaizkie bizitzan, eta hu-

tsune horiek betetzea izan da agian beraien bizitzako helburu behinena, galera horiei buru egitea. Urteek aurrera egin ahala, gainera, eta batek baino gehiagok aurkakoa pentsatu arren, hutsune horien garrantzia gero eta handiagoa bilakatzen da; gorputzaren erreinua itzaltzen hasten denean, edertasuna adimenean babesten da, jakinminean, ez dakizun hori argitu nahi horretan. Eta orduan, gure gorputza, gela askotako palazio handiak gobernatu ezinik etxerik txikienean babesten da, eta etxe txiker horretako sukaldeko sua da, beharbada, ezaguerak izekitzen duena.

“Gabeziak sortzen du desira” esan zidan Patxi Letamendi medikuak, “arrazoi zuen horretan Freudek”. Patxiren arabera, hiru seme-alabek halako babes antzeko bat sortu dute aitaren gabeziaren aurrean: Ikerne babestu zen bere berezko xarman, Txomin iraultzan eta Patxi beldurrean. Hirurek nozitutako aitaren faltak eta, ostean, urte askoan amaren absentziak sortu zizkieten ezkutaleku horiek.

50etako urte ilunetan dena zen galera, dena hondamena, dena isiltasuna. Eta Ikernek, Txominek eta Patxik ez zuten sekula jakin non hilobiratuta zegoen aita, non zegoen gorpua. Ez zuten horretaz amarekin

inoiz hitz egin, egundo ez zuten aita hilerrian bisitatu. Isiltasuna eta beldurra.

157

Karmele Urresti 2010eko maiatzaren 23an hil zen, igandez, 95 urterekin, Ondarroako bere etxean, hiru seme-alabez inguratuta. Zaharra sentitzen zen, nekatua, “ez dut gehiago bizi nahi” aitortu zien. Ez zebilen osasunez makal, eta ehun urte ere beteko zituen, baina duintasunari eutsi nahi zion azken une hartan ere. Eskatu zion seme medikuari ez emateko botika gehiago, uzteko bakean hiltzen, lasai, atseden hartzen. Eta halaxe egin zuten.

Amaren heriotzak piztu zion Ikerneri bere gurasoei buruz gehiago jakiteko irrika, bizitza osoan izan zuen hutsune handi hori nolabait bete nahian, eta informazio bila hasi zen. Bere buruari galdetu zion non hilobiratuko ote zuten aita, ikara sartu zitzaion, gorpuzkia hezurtegi batean sartuko ote zuten eta galduko ote zen haren arrastoa.

Baina bihozkada batek agindu zion deitzeko Madrilgo lehengusinei, Juanen eta Angelesen alabei,

suerte pixka batekin beraiek jakingo zuten zer edo zer. Estuturik, urduri, telefonoa hartu eta Madrilera hots egin zuen Ikernek. Kortesiazko hiru lau galdera eta gero, ausartu zen Ikerne, bizitza osoan barruan zuen zalantza argituko zion galdera egitera.

– Jakingo ez dugu ba non hobiratu zuten zuen aita! Carabanchel barrutiko San Justo kanposantuan.

Ikerne zur eta lur geratu zen, eta mina sentitu zuen bihotzean, ezten bat sartuko balitzaio bezala.

– Hirurogeita bat urte pasatu dira... honezkero gorpua hezurtegian izango da agian.

– Bai zera! Gure aita fina zen horretan. Anaiaren hilobia betirako ordaindu zuen. Han egongo da. Gordeta daukat hobiaren zenbakia.

Ikernek ezin zuen sinetsi. Madrilen zegoen aitaren gorpua. Urduri, astirik galdu gabe, nebei deitu eta bi egun barru hantxe zeuden hirurak, San Justo hilerrian, 2011ko otsailaren 6an.

Txominek bideoz hartu zuen dena. Beraien emozio-oihuak eta iruzkinak grabatuta daude bertan; lehenik zuloa idoro dutenean, gero kutxaren gainean Pinotxo Aburtok utzitako lore-sorta aurkitutakoan. Langileek kutxa atera eta aldare antzeko batean paratu

dute. Giltza eman diete hilkutxa zabaltzeko eta, begirunez, bakarrik utzi dituzte neba-arrebak.

Ikernek zabaldu du giltzarrapoa. Hantxe dago aita, beneditar arropaz jantzita, gazte, oso gazte, beraiek baino askoz gazteagoa, 49 urterekin hil baitzen aita eta seme-alabek orain hirurogei urtetik gora dituzte. Toki lehorrean egon izan delako-edo, hilotzak baltsamatua ematen du, azal fin-fina dauka, ilea, dena.

Patxik, artega, atorra hautsi nahi zion jakiteko nola eta zergatik hil zen aita benetan. Hiruren artean egin zuten, kontu handiz. Ikusi zuen medikuak masailezurra hautsita zuela, ez zuela hortzik, eta bizkarrean zulo bat zeukala. Tratu txarren aztarnak alde batetik, eta bestetik medikuek bizia salbatzeko egin zizkioten ahalegin guztien arrastoak.

Une hura askatzailea izan zen hirurentzat. Aitaren gorpua aurrean izatea, dolua egiteko ezinbestekoa zitzaiena. Urteak hutsune harekin bizi eta gero. Patxi heriotza duinaren eta doluaren garrantziaz mintzatu zitzaidan, Bilbon berarekin izandako azken elkarrizketan; John Bergerren aipu bat ekarri zidan gogora: “Hildakoak bizidunen ingurumarian daude. Bizirik gaudenak gara hildakoen erdigunea”.

Aitaren hilotzari begira, itaun andana jaio zitzaien. Zergatik ez zien amak esan aita non zegoen? Garai bateko beldurragatik? Zeukan traumarengatik? Iragana atzean utzi nahi zuelako behingoz? Eta ondotik beste makina bat galdera. Zergatik esan zion aitak baietz Agirreri familiako beste kide batzuek, amaren lehengusuek adibidez, ezetz esan ziotenean?

Inoiz ez da erantzunik izango.

Gorpua Bilbora eraman zuten, erraustu eta hausterreak Artxandan botatzeko, batzuk gudarien monumentuaren aurrean eta beste batzuk San Roke baselizaren aurrean dagoen zuhaitz txiki baten oinean. Txominek bota zuen hitzaldia, bere umore bereziarekin: “Kostatu zaizu hona iristea” esan zion aitari, eta jakinaren gainean jarri zuen ama ez zela beste inorekin elkartu, “ez dakit zu horren fidela izango zinen”.

Ikurrin batean hautsak bildu eta *Eusko gudariak* kantatuz aireratu zituzten.

158

Txominek grabatutako bideoa ikusi ondoren, bizikleta hartu eta Lekeitiorantz egin nuen, aldapan gora,

astiro, eta gero azkarrago, aldapan behera, gurpilaren erradioen hotsa entzuten, eta iparraldetik zetorren haize fina sentitzen aurpegian, barrutik lasaitzen ninduen itsas brisa hura, eta orduan gogoan hartu nuen Txomin Letamendi tronpeta-jolea eta eskuak askatu nituen eskulekuetatik eta zabaldu airera, pentsatuz, menturaz, askatasun une bera sentituko zuela Txomin Letamendik ere bizikletaz zebilenean Parisen barrena, eta agian Paris utziko zuela eta St. Germain-en-Layera abiatuko zela, Château de Belloyra, eta hantxe ikusiko zuela Karmele koilara eta arrautza ahoan, lasterka egiten gainontzeko emakumeekin, Julenerekin, Garbiñerekin, Pepitarekin, Mirenekin, Aurorarekin, Anitarekin, Axunekin, Maitanerekin, Felixarekin... eta bitartean animatu egingo zuela Txominek, eta barre egingo zuela Karmelek, eta seme-alabek horrela oroituko dutela Karmele, irribarre batekin, distirant, amorratuta koilaratik arrautza erori zitzaiolako, bozkarioz baina amorratuta emakume duina zelako, eta berriz jarriko zuela arrautza eta jarraituko zuela jolasean, erortzea eta berriz altxatzea baita bizitza, eta gero Karmele Txominekin batuko zela eta biek biziko zutela, beraiek ere bai, ordu hau, elkarrekin esnatzeko ordua.

EGILEAREN OHARRA

Fikzioaren logika narratiboari jarraiki idatzita dago nobela hau, baina pertsonaia guztiak hezur-haragizkoak direnez eta gertakizunak ere egiazkoak, idazlearen lizentzia izan da pasarte batzuk irudikatzea.

Inor baino lehen, Letamendi Urresti familia eskertu nahi dut, onartzearren beraien historia miresgarria kontatzea, eta beti erraztasunak ematearren hala eskura dituzten agiri eta argazkiak uzten nola galderei uneoro erantzuten. Ikerne, Txomin eta Patxi, oso estimatua da zuen laguntza.

Elkarrizketak egin ditut Patxi Alkorta *Baldomin*, Arantzazu Amezaga, Iñaki Anasagasti, Jesus Mari Aramaio, Josu Arrizabalaga, Jose Felix Azurmendi, Pedro Bengoetxea *Bonberu*, Iñaki Egaña, Natxo de Felipe, Iñaki Goiogana, Xabier Irujo, Juan Carlos Jimenez de Aberasturi, Pilar Mur, Koldo San Sebastian, Ramon de la Sota, Unai Ugalde, Begoña Urbieta eta Gaizka Urrestirekin. Eskerrik asko denei.

Manu Sotari buruzko informazioa eman didate Jose Julian Bakedanok eta Leopoldo Zugazak. Haren gutu-

nak irakurtzen utzi zidan Jose Maria Sotak. Eta Manuk 1941ean New Yorken idatzi zuen eguneroko argitaragabea, harri bitxia, nire esku utzi zuen Pedro Sotak.

Antonio Gezalaren oinordeko bik, Oier Aranzabalek eta Ramon Etxebarria de Gezalak, margolariari buruzko xehetasunak eman eta obrak erakutsi zizkidaten. Orobat, eskerrak Bilboko Arte Ederren Museoari berriz ere.

Josep Benet eta Kataluniako erresistentziari buruz Jordi Amatek eta Antoni Batistak emandako argitasunak garrantzitsuak izan dira.

Jose Antonio Agirreren 1941eko dokumentala utzi zidaten Natxo Escobarrek eta Iker Trebiñok.

Ondarroari buruzko datuak Ondarroako Historiazaleak elkartekoei irakurri eta entzun dizkiet.

Mikel Reparazek lagundu zidan New Yorkeko agiri zenbaitekin.

Amelie Nothomb idazleak osaba Jean-Françoisi buruzko oharrak eman zizkidan.

Josemari Isasik hainbatetan erakutsi dit fikzioaren bidea, eta Aitor bere anaiak lagundu du itzulpenean.

Bilboko Foru Liburutegia, Euskadiko Artxibo Nazionala, Ondarroako Txomin Agirre Liburutegia eta Arxiu

Nacional de Catalunyako langileek ate guztiak zabaldu dizkidate.

Bilboko Astarloa liburu-dendakoek, noan bakoitzean, tokitxo bat egiten didate.

New Yorkeko Ledig House idazleen egoitzan idatzi nituen nobelako lehen lerroak 2015eko udaberrian. Gainerako guztiak Ondarroan, etxekoen aldamenean.

Laguntza eta adorea eman didazuen guztiei, mila esker bihotzez.